

harrietaherri #50

Gabriel Aresti

Artikulu Bilduma

- Ibon ARESO
- Miren Josune ARIZTONDO
- Bernardo ATXAGA
- Harkaitz CANO
- Unai ELORRIAGA
- Aingeru EPALTZA
- Xabier KINTANA
- Karmelo LANDA
- Anjel LERTXUNDI
- Toti MARTINEZ de LEZEA
- Miren Agur MEABE
- Txomin PEILLEN
- Xabier SAGREDO
- Ana Maria TOLEDO
- Joan Mari TORREALDAI
- Kirmen URIBE
- Arantza URRETABIZKAIA
- Andres URRUTIA
- Angel ZELAIETA

2017

harri etaherri

Gabriel Aresti

#50

2017

harri etaherri

Gabriel Aresti #50

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Hizkuntza-orrasketa:

Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Koordinatzailea eta edizioaren arduraduna: Xabier Kintana

© *Harri eta Herri* liburuarena, Gabriel Arestiren oinordekoak

© Argitaraldi honena (2 liburukitan): Euskaltzaindia.
Egilea, artikulua bakoitzarena

Laguntzaileak:

Gabriel Aresti kultura elkarteak

Bizkaiko Foru Aldundia

Bilboko Udala

BBK Fundazioa

Diseinua: Gabriel Aresti kultura elkarteak

Maketatzea eta Inprimatzea: Grafo

ISBN: 978-84-943211-0-8

Lege-gordailua: BI-1796-2014

harri eta herri

Gabriel Aresti #50



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



GABRIEL ARESTI
KULTURA ELKARTEA

Laguntzaileak:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



2014

Aurkezpen gisa

Lege gordailuak 1964. urtea zela adierazten digu. Data eta datu zinez adierazgarria, bere laburrean irudi lukeen baino askozaz informazio gehiago ematen diguna. Debekuak bitarteko, euskaraz liburu gutxi argitaratzen ziren orduan; argitara ateratzen ziren liburu apurrak, zentsuraren esku beltzaren galbahetik pasatu ondoren, edo norbaitek, kontrabando gaiak izan balira bezala mugaz bestaldetik ezkutuan ekarrita iristen ziren Hego Euskal Herriko irakurleen eskuetara; hurrengo urtean Durangoko Liburu Azokara joaten hasiko ziren irakurle horiek buruz zekizkiten urteko ekoizpen osoaren izenburuak; artean lau urte falta ziren Euskaltzaindiak idatzizko hizkuntzaren estandarizatorako aurreneko arauak eman zitzaiz eta, hartara, liburu haiek zein bere euskalkiari plazaratzen ziren; baina, debekuak debeku eta eragozpenak eragozpen, herriaren altzotik bazetorren, etorri ere, laster bazterrak inarrosiko zituen idazle belaunaldi gaztea.

Hain zuzen ere, halako lege gordailua zegokion liburuaren egilea idazle gazte haietako bat zen. Gabriel Aresti zuen grazia, bilbotarra eta euskaldun berria zena eta poesia soziala lantzen zuena. Gainera, artean hizkuntza idatziaren batasunik izan ez arren, euskara batu antzeko batez idazten zituen liburuak, gerora euskara batua izango zenaren atalase eta akuilu gisa, bera guztiz sinetsirik baitzegoen euskarak, aurrera egingo bazuen, noraezezkoa zuela beste hizkuntza askok jada emandako pauso hori ere ematea.

piedra y pueblo

Halako lege gordailua zegokion liburuak *Harri eta Herri* zuen izena, eta izen hori ere zinez adierazgarria dugu, haren bidez denboran irauten jakin duen herri zahar bati gizarte eredu bidezkoago bat lantzen hasteko deia egiten baitzion Gabriel Arestik.

Ingurumari horretan kokatu eta ulertu behar dugu Gabriel Arestik duela 50 urte idatzitako funtsezko liburu hau, forman eta mamian euskararen azala eta literatur gaiak errotik eraberritu zituen. Orain, urteurrenaren aukeraz baliaturik, Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti Kultura Elkarteak argitalpen berezi hau egitea deliberatu dute, bi helburu batera betetzeko xedeaz: bate-tik, gure iragan hurbileko harribitxi hau berreskuratzea, liburu-a estreinakoz argitaratu zen bezala eskainiz, eta, bestetik, egungo irakurlearentzat eduki ditzakeen balioak aztertzea, zenbait euskaltzainek eta egilek idatziriko artikulua bilduma oparoa bilduz. Horietako batzuek Gabriel bera ezagutu eta tratatzeko aukera izan zuten; gazteagoak, aldiz, haren idazlanen bitartez hurbildu ziren bilbotar poetagana. Ikuspegi ezberdinak beraz, baina elkarren osagarri. Horrexegatik dauzkazu bi liburuki kutxaren barruan.

Bukatzeko, argitu beharra daukagu, *Harri eta Herri* liburuaren jatorrizko argitalpenarekin leialak izan guran, testua euskaraz eta erdaraz aurkituko duzula eta dena zegoen-zegoenean utzi dela, ortografia, puntu batzutan eguneratzeko egin diren aldaketa txikiak izan ezik.

piedra y pueblo

harrietaherri

Kopla, bertso, ditxo eta poemak

piedra y pueblo

OFRECIMIENTO

El final propósito de este libro se lo ofrezco al señor párroco Martín María de Arrizubieta y Larrínaga y al joven fraile franciscano José Azurmendi y Otaegui.

Además, al primero los poemas A, B y W de la segunda parte.

Al segundo, los poemas D, G y Z de la segunda parte y el que lleva la letra M de la tercera parte.

Desde aquí le debo agradecer al señor Antonio Arrúe el haber sido mi único crítico. Le doy contestación con el poema llamado VASCUENCE CLARO, un recuerdo para mi precrítico, el señor Angel Irigaray.

Las coplas a quién, y al señor Luis Michelena.

Los dichos sobre Atsular a Manuel de Lekuona.

Los dichos sobre el dinero a Rafael Castro.

Los restantes dichos a Ciriaco Párraga.

El poema A de la primera parte a Dominique Peilhen.

El poema C a las hermanas Guéréçague.

El poema D a mi difunto camarada Julián Landajo, en recuerdo de la muerte que tuvo en Zorroza.

Los poemas E e I a los poetas José María Basaldúa, Vidal de Nicolás, Gregorio San Juan y Julio Maruri.

El poema F a Valentín Aurre Apraiz.

El poema H a Blas Otero.

Los poemas G y J a Mikel Lasa.

Los poemas K, L y M a Antonio Jiménez Pericás.

El poema F de la segunda parte en recuerdo de los últimos días de Severo Altube.

El poema H al sabio José Miguel Barandiarán.

El poema J a mi hermano Juan María.

El poema C a Darío Ruíz Gómez.

El largo poema Q al escultor Jorge Oteiza.

ESKEINTZA

Liburu honen azken asmoa Martin Maria Arrizubieta eta Larrinaga jaun erretoreari eta Josepe Azurmendi eta Otaegi frantziskano fraile gazteari eskeintzen diet.

Gainera, aurrenekoari bigarren parteko A, B eta W poemak.

Bigarrenari D, G eta Z poemak, bigarren partekoak, eta hirugarren parteko M letra daramana.

Antonio Arrue jaunari eskerrak eman behar dizkiot hemendik, hura izan delako nire kritiko bakarra. Erantzuna ematen diot EUSKERA KLAROA deitzen den poemarekin. Aingeru Irigarai jaunari, nire pre-kritikoari goraintzi bat.

Koplak nori eta Luis Mitxelena jaunari.

Axularren gaineko ditxoak Emanuel Lekuonari.

Diruaren gaineko ditxoak Rafael Castrori.

Gainerako ditxoak Ziriako Parragari.

Lehen parteko A poema Dominiko Peilheni.

C poema Gereziaga ahizpeari

D poema Julian Landajo nire lagun zenari, Zorrotzan izan zuen heriotzaren oroipengarri.

E eta I poemak, Josepe Maria Basaldua, Vidal de Nicolas, Gregorio San Juan eta Julio Maruri poeteri.

F poema Balendin Aurre Apraizi.

H poema Bladi Oterori.

G eta J poemak Mikel Lasari.

K, L eta M poemak Antonio Jimenez Pericasi.

Bigarren parteko F poema Sebero Altuberen azken egunen oroitzapenean.

H poema Josepe Mikel Barandiaran jakintsuari.

J poema Joane Maria nire anaiari.

C poema Dario Ruiz Gomezi.

Q poema luzea Jurgi Oteiza eskultoreari.

PRIMERA PARTE

LEHEN PARTEA

piedra y pueblo

A) PALABRAS ROTAS PARA DOM. PEILEN

*Aquí está el hombre. En
este papel. Estoy.
Me siento
superhombre.
Y a veces
no me
siento.
Ahí donde marcha, no sé
por dónde;
acaso va en el tranvía de Lemoa.
Pero él está aquí,
en este
papel.
Aquí ha puesto
su cosa. Su fosa? Su losa? Ni su rosa.
Dijo:*

Señor, este su humilde servidor ha sabido
que en esa casa está libre el cargo de porte-
ro. Por ello, encontrándome en absoluta pre-
cisión de conseguir un sotechado, tengo pla-
cer en ofrecerle mis servicios, y además
además... además... además...

Dios salve a España.

Tal día de tal mes. Ocharcoaga.

A) DOM. PEILHENI HITZ APURTUAK

Hemen dago gizona. Paper
honetan dago. Nago.
Gizonago
Sentitzen naiz.
Ta maiz
eznaiz
sentitzen.
Hortik dabil, eztakit
nundik;
agian
Lemoara doa tranbian.
Baina hemen,
paper honetan
dago.
Hemen imini du
bere zera. Zer da? Ezer ezta. Eder festa.
Esan zuen:

*Jauna, berorren zerbitzari apur honek,
jakin du nola etxe horretan libre dagoen gil-
tzeroaren enplegoa. Beraz, nunbait teiltatu-
pe bat edukitzeko premia bizian aurkitzen
naizelarik, atsegintasuna dadukat berorren
Mesedeari nire zerbitzuak eskeintzean, eta
eta eta eta...*

*Jainkoak salba dezala Espainia.
Halako egunean. Otxarkoagan.*

piedra y pueblo

*El hombre es humilde.
El lo ha confesado.
Y si debo hablar,
si no habré de callarme,
mi palabra estará a la altura
del hombre, y además
 además... además... además...
(hasta cuándo, Catilina)
además (antes era ademenos)
cuando te dirijo la palabra,
llorando y no pudiendo más,
cojo un cuchillo de la cocina de mi casa,
clavo el hierro en su barriga,
y te entrego
la palabra
rota.
Para que sea igual al hombre.
Asaz lo sea.*

C) SOUVENIR D'ESPAGNE POUR MESDEMOISELLES SOLANJE ET HELENA GEREZIAGA

*Esto es Bilbao, nos dijo el hombre.
El hombre llevaba un gorro blanco,
y dijo Esto es Bilbao. Y esto
es el Museo Pictórico, dijisteis vosotras.
Peut-être, yo dije, no lo sé.
No lo sabía. Y qué? No me avergüenzo.
Por qué el patrón del burgo habrá de estar
en este Museo conmemorado,
(El conde de tal sitio donó este cuadro),
mientras los nombres
del marinero y del piloto
no pueden estar encima de su tumba?*

Señalasteis por la ventana diciendo: Qué es aquello?
La Universidad de Deusto. Jesuitas.

Gizona apurra da.
Berak aitortu du.
Eta baldin hitz egin behar badut,
ezpanaiz isiltzen,
nire hitza
gizonaren parekoa izanen da, eta
eta eta eta...
(noiz arte, Katilina!),
eta (lehen zen edo)
nire hitza zuri zuzentzen dizudanean,
nire eskaratzetik hartzen dut ganibeta,
penaz eta ezin-bestean,
burnia sartzen dut haren barnean,
eta entregatzen dizut
hitza
apurturik.
Gizonaren berdina izan dadin.
Hemen.
Jesus.

**C) SOUVENIR D'ESPAGNE POUR MESDEMOISELLES
SOLANJE ET HELENA GEREZIAGA**

Hau da Bilbo, esan zuen gizonak.
Kapela zuria zeraman gizonak, eta
Hau da Bilbo, esan zuen. *Hau da
Pinturaren Museoa*, esan zenuten.
Peut-être, esan nuen, *eztakit*.
Eznenkien. Ta zer? Eznaiz lotsatzen.
Zergatik burjesa egonen da
museo honetan izenez, laudorioz,
(*Halako konteak eman zuen pintura hau*),
pilotuaren eta marineruaren
izenak
hilobi baten gainean eztaudenean?

Zer da hori? Seinalatu zenuten leihotik.
Deustuko Eskola. Jesuitena.

piedra y pueblo

No. Aquello otro de allí. Las casas de madera.
Gitanos, *afirmé avergonzado*.
Oíamos el trueno de los lejos.
Goya y el Greco.

D) GRITANDO EN EL MUELLE DE ZORROZA

El barco alemán ha atracado en Zorroza.
Trae cemento en sacos de cien kilos.
Mientras tanto,
estaban Antonio y Guillermo
con la sierra
tronzando un árbol.
Con cuerdas...
No hay cables...
Tira que tira,
Antonio ahora,
Guillermo luego,
cuándo me moriré,
Guillermo.
Aquí en castellano,
y allí en vascongado.
Juraban.
Porque la injusticia no es políglota
e igual
trata
al castellano
y al vascongado.
Tomé las medidas del tronco.
Se me mojaban los cristales.
(Mi madre por la noche llegó a pensar
que me había caído a la ría). Y dije:
Siempre me pondré
al lado del hombre.
Antonio.
Guillermo.

Ez, hangoa. Egurrezko etxe haek.
Ijitoak, esan nuen lotsaturik.
Hurrutian entzuten zen trumoa.
Grekoa. Goia.

D) ZORROTZAKO PORTUAN ALDARRIKA

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.
Bien bitartean
Anton eta Gilen zeuden
zerrarekin
tronko hura erdibitzen.
Sokarekin...
Eztago kablerik...
Bestela...
Tira eta tira,
orain Anton,
gero Gilen,
eznaiz hilen,
Gilen.
Hemen euskeraz
Ta han erderaz.
Biraio egiten zuten.
Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,
berdin tratatzen baitu
erdalduna
eta
euskalduna.
Arbolaren neurriak hartu nituen.
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.
(Amak gauean pentsatu zuen erre kara
erori nintzela). Eta esan nuen:
Beti paratuko naiz
gizonaren alde.
Gilen.
Anton.

piedra y pueblo

E) ESTE HA SIDO MI COMIENZO

*Sí.
Y algún día me callaré,
después de decir
las palabras que no he dicho.
Sí.
Y no.
Quien tenga orejas...*

F) ACT-I-18

...y sus intestinos se desparramaron por el suelo.

G) A MIGUEL LASA VISPERA DE SAN FRANCISCO

*Ayer le leí a Otero
tus poemas publicados en Egan.*

H) EL SANTO FUERO DICE...

*...que la tierra de Vizcaya
es de los vizcaínos.
Así lo dice, Blas.*

I) TELEGRAMA A LOS POETAS CASTELLANOS DE BILBAO

*Allí no tiene entrada el escribano,
ni el sacerdote,
ni el perro,
ni la mujer.*

E) HAU IZAN DA HASIERA

Bai.

Eta egun batean isilduko naiz,
esan eztitudan hitzak
esan ondoren.

Bai.

Eta ez.

Beharrik duenak...

F) ACT-I-18

... eta haren heste guztiak barraiatuak izan ziren
lurretik.

**G) MIKEL LASARI AITA SAN FRANTZISKOREN
BEZPERAN**

Herenegun irakurri nion Oterori
zure poema Eganen agerturikako bat.

H) FORU SANTUAK DIO...

... Bizkaiko lurra
Bizkaitarrena dela.
Hala dio, Bladi.

I) BILBOKO ERDAL POETERI TELEGRAMA

Bertan ezta sartzan eskribaurik,
ez apaizik,
ez zakurrik,
ez andrerik.

piedra y pueblo

*Quién da otro tanto?
Y si quemaban paja
para despedir al obispo,
quién podrá ofrecer
otro tanto?*

J) A QUIEN ME QUIERA ESCUCHAR...

...debo decirle que no estoy conforme... que debo presentar mi protesta, que estoy junto al hombre, como prometí una vez en el muelle de Zorroza. Yo no invento mentiras. Lo que digo es la verdad, y no soy aficionado a las tácticas. Si la verdad está con nosotros, no tenemos por qué inventar mentiras. Es así, yo estoy por la verdad, porque la verdad y el hombre van unidos. Cuando el hombre se aparta de la verdad, yo no sé qué puede llegar a ser. Y si nadie me quiere escuchar, me da igual, se lo diré a la ciudad, a la estrella, al cielo (oh ciudad, oh estrella, oh cielo), (seguro estoy que encontraré respuesta en el ánimo del recién poeta Miguel Lasa de Guetaria), que no estoy conforme, que tengo que presentar mi protesta, que estoy por el hombre. He dicho. Yo no puedo inventar mentiras. He aprendido a hablar en el puerto de Bilbao, cuando comía jamón frito, cuando bebía café con leche mezclado con cognac. Estoy seguro que el hombre también está por mí. Y el hombre, a lo mejor se llama Miguel Lasa. A veces se viste de payaso. Viento del Norte. Viento. Viento del Sur. Al descubierto de todos los vientos del mundo. Vasconia está abierta a todos los vientos del mundo.

K) YO Y LO QUE DIGO

*Yo no soy nada, nada soy sino
lo que soy.
Yo soy lo que soy, sí, lo que soy, no
lo que no soy.*

Nork ematen du beste hainbeste?
Eta lastoa erretzen baldin badute
apezpikuaren joaeran,
nork eskeinduko du
beste hainbeste?

J) ENTZUN NAHI DIDANARI...

... esan behar diot eznagoela konforme... nire protesta presentatu behar dudala, gizonaren alde nagoela, behin Zorrotzako portuan prometitu nuen bezala. Nik eztut gauzarik asmatzen. Diodana egia da, eta eznaiz taktika zalea. Egia gurekin baldin badago, ezta dukagu zergatik gezurrikan asma. Hala da, ni egiaren alde nago, gizona eta egia batera doazalako. Gizona egiatik aldaratzen denean, nik eztakit zer den. Eta inork entzun nahi ezpadit, berdin dit, esanen diot hiriari, izarrari, zeruari, (oi hiri, oi izar, oi zeru), (seguru nago erantzutea kausituko dudala Getariar Mikel Lasa poeta berriaren alimoan) eznagoela konforme, nire protesta presentatu behar dudala, gizonaren alde nagoela. Esan dut. Nik eztut gauzarik asmatzen. Euskera Bilboko portuan ikasi dut, urdaiazpiko frijitua jaten nuenean, kafesne koinakatua edaten nuenean. Seguru nago gizona ere nire alde dagoela. Eta gizonak, agian, Mikel Lasa du izena. Batzutan pailasoz janzten da. Ifar agirre. Haize agirre. Hegoi agirre. Munduko haize guztien agirrean, agirian. Euskal herria mundu agirre da.

K) NI ETA NIK DIODANA

Ezer eznaiz, eznaiz ezer, ezpada naizena.
Ni naiz naizena, bai, naizena, ez eznaizena.

piedra y pueblo

*Yo soy por mí,
por mi voluntad,
por voluntad y virtud de lo que soy,
a fuerza de mis pensamientos y de mis sentimientos.
Estoy en camino (cuán dura ley,
qué ordenación inevitable),
hacia un final. Hacia allá voy
y no me atemorizo, no, no me
atemorizo, no, no me
atemorizo, no.
Lo que es va camino de lo que no es,
y un día nada será, sino
lo que no es. No. Sí. Yo soy lo que soy,
no soy nada sino
lo que soy, y un día
yo tampoco seré nada, sino
lo que no soy, no, lo que no seré.
Y ello es, sí y no, lo que ahora siempre y antes
digo yo,
lo que soy y lo que digo,
lo que no soy
y lo que callo.
Por gracia y virtud de mis pensamientos.
Sí. Lo que soy. Lo que digo.*

L) MI NOMBRE

*Cuando yo me muera se podrá leer
la siguiente inscripción encima de mi tumba:
Aquí yace Gabriel Aresti Segurola. En paz descansa.
Pérez y López. Marmolistas. Derio.
Habrá también en la Biblioteca Provincial de Vizcaya,
(si no me excomulgan antes),
un libro (acaso, no es seguro),
que nadie leerá,
con mi nombre.
Y un hombre dirá cuando florezcan los cardos:*

Ni naiz nirez,
nire borondatez,
naizenaren borondatez eta birtutez,
nire pentsamentuen eta sentimentuen indarrez.
Bidean nago (hain lege gogorra,
hain ordenamentu eskapu gabekoa),
bukaera batera. Hara noa eta
eznaiz bildurtzen, ez, eznaiz
bildurtzen, ez, eznaiz
bildurtzen, ez.
Dena doa eztenaren bidean,
eta egun batean ezer ezta izanen, ezpada
ezer eztena. Ez. Bai. Ni naiz naizena,
eznaiz ezer ezpada
naizena, eta egun batean
ni ere eznaiz ezer izanen, ezpada
eznaizena, ez, izanen eznaizena.
Eta hau da, bai eta ez, orain eta beti eta lehen,
nik diodana,
naizena eta diodana,
eznaizena eta
isiltzen dudana.
Nire pentsamentuen graziaz eta birtutez.
Bai. Naizena. Diodana.

L) NIRE IZENA

Hiltzen naizenean egonen da
nire lauzaren gainean esribu hau:
*Hemen datza Gabriel Aresti Segurola. Goian bego.
Pérez y López. Marmolistas. Derio.*
Bizkaiko Bibliotekan ere egonen da
(deskomekatzen ezpanaute),
liburu bat (behar-bada, ezta seguru),
inork letuko eztuena,
nire izenarekin. Eta
gizon batek esanen du kardanberak loratzen
direnean:

piedra y pueblo

Como decía mi padre, yo también...

(Me vendrá todos los años una mujer por Todos los Santos con una corona de flores).

No quiera Dios que pongan mi nombre a una calle de Bilbao.

(No quiero que un barbero borracho pueda decir:

Yo vivo en Aresti con la cuñada

vieja de mi hermano. Ya sabes. Con la coja).

A veces los viejos decires se equivocan.

Pienso que mi nombre

es mi ser,

y que no soy

sino mi nombre.

M) LA MEDIDA DEL MUNDO

Hablo sobre mí mismo porque yo soy

la medida del mundo.

Que me perdonen.

Cada cual ve las cosas con sus ojos.

Y quién me dice a mí que el campanario de la iglesia de Llodio no puede ver? Quién me lo dice?

Debo hablar sobre mí mismo,

porque yo soy

lo que mejor conozco.

Mi pecho es un laberinto, un dédalo,

y conozco perfectamente todos sus recovecos:

Por él puedo caminar como de la cómoda a la cama, hasta el día que me cieguen los ojos del alma.

De todas formas yo soy el que hablo

y digo mundo,

con mi vara debo medir el mundo,

porque no puedo usar mejor medida.

Lo que hay dentro de mi pecho,

sólo eso quiero yo saber.

Hablo sobre mí mismo.

Vive en Zarauz un hombre, que antes de la guerra comulgaba diariamente.

Nire aitak esaten zuen bezala, nik ere...

(Andre bat etorriko zait Done Santuru oro
lore koroa batekin).

Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati
nire izenik eman dezaiotela.

(Eztut nahi bizargile hordi batek esan dezala:

*Ni Arestin bizi naiz, anaiaren
koinata nagusiarekin. Badakizu. Maingua).*

Batzutan esan zaharrak erratzen dira.

Pentsatzen dut nire izena

nire izana dela,

eta eznaizela ezer ezpada

nire izena.

M) MUNDUAREN NEURRIA

Nire buruaz mintzatzen naiz, naizelako
munduaren neurria.

Barka bezaidate.

Nork bere begiekin ikusten ditu gauzak.

Eta nork diost niri Laudioko kanpandorreak
eztakusala? Nork?

Nire buruaz mintzatu behar dut, hura delako (ni naizelako)
hobekien ezagutzen dudana.

Nire bularra labirintu bat da, dedalo bat,
eta bertako kale kantoï guztiak ezagutzen ditut:

Bertatik ibiliko naiz nola komodatik ohera,
arimaren begiak itsutzen dizkidaten egunean ere.

Dena dela, ni naiz mintzatzen naizena,
eta *mundua* diot,

nire zihorraz neurtu behar dut mundua,
beste neurririk ezin baitarabilket.

Nire bularraren gainean zer dagoen,
hori bakarrik jakin nahi dut.

Mintzatzen naiz nire buruaz.

Zarautzen gizon bat dago, gerra aurrean
egunero komekatzen zuena.

piedra y pueblo

*Ahora una sola vez al año,
pues hay que protestar, sí, qué demontres!
Tiene una hija de veinte años,
que estudia piano, pintura y alemán;
el año que viene se le casará
nada menos que con un ingeniero de puentes!
A ese hombre no le gustará
que hable yo sobre mí mismo, pero
no se da cuenta que soy
el hombre más sabio de este mundo.
No está sabedor de ello el pobrecito.*

Orain urtero bakarrik,
protestatu behar baita, ze demonio!
Hogei urteko alaba bat daduka,
pianoa, pintura eta alemana estudiantzen duena;
datorren urtean ezkonduko da, norekin eta
zubi injinero batekin!
Gizon horri etzaio gustatuko
nire buruaz mintza nadila, baina
hura ezta konturatzen ni naizela
mundu honetako gizonik jakintsuena.
Eztago jakitun, urrikaria.

SEGUNDA PARTE

BIGARREN PARTEA

piedra y pueblo

A)

*Siempre diré
la verdad.*

*De mi boca no saldrá palabra
que no sea verdad.*

*Me romperán los labios,
se me caerán los dientes,
me cortarán la lengua,
pero
yo
nunca
mentiré.*

*Y si alguna vez,
rompiendo mi juramento,
digo una mentira,
será
para que el sol no se oscurezca,
para que la luna alumbre,
para que la rosa gane algún pétalo,
para que el clavel no pierda su perfume,
para que el niño siempre goce de la teta
y para que a la doncella
se le vaya la virginidad
con nobleza.*

A)

Beti esanen dut
egia.
Nire ahotik ezta hitzik aterako,
egia eztena.
Ezpainak apurtuko zaizkit,
hortzak eroriko zaizkit,
mihina ebakiko didate,
baina nik
eztut
gezurrik
esanen.
Eta inoiz,
nire juramentua hautsirik,
gezur bat badiot,
izanen da
eguzkia ilundu eztadin,
ilargia argitu dadin,
arrosak orriren bat irabaz dezan,
krabelinak usainik gal eztezan,
haurra beti ditiaz goza dadin,
edo dontzeiliari
birjindadea joan dakion
nobleziaz.

piedra y pueblo

B)

*Defenderé
la casa de mi padre.
Contra los lobos,
contra la sequía,
contra la usura,
contra la justicia,
defenderé
la casa
de mi padre.
Perderé
los ganados,
los huertos,
los pinares;
perderé
los intereses,
las rentas,
los dividendos,
pero defenderé la casa de mi padre.
Me quitarán las armas
y con las manos defenderé
la casa de mi padre;
me cortarán las manos
y con los brazos defenderé
la casa de mi padre;
me dejarán
sin brazos,
sin hombros
y sin pechos,
y con el alma defenderé
la casa de mi padre.
Me moriré,
se perderá mi alma,
se perderá mi prole,
pero la casa de mi padre
seguirá
en pie.*

B)

Nire aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak,
baina nire aitaren etxea defendituko dut.
Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,
sorbaldik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik.

piedra y pueblo

C)

*Son palomas
que cuando escribo
salen de mi mano
estos
poemas:*

*Los escritos
a Solange
en recuerdo de España;
la protesta
pensada
en el muelle de Zorroza;
la morcilla
que cociné
delante de Archanda.*

*Son palomas
que cuando canto
salen de mi boca
estos
versos:*

*La gracia y los corazones
de Juan;
las explicaciones
dadas
a los vizcaínos;
el canguro de Australia
y Don Miguel
Mentiras.*

*Son palomas muertas
que están en necesidad
de una nueva vida.*

C)

Usoak dira,
eskribitzen dudanean
nire eskutik
ateratzen direnak,
poema hauk:

Solanjeri Espainiako
gomutaz
eskeinirikakoak;
Zorrotzako portuan
asmaturikako
protesta;
Artxandaren aurrean
kuzinatu nuen
buzkantza.

Usoak dira,
kantatzen dudanean
nire ahotik
ateratzen direnak,
bertso hauk:

Joaneren grazia
eta bihotzak;
bizkaitarri
emanikako
esplikaerak;
Australiako kangurua
eta Mikel
Gezurra.

Uso hilak dira
eta bizi berri baten premian
daude.

piedra y pueblo

D)

*Yo soy quien
dijo:*

*En este mundo en que vivimos,
en esta sociedad,
la justicia
está
prohibida.*

*Que Dios no quiera
que prohiban
el vino
y el queso,
que prohiban
el agua
y el pan.
Esto lo digo hoy.
Sí. Yo.*

E)

*rompamos la cadena
cantemos a una
esto es fandango
viva berango.*

*Como otros muchos en el mundo,
con la corteza de la mazorca.
Ayer me aburrí
de los maestros y de las escuelas.*

*Como soy poeta,
no espero cielo alguno.
Tengo nueve coplas,
cuatro sensatas y cinco locas.*

D)

Ni naiz behin
esan nuena:

Gu bizi garen munduan,
gizarte honetan,
zuzenbidea
debekaturikan
dago.

Jainkoak ailiotsa
arinoa eta gazna
debeka
ezlezaten,
ura eta ogia
debeka
ezlezaten.
gaur diot hau.
Bai. Nik.

E)

*apur dezagun katea
kanta dezagun batea
hau da fandango
biba berango.*

Munduan beste asko lez,
arta buruan oskolez.
Atzo aspertu nintzaden
maisuez eta eskolez.

Poeta naizen ezkerro,
eztut zerurik espero.
Bederatzi koplak ditut,
lau zuhur eta bost ero.

piedra y pueblo

*Los cuernos de la luna:
De allí hay ramillas colgadas.
Son dignos de ser recordados
tus dos ojos claros.*

*Del cielo viene la piedra.
De dónde, en cambio, la luz?
En esta oscura noche veo
tu puro semblante.*

*Rojo gallo de marzo,
venido de ninguna parte,
enviado por un judío
para aligerar el hambre.*

*El sol por la mañana
tiene mojados los rayos.
Muy baratas se venden
las opiniones del vasco.*

*La abuela me ha dicho:
Tu padre ha bebido vino,
íos a la taberna,
y traedlo de allí.*

*El futuro del vascuence,
ello no es cosa segura.
Mucho más cómodamente
anda en el mundo el hebreo.*

*Y si esto no fue así
que me metan en una calabaza.
Cuentos muy risibles
he contado en la plaza.*

Ilargiaren adarrak:
Handik zintzilik abarrak.
Gogoangarriak dira
zure bi begi nabarrak.

Zerutik dator harria.
Nundikan berriz argia?
Gau ilun honetan dakust
zure aurpegi garbia.

Martxoko oilar gorria,
inundik ez etorria,
goseak arintzearren
judu batek igorria.

Goizaldean eguzkiak
printzak daduzka bustiak.
Oso merke saltzen dira
euskaldunaren ustiak.

Gure amonak esan dit:
Aitak arnoa edan dik.
Joan zaitez tafernara
eta ekar zazu handik.

Euskeraren asturua
ezta gauza segurua:
Askozaz hobekiago
dabil munduan judua.

Eta hau hola ezpazan
sar nerila kalabazan.
Ipui txit barregarriak
kontatu nituen plazan.

piedra y pueblo

F)

*Un sólo maestro
he tenido,
él fue
mi mejor profesor,
de él tomé
lecciones,
a él le debo
el ser tan vasco,
debo mencionar
su nombre,
el hombre muerto que vive
en Guernica,
el que se nos acabó en la plaza
de Bearne,
él se puso en la defensa
del pueblo,
por ello ha venido
en mi ayuda,
un cuerpo muerto
no han visto mis ojos
jamás durante
tantos años
vivo,
él ahora me excomulgará
acaso,
porque yo he comulgado con él
tan largamente,
querido Altube,
tu cuerpo muerto no volverá
a morir
de nuevo,
porque tienes vida
en mis escritos,
el pueblo vasco te lleva
consigo,
tú vivirás
por siempre,
dentro del alma
de los vascos.*

F)

Maisu bat izan dut,
bakarra,
hori da nire errijent
gorena,
harengandik hartu nuen
eskola,
naizen euskalduna hari
zor diot,
aipatu behar dut haren
izena,
Gernikan bizi den
jaun hila,
Biarnoko plazan akabatu
zitzaigun,
hura paratu zen herriaren
aldean,
beraz etorri da nire
fabore,
gorputz hil bat
eztu neronen begiak
ikusi sekula
hainbeste urtetan
bizirik,
harek orain ni deskomekatuko nau,
agian,
harekin nik komekatu dudalako
luzaro.
Altube maitea,
zure gorputz hila ezta inoiz hilen
berriz
atzera,
neronen eskribuetan duzulako
bizia,
euskaldun herriak zaramazki
berekin,
zu biziko zara
betiko,
euskaldunen arimaren
barnean.

piedra y pueblo

G)

*Tengo dos hijas,
y las que con ayuda de la pasión,
con ayuda del deseo,
con ayuda del amor,
habrán de venirme.*

*Tengo una mujer,
que Dios me la dio
y San Pedro
me la bendijo.*

*Una casa me tiene
atado a una
larga deuda,
cárcel
para diez años y un día.*

*La vida es muy larga,
y todavía
nos prometen
más.
Si tuviera
la duración de un beso,
yo
estaría
contento.*

H)

*El segundo fue
José Miguel
de Ataun.
El segundo maestro,
la segunda deuda.
Condena
perpetua.*

G)

Bi alaba ditut,
eta grinaren laguntzaz,
deseoaren laguntzaz,
amodioaren laguntzaz,
etorriko zaizkidanak.

Andrea dut,
Jainkoak eman eta
Jondone Petrik
benedikatu zidana.

Etxe batek naduka
zor luze bati
loturik,
hamar urte eta egun bateko
gartzela.

Bizia oso luzea da,
eta oraindik
are gehiago
prometitzen digute.
Mosu baten luzea
balitz,
ni
kontent
nengoke.

H)

Bigarrena izan zen
Joxepe Mikel
Ataungo.
Bigarren maisua,
bigarren zorra.
Gartzelatik ez ateratzeko
kondena.

piedra y pueblo

*Querido José Miguel,
consuélate ahora,
porque no estás
tan solo.*

*Gran José Miguel,
se nos han derrumbado la montaña,
ahora ya es posible
el día.*

*Alumbra ya en el Oriente
esa nueva aurora,
que nos ofrece
un porvenir.*

J)

*A manos llenas recojo la verdad
de las cosas que están en torno mío:
La rosa
y sus cinco pétalos,
el clavel
y sus doce;
el primer oscuro rayo de sol
que aparece
en la ventana de mi cuarto
cuando me despierto todos los días,
y el hula-hoop
que tenía una chica
hoy al mediodía
en la plaza de Indauchu.*

*De la boca de los hombres no;
de allí no recojo la verdad.
De allí
recojo
la ofensa,
el engaño
y el insulto.*

Joxepe Mikel maitea,
orain kontsola zaitea,
ezpaitzaude
bakarrik.

Joxepe Mikel haundia,
hamildu zaigu mendia,
orain posible da
eguna.

Orientean argitzen da
oilarite berri hori,
etorkizun bat eskeintzen
diguna.

J)

Esku beteka biltzen dut egia
aldamenean dauden gauzetatikan:

Arrosa
eta haren bost orriak,
krabelina
eta haren hamabiak;
eguneroko iratzartorduan
nire gelako leihoan
agertzen den
lehen eguzki printz iluna,
eta gaur eguerdian
Indautxuko plazan
neskatxa batek zuen
hulahupia.

Gizonen ahotik ez;
handik eztut egjarik biltzen.

Handik
iraina,
atzipea
eta enganamentua
dut biltzen.

piedra y pueblo

*Por ello,
tapo la boca de los hombres,
les muestro las cosas,
para que así
vean
del hijo del hombre
que es posible
todavía
un poco
encontrar
un remedio
de alguna forma
para este desarreglo.*

K)

*Si alguien dice:
En mi casa no hay paz,
busque la paz
en casa del vecino
o en el último rincón
del mundo;
pero si tuviera paz en su casa,
que no busque la guerra
en parte alguna,
porque perderá
la paz y la casa
por los rincones del mundo.*

L)

*En el mundo
hay una sola cosa
que no se compra:
El dinero.*

Beraz,
gizonen ahoa tapatzen dut,
gauzak erakusten dizkiet
hola
gizonaren semeagandik
ikus dezaten
posible dela
oraindik
pizka bat
deskonponketa honi
nolabait
erremedioen bat
bilatzea.

K)

Inork badio:
Nire etxean eztago bakerik,
bila beza
bakea
hauzoko etxean
edo munduko bazterrik
azkenean;
baina etxean bakea balu,
eztezala gerrarik inun
bila,
bakea eta etxea
galduko baitu
munduko bazterretan.

L)

Munduan
gauza bat bakarra dago
erosten eztena:
Dirua.

pedra y pueblo

M)

*Cuando mana el agua,
no prende el fuego.*

N)

*El amor maternal
se pierde en vano
entre pañales:
Se lo lleva el llanto
y al final
no queda
otra cosa
que el recuerdo de los nueve meses.*

O)

*El juego no es renta,
dijo el antiguo
Axular.
Bien les habló
a los ricos,
porque los pobres
no tenemos rentas
y el juego es
nuestra
última
esperanza.
Así me dijo
la boca
del pueblo.*

P)

*Axular
está
enterrado
en el monte Gorbea.*

M)

Ura darionean,
surik ezatxeka.

N)

Amaren oneriztea
alferrik galtzen da
oihalak batu artean:
Negarrak darama
eta azkenean
bederatzi hilabeteen oroitzapena
besterik
ezta geratzen.

O)

Jokoa ezta errenta,
esan zuen behinolako
Axularrek.
Ederki mintzatu zitzaien
aberatseri,
pobreok ezpaitugu
errentarik,
eta jokua gure
azken
esperantza
da.
Hola esan zidan
herriaren
ahoak.

P)

Axular
Gorbeia mendian
dago
ehortzirik.

piedra y pueblo

Q)

En el estercolero de Bilbao
encontré
una flor.

R)

El más barato precio
del amor
es una promesa,
pero el más caro
es una
sortija
de oro.

S)

Con un rojo relincho
tapé
las angostas puertas
del día y de la noche.
Con una afilada guadaña
corté
las postreras
usurerías
del hayal.
Con una dura tenaza
arranqué
los dientes
de los interdictores.
Luego
morí.

T)

La luz
no
se ve.

Q)

Bilboko zimauregian
lore bat
aurkitu nuen.

R)

Amorioaren preziorik
merkeena
promesa bat da,
baina karioena
urrezko
eleztun
bat.

S)

Irrintzi gorri batekin
estaldu nituen
egunaren eta gauaren
ate meharrak.
Sega zorrotz batekin
ebaki nituen
pagadiaren
azken
lukurreriak.
Teneza gogor batekin
atera nituen
debekazaleen
aginak.
Gero hil
nintzen.

T)

Argia
ezta
ikusten.

piedra y pueblo

U)

*Es mejor
una verdad redonda,
que no
mil mentiras
bien cuadradas.*

V)

*Dirán
que esto
no es
poesía,
pero yo
les diré
que la poesía
es
un martillo.*

W)

*Si por decir una verdad
han de matarme
las hijas,
han de violarme
la mujer,
han de derribar
la casa
donde vivo;
Si por decir una verdad
han de cortarme
la mano
con que
escribo,
la lengua
con que
canto;*

U)

Hobe
egia biribil bat,
ezen ez
mila gezur
ongi koadratu.

V)

Esanen dute
hau
poesia
eztela,
baina nik
esanen diet
poesia
mailu bat
dela.

W)

Egia bat esateagatik,
alabak
hil behar bazaizkit,
andrea
bortxatu behar badidate,
etxea
lurrarekin
berdindu behar bazait;
Egia bat esateagatik,
ebaki behar badidate
nik eskribitzen
dudan
eskua,
nik kantatzen
dudan
mihina;

piedra y pueblo

*Si por decir una verdad
han de borrar
mi nombre
de las páginas
áureas
de la literatura vasca;
en ningún momento,
de ninguna forma,
en ningún lugar
podré
callarme.*

X)

*Un día
nadie
comprará nada;
un día
en los mercados
no se venderán
manzanas.
Un día
todos
seremos
venturosos.*

Y)

*Hay una cosa
que desde lo alto
protege
al País
Vasco:
El ojo
de Axular.*

Egia bat esateagatik,
nire izena
kenduko badute
euskal literaturaren
urrezko
orrietatik,
inoiz,
inola,
inun
eznaiz
isilduko.

X)

Egun batean
eztu inork
ezer erosiko;
egun batean
ezta merkatuetan
sagarrik
salduko.
Egun batean
guztiok
izanen gara
zoriontsuak.

Y)

Gauza bat dago
haltuetatik
Euskalerrria
zaintzen
duena:
Axularren begia.

piedra y pueblo

Z)

*José,
mi amigo,
está lejos,
allá arriba,
cerca del cielo,
y yo en cambio
acá abajo,
en este oscuro pozo,
en este infierno
que se llama Bilbao...
El allá arriba,
en aquella cumbre,
en aquel paraíso
que se llama Aránzazu...
Aquí
Baal,
Belial,
Leviatán;
Bafomet,
Paladin,
Goteun,
Asmodeo
y Belcebú
son
mis
amigos,
pero
él,
allá
arriba,
más
tovarich
que todos
los tovarichi...*

Z)

Joxepe,
nire laguna,
hurrun dago,
han goian,
zerutik hurbil,
eta ni berriz
hemen behean,
osin ilun honetan,
Bilbo deritzan
infernu honetan...
Hura han goian,
Arantzatu deritzan
gailur haretan,
paradisu haretan...
Hemen
Baal,
Belial,
Lebiatan;
Bafomet,
Paladin,
Goteun,
Asmodeo
eta
Berzebu
dira
ene
lagunak,
baina
hura,
han
goian,
tobaritx
guztiak
baino
tobaritxagoa...

TERCERA PARTE

HIRUGARREN PARTEA

piedra y pueblo

A)

*Cosas llanas,
fáciles,
para que las comprenda todo el mundo,
tengo que decir;
apareceré
como el hombre
más tonto
de Vizcaya,
pero sin embargo
nadie
me
meterá
el dedo
en la boca.
No lo osará
el muy listo.*

B)

*Todas las cosas del mundo
se gastan;
se gasta la salud
y el amor,
el deseo*

A)

Gauza zelaiak,
errezak
edonork konprenitzekoak,
esan behar ditut;
azalduko naiz
Bizkaiko
gizonik
tontoena,
baina hala ere
hatzamarra
eztit
inork
ahoan
sartuko.
Ezta ausartuko
listoa.

B)

Munduko gauza guztiak
gastatzen dira;
gastatzen da osasuna,
maitasuna,
deseoa,

piedra y pueblo

y el vicio,

la codicia

y la vida.

*Y lo que más fácilmente se gasta
es la cosa más perdurable del mundo,
la más fuerte...
es el dinero...*

C)

De Siboney a Cubanacán

este guajiro

todos los días comerá

su ración de arroz con arenques,

todos los días moldeará

su troquel,

todos los días aprenderá

su lección

de turco

o alemán,

todos los días tomará

su catecismo.

Todos los días se sentirá

honrado.

Y hasta es posible

que cometa

a veces

el pecado

burgués

de acostarse

con Nina...

D)

El día en que no haya dinero

los hombres

no se

venderán.

bizioa;
gutizia,
bizia.

Eta errezen gastatzen da
munduko gauzarik iraunkorrena,
gogorrena...
dirua...

C)

Siboneitik Kubanakanera
goajiro honek
egunero janen dut
nire arroz-aranke pizka,
egunero moldatuko dut
nire trokela,
egunero ikasiko dut
nire alemán
edo turko
lezioa,
egunero hartuko dut
nire katixima.
Egunero sentituko naiz
prestua.
Eta posible da
noizean behin
Ninarekin
ohean sartzeko
burjes
bekatua
kometi dezadala...

D)

Dirurik eztagoen egunean
ezta
gizonik
erosiko.

piedra y pueblo

E)

Axular
le dio
su sombra
a Vasconia.

F)

*Hoy es San Mamés
Día muy aciago
Que guarde en el alto cielo
Largamente mi alma.*

*Te diré la verdad
Esto no es el palomar
Entre los cuervos fui
Verdaderamente muy atrevido.*

*Hacia la parte del mar la estrella
El fresno la está mirando
Hasta que no vea en salvo al vascuence
No me cortaré la barba.*

*Cantó el gallo
Las hierbas se iluminan
A nuestra mártir Agueda
Le cortaron los pechos.*

*Le cortaron los pechos y
Vasconia le dice
En vez de solomo dulce y largo
Danos tu corazón.*

*Danos tu corazón y
Quítanos los sufrimientos
Dinos cuándo seremos
Dueños de nuestros destinos.*

E)

Axularrek
eman zion
Euskalerruari
itzala.

F)

Egun da Santi Mamina
Benetan egun samina
Goiko zeruan gorde dezala
Luzaro neure arima.

Esanen dizut egia
Hau ezta usategia
Erroi artean izan nintzaden
Benetan ausartegia.

Itsas aldean izarra
Hari begira lizarra
Euskera salbo ikusi arte
Eztut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak
Argitzen dira belarrak
Agera gure martiriari
Moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskalerriak diotsa
Solomo luze dultzerik gabe
Eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta
Ken berriz nahigabeak
Esan noiz garen izanen gure
Etorkizunen jabeak.

piedra y pueblo

G)

*Si me piden cuentas
diré
que no sé contar,
que todavía no he aprendido
que dos y dos
son cuatro,
cuántos son
los dedos de la mano,
diez o veinte,
diré
que nunca
he caído
en la cuenta,
que no sé
contar mentiras,
que no sé andar con cuidado.
Pero sin embargo,
cuando suenen las seis en el reloj de Begoña,
en la llanada de Urbi,
con los ojos abiertos,
con un zorcico en los labios,
como si fuera un hombre honrado
me fusilarán.*

K)

*Yo también
ya tengo
mi verdad,
y vale
tanto
o más
que la del señor banquero.*

G)

Kontuak eskatzen badizkidate,
esanen dut
eztakidala kontatzen,
oraindikan eztudala ikasi
bi ta bi
lau direla,
zeinbat diren
eskuan hatzamarrak,
hamar ala hogeia,
esanen dut
eznaizela
inoiz
kontuan erori,
eztakidala
gezurrik kontatzen,
eztakidala kontuz ibiltzen.
Baina halare
Begoñako herlojuan seiak direnean,
Urbiko zelaian,
begiak zabalik,
zortziko bat ezpainetan,
gizon on bat banintz bezala,
afusilatuko naute.

K)

Nik ere
badut
nire egia,
eta bankero jaunarenak
bezainbat
edo baino gehiago
balio du.

piedra y pueblo

L)

*Cuadro mi balance,
y veo
cómo a pesar de que mi poesía
no tiene contrapartida,
para el año que viene
tengo
una gran existencia de esperanza,
la cual
aunque encarezcan
los precios
de las subsistencias,
no dejará ir
a la bancarrota
este negocio de decir verdades.*

M)

*Ayer conocí
a mi amigo.
Pagué un coche
para el cielo.
Habiendo comido en Oñate,
Aránzazu hacia arriba,
allí me encontré
un fraile de cabeza pelada.
Ayer conocí
a mi amigo.
El camino de Aránzazu,
camino verdaderamente largo,
pero el coche
bien lo sabe dominar.
Los mirlos
y los corderos
son los amigos
de la Virgen María.*

L)

Bilantzea koadratzen dut,
eta nire poesiak
kontrako partidarik ezpadu ere,
ikusten dut
nola
datorren urterako
esperantzazko esistentzia haundi bat
dudan,
janarietako eta edarietako
prezioak
kariotzen badira ere,
egiak esateko negozio honi
malkarrotera joaten
utziko eztiona.

M)

Atzo ezagutu nuen
nire laguna.
Zerura pagatu nuen
kotxea.
Oñatin bazkaldurik
Arantzatzu gora,
bertan topatu nuen
fraile buru motza.
Atzo ezagutu nuen
nire laguna.
Arantzatzura bidea
benetan luzea.
Hori menderatutzen
badaki kotxeak.
Zozoak eta
bildotsak dira
Andre dona Mariaren
lagunak.

piedra y pueblo

Aránzazu! Aránzazu!

Polilito.

Querido amigo José:

Dónde está la puerta del cielo?

Cantemos a una!

Rompamos la cadena!

Mira cómo está

el valle,

lleno de nubes negras, hacia allí

mi deseo lo lleva

el viento frío.

Aquí,

entre los mirlos,

la paz,

la paz se ha armado,

han desarmado

la fe.

Amigo,

conocido de hace tiempo.

José,

ayer

te conocí.

El canto de los mirlos

viene de prisa.

Del colegio viene

la música.

En mi corazón

tristeza.

Cuándo tomaré

la nueva

alegría?

Quién me la dará?

Quién demonio?

Goteun

o Belial?

En el reino de los ángeles

no he visto

Arantzatu! Arantzatu!
Polilitoa.
Joxepe lagun maitea:
Nun da zeruko atea?
Kanta dezagun batea!
Apur dezagun katea!
Begira nola dagoen
harana
hodei beltzez estaldurik, harantza
nire deseoa haize hotzak
darama.
Hemen,
zozoen artean
bakea,
harmatu da bakea,
desarmatu dute
fedea.
Laguna,
aspalditik ezaguna.
Joxepe,
atzo ezagutu
zindudan.
Zozoen txirulirua dator
aguro.
Kolejotikan dator
musika.
Nire bihotzean
tristura.
Noiz hartuko dut nik
alegria
berria?
Nork emanen dit niri?
Nor demoniok?
Goteunek ala
Belialek?
Aingeruen erreinuan
eztut nik ikusi

piedra y pueblo

*sino
un polilito.
Piedra,
por todos lados
piedra.
Torre de piedra.
De dónde
vendrá
la luz?
Mi pura
fe?
Querido José,
dime,
prométeme
que un día
pasado mañana
o el último día
tuyo o mío,
me dirás,
por favor,
quién trae
la cuarta
virtud.
José,
sí,
la cuarta virtud,
la voluntad
de creer en algo,
de esperar de algo,
de amar algo.
La voluntad:
La cuarta
virtud
que viene
después de la fe, de la esperanza
y de la caridad.*

polilito bat
baizik.
Harria,
edonundikan
harria.
Harrizko dorrea.
Nundik etorria
izanen da
argia?
Nire fede
garbia?
Joxepe maitea,
esaidazu,
prometi zaidazu
egun batean,
etzidamu
edo zure edo nire
egunik azkenean,
esanen didazula,
arren,
nork dakarren
laugarren
bertutea.
Joxepe,
bai,
laugarren bertutea,
zerbaitean sinesteko,
zerbaitetik igurikitzeko,
zerbait maitatzeko
borondatea.
Borondatea:
Fede, esperantza eta
karitatearen ostean
datorren
laugarren
bertutea.

piedra y pueblo

N)

*Un día
se acabarán los mundos.
Sí.
Lo sé.
Y el Señor de los Cielos,
en el valle de Josafat,
nos juzgará
a todos.
Entonces,
los últimos
serán
los primeros,
y a su derecha
nos sentaremos
los de izquierdas.*

O) VASCUENCE CLARO

*El otro día
dijo
de mí
uno,
un buen amigo mío,
que si no sé
lo que quiero,
sí por lo menos
sé lo que
no quiero.
Verdad es.
Pero más verdad es
que sí sé lo que
quiero ser,
pero como
si estuviera*

N)

Egun batean
munduak akabatuko dira.
Bai.
Badakit.
Eta zeruko Jaunak
Josafateko zelaian
guztiok
juzgatuko gaitu.
Orduan,
azkenak
izanen dira
lehenak,
eta haren eskuman
jarriko gara
ezkerrekoak.

O) EUSKERA KLAROA

Lehengo egunean
esan zuen
nigatik
batek,
nire lagun oso maite batek,
eztakidala
zer dudan nahi,
baina bai
zer eztudan
nahi.
Hori egia da.
Baina egiagoa da
badakidala
zer dudan izan nahi,
baina
Kanakano eztaietan

piedra y pueblo

*en las bodas
de Caná,
le diré
a mi madre
que mi hora todavía
no ha llegado.
Cuando suene
mi hora,
serán en vano
los arrepentimientos.
Y aunque acometerán
todos los toros y carneros y cabros
del mundo
contra el color de mi alma,
en el cielo habrá señales,
el velo del templo se rasgará,
se apagará el sol,
los montes se abrirán,
y por primera vez
las mujeres
parirán
hombres.*

Q) A UN PROFETA (QUERIENDOSELO EXPLICAR A J.O.)

*Un día sucedió,
y desde entonces en adelante,
sucede todos los días,
esta fea cosa,
que de mala manera
nos rompe las tripas,
porque no podemos amar a la maldad,
porque no podemos apreciar el odio.*

banengo
bezala,
esanen diot
nire amari
nire ordua eztela oraindik
allegatu.
Nire ordu hori
datorrenean,
alferrik izanen dira
damuak,
eta nire arimaren kolorearen kontra
munduko
zezen eta aker eta ahari guztiak
oldartuko badira ere,
seinaleak izanen dira zeruan,
tenploaren beloa urratuko da,
eguzkia itzalduko da,
mendiak zabalduko dira
eta lehen aldiz
andreak
erdituko dira
gizonez.

**Q) PROFETA BATI
(JURGI OTEITZARI AZALDU NAHIRIK)**

Behin batean gertatu zen,
eta ordutik aurrera
egunero gertatzen da,
gauza itsusi hau,
moldegaizki
hesteak apurtzen dizkiguna,
ezpaitiogu onerizten gaiztakeriari,
higuintasunari ezpaitiogu amorerik ematen.

piedra y pueblo

*Así es el mundo,
y hoy en día
nadie es profeta en su tiempo.
La luna en el cielo
parece una naranja roja,
espejo de toda la sangre derramada en este mundo.
Si viviéramos en la luna,
seríamos más felices.
A ver quién nos regala
una torre de marfil,
para que no veamos
lo que sucede aquí
Yo no conozco al escultor Jorge de Oteiza,
pero he visto tantas veces sus piedras,
sus apóstoles,
tumbados
a la orilla de esa difícil carretera
como si fueran
el cadáver de una rata aplastada por un carro
o el esputo de un tuberculoso,
que todavía
no puedo
quedar de acuerdo con los fariseos;
hasta que no vea esas piedras en su sitio
no comulgaré
con ruedas de molino.
Mi comunión será
de carne
y sangre.
A ver cuándo llenan de una vez
esa cara de piedra,
pues parece
sin dientes y sin muelas el rostro arrugado de una vieja,
y si no,
dándolo por muerto,
le colocan
un sudario morado,*

Halaxen da mundua,
eta gaur egunean
inor ezta profeta bere mendean.
Ilargiak zeruan
laranja gorri bat dirudi
mundu honetan isuri den odolaren espilu.
Ilargian bizi bagintezke,
menturosoagoak izanen ginake.
Hea nork erregalitzen digun
marfilezko dorre bat,
eztezagun ikus
hemen gertatzen dena.
Nik eztut Jurgi Oteitza eskultorea ezagutzen,
baina hainbeste bider ikusi ditut haren harriak,
haren apostoluak,
bularretik eginikako baten ttua
edo gurdi batek zapaldurikako arratoiaren hilotza
balira bezala
kamino gaitz horretako bazterretan
eroririk,
ezen
oraindik eznaizen fariseoekin akort
geratzen;
harri hoek beren lekuan ikus ditzadan arte,
eztut errotarriekin
komekatuko.
Nire komunioa
haragizkoa eta odolezkoa
izanen da.
Hea noiz demonio, betetzen duten, bai,
harrizko aurpegi hori,
hortz-aginik gabe atso zahar baten begitarte zimela
baitirudi,
edo bestela,
hiltzat emanik,
garizuma luze bat balitz bezala,
krubixet more bat
jartzen dioten,

piedra y pueblo

*para que
el semblante del cristiano vasco
no se amorate
de vergüenza.
El otro día
me encontré sin mi pintor;
y así la historia de Iparragirre
se quedó
sin su pintura.
El día siguiente mi buen músico
se ausentó
al infierno
o a un lugar donde no hay aire,
y así la historia de Iparragirre
se quedó
sin su tonada.
Nunca he visto
un niño
tan huérfano
como
mi Iparragirre;
por ello,
me fui a la costa del mar de Cantabria,
y llorando delante de Izaro,
entregué
a las olas
las hojas áureas de mi poema,
pues es mejor morir ahogado
que de hambre.
Algún día beberemos
cada uno una ochava de chacolí tinto de Arrancudiaga
con Jorge de Oteiza,
y entonces
también a él me lo quitarán,
para que no haya en el mundo
un poeta
tan solitario
como yo.*

euskaldun kristauaren aurpegia
eztadin
lotsaz
mora.
Lehengo egunean aurkitu nintzen
nire pintore hura gabe;
eta honela Iparragirren historia
geratu zen
bere pintura gabe.
Biharamunean nire musikalari zintzoa
aienatu zen
infernura edo
airerik eztagoen leku batera,
eta honela Iparragirren historia
geratu zen
bere musika gabe.
Eztut sekula nik ikusi
haur bat
hain emazurtz
nola
nire Iparragirre;
beraz,
Kantabriako itsasoaren kostaldera joan nintzen,
eta Izaroren aurrean negarrez,
nire poemaren urrezko orriak
entregatu nizkien
uhineri,
hobe baita itorik hil,
goseak baino.
Egunen batean Jurgi Oteitzarekin
otsaba bana txakolin gorri Arrankudiagako
edanen dugu,
eta orduan hura ere
kenduko didate,
eztadin inoiz munduan egon
poeta bat
ni bezain
bakarra.

piedra y pueblo

*Cuando cada día veo el campanario de Llodio,
lo comparo con las chimeneas de las fábricas,
y veo*

*que no es tan alto,
porque el dinero
asciende
más arriba
que la fe.*

*Las torres de nuestras iglesias
tienen que ser más altas,
y debemos hacer un agujero
desde el altar mayor
hasta la cruz de arriba,
para ver*

*si las oraciones de los fariseos
encuentran un camino hacia el cielo.*

*Ahora Caifás, no solamente en el templo,
ahora también en el palacio gubernamental
prevalece.*

*Todavía no se han dado cuenta
que al cielo
suben*

*los humos de las fábricas de los fariseos,
no
sus oraciones.*

*Uno me dijo el otro día
que los oídos del Padre ya están sordos
de escuchar tanta oración falsa.*

*Yo no creo semejante cosa, pero
a las prostitutas ya no se les enseña la doctrina,
y los publicanos
han dicho*

*tanta blasfemia contra las prisiones
y tanta palabra fea
que
para ahora
ya están mudos.*

Egunero Laudioko kanpandorrea ikusten dudanean,
fabriketako tximiniekin konparatzen dut,
eta ikusten dut
eztela hain gora,
diruak
fedea baino
gorago
igotzen baitu.
Gure elizetako dorreek
haltuagoak izan behar dute,
eta zilo bat egin behar dugu
aldare nagusitik
goiko gurutzera,
hea fariseoen otoitzek
zerura bide bat
bilatzen duten.
Orain Kaifas, ez bakarrik tenploan,
gubernategian ere,
zutik dago.
Eztira oraindik konturatu
zerura
fariseoen fabriketako keek
igotzen dutela,
ez
haien otoitzek.
Batek esan zidan lehengo batean
Aitaren belarriak gorrik daudela
hainbeste otoitz faltso entzutearekin.
Nik eztut holakorik sinesten, baina
emagaldueri eztieta dotrinarik irakatsi
eta publikanoek
gartzelaren kontrako hainbeste biro
eta hainbeste hitz zakar
esan dute,
ezen
oraingoz
mutu dauden.

piedra y pueblo

Los poetas se han dividido hasta ahora en dos clases:

Los honrados y los desaprensivos.

*Hasta ahora, digo, sí, hasta ahora
los honrados han dicho siempre la verdad,
y los desaprensivos la mentira.*

*Pero ahora el decir la verdad ya no es suficiente,
ahora se debe defender la razón,*

*y ahora armas son
la mentira y la verdad.*

*Antes la razón y la sinrazón
eran armas
en contra o en favor de la verdad*

*o
de la mentira.*

*Ahora en cambio la verdad y la mentira
son armas*

*no sé
si en favor o en contra de la sinrazón o de la razón.*

*Si a un honrado vascongado de la ley antigua
le hubiera dicho alguien*

*que un poeta vascongado
iba a defender la razón*

*con la mentira,
hubiera contestado*

*que antes se rompería el eje de la tierra
que sucediera semejante cosa.*

A semejante triste situación hemos llegado, amigo.

*Yo no sé
si debo defender a Jorge de Oteiza*

*o
es Jorge de Oteiza quien me debe defender a mí,
pues no me han dicho*

*quién de los dos
es más*

huérfano.

*Verdad es que yo no comprendo
la escultura de Oteiza,*

Poetak bi klasetan berezi dira orain artean:

Prestuak eta doilorrak.

Orain artean, diot, bai, orain artean
prestuek egia esan dute beti,
eta doilorrek gezurra.

Baina orain egia esatea ezta naikoa,
orain arrazoa defenditu behar da,
eta orain harmak dira
gezurra eta egia.

Lehen arrazoa eta desarrazoia
harmak ziren
egiaren kontra edo fabore
edo

gezuraren.

Orain berriz egia eta gezurra
harmak dira
eztakit

arrazoiaren edo desarrazoiaren kontra edo fabore.

Lege zaharreko euskaldun prestu bati
inork esan balio inoiz,
euskaldun poeta batek
gezurrarekin defendituko zuela
arrazoia,
esanen zuen

lehenago apurtuko litzakeela munduaren ardatza
halakorik gertatu baino.

Holako egoera triste batera heldu gara, laguna.

Nik ezta kik Jurgi Oteitza defendatu behar dudan edo,

Jurgi Oteitzak ni defenditu behar nauen,

ezpaitidate esan

nor den

bietatik

emazurtzago.

Egia da Oteitzaren eskultura eztudala

nik konprenitzen,

piedra y pueblo

*pero yo soy un hombre sin cultura,
y ello no es de extrañar.
Pero Jorge de Oteiza comprenderá mi poesía,
sin duda alguna,
porque cosa más fácil no ha salido
de la mano
del hombre.
Para comprender la escultura de Jorge de Oteiza
se necesita vista larga,
pero para comprender mi poesía
no se necesita
oído largo,
acaso
porque él esculpía para los listos,
y yo
escribo
para
los tontos.
Mi poesía es muy barata,
la tomé de balde
de la boca del pueblo,
y de balde la devuelvo
a la oreja del pueblo.
Ahora yo no sé
dónde estará
Jorge de Oteiza.
Yo aquí estoy,
en Basurto.
Hoy he sacado mis cuentas
y una vez que he vuelto a casa veo
que para comprar un televisor
no gano
bastante
todavía.*

baina ni eskolarik gabeko gizon bat naiz,
eta hori ezta harritzekoa.
Baina Jurgi Oteitzak nire poesía konprenituko du,
dudarik gabe,
gauza errezagorik ezpaita inoiz
gizonaren eskutikan
atera.
Jurgi Oteitzaren eskultura konprenitzeko
bista luzearen behar da,
baina nire poesia konprenitzeko
ezta behar
belarri zorrotzen,
agian
harek listoentzat eskulpitzen zuelako,
eta nik
tontoentzat
eskribitzen
dudalako.
Nire poesia oso merkea da,
herriaren ahotik hartu nuen
debalde,
eta debalde ematen diot
herriaren belarriari.
Orain Jurgi Oteitza
eztakit nun
egonen den.
Ni hemen nago,
Basurtun.
Gaur kontuak atera ditut
eta etxera bihurturik ikusten dut
oraindik
telebista erosteko
eztudala
aski
irabazten.
Bista laburra dut, eta nire sudurraren aurrean dena
ikusten dut
bakarrik.

piedra y pueblo

*Quisiera que me dijeran
qué es lo que debo
hacer.*

*Llamé en tantas puertas en los días
de mi tiempo,
perseguí tantas manos en busca
de amistad,
miré a tanto rostro de mujer en busca
de cariño...*

*Pero ahora ya no hay vuelta de ello.
Jorge de Oteiza ya
no esculpe,
los versolaris
se han declarado
enemigos
de las rimas difíciles*

*y
de las medidas raras,
los parlamentarios
proceden contra sus electores...*

*Yo no quisiera
vivir en este mundo.
Tengo que decir mil mentiras,
a ver si consigo parecer
un hombre honrado.*

*Por un ejemplo:
Los hombres buenos aman a las mujeres buenas
o
las mujeres buenas respetan a los hombres buenos.*

*Hablemos ahora
En un vascuence claro.
No vengo a obligar a nadie
Sino a que concurran voluntariamente.*

*Dijo el otro día un hombre muy prudente
que en este mundo
también se necesitan hombres locos.*

Zer egin behar dudan
inork esan dizaidan
nahi nuke.
Hainbeste atetan jo nuen nire
denporako egunetan,
hainbeste esku bilatu nuen adiskidetasun
bila,
hainbeste andrearen aurpegieri so egin nien
karino bila...
Baina orain eztago bihurrerarik.
Jurgi Oteitzak eztu jadanik
eskulpitzen,
bertsolariak
puntu aberatsen
eta
neurri gaitzen
etsai
deklaratu dira,
parlament-gizonek haien hautatzaileen kontra
diarukate...
Mundu honetan eznuke
bizi nahi.
Mila gezur esan behar ditut,
hea gizon prestuaren itxura
hartzen dudan:
Konparazio baterako:
Gizon onek andre onak maitatzen dituzte
edo
andre onek gizon onak errespetatzen dituzte.

*Euskera klaro batean
Oragin mintza gaitean
Eznator derrigorrean
Ezpada borondatean.*

Lehengo egunean esan zuen gizon zuhur batek
gizon zoroak ere behar diradela
mundu honetan.

piedra y pueblo

*No sé cómo me atrevo
a escribir así,
en un vascuence claro,
en esta lengua pura.
Yo preferiría,
lo digo de verdad,
no usar
semejantes palabras improcedentes
porque yo también soy purista,
así se lo decía el otro día
a nuestro sabio,
preferiría
quitar de raíz
de este nuestro romanizado verbo vasco
todos los modos extranjeros,
preferiría escribir
en escritura ibérica,
preferiría
encontrar
una palabra buena
para cada palabra técnica
que hemos tomado
del griego,
para que así
nadie
se enfade conmigo,
para que así
no busque nadie
en mi
odio contra el vascuence...
Pero es cosa que así ha sucedido,
y yo no tengo la culpa.
Cómo podré atreverme
contra todo el mundo?
Mi sitio está
junto al pueblo.*

Eztakit nola atrebitzen naizen
honela eskribitzera,
euskera klaro batean,
euskal garbi honetan.
Nik nahiago nuke,
egiaz diot,
holako hitz zakarrik
ez erabili,
ni ere garbi-zalea bainaiz,
hala esaten nion lehengo egunean
gure jakintsuari,
nahiago nituzke
gure euskal berbo erromanizatu honetatik
erdal modu guztiak
sustraitik kendu,
nahiago nuke
iberiar eskrituran
eskribitu,
nahiago nioke
grekotik
hartu dugun
teknik hitz bakoitzari
euskal hitz egoki bat
kausitu,
eztadin honela
nirekin hasarra
inor,
eztezan inork
nigan
euskeraren kontrako gorrotorik
bila...
Baina hola gertatu da,
eta nik eztut kulparik.
Mundu guztiaren kontra
nola ausartuko nintzake?
Nire lekua dago
herriaren aldean.

piedra y pueblo

*El que está conmigo
está con el Pueblo Vasco,
porque yo estoy con él.
El versolari Udarregui
no sabía
hablar en castellano,
pero sin embargo
sabía mucho castellano.
Ese hombre que vive aquí en Llodio,
no comprenderá jamás
qué diferencia le da
a la más propia vida de nuestra patria
ese EN tan juguetón.
Basarri en cambio sabe hablar en castellano
perfectamente,
tan bien como yo;
pero sin embargo no ha aprendido
nada
de castellano.
Tengo
ahora
que empezar a aprender castellano.
Pero para aprender cosa tan difícil
nadie
ha escrito todavía libro alguno,
y así
mi aprendizaje
durará
largamente.
Ahora tengo que hacerle una pregunta
no sé a quién.
Por qué me he metido
en un empleo tan malo?
Por qué introduce
las narices
en un asunto
de tan mal olor?*

Nirekin dagoena
Euskal Herriarekin dago,
ni harekin bainago.
Udarregi bertsolariak
etzekien erderaz
mintzatzen,
baina hala ere
erdera asko zekien.
Hemen, Laudion, bizi den gizon horrek
eztu sekula konprenituko
ze diferentzia haundia ematen dion
gure aberriaren bizitza propioari
Z jostagarri horrek.
Basarrik berriz erderaz daki
ederki,
nik beste;
baina hala ere eztu
erderarikan batere
ikasi.
Orain ikasi
behar dut
erdera.
Baina holako gauza gaitzik ikasitzeko,
eztu oraindik inork libururik
eskribitu,
eta honela
nire apendiz-aroak
luzaro
iraunen du.
Orain galdera bat egin nahi diot
eztakit nori:
Zergatik metitu ote naiz
halako enplego txar batean?
Zergatik sartu ote nituen
sudurrak
hain kirats txarreko
zer-egin honetan?

piedra y pueblo

Pero por qué?

*No vivía yo perfectamente
en la villa de Bilbao,
en castellano,
en hispanidad?*

Pero no.

Es la señal de nuestro linaje.

Tenemos que nadar contra corriente.

Pero esto cómo se comprenderá?

Cómo se entenderá?

*Si danzo en el carrusel del pueblo,
cómo podré ser un lobo solitario?*

*Si debo beber vino tinto en las tabernas del puerto
con los estibadores que han plantado al barco alemán,
cómo podré tomar
el aspecto*

de un eremita?

*Pero esto lo comprenderá fácilmente Jorge de Oteiza,
como también*

*lo han comprendido Gabriel Celaya y Agustín Ibarrola,
como lo han comprendido*

todos mis amigos,

los que yo he conocido

y los que todavía

no he podido conocer.

*Pero sin embargo mi lucha es todavía
mayor.*

Los enemigos de mis amigos

son inteligentes,

los míos, en cambio,

no

lo son.

Dios nos libre,

dijo una vez Blas,

de las muchachas feas.

Yo digo:

El diablo nos libre

de los viejos estúpidos.

Baina zergatik?

Eznintzen ni ederki bizi

Bilboko hirian,

gatzelaniaz,

hispanidadean?

Baina ez.

Nire leinuaren ezagugarria da.

Ur lasterraren kontra iher egiten dugu.

Baina hau nola ulertuko da?

Nola adituko da?

Herriaren karruzelean dantzan egiten badut,

nola izanen naiz otso bakarti bat?

Kaietako tafernetan arno beltza edanen badut

aleman ontziari planto egin dioten langileekin,

nola hartuko dut

eremutarren

antzik?

Baina hau erraxki konprenituko du Jurgi Oteitzak,

Gabriel Zelaia eta Augustin Ibarrolak ere

konprenitu duten

bezala,

nire lagun guztiek,

nik ezagutu bai eta ezitidanek

konprenitu edo

konprenituko duten bezala.

Nire burruka, hala ere,

haundiagoa da.

Nire laguneren etsaiak

adimentutsuak dira;

nireak berriz, adimenturik

gabekoak.

Jainkoak libra gaitzala,

esan zuen Bladik,

neskatxa itsusietatik.

Nik diot:

Deabruak gaitzala libra

agure eroetatik.

piedra y pueblo

*En Bilbao hay un viejo estúpido
de cuyo nombre
no quiero acordarme.*

*Ni el mismo Jesucristo tuvo
enemigo más inconveniente.*

*Les preguntaría
al aire y al tilo del Arenal,
qué diablos o qué ángeles
le he hecho yo
a ese hombre.*

*No le gustará mi cara?
Pero si me miro en el espejo
veo
que mis rasgos
no son
feos.*

*Es verdad que uso anteojos
y que sobre el labio
no llevo
bigote,
pero sin embargo
cualquier mujer
me tomaría
por galán.*

*Tal cosa no ocurre
porque en este mundo
el dinero se compra caro.
Pero si me atreviera
a contar la historia de mi vida,
nadie me encontraría
tan odioso.*

*Pero si pudiera
ese viejo estúpido
me borraría
de la lista de los vivos.*

*Los piojos
son
insoportables.*

Bilbon agure ero bat dago,
zeinaren izenaz akordatu ere
eztudan nahi.
Jesukristok berak ere etzuen ukan
etsai traketsagorik.
Aireari eta Arenaleko astigarrari
galdetuko nieke
zer deabru edo zer aingeru
egin diodan nik
gizon horri.
Nire aurpegia etzaio gustatuko?
Baina espiluan begiratzen diot ene buruari,
eta ikusten dut
nire begitarteak
eztirela
itsusiak.
Egia da antiojuak erabiltzen ditudala
eta ezpainaren gainean
eztadukadala
biboterikan,
baina hala ere
edozein andrekin
hartuko ninduke
galaitzat.
Holakorik ezta gertatzen,
dirua kario erosten delako
mundu honetan.
Baina nire bizitzaren historia kontatzen
ausartuko banintz,
inork ez ninduke aurkituko
hain higuin garri.
Baina ahal balu
agure ero horrek
bizien arteko listatik
borratuko ninduke.
Zorriak oso
aspergarriak
dira.

piedra y pueblo

Durante la guerra de Corea

no me dejaban vivir.

Pero ahora,

en tiempo de paz,

habiendo tanta ducha,

yo no se

cómo salen.

Yo no creo que la tierra

pueda hablarle

a nadie,

pero sin embargo

el otro día me dijo un hombre honrado,

que Jorge de Oteiza,

antes de imaginar el monumento al P. Donosti,

habló

con la tierra

de los cromleches,

porque en la tierra quedan

no solamente los huesos de los hombres y de las mujeres,

sino también

sus pensamientos y sus sentimientos.

Jorge de Oteiza

habló con la tierra;

yo no creo semejante cosa,

pero sin embargo

sé

que es verdad.

Porque Jorge de Oteiza no es un hombre,

porque Jorge de Oteiza es un superhombre;

en este último tiempo me han traído al pensamiento

de que él

es un

profeta.

Antiguamente

a los profetas

los mataban

a pedradas.

Koreako gerran naikoa nahigabe
eman zidaten.
Baina orain,
baketean,
hainbeste dutxa egonik,
eztakit
nola sortzen diren.
Nik eztut sinesten
lurra mintza dakiola
inori,
baina hala ere
gizon oso prestu batek esan zidan lehengo egunean
Jurgi Oteitzak,
Aita Donostiaren oroitarria imajinatu baino lehen,
kromleketako lurrarekin
egin zuela
hitz,
lurrean geratzen baitira
ez bakarrik gizonen eta andreen hezurak,
baita haien pentsamentuak eta sentimenduak ere
baizik.
Jurgi Oteitzak
lurrarekin hitz egin zuen;
nik eztut holakorik sinesten,
baina hala ere
egia dela
dakit.
Jurgi Oteitza ezpaita gizon bat,
Jurgi Oteitza gizonago bat baita;
azken bolada honetan pentsamentura ekarri naute
hura
profeta bat
dela.
Antigoalean
profetak
harrika
hiltzen zituzten.

piedra y pueblo

*Hoy en día,
a desprecios,
a desamores
y
a ostracismos.
Yo no sé cómo Jorge de Oteiza
ha aguantado
hasta el momento
tanto
desprecio.
Los piojos de Bilbao
se han extendido
a toda Vasconia.
Semejante epidemia no se ha visto
en Europa
desde la Edad Oscura.
Solamente
se encontraría
una comparación
en la China
del tiempo de los Emperadores
o
en esa India depauperada
de las vacas sagradas.
Los piojos van en busca de cobijo, no solamente
a las cabezas de los hijos de los barrenderos y soldados,
ahora buscan
protección
en las Academias
y en los palacios episcopales.
Como si fueran personas normales
se jubilan;
dicen:
Las manos de ese (o su alma, les da igual)
están teñidas de sangre.*

Gaur egunean
arbuioz,
desamodioz
eta
desprezios.
Nik eztakit nola Jurgi Oteitzak
agoantatu duen
orain artean
hainbeste
desprezio.
Bilboko zorriak
Euskalerra guztira
sakabanatu dira.
Horrelako izurterik ezta ikusi
Europan
Edade Ilunetik;
bakarrik
aurkituko da
konparazioa
Enperadoreen Aldiko
Sinan
edo
behi sakratuen
Hindia pobreegitu horretan.
Zorriak abaro bila doaz, ez bakarrik
soldadoen eta garbitzaleen semeen buruetara,
orain Akademietan
eta Apezpikutegetan
aurkitu dute
babesa;
persona normalak balira bezala
jubilatatu egiten dira;
diote:
Horren eskuak (edo arima, berdina baitie),
gorriz tintaturik daude.

piedra y pueblo

*Y así excomulgan
del Parnaso
a los poetas,
a los escultores
o
a los pintores;
de la iglesia
a los más honrados padres de familia;
de la fábrica
a los más hábiles trabajadores.
O si no los excomulgan,
les hacen aburrirse
y al final
presentar la dimisión
con el más fútil de los motivos.
Yo
presenté
mi dimisión
de la poesía
con el pretexto del cansancio,
pero como aquel pretexto era falso,
tomé en mis manos de nuevo mi martillo
para golpear el mar de Cantabria.
También Jorge de Oteiza
con el pretexto del cromlech
ha presentado la dimisión
de la escultura,
pero sin embargo
a Vasconia
nadie le ha acompañado en el sentimiento.
Los vascófilos no nos hemos vestido
de luto.
Seguimos ten con ten,
sin saber
que una vez hubo en el mundo un escultor
con el nombre de Jorge de Oteiza.
Yo no sé lo que dirá Jorge de Oteiza
cuando lea estos versos,*

Eta honela deskomekatzen dituzte
Parnasotik
poetak,
eskultoreak
edo pintoreak;
elizatik
etxeko jaun prestuak;
fabrikatik
langile trebeenak.
Edo deskomekatzen ezpadituzte,
asper-arazitzen diete,
eta azkenean
dimisioa presenta-arazitzen diete
motiborik apurrenarekin.
Nik
poetatzatik
dimisioa
presentatu nuen
kantsazioaren aitzakiarekin.
Baina nola aitzakia hura gezurrezkoa zen,
berriz ere hartu nuen eskuan mailua,
eta Kantabriako itsasoa jo dut kolpeka.
Jurgi Oteitzak ere
kromlekaren aitzakiarekin
dimisioa presentatu zuen
eskultoretzatik,
baina hala ere
inork eztio Euskalerrriari
penamenik eman.
Euskaltzaleak ezkara lutoz
beztitu.
Tente jarraitzen dugu,
jakin gabe
munduan behin eskultore bat egon zela
Jurgi Oteitzaren izenarekin.
Nik eztakit Jurgi Oteitzak zer esanen duen
poesi-puntu hauk irakur ditzanean.

piedra y pueblo

*pensará acaso
que no tengo mucha cabeza,
(también es verdad que no quiero ganar una chapela o
una corona de laurel),
dirá,
acaso,
que en Bilbao no hay demasiado sentido,
demasiado fundamento,
y con ello me demostrará
cómo también
los profetas
pueden contagiarse
de piojedad.
Pero yo tengo que explicarle,
tengo que hacérselo comprender
qué es lo que es,
por qué él todavía no ha llegado
al fondo del alma vasca,
a este bajo infierno
donde nos ahogamos.
Nosotros no vivimos aquí
a gusto.
Nosotros no sentimos
un paraíso.
Ni Dante hubiera imaginado
semejante cosa.
Esto es un inmenso lodazal.
Aquí hasta las almas de los ángeles se mancharían.
Aquí sólo se conserva pura
la flor de las doncellas ricas,
pero no la de castidad.
Aquí no se puede respirar.
Aquí ahogar se hace la libertad.
Los hombres se compran
como si fueran manzanas,
las mujeres se venden
como si fueran peras.*

Behar-bada esanen du
nik eztudala bururik,
(egia da eztudala txapelik edo ereinotz-koroarik irabazi nahi),
esanen du,
naski,
Bilbon eztagoela sobera kanorerik,
sobera zentzurik,
eta honekin erakutsiko dit
nola
profetak ere
zorritasunez
kutsa litezkeen.
Baina nik azaldu behar diot,
esplikatuko diot,
zer den,
zergatik bera oraindikan ezten
euskal arimaren zolara heldu,
gu itotzen garen
infernu behere honetara.
Gu ezkara hemen lasai
bizi.
Guk eztugu sentitzen
paradisu bat.
Dantek ere etzuen holakorik
asmatuko.
Hau da basatza haundi bat.
Hemen aingeruen arimak ere likistuko lirake.
Hemen bakarrik gordetzen dira garbirik
dontzeila aberatsen florea,
ezen ez lorea.
Hemen ezin liteke arnasarik har.
Hemen ito egiten da libertatea.
Gizonak erosten dira,
sagarrak bezala,
andreak saltzen dira
madariak bezala.

piedra y pueblo

*Aquí todo tiene su precio:
Este es el reino de la oferta y de la demanda.
Aquí hasta la escultura de Jorge de Oteiza,
hasta la pintura de Agustín Ibarrola,
hasta la poesía de Gabriel Celaya,
se compra y se vende.
Aquí solamente hay una cosa
que nadie compra ni vende,
y ella es la poesía de Gabriel Aresti,
pues
es tan barata
que no tiene ni precio.
Yo no le echaré
a nadie
la culpa
de lo que aquí sucede.
Hasta en Madrid y en París son
unos angelitos inocentes,
y contra los capitalistas de Bilbao y San Sebastián
no me atreveré,
porque en sus almas
parece que no hay
ni rastro
del pecado de Adán.
Aquí todo es pureza,
las mujeres de los trabajadores
quitan
el sudor de sus hombres
de los patios de los bancos.
Hasta los periódicos católicos dicen la verdad.
Aquí nadie miente.
Aquí todo es legítimo,
hasta la inconsciencia de los nacionalistas vascos.
Aquí nadie se da cuenta
que la gran tempestad
está
cercana...*

Hemen orok du bere prezioa:
Eskeinduera eta eskatueraren erreinua da hau.
Hemen Jurgi Oteitzaren eskulturak ere,
Agustin Ibarrolaren pinturak ere,
Gabriel Zelaiaren poesiak ere,
saldu eta erosi egiten dira.
Hemen bakarrik gauza bat dago
inork saltzen edo erosten eztuena
eta hori da
Gabriel Arestiren poesia,
hain merkea baita
ezen ez tuen preziorikan.
Nik eztiot
botako
hemen gertatzen denaren kulpa
inori;
Madrilen eta Parisen ere
aingeruxka inuzentak dira,
eta Bilboko eta Donostiako kapitalisten gainean ere
eznaiz ausartuko,
haien arimetan
ezpaiomendago
Adamen bekatutik
arrastorik ere.
Hemen oro da garbitasuna,
langileen andreek
beren gizonen izerdiak
kentzen baitituzte
banko-etxeetako patioetatikan.
Egunkari katolikoak ere egiaziak dira.
Hemen eztu inork gezurrikan esaten.
Hemen oro da zilegi,
baina euzkotar abertzaleen erotasuna ere.
Hemen inor ezta konturatzen
ekaitz handia
hurbil
dagoela...

piedra y pueblo

*Pero cómo habría de explicarle yo
esto
a Jorge de Oteiza,
cómo le podré meter a Gabriel Celaya
yo
esto
en la cabeza,
cómo me atrevería yo
a hablarle
sobre esto
a Agustín Ibarrola,
si son
más sabios
que yo?
Nadie tiene
menos entendimiento
que yo.
Gabriel,
dónde está
tu fundamento,
dónde tienes
el sentido?
Gabriel Aresti Segurolo,
muchacho desgraciado,
por qué te atreviste
en este mar,
te metiste
en un mal empleo,
por ello no fuiste
aquí admitido.
Le digo a Otero:
Qué tal Hikmet y tú...?
Cuéntame, pues...
Pero ésta no es la hora del zorcico pequeño:
Debo contar
lo que sucede aquí.*

Baina nola esplikatuko diot nik
hau
Jurgi Oteizari,
nola sartuko diot Gabriel Zelaiari
nik
hau
buruan,
nola ausartuko nintzake ni
Augustin Ibarrolari
honen gainean
mintzatzen,
ni baino jakintsuagoak
baldin
badira?
Inork eztu
nik baino
adimenturik gutxiago.
Gabriel,
nun dago
kanorea,
nun daukazu
zentzua?
Gabriel Aresti Segurola,
mutil gaisoa,
zergatik atrebitu zinen
itsaso honetan,
enplego txar batean
zinaden metitu,
horregatik etzinen
hemen ametitu.
Oterori diotsat:
Qué tal Hikmet y tú?
Konta zaidazu bada...
Baina hau ezta zortziko txikiaren ordua.
Hemen gertatzen dena
kontatu behar dut.

piedra y pueblo

*Lo debo cantar
en zorcico mayor.
Debo hacer que sane
nuestra Vasconia.
De este peligro...
Pero éste no es el día de los versolaris.
El otro día estuve
en el frontón de Guernica.
Viendo
allá arriba
las ventanas,
pienso que la cosa nuestra
se perdió en hora.
Anoche le oí a uno
hablar sobre la cocina vasca,
cómo los huevos hay que ponerlos
debajo del fogón.
Encima de mí el cielo,
y debajo la tierra...
No hablan sobre mí,
pero quitan de debajo de mí
el polvo
con una escoba.
Y ahora debo decirle la verdad a Jorge de Oteiza:
El canto del ruiseñor
llena
mi alma
de paz.
Cuando lo escucho
me nace
dentro
una placentera melodía.
El canto del ruiseñor
trae a mi ánimo
la tranquilidad
que gocé
en el vientre de mi madre.*

Zortziko nagusian
kantatu behar dut.
Gure Euskalerrria
sendatu behar dut.
Arrisku honetatik...
Baina hau ezta bertsolarien eguna.
Lehenago egunean egon nintzen
Gernikako frontoian.
Leihoak
ikusirik han
goian,
pentsatzen dut gure gauza
galdu zela sasoiari.
Bart entzun nion bati
euskal kuzinaren gainean mintzatzen,
nola arraultzak jarri behar diren
sukaldearen azpian.
Nire gainean zerua,
nire azpian lurra...
Nire gainean ez tute hitzik egiten,
baina kentzen dute hautsa
nire azpitik,
inuntzi batekin.
Eta orain Jurgi Oteizari esan behar diot egia:
Errusiolaren kantuak
nire arima
bakez
betetzen du.
Hura entzuten dudanean
melodia atsegin bat
sortutzen zait
barnean.
Errusiolaren kantuak
gogora ekarten dit
nire amaren sabelean
gozatzen nuen
naretasuna.

piedra y pueblo

*Si me embarcara
en las olas de la mar,
de ninguna forma
navegaría
por un mundo
más hermoso.
Jesús de Nazaret
no navegó
más contento
en aquellos nueve meses.
El mundo es hermoso,
más hermoso
que el canto del ruiseñor.
En el valle del Nervión
en los anocheceres de otoño
los pinares
le dan a mi alma
un largo beso;
como si quisieran llorar
se llenan
de una clara oscuridad,
parece que copian
la cara de mi hija mayor,
cuando
Nerea,
le grito,
y se llena de tristeza,
contestándome
Ha sido
Guria,
y luego
Ven aquí,
cuando le digo,
tú no has hecho nada,
y no tienes por qué
echar
la culpa de tu inocencia
sobre tu hermana,*

Itsasoaren uhinetan
enbarkatuko banintz,
eznintzake
mundu ederrago batetik
nabegatuko
inola.
Nazareteko Jesus
etzen nabegatu
bederatzi hilabete haietan
kontentago.
Mundua ederra da,
errusinolaren kantua baino
ederragoa;
Nerbioneko hibarrean
udazkeneko arratsetan
pinudiek
arimari ematen diote
mosutxu luze bat;
negar egin nahi balukete bezala
iluntasun argi batez
betetzen dira,
badirudi nire alaba naguasiaren aurpegia
kopiatzen dutela,
hari
Nerea,
deiadar egiten diodanean,
tristeziaz betetzen baita,
eta
Guria izan da,
ihardesten badit,
eta gero
Etor hadi honera,
esaten diodanean,
hik eztun ezer egin,
eta hire inuzentziaren errua
eztadukan zergatik
hire ahizparen gainean
bota,

piedra y pueblo

*y el rostro a la niña
se le llena de alegría.
Así es nuestra tierra
junto al río Nervión,
en los claros días de otoño,
cuando se nos acerca la noche oscura,
antes de llegar
el crepúsculo.
Yo no sé pues, qué quiero más,
si nuestra tierra
o
mis hijas.
Ellas son para mí
la sal de la tierra,
el perfume del mar
y la música del aire.
El canto del ruiseñor es feo
comparado con ellas.
Si voy con mis hijas
el vino blanco es más espirituoso,
más sabroso el mejillón,
y
más aromática la hoja de Virginia.
La luz
es más clara,
el aire más
tibio,
las olas más
bellas.
La luz es un día muy largo,
el aire es una espera placentera,
las olas son los deseos de los hombres.
Son mis amigos,
cuando me siento junto a la iglesia de Mundaca
a Izaro le regalo mi mirada
y hablo largamente con ellos.
Estando un día allí,
canté una copla:*

hautxoari alaitasuna baitatorkio
begitartera.
Horrelakoa da gure lur maitea
Nerbion hibaiaren ondoan,
udaren eta neguaren arteko egun nabarretan,
gau iluna hurbiltzen zaigunean,
ilunabarra
erori baino lehen.
Nik eztakit, bada, zer dudan, ez, maiteago,
gure lurra
edo
nire alabak.
Haek dira niretzat
lurreko gatza,
itsasoko usaia
eta aireko soinua.
Errusinolaren kantua motza da
haiekin konparaturik.
Nire alabekin baldin banoa
espiritutsuagoa da arno zuria,
zaporetsuagoa muskuilua
eta
urrintsuagoa Birjiniako orria.
Argia
argiagoa da,
haizea
epelagoa,
eta uhinak
ederragoak.
Argia da egun oso luze bat,
haizea da igurikiera atsegin bat,
uhinak dira gizonaren gogoak deseaturikako gutziak.
Nire adiskideak dira,
Mundakako elizondoan jezartzen naizenean,
nire begiak Izarori erragalatzen dizkiot
eta haiekin mintzatzen naiz luzaro.
Egun batean bertan nengoelarik,
kopla bat kantatu nion:

piedra y pueblo

Ahí estás humilde Izauro
Aquí el orgulloso Lázaro
Hazme durar largamente
En esta nueva vida.

*Pero me arrepentí,
porque nuestra conversación no toma lugar
en las palabras,
porque es mejor
quedarse mudo
que no con el torpe peso de las palabras
trabar
y ensuciar
la amistad.
Yo le quiero mucho
al mar de Cantabria,
porque me ofrece
la presencia de mis amigos.
Pero cuando estoy allí
me viene al recuerdo
el alto valle del Nervión,
y entonces cruzo corriendo Vizcaya,
asciendo por Arrigorriaga arriba,
y delante de la presencia de los pinos
me duele
la ausencia de mis amigos.*

*Hor zaude apal Izaro
Hementxe harro Lazaro
Bizitza berri honetan iraun
Azi nezazu luzaro.*

Baina damutu nintzen,
gure mintzabideak ezpaitu lekurik hartzen
hitzetan,
hobe baita
mutu geratu,
ezen ez hitzetako pisu traketsarekin
adiskidetasuna
trabatu
eta zikindu.
Asko maitatzen dut
Kantabriako itsasoa,
nire lagunen presentzia
eskeintzen baitit.
Baina bertan nagoenean
Nerbioneko hibar goikoa
etortzen zait gogora,
eta orduan Bizkaia arineketan igaratzen dut,
Arrigorriagatik gora igotzen dut,
eta pinudien presentziaren aurrean
nire lagunen ausentzia
damu dut.

pedra y pueblo

CUARTA PARTE

LAUGARREN PARTEA

piedra y pueblo

**A) ASTEPEKO SEKRETARIOAREN
BERTSO BERRIAK**

***A) LOS VERSOS NUEVOS
DEL SECRETARIO DE ASTEPE***

Iparragirren bozian nuan
bertso batzuk esatera
Lege zarrian zergatik jarrai
arrazoia ematera
 Ni eznauzu atera
 Inoiz plaza batera
Bertsolarien moldian
Zoritxarrian ez det ikasi
solo artian goldian.

Voy a decir unos versos nuevos en la música de Iparragirre, a dar razón de por qué debemos seguir con la ley vieja. Jamás he salido a una plaza a la manera de los versolaris. Por desgracia no he aprendido a arar entre huertas.

Euskalerrian ez det ikusi
oraindik bide zuzenik
Orregatikan ez det egingo
aipatu nire izenik
 Inoiz ez det esan nik
 Kaletarra naizanik
Edo-ta baserritarra
Iparragirrek bezala egun
joko det nire kitarra.

Todavía no he visto en Vasconia un camino recto. Por ello no mencionaré mi nombre. Nunca he dicho si soy habitante de la calle o aldeano. Como Iparragirre hoy tocaré mi guitarra.

pedra y pueblo

Sarri askotan deitu dirate
niri bizkaitar iskua
Baina Bizkaian jaio ez banaiz
ez da miragarrikua
 Ni ez naiz arrizkua
 Bai ori arriskua
Danok aurkitzen gerana
Beraz sekula ez da jakingo
gaur ezkututzen derana.

Muchas veces me han llamado el semental vizcaíno, pero si no soy nacido en Vizcaya no es de maravillarse. Yo no soy de piedra. Esto sí que es un peligro en el que todos nos encontramos. Por tanto nunca se llegará a saber lo que hoy oculto.

Tratantiaren moduan nago
Gipuzkuan ibilia
Gauza geiegi jakina dago
erdaldun euskaltzalia
 Ni naiz animalia
 Eros ta saltzalia
Beti prezio merkian
Orregatikan ez naiz bizitzen
aberatsen subertian.

He recorrido toda Guipúzcoa como tratante de ganado. El erdaldun vascófilo ha aprendido muchas cosas. Yo soy comprador y vendedor de animales, siempre a precio barato. Por ello no vivo como los ricos.

Aberastutzen ez dan gizona
ori da gizon prestua
Bere lagunen ondasunera
ez duakio eskua
 Au ez da legezkoa
 Ez arrazoiezkoa
Zergatik degun ikusten
Nola andiak txikiakatik
poltsak betetzen dituzten.

El hombre que no se enriquece, ése es un hombre honrado. Su mano no se le va a las fortunas de sus amigos. Esto no es legítimo ni razonable, porque vemos cómo los grandes llenan sus bolsillos a cuenta de los pequeños.

Mundu onetan justiziarik
ez da sekula ikusi
Juez jaunaren ofiziuia
ori da gauza itsusi
 Tranpak dira nagusi
 Legia dute ausi
Bein deklaratu zutenak
Premiatuak izango dira
erruz lapurtzen dutenak.

En este mundo nunca se ha visto qué cosa es la justicia. El oficio del señor juez es una fea cosa. Las trampas mandan. Han roto la ley los que una vez la proclamaron. Premiados serán los que roban abundantemente.

pedra y pueblo

Nire erriko alkate jauna
eta apaiza dirade
Gure baserri aberats batez
dirurik pagatu gabe
Ederki egin jabe
Gaurkua da edade
Justiziarik ez dana
Negarrez dago zero altuan
Ama Birjina laztana.

El señor cura y el alcalde de mi pueblo, sin pagar dinero se han apoderado de un rico caserío nuestro. La de hoy es una edad en que no hay justicia. En el alto cielo llorando está la querida Virgen María.

Onen gainian esan biar det
bertso oneitan egia
Naiz asarratzen bada nirekin
justiziaren begia
Nola gogorregia
Da nirekin legia
Oiekin berriz suabia
Ala ni ere izango nintzan
Jaunaren bildur gabia.

Sobre esto debo decir en estos versos la verdad, a pesar de que se enfade conmigo el ojo de la ley, cómo es demasiado dura conmigo la ley, y en cambio con éstos es suave. De esa forma yo también sería sin temor de Dios.

Euskalerrian jaio ez banaiz
ikasi nuen dotrina
Ez da zilegi bidegabia
bilau farisiok ina
 Negarra ta zotina
 Da nireztat propina
Nik irabazitakua
Etor dakidan barkaziua
Jaunaren grazitakua.

A pesar de no haber nacido en Vasconia he aprendido la doctrina. No es legítimo el crimen cometido por esos villanos fariseos. El llanto y el suspiro son la propina que he ganado, para que se me conceda el perdón del Señor.

Nekazaritzan aita guriak
ondasuna zuan galdu
Eta arduen merkataritzan
gero ederki ugaldu
 Demoniuak baldu
 Infernura bigaldu
Inor denpora sikuan
Ola birritan gure aitaren
onrak ondatu zituan.

Nuestro padre perdió la fortuna en el labrantío, y la recuperó abundantemente en el trato de vinos. El demonio ya ha enviado a alguien en tiempo seco al infierno? De esta forma destruyó dos veces las honras de mi padre.

piebra y pueblo

Nire guraso biak ziraden
jaio Bizkaiko lurrian
Aragoiera azaldu ziran
gure Amaren aurrian
 Zarakoza zarrían
 Ez ain leku txarrian
Euskalerritik kanpuan
Ango jentia ez det egingo
laudatu nire kantuan.

*Mis dos padres nacieron en la tierra de Vizcaya.
Luego se fueron a Aragón, a la tierra de la Virgen, a la
vieja Zaragoza, no a un lugar tan malo, fuera del País
Vasco. La gente de allí no la alabaré en mi canto.*

Amasei urte nituanian
gerrara ziraten deitu
Karlosen kontra kiristinuak
soldau ninduten esleitu
 Proklama batzuk leitu
 Patu txarrak bete itu
Nik zer egin biar nuan
Onela eman nituan pauso
triste batzuk infernuan

*Cuando tenía dieciséis años me llamaron a la guerra.
Los cristinos me eligieron soldado contra el rey
Carlos. Me leyeron unas proclamas. Mi mala suerte ha
cumplido lo que tenía yo que hacer. De esta forma dí
unos tristes pasos en el infierno.*

Ola ikusi nuan lenengoz
arbasuen sorterrria
Furoen kontra isuri nuan
nire odoln erdia
 Ni ez nintzan erbia
 Ni ez nintzan zerria
Ongi nintzaden portatu
Presionero eroritare
nai ez ninduten urkatu

Así vi por primera vez la tierra de mis antepasados. En contra de los fueros derramé la mitad de mi sangre. No fui una liebre. No fui un cerdo. Me porté bien. A pesar de caer prisionero no me quisieron ahorcar.

Gerra bukatu nire etxera
aguru nintzan abitu
Bular onetan pozaren pozez
biotza ez zan kabitu
 Nik ez nuan aditu
 Gerrak atera ditu
Mila bidegabe ilun
Guraso bien azternik ere
ez nuan bilatu inun.

Una vez la guerra acabada fui corriendo a mi casa. En mi pecho no había mi corazón de puro contento que estaba. Yo no había oído que en la guerra se cometen mil crímenes imperdonables. Por ningún lado encontré rastro alguno de mis padres.

pedra y pueblo

Lau urte luze dira gerrara
sakabanatu naizala
Ama Birjina Pilarrekuak
ongi anpara nazala
 Umezurtza bezala
 Kristau onen azala
Arriskuen ingurutik
Nire aitamak il dituztela
ez det kenduko burutik.

Son cuatro largos años que me enviaron a la guerra. Ampare Nuestra Señora del Pilar la apariencia de este cristiano como a huérfano que es, de todo peligro. Que han matado a mis padres no puedo quitar de la cabeza.

Nire aitaren etxe aurrian
izan ez nuan atsegin
Modu zipriztin eta gaitzian
birauka nuan itzezin
 Ura gerta ez zedin
 Ala eta utsegin
Zezaten pentsamentuak
Bakarrik etxe ari geratzen
zitzaizkion zimentuak.

No tuve placer alguno delante de la casa de mi padre. De una manera inconveniente y obscena hablé, blasfemando. Que aquello no ocurriera así y que fallaran mis pensamientos. A aquella casa sólo le quedaban los cimientos.

Zeruan daude bi martiriak
ez daukat zer egin aika
Edo barneko sentimentuak
eta min garratzak aipa
 Galdu nuala aita
 Gaxua izan baita
Oso debil eta flako
Eriotzia eman zieten
Bizkaitarrak ziralako.

Los dos mártires están en el cielo, no tengo pues por qué quejarme, o mencionar mis sentimientos interiores y mis vivos dolores. Que perdí a mi padre, ya que el pobre fue siempre muy débil y sin coraje. Les dieron muerte porque eran vizcaínos.

Baina lenago portxatu zuten
amatxo biotzekua
Au da azio lotsagarria
edozein urkatzekua
 Afusilatzekua
 Ez nik barkatzekua
Gero ziguten lapurtu
Modu onetan zuten Jaunaren
lege santua apurtu.

Pero antes violaron a la madre de mi corazón. Esta es una vergüenza, para ahorcar o fusilar a quienquiera, que yo no puedo perdonar. Luego nos robaron. De esta forma quebrantaron la ley del Señor.

piedra y pueblo

Gizonak mundu onetan ber du
ongi pentsatu lenengo
Ola ainbeste zorakeria
desleial ez zan egingo
 Ala nola banengo
 Zoro nion emango
Au zan nire arrazoia
Zarakozako alkatiari
Fusil baten kargazoa.

El hombre en este mundo debe bien pensarlo primero. Así no se cometería tanta locura desleal. Como si estuviera loco dije que le metería al alcalde de Zaragoza la carga de un fusil. Tales eran mis razones.

Au eroatera nindualarik
topatu nuan birian
Euskalerriko aldiano bat
oso jator agirian
 Ni ez naiz inbirian
 Ok nola bizi dian
Ez beintzat paradisuan
Pozgarritxo bat aurkitu nuan
orduko pasadizuan.

Y cuando iba a comprarlo me encontré en el camino con un aldeano, al parecer muy castizo. Yo no tengo envidia de cómo viven éstos; desde luego en el paraíso no. Encontré consuelo en lo que entonces sucedió.

Galdetu nion nungua zan da
aren erria Zornotza
Lurralde orrek ikusi zuan
nire aitamen jaiotza
 Pozik ene biotza
 Ez det zergatik lotsa
Senidiak ditudala
Mutil egoki ura zalako
nire gusu naturala.

Le pregunté de dónde era y me dijo que su pueblo era Amorebieta. Esta tierra vio el nacimiento de mis padres. Mi corazón estaba contento. No tengo por qué avergonzarme de los parientes que tengo. Aquel apuesto mozo era mi primo natural.

Ezaguera zelebratzeko
topa genduan taberna
Nafarruako ardo gorria
Gipuzkuako lanperna
 Nun zeguen galerna
 Argitzeko linterna
Atera ginan ordirik
Trenbire ura geldituzeko
ez zan bandera gorririk.

Para celebrar nuestro conocimiento encontramos una taberna. Vino claro de Navarra y lampernas de Guipúzcoa. En dónde estaba la linterna para alumbrar aquella galerna? Salimos borrachos. Para parar aquel tren no había bandera roja.

piedra y pueblo

Nire lengusu maitagarria
ez zan ain mutil ergela
Zakarragua izan da beti
udazkenian orbela
 Nola zabiltz orrela
 Bilbotik zetorrela
Idi biak arriatzen
Zarakozara gurdi aretan
gatz zuria karriatzen.

*Mi amable primo no era un muchacho tan tonto.
La hoja caída en el otoño siempre será más despreciable.
Cómo vienes así? Que venía de Bilbao arreando
los dos bueyes, acarreado a Zaragoza sal blanca en
aquel carro.*

Itaurreneko bire luzia
ez da bire egokia
Idi ezkerria geldia bada
bestia berriz lotia
 Nun ote da dotia
 Aurkitzeko tokia
Merkia da karriua
Modu onetan ez det pagako
alabaren arriua.

*El largo camino delante de los bueyes no es un
camino conveniente. Si el buey izquierdo es lento el
otro es dormilón. Dónde hay un sitio para encontrar la
dote? El acarreo es barato. De esta manera no pagaré
el arreo de la hija.*

Gaurko kamio eta estartak
ez dira oso errezak
Gerra bukatu berria dago
gutziz dira aldrebesak
 Ok dira esamesak
 Ez pagatzeko mesak
Aita nirekin nenkarren
Gurdiak bulka egin zigun da
aita il zan Baratzarren.

Las carreteras y estradas de hoy en día no están muy fáciles. La guerra está recién terminada y son lamentables. Estos dimes y diretes no sirven para pagar las misas. Traía a mi padre conmigo, se nos volcó el carro y el padre murió en Barazar.

Nire aitaren korputz santua
lurrian zeguanian
Berialaxen paratu nintzan
kargatutzeko lanian
 Gurdiaren gainian
 Oso modu onian
Begiak zerratutzeko
Eta gatzian kanpo santura
ongi kontserbatutzeko.

El santo cuerpo de mi padre estando en el suelo, en seguida me puse en el trabajo de la carga de la sal al carro, de manera muy buena, para conservar su cuerpo bien hasta el cementerio.

piedra y pueblo

Bizkaian txarki bizitu gera
ez gaude Andaluzian
Amaika duro irabazteko
ofizio itsusian
 Oso bire luzian
 Espainia guzian
Daramat nire gurdia
Ortik atera detan dirua
izan da guztiz urria.

En Vizcaya hemos vivido muy mal. No estamos en Andalucía. Para ganar once duros en este duro oficio, por largos caminos, por todo España, llevo mi carro. El dinero que saco de ahí es muy escaso.

Txirrinkak txistu egiten zuten
pronto gelditu gurian
Edo bestela gogorrik laban
egiten zuten eurian
 Kalonjiak urian
 Debalde Biturian
Eman zion oliua
Olan alperrik ez zedin galdu
gatz onaren baliua.

Las ruedas silbaban, queriéndose parar de pronto, o si no resbalaban fuertemente debajo de la lluvia. En la ciudad de Vitoria el canónigo le dio los óleos de balde, para que así no se perdiera el valor de la buena sal.

Biok gurekin generamala
gurdi artan eriu
Konturatu zan jakin gaberik
zein zan erremediua
 Bertako meriua
 Jainkua mediua
Biar zuan enterratu
Euskalerrian egiten dira
zaldiak alan perratu.

*Mientras llevábamos la muerte con nosotros en
aquel carro, sin saber cómo remediarlo se apercibió el
alguacil. Dios mediante, había que enterrarlo al día
siguiente. En Vasconia es así como herramos a las
yeguas.*

Mutil gaztiok beraren kontra
egin genduan burruka
Gizon portitzak ginala inork
ezin zezakian uka
 Gaiztoki zedin buka
 Karraisi ta oiuka
Ebrora genduan bota
Aragoieko moldian jantzan
egin zitzan amar jota.

*Nosotros dos, fuertes mozos, luchamos contra él.
Nadie podía negar que éramos vigorosos, para que
acabara mal, chillando y gritando lo arrojamos al
Ebro, para que bailara diez jotas a la moda de Ara-
gón.*

piedra y pueblo

Beraz igesi genduan eta
atakatu Naparrua
Gutzaz mendeka ez zedin gero
gure merio arrua
 Ni ez naiz txixarrua
 Dauzkana lau arrua
Bernak baditut azkarrak
Ni bezalaxen buru gogorrak
dirade beti astarrak.

*Por ello nos marchamos huyendo y atacamos
Navarra, para que no se vengara de nosotros el orgu-
lloso alguacil. Yo no soy chicharro de cuatro arrobas.
Las piernas las tengo ágiles. Los burros machos suelen
ser tan cabezotas como yo.*

Iruñeraño eldu baño len
euskaraz genduan entzun
Nire lagunak aitaren alde
euskaraz otoitz egin zun
 Nik erdaraz erantzun
 Biok daukagun zentzun
Andi eta aproposa
Aurrerantzian ez da egingo
nire biotzian poza.

*Antes de llegar a Pamplona oímos hablar en vas-
cuence. Mi compañero rezó en vascuence por su
padre. Yo le contestaba en romance. Para ello los dos
tenemos buen sentido. De entonces en adelante no
habría ya alegría en mi corazón.*

Aste askoren buruan ginan
baserrira allegatu
Euskal garbia ikasitzera
gogor nintzan enplegatu
 Askotan ernegatu
 Geienetan negatu
Ori da gauza nekeza
Eskola artan ikusi nuan
andia nire flakeza.

*Al cabo de muchas semanas llegamos a nuestro
caserío. Me empeñé duramente en aprender un vas-
cuence puro; muchas veces renegaba; la mayoría de
las veces me aburría, pues ello era cosa muy difícil.
En aquella escuela vi que era muy grande mi debili-
dad.*

Errezo franko aditu zuan
aitaren korputz ustelak
Dirutan ongi kobratu zuan
ango parroko ezkelak
 Opil eta pastelak
 Txokolate mistelak
Ederra okasiua
Modu orretan irabazteko
Jaunaren barkaziua.

*El cuerpo del padre escuchó muchos rezos, que el
párroco bizco del lugar los cobró en dinero. Allí había
pastas y pasteles, chocolate y mistela. Qué hermoso
entierro! De semejante forma quisiera ganar alguno el
perdón del Señor.*

piedra y pueblo

Berialaxen juan ginaden
erriko kanpo santura
Egun artako ordu garratzak
datozkidala kantura
 Erori naiz kontura
 Nun ote da mentura
Nora guaz azkenian
Pentsatzen nuan nire osaba
enterratu zutenian.

Inmediatamente nos fuimos al cementerio del lugar. Recuerdo yo ahora los días amargos de aquel tiempo. Caí en la cuenta de cuál era mi ventura. A qué sitio nos encaminamos. Eso era lo que yo pensaba cuando enterraron a mi tío.

Itsasaldetik dator aizia
gureganantza iparra
Lañoz betetzen dirade baso
altua eta ibarra
 Zertarako negarra
 Ta sufritu biarra
Ez gaitezen orain trista
Gizon guztiak iltzen generala
eman dirate albista.

El viento norte viene hacia nosotros de la parte del mar. El alto monte y el valle se cubren de niebla. Para qué llorar? Para qué sufrir? No nos entristezcamos. Me han dado la noticia de que todos los hombres tenemos que morir.

Kanpo santura aldapa gora
ez zan ain gauza ederra
Giltzurrunari ematen zion
ez aguantatzeko gerra
 Bizkaitarraren berba
 Esaidazue zer da
Niria det enpeñatu
Nik ez derala inoiz egingo
inor ere engañatu.

*La cuesta arriba hasta el cementerio no era cosa tan agradable. Me daba abundante guerra en los riñones. Decidme qué cosa es la palabra del vizcaíno. Yo la mía empeñé entonces, diciendo que jamás engaño-
ría a nadie.*

Alan zin egin nuan beraren
korputz ilaren gainian
Eta gainera nire guraso
bien oroitzapenian
 Nire fede onian
 Eta maitasunian
Ez naiz inoren zorduna
Nire diruaz pagatuko det
jango deran babarruna.

*Así lo juré delante de su cuerpo muerto, y además en la memoria de mis padres, en mi buena fe y amor. No soy deudor de nadie. Con mi dinero pagaré las alu-
bias de mi alimento.*

pedra y pueblo

Mundu ontara jaiotzak eni
ekarri ziran malurra
Eta gizondu nintzadenian
zoritxarraren gailurra
 Zerutikan elurra
 Ta oinetako lurra
Au zan nire ondasuna
Jangoiko portitz eta liberal
orrek eman didazuna.

*El nacer a este mundo trajo para mí la desventura,
y cuando me hice hombre la cumbre de las desgracias.
Del cielo la nieve, y la tierra de debajo de mis pies,
esa era mi fortuna, la que un Dios fuerte y generoso
me ha ofrecido.*

Ez nintzan garai artan Bizkaiko
bizimoduen ezagun
Erdalerritik elduta gero
ez nenguan euskaradun
 Orain batere lagun
 Ofendi ez dezagun
Egia esango degu
Jesukristoren pasiotikan
artu biar det eredu.

*En aquel entonces no era yo conocedor de la
forma de vivir de Vizcaya. Recién llegado de la tierra
de romance no era poseedor de la lengua vasca. Para
no ofender ahora a ningún amigo, diremos la verdad,
tomaremos ejemplo de la pasión de Jesucristo.*

Kristau askoren fede gogorak
ez du biar ezein auspo
Karidaderik ez daukatela
biotza da burdinazko
 Zamari eta asto
 Ortik dabilta asko
Jainkuaren izenian
Kondenatuak izango dira
Zeruratzen naizenian.

*La dura fe de muchos cristianos no necesita fuelle
alguno. No teniendo caridad su corazón es de hierro.
Por ahí andan muchos caballos y jumentos nombran-
do a Dios. Todos ellos serán condenados el día de mi
salvación.*

Jesukristoren Lege Santua
ez da ain gauza gogorra
Eta kristauen borondatia
ez da birtute agorra
 Geroko derrigorra
 Il ezkeru zigorra
Munduan amodiua
Osterantzian emango diot
nire azken adiu.

*La Santa Ley de Jesucristo no es cosa tan dura,
y la voluntad de los cristianos no es una virtud infértil.
Obliga en el futuro. Promete castigos después de la
muerte, y en este mundo sólo el amor. De otra forma
habría de ofrecerles mi postrer despedida.*

pedra y pueblo

Eldu berria nagan erri
orrek ez dirudi dama
Beti prezio karu batian
gordetzen duana fama
 Ori da nire ama
 Ta berekin darama
Odolian luzemia
Ala ta guzti deklaratzten naiz
Euskalerriko semia.

Este pueblo al que estoy recién llegado no parece la señora que guarde siempre su fama a un precio caro. El es nuestra madre, y consigo lleva leucemia en la sangre. Sin embargo debo declararme hijo de Vasconia.

Euskal bertsoan alegindutzen
naiz zorionaren bila
Euskal kristauen fede zintzua
ez dedin izan debila
 Emen nago umila
 Ta nire kontra mila
Erretore diru zale
Irtengo dira Satan diabru
infernutarraren alde.

Siempre me he esforzado por la felicidad en verso vasco, para que la firme fe de los cristianos vascos no sea cosa débil. Aquí estoy yo, humilde, y en contra mío saldrán mil sacerdotes amantes del dinero en la defensa del infernal Satanás.

Oneik dirade pentsamentuak
niri menditik errira
Arin etortzen zitzaizkidanak
nere arima erdira
 Gogo oneik zer dira
 Nere etxe berrira
Kontentuz natorrenian
Ez nintzan ala ni portatuko
trantzerik gogorrenian.

Estos eran los pensamientos que rápidamente se me venían al ánimo cuando bajaba del monte hasta la puebla. Qué son estas elucubraciones, cuando vengo contento hacia mi casa? Así no me hubiese portado en el más difícil de los trances.

Itsas onduan mariatzeko
ez det ikusten batela
Nire diruaz beteko dute
lapur gaiztuak sakela
 Au da nire papela
 Jantziko det txapela
Apaiz jaunaren aurrian
Alkate ori urkatuko det
baratzeko intxaurrian.

Para navegar por la parte del mar no veo la barca adecuada. Los pérfidos ladrones se llenarán los bolsillos con mi dinero. Este es el papel que me corresponde. Me colocaré la boina delante del señor cura, y ahorcaré a ese alcalde en el nogal de nuestro jardín.

piedra y pueblo

Nola niria izan dan beti
oso portaera zurra
Mila zatitan ausi zidaten
gero buruko azurra
 Nik ez diot gezurra
 Artuko det aitzurra
Au da nire zoritxarra
Nigatik orreik esaten dute
naizala gizon litxarra.

*Como la mía ha sido siempre una conducta muy
recta, por ello destrozaron en mil pedazos mi cráneo.
Yo no digo mentira. Tomaré la azada. Esta es mi des-
gracia. De mí ésos dicen que soy un hombre indigno.*

Itz laburretan kontatuko det
nire penen kontaera
Argi ta garbi esplikatzeke
gizon oien portaera
 Kontsolatzen bagera
 Adanen edadera
Ez gara allegatuko
Eta Jaunaren bendiziuak
ez zaizkigu edatuko.

*Contaré en cortas palabras la historia de mis
penas, para explicar muy claramente la conducta de
estos hombres. Si nos consolamos no llegaremos
jamás a la edad de Adán, y las bendiciones del Señor
no llegarán hasta nosotros.*

Zerua dago goibelik eta
lañua dabil ibaian
Alako egun asko ikusten
dirade sarri Bizkaian
 Nekazariak laian
 Duaz azken amaian
Pobreza andi batera
Jainkuak eman bezaie laster
mejoratzeko aukera.

*El cielo está oscuro y en el valle anda la niebla.
Muchos días parecidos se ven en nuestra Vizcaya. Los
aldeanos layando llegan al final a una gran pobreza.
Dios les ofrezca pronto oportunidad de mejorar.*

Orain artian izan naiz beti
nire buruaren jabe
Orregatikan modu gaitzian
ala gorrotatzen nabe
 Beti egun ta gabe
 Ala esaten dabe
Naizala gizon gaiztua
Benkatutzeko sartuko duste
sabel erdian aiztua.

*Hasta el momento siempre he sido dueño de mis
actos. Por ello han llegado a odiarme de forma tan
cruel. Siempre, noche y día, dicen de mí que soy un
mal hombre. Para vengarse terminarán clavándome
un cuchillo en mitad del vientre.*

pedra y pueblo

Bata bilaua guztiz da eta
ez ain prestua bestia
Bi oien kontra ez da irtengo
ezer ezpada nastia
 Emango det tristia
 Dubarikan astia
Ala fabore deiegun
Desiertuan pasatuko det
baraurik berrogei egun.

Si el uno es un villano, el otro no es un hombre tan honorable. Contra ellos no saldrá sino la mala saña. Emplearé, triste de mí, mi tiempo en balde, para que así salgan ellos favorecidos. Tengo que pasar en el desierto ayunando cuarenta días.

Orko ilunpe itsugarriak
benetan dira sarriak
Lurrian kontuz jarritzen ditut
nire begi atzarriak
 Ortik erruz arriak
 Apropos ezarriak
Ikusten ditut berriro
Goiko ta beko lanbro andiak
urratu dira argiro.

Las cegadoras tinieblas de ahí son verdaderamente espesas. Pongo con mucho cuidado en el suelo mis despiertos ojos. Por ahí hay abundantes piedras, colocadas con toda intención. Las veo nuevamente. Las nieblas de arriba y de abajo, las de la montaña y las del valle, se han disipado súbitamente.

Goiko zerutik gordetzen dira
lurbirako gobernuak
Bildurratetik egiten dira
ikaratu infernuak
 Ala dio sermuak
 Jangoiko eternuak
Zaintzen ditu artegiak
Bide okerrak argitzen dizkit
Neska baten aurpegiak.

Desde el alto cielo se guardan los gobiernos de la tierra. Los infiernos tiemblan del miedo que tienen. Así dice el sermón. Dios eterno cuida los rebaños. El semblante de una muchacha alúmbrame los torcidos caminos.

Amodiuz lurrera dua
nire biotza gainezka
Gaurko goizian ezagutu det
maitatuko nauan neska
 Badaukat nori eska
 Arindutzeko kezka
Ariman barrenekuak
Maite orrekin izango ditut
egun zorionekuak.

Hacia la tierra se vierte mi corazón. Esta mañana he conocido la moza que me amaré. Ya tengo a quién pedir que alivie mis inquietudes, las más íntimas de mi alma. Con mi amada tendré días venturosos.

pedra y pueblo

Neskatxa polit eder galanta
zu zara nire gozua
Amodiuz egun batian
artuko dizut mosua
 Ala dabil zozua
 Ez ain itxurosua
Piko elduak jan gura
Ilusiuaz zure portuan
bota biar det aingura.

*Muchacha bonita, bella y hermosa, tú eres el gozo
mío, algún día con amor habré de besarte. Así anda el
tordo, no tan afortunado, queriéndose comer los higos
madurados. Con ilusión quiero arrojar mi ancla en el
puerto tuyo.*

Alegrantziaz beterik dago
ni bizi naizan auzua
Arantza dua abiaduraz
ematen deran pausua
 Izango zara usua.

*La vecindad en que vivo está llena de alegría.
Hacia allí se encaminan rápidamente mis pasos. Tú
serás la paloma...*

**B) ASTEPEKO SEKRETARIOAREN
BERTSO ZAHARRAK**

***B) LOS VERSOS VIEJOS
DEL SECRETARIO DE ASTEPE***

pedra y pueblo

Hemen nago, pelota-tokian;
hemen, plaza erdian.
Garraisiok entzunen dirade
edonundik herrian.

Aquí estoy, en el frontón; aquí, en medio de la plaza. Estos gritos míos se oirán por doquier en la puebla.

Hemen jaikitzen naiz
negarrez,
zerri ta zorri batzuren kontra
fugerte deiadarrez.

Aquí me yergo llorando, gritando fuertemente contra esos piojos y cerdos.

Eskubian ikusten dut
eliza,
eta ezkerrean herriko etxea
digante baten gisan.

A la izquierda veo la iglesia y a la derecha la casa del pueblo como si fuera un gigante.

Euskalerrian bakarra,
hegaz dabil zikoina.
Hemengo basatzen sartzen
zaiola kasik oina.

La única del País Vasco va volando la cigüeña. Casi se le introduce la pierna en este lodazal.

Herri honetan eztago
inor kontentu:
Agintariak ez tute
batere fundamentu.

En este pueblo nadie está contento. Los gobernantes no tienen sentido común.

Egia garratzak kantatu nizkien
bertsotan;
horregatik eznaute hartuko
maitakiro besotan.

Les canté amargas verdades en verso. Por ello no me recibirán amablemente en sus brazos.

Nire etsaiak izan dirade
zorria ta zerria,
haiengandik kopetatik atera zait
oparo izerdia.

Mis enemigos han sido siempre el piojo y el cerdo. Por ellos me ha salido abundante sudor en la frente.

Gizonak izan dirade beti
gizonaren etsaiak.
Ardiak zergatik maitatuko ditu
artzaiak?

Los hombres siempre han sido enemigos del hombre. El pastor por qué tendrá que amar a sus ovejas?

piedra y pueblo

Nola gorrotatzen dudan orain
Iparragirren boza;
ezin dezaket oraintxe
puntu gaitzikan goza.

*Cómo odio ahora la música de Iparragirre. Ahora
no puedo gozar de puntos difíciles.*

Orain mintzaten naiz
lehengo bertso zaharrear;
nola esplikatuko naiz
nire euskera meharrear?

*Ahora hablo en el viejo verso de antes. Cómo
podré explicarme en mi angosto vascuence?*

Muskerrak eta sugeak zaizkit
ahotikan atera;
honela ez naiz helduko
zeru goien batera.

*Lagartos y culebras me han salido de la boca. Así
no llegaré a una cumbre muy elevada.*

Nire ahoak dirudi
Donibane Sanjoan;
eztakit zer etorriko zaigun
bizitzaren ondoan.

*Mi boca parece el día San Juan. No sé qué es lo
que nos vendrá después de muertos.*

Iregi bitez atear,
zabal bitez leihoak;
ikus dezaten guztiek nola
hiltzen garen lehoiak.

*Abranse las puertas, ábranse las ventanas. Que
vean todos cómo morimos los leones.*

Etor bitez herriko guztiak
orain nire aurrera,
ikas dezaten nigandik nolakoak diren
infernuko sarrerak!

*Vengan todos los del pueblo ahora delante de mí.
Aprendan de mí cómo son las entradas del infierno.*

Azkenean sartu behar naute
kalabozoan.
Leku atseginean bizi garade,
hala, gozoan.

*Al final tendrán que meterme en el calabozo. Vivi-
mos en un sitio agradable, así tan gozoso.*

Nire bizitzaren kontraera
kontatu nahi nuen.
Iparragirren boz ederrean
kantatu nahi nuen.

*Quería contar la historia de mi vida. La quería
cantar en la bella música de Iparragirre.*

piedra y pueblo

Baina jentea niri entzunik
aspertuko da;
nire gauza, nire hauzia honela, nola
aztertuko da?

*Pero la gente escuchándome se aburrirá. Mi causa,
mi pleito así cómo podrá investigarse?*

Herri honetan kantatu
egiten da debalde,
inork ezpaitu irtenen
sekula nire alde.

*En esta puebla se canta de balde, ya que nadie sal-
drá jamás a defenderme.*

Ni naiz bertsolari hain traketsa,
kantore txit torpea;
nirekin ezlitzake kontentatuko
Pariseko gortea.

*Yo soy un versolari tan torpe, cantor tan desafina-
do. Conmigo no se contentaría la corte de París.*

Ni baino barregarriagorikan
ezta ezein pailazo;
hain trankil ezta biziko inor,
hain lazo.

*No hay payaso más ridículo que yo. Nadie vivirá
más tranquilo, más despreocupado.*

Badakit zer iguriki didan
mundu honetan,
zergaitikan bizi naizen beti
penetan.

*Ya sé lo que me ha agudardado en este mundo, por-
que siempre vivo penando.*

Bitiza ez, ezta gauza atsegina,
ezta gauza ederra.
Okerbideari diot
emango nire gerra.

*La vida no, no es cosa agradable, no es cosa bella.
Daré mi guerra a la injusticia.*

Gauzak gertatu diren bezala,
zergaitikan dira gertatu?
Zergaitik hain asturu gaitzik zitzaidan
niri suertatu?

*Por qué han sucedido las cosas como han sucedi-
do? Por qué me ha tocado a mí tan mala suerte?*

Bideak edonundikan doaz
mendiaren barrena,
lehena ahaztu gaberik
dator ehungarrena.

*Los caminos a través del monte, van por cualquier
parte. Antes de olvidar el primero ya estamos en el
centésimo.*

pedra y pueblo

Probak eman nituen nik
bertsolaritzan,
nire bertsoak Euskal herriak
kotsola ditzan.

*Pruebas di de mi calidad como versolari. Para que
mi verso pudiera consolar a los pueblos vascos.*

Etorri nintzen Aragoietik
gure lurrera,
okerbidearen
gaineko gailurrera.

*Vine a nuestra tierra desde Aragón, a la cumbre de
la injusticia.*

NI naiz
naizena,
eztiot inori aipatuko
nire izena.

Yo soy el que soy, a nadie diré mi nombre.

Astepeko Sekretarioa jarri
zaida izengoitia,
eta Matxalen Errenteriako
izan zen neronen esposa maitea.

*Me han colocado el sobrenombre de Secretario de
Astepe, y mi esposa adorada fue Madalen de Rentería.*

Zergatik inor ezta aterako
nire deiera?
Zergatik gizon-andreen prestutasunak
izanen ditu hogei era?

*Por qué nadie ha de salir a mi llamada? Por que
tendrá que tener veinte caras la honradez de los
humanos?*

Zergatik eztu berdin tratatuko
aberatsa eta pobrea?
Zergatikan premiatuko du berdin
etoia ta noblea?

*Por qué no tratará igual al rico y al pobre? Por qué
premiará lo mismo al innoble que al noble?*

Bai. Zer da hau?
Hemen ni plazan?
Eztira oraindik enteratu
zer naizan?

*Sí. Qué es esto? Por qué estoy yo en la Plaza? No
se han enterado todavía de lo que soy?*

Nire andre bihotzeko maitagarri dotorea
bortxatu dute,
honela nire desoea
altxatu dute.

*Han violentado a la esposa amable y bien llevada
de mi corazón. Así han alzado mi deseo.*

pedra y pueblo

Nire etxe politean sartu ziren
lapurrak,
nobleagoa da
gure zakurra.

*En mi bonita casa entraron los ladrones. Más
noble es nuestro perro.*

Nire seme frailearen
ebatsi zidaten kaliza;
hartzaz hornitzen da orain
eliza.

*Han robado el cáliz de mi hijo fraile. Ahora con él
se adorna la iglesia del lugar.*

Gizon prestuen liburu haundian
ezta nire izenik.
Orain eztakit nik
gizon naizenik.

*En el gran registro de los hombres honrados no
figura mi nombre. Ya no sé ni si soy hombre.*

Ezta hemen
bide zuzenik.
Ezta hemen
gizonik.

Aquí no hay justicia. Aquí no hay hombres.

Gizonak etxean
bildurtzen dira.
Andreak kalean
okertzen dira.

*Los hombres en casa se acobardan. Las mujeres
en la calle buscan el camino de la perdición.*

Zorri bi hoi en esanetara
makurtzen dira,
eta honelaxen ohorea eta ondasunak
lapurtzen dira.

*Se pliegan a las órdenes de esos dos piojos, y así
se roban el honor y los bienes.*

Niri gertatu zaidana gero,
gertatuko zaio askori.
Nire biotz hain leialak
badiost hori.

*Lo que a mí me ha sucedido, pues, les ha de suce-
der a muchos. Así me lo dice mi leal corazón.*

Bertso berrietan esplikatzeko
hau zen luzea,
gizonen belarrietan
ezta dultzea.

*Esto era muy largo para explicarlo en versos nue-
vos, y para el oído de los hombres no es cosa buena.*

piedra y pueblo

Madarikatua izan bedi
gizonen kasta.
Mundu honetan ezin diteke
trankilidaderikan dasta.

*Sea maldita la casta humana. En este mundo no se
puede gozar de paz.*

Nik esan behar dudana
ezta hain atsegina,
hau da nire protesta luzea
nik hitzegina.

*Lo que yo he dicho no es cosa tan agradable, ésta
es la protesta que por mi boca presento.*

Jesukristorik gabetan ezta
Ebanjeliorikan.
Hura gabe elizek eztute
baliorikan.

*Sin Jesucristo no hay Evangelio. Sin El las iglesias
no tienen valor.*

Maitatzen dut Jesukristo
bihotzetikan.
Okerra eta zuzena dira
bi hots etikan.

*Amo a Jesucristo de corazón. La justicia y la injus-
ticia tienen dos significados diferentes éticamente.*

Harek juzgatuko gaitu
guztiak gero;
zuhur izanen garade batzuk,
besteak ero.

Luego El habrá de juzgarnos a todos. Unos seremos buenos y los demás malos.

Orain esaten dudana
ez har kontuan,
potorik ezpaitut egin behar
puntuan.

No toméis en cuenta lo que ahora digo, ya que no tengo por qué fallar al punto.

Bertsolariak gagode beti
negurriak loturik,
bederatziko batean ezti et hoieri
eginen salaturik.

Los versolaris estamos atados por la rima. No puedo saludar a éstos en un verso de nueve rimas.

Hoek dira nire kontrario aldrebesak.
Maitatu behar ditut.
Haien bertuteak
aipatu behar ditut.

Esos son mis pérfidos rivales. Tengo que amarlos. Tengo que mencionar sus virtudes.

piedra y pueblo

Jainkoak hoien bekatu latzak,
nolatan juzkatuko ditu?
Satan deabruaren azioak,
nolatan puskatuko ditu?

Cómo juzgará Dios los grandes pecados de esa gente? Cómo podrá destruir las acciones del alevoso Satanás?

Plaza honetan eztago
inor entzule.
Haien galdereri eznatzaie oraintxe egonen
ni erantzule.

Nadie me escucha en esta plaza. No podré pues contestar a sus preguntas.

Nola diot inori esplikatuko
frutuen parabola,
iharririk badago
Gernikako arbola?

Cómo podré explicar a nadie la parábola de los frutos, si ya está seco el árbol de Guernica?

Nola diot inori esplikatuko
testamentu zaharra?
Nola adoratuko dut
Moisesen laharra?

Cómo defenderé el Antiguo Testamento? Cómo adoraré la zarza de Moisés?

Baldin eta oraindik ezpadakigu nun dagoen
arbola malatoa?
Txit odol garbikoak baldin badira
negroa eta mulatoa?

*Si ahora ni sabemos dónde está el árbol malato?
Si ahora son de sangre limpia el negro y el mulato?*

Nola errespetatuko dugu
Tabor mendia,
ezpaldin bazaigu bihurtuko
fuberoen mendea?

*Cómo respetaré el monte Tabor, si no ha de vol-
vernos la época de los fueros?*

Euskalduna fededuna,
baina goiko zerutik
eztu inork eskribitu.
Hau diot zutik.

*El vasco es creyente pero del alto cielo nadie ha
escrito. Lo digo erguido.*

Euskalerriak hau dio
ditxo zahar batean.
Honela bizi gara gu
bakean.

*En un viejo dicho así lo dice el pueblo vasco. Así
hemos vivido en paz.*

piedra y pueblo

Hau da euskaldun zaharren
legea,
eta euskaldun berrion
fedea.

*Esta es la ley de los viejos vascongados. Esta es la
fe de los nuevos vascongados.*

Hemendikan ateratzen dena
ezta zilegi;
lege barnean sartzeko ikusten dut
difizilegi.

*Lo que de aquí sale no es legítimo. Para justificarlo
con la ley lo veo demasiado arduo.*

Eta zertarako aipatu behar dut
bestela
nik
Gaztela?

*De otra forma para que tendría que nombrar a
Castilla?*

Begira nola nagoen
itsurik.
Zerriei berriz eztiat nik
emanen abisurik.

*Mirad qué ciego estoy. Nunca volveré a advertir a
los cerdos.*

Niri egin didatenak barkaziorikan
eztu merezi.
Jainkoak hauk juzgatuko ditu
gogorrik bihar edo etzi.

*Lo que me han hecho no merece perdón. Dura-
mente habrá de juzgarlos Dios mañana o al día
siguiente.*

Eztakit zer duten irabazi,
edo zer galdu;
penak eginen zaizkio infernuan
ugaldu.

*No sé lo que han ganado o lo que han perdido. A
esos las penas se les aumentarán en el infierno.*

Orduan protesta jarritzen eypadut,
eztaukat jeniorik,
hoiek ezpaitute
lortuko premiorik.

*Por ello si no presento mi protesta, no tengo genio.
Esos no podrán alcanzar premio alguno.*

Hemen nago gartzela barnean,
honera naute sartu,
zerri eta zorri hoien kontra
nintzelako ausartu.

*Aquí estoy, dentro de la cárcel, porque me atreví
contra esos cerdos y contra esos piojos.*

piedra y pueblo

Hemen pagatzen dut
nire errurik eza.
Ni naiz
traketsa.

Aquí pago mi inocencia. Soy tonto.

Merezi dut
zihorra.
Ni naiz
idorra.

Merezco el castigo. Soy inútil.

Hemen
maiz
hiltzen
naiz.

Aquí me muero frecuentemente.

Haien
zai
diot
bai.

Esperándoles digo que sí.

Eztut
indarrik,
gizontasunaren
hondarrik.

No tengo fuerza, ni rastro de hombría.

**C) ASTEPEKO SEKRETARIOAREN
BERTSO LIBREAK**

***C) LOS VERSOS LIBRES
DEL SECRETARIO DE ASTEPE***

piedra y pueblo

Eta juzgatutzen banaute
eztit inporta.
Begira
ni naiz
gizona,
gizonaren semea,
gurutze batean behin il
zena,
Golgota haretan
akabatu
zena,
ni naiz
Kristo
urdina,
eta
ez besterik.
Jainkoa bedi
nitzaz
urrikal
mundu honetan
eta hoietzaz
bestean.

*Y si me juzgan no me importa. Mirad que yo soy el
hombre, el hijo del hombre, el que murió en una cruz,
el que se terminó en aquel Gólgota, yo soy Cristo azul,
y nada más. Dios se apiade de mí en este mundo y de
ellos en el otro.*

AURKIBIDEA

[7] Aurkezpen gisa

[11] Eskeintza

[13] **LEHEN PARTEA**

[15] **A)** Dom. Peilheni hitz apurtuak

[17] **C)** Souvenir d'Espagne pour mesdemoiselles
Solanje et Helena Gereziaga

[19] **D)** Zorrotzako portuan aldarrika

[21] **E)** Hau izan da hasiera

[21] **F)** Act-I-18

[21] **G)** Mikel Lasari aita San Frantziskoren
bezperan

[21] **H)** Foru Santuak dio...

[21] **I)** Bilboko erdal poeteri telegrama

[23] **J)** Entzun nahi didanari...

[23] **K)** Ni eta nik diodana

[25] **L)** Nire izena

[27] **M)** Munduaren neurria

[31] **BIGARREN PARTEA**

[33] **A)** Beti esanen dut egia

[35] **B)** Nire aitaren etxea

[37] **C)** Usoak dira

[39] **D)** Ni naiz behin esan nuena

[39] **E)** Apur dezagun katea

[43] **F)** Maisu bat izan dut

[45] **G)** Bi alaba ditut

[45] **H)** Bigarrena izan zen

[47] **J)** Esku beteketa biltzen dut egia

[49] **K)** Inork badio

[49] **L)** Munduan gauza bat bakarra dago

piedra y pueblo

- [51] **M)** Ura darionean
- [51] **N)** Amaren oneriztea
- [51] **O)** Jokoa ezta errenta
- [51] **P)** Axular
- [53] **Q)** Bilboko zimauregian
- [53] **R)** Amorioaren preziorik
- [53] **S)** Irrintzi gorri batekin
- [53] **T)** Argia
- [55] **U)** Hobe egia biribil bat
- [55] **V)** Esanen dute
- [55] **W)** Egia bat esateagatik
- [57] **X)** Egun batean
- [57] **Y)** Gauza bat dago
- [59] **Z)** Joxepe

[61] **HIRUGARREN PARTEA**

- [63] **A)** Gauza zelaiak
- [63] **B)** Munduko gauza guztiak
- [65] **C)** Siboneitik Kubanakanera
- [65] **D)** Dirurik eztagoen egunean
- [67] **E)** Axularrek
- [67] **F)** Egun da Santi Mamina
- [69] **G)** Kontuak eskatzen badizkidate
- [69] **K)** Nik ere badut nire egia
- [71] **L)** Bilantzea koadratzen dut
- [71] **M)** Atzo ezagutu nuen
- [77] **N)** Egun batean
- [77] **O)** Euskera klaroa
- [79] **Q)** Profeta bati (Jurgi Oteizari
azaldu nahirik)

[121] **LAUGARREN PARTEA**

- [122] **A)** Astepeko sekretarioaren bertso berriak
- [151] **B)** Astepeko sekretarioaren bertso zaharrak
- [169] **C)** Astepeko sekretarioaren bertso libreak

harri eta herri

edizio hau

Bilbon

inprimatu da

2014ko abenduan

harrietaherri #50

Gabriel Aresti



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



GABRIEL ARESTI
KULTURA ELKARTEA

Laguntzaileak:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



harri etaherri

Artikulu Bilduma #50

harri etaherri

Artikulu Bilduma #50

Argitalpen honen fitxa katalografikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Hizkuntza-orrasketa:

Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrightaren jabearen alde zuzeneko eta idatzizko baimenik gabe.

Koordinatzailea eta edizioaren arduraduna: Xabier Kintana

© *Harri eta Herri* liburuarena, Gabriel Arestiren oinordekoak

© Argitaraldi honena (2 liburukitan): Euskaltzaindia.
Egilea, artikulua bakoitzarena

Laguntzaileak:

Gabriel Aresti kultura elkarteak

Bizkaiko Foru Aldundia

Bilboko Udala

BBK Fundazioa

Diseinua: Gabriel Aresti kultura elkarteak

Maketatzea eta Inprimatzea: Grafo

ISBN: 978-84-943211-0-8

Lege-gordailua: BI-1796-2014

harri eta herri

Artikulu Bilduma #50



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



GABRIEL ARESTI
KULTURA ELKARTEA

Laguntzaileak:



Bizkaiko Foru Aukundia
Diputación Foral de Bizkaia



2014

AURKIBIDEA

AURKEZPENAK

Andres URRUTIA. Euskaltzainburua	11
Gabriel Aresti kultura elkarteak	15
Miren Josune ARIZTONDO Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura foru diputatua	19
Ibon ARESO. Bilboko alkatea <i>Lerro artean, Gabriel Aresti</i>	21
Xabier SAGREDO BBK Fundazioa <i>Gabriel Aresti, berrikuntzarako harri jartzaile</i>	23
GARAIKO EGOERA SOZIOPOLITIKOA	25
Joan Mari TORREALDAI <i>Arestiren 'harria trilogia' eta zentsura</i>	27
HIZKUNTZAREN EGOERA	37
Xabier KINTANA. <i>Gabriel Aresti, euskara eta batasuna Bilboko zirimiripean</i>	39
Anjel LERTXUNDI <i>Arestiren proiektua eta Dante</i>	71
GABRIEL ARESTI ETA BILBO	83
Bernardo ATXAGA <i>Aresti eta Oteiza, bizitza paraleloak</i>	85

Karmelo LANDA	
<i>Bilbon dabil Gabriel Aresti</i>	99
Angel ZELAIETA	
<i>Gabriel Arestiren Etxea "Hierro" egunkarian</i>	113
GABRIEL ARESTIREN LITERATURA	129
Txomin PEILLEN	
<i>Maldan gora</i>	131
Ana Maria TOLEDO	
<i>Preziorik gabeko mailua herriarentzat</i>	141
Arantza URRETABIZKAIA	
<i>Mailua eta harkaitza</i>	157
GARAI BATEKO LEKUKOTASUNAK	161
Harkaitz CANO	
<i>Arestirena zenik ez nekien kasetea</i>	163
Unai ELORRIAGA	
<i>Aresti jaunaren mailegua</i>	173
Aingeru EPALTZA	
<i>Beti esanen dut</i>	181
Toti MARTINEZ de LEZEA	
<i>Gabriel Aresti poeta</i>	199
Miren Agur MEABE	
<i>Lau ohar denboraren orratzetan</i>	205
Kirmen URIBE	
<i>Elur mataza haur bakartiaren aurpegian</i>	213

AURKEZPENAK



Andres Urrutia

Euskaltzainburua

Ez nuen Gabriel Aresti buruz buru ezagutu. Egia esan, bizitoki berdintsuetan ibili arren, harena ezagunagoa zitzaidan idatzizko agirien bitartez, ikuskeraz eta ahoskeraz baino.

Ea eta Bilbo, Bilbo eta Ea, bi horiek hezurmamitzen dute Arestiren lerratzean aurkitu ditudan ildo erkideak, bi-biotan bizi baikinen bitzuok, urte batzuk gorabehera. Hura Eara heldu zenean, ni alde eginda nengoen eta bera bizi zen Kurtzia izeneko tokian ibilia nintzen ni ere, ume eta gazte, Eako naturak eskaintzen zituena ikasten eta barneratzen.

Urte haiek izan ziren, bestalde, desberdintzeko arrazoiak eta, beharbada, adina ere, ni halakoetan hamasei urte eskaseko nerabea bainintzen.

Gerora etorri zen, nire burua euskalduntzeko ahaleginetan, berriro ere euskara neureganatzea eta Arestiren literaturarekin topo egitea. Horretarako akuilua, esan beharrik ez dago, Xabier Kintana eta Andolin Eguzkitza izan ziren, bi horiengan ikusten bainuen nik Bilbon eta, oro har, Euskal Herrian behar genuen euskalduntasun moderno eta hiritarraren eredia.

Gogoan dut oraindik, Franco bizirik zegoela, astero-astero Bilboko Verdes liburu-dendari egiten genion bisita, Correo Kalean. Sartu eta berehala, eskuin aldean, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*-ren aleak, esku-eskura, hartzeko prest.

harrietaherri #50

Gure ikaskide erdaldunen harriduraz (eta miresmenaz, zalantzarik ez) haiek erosten genituen eta hala batzen genuen euskarako grina asetzeko adina material, bakoitzaren etxean patxadaz irakurtzen genuena. Testuinguru horretan ezagutu nuen nik *Harri eta Herri* liburua eta eskuratu ere bai. Segituan konturatu nintzen haren berritasunaz, hark proposatzen zuen berrikuntzaz. Bestelako soinuak eta doinuak zekartzan hark eta musika horren letra guztiz erakargarria zen kale tartean bizi ginen euskaldunontzat.

Santutxun bertan ibiltzen ginenontzat, Karmelo elizaren gau eskolan, irakurgai preziatua zen hura eta sarri-sarri gure eskola orduetan erabiltzen genuena, orduko hartan *haurgintza minetan* zegoen euskara batuaren lehen erakustaldi moduan.

Olerkia ez ezik, Gabriel Arestiren baitan baziren osterantzekoak: kazetaritza, klasikoen berrargitalpenak, antzerkigintza... oro ziren harentzat eginkizun eta egingarri. Euskaltzaindia bera ere ederto astindu zuen, euskararen batasuna zela eta.

Bil dezadan horren inguruko gertaliskia. Ikasle nintzela Deustuko Unibertsitatean, Franco hil aurretik, Euskal Kultur Mintegia sortu zen bertan. Gu, ikasle batzuk, hara joaten ginen, Lizundiaren Geografia eskolak edota Andolin Eguzkitzaren hizkuntza orduak ematera eta gure burua euskal kulturaz asetzerara.

Han eskuratu nuen *Batasunaren Kutxa*, Gabriel Aresti eta Xabier Kintana bikoteak egin zuen ekarpen galanta, euskararen normalizazioa eta normatibizazioa uztartu nahian. Hura eta bide beretik etorri ziren euskal aditzaren taulak gordetzen ditut oraindik, garai iraganaren baina aintzat hartzeko moduko baten lekuko gisa.

Ohar laburra egin nahi nuen eta Gabriel Aresti aipatu. Azkenean ikasle izandako baten oroitzapenak pilatu zaizkit eta ezin izan dut aurrerago joan. Funtsean, horrek erakusten ditu Gabriel Arestiren ekarria eta herentzia: belaunaldi oso batzuentzat Euskal maisua izatea, unibertsitateko katedraduna baino, bizitzak eta egune-

rokotasunak euskal gizartean sortu dituen katedra horietako baten titular garbia izatea, ikasleek miresten eta jarraitzen dutena. Horrexegatik da eskertzekoa, Gabriel Aresti kultura elkartearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkar kidetza, berrogeita hamar urte geroago, *Harri eta Herri* liburuaren berrargitalpen bikaina egiteko, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta BBK Fundazioaren babespean eta laguntzarekin. Eskerrak horiei eta eskerrak, orobat, berrargitalpen honetan parte hartu duten idazle guztiei, Xabier Kintana arduraduna barne, zuek ahalbidetu duzuelako, beste behin ere, Gabriel Aresti maisua bere euskal katedratik guri mintzaraztea, guztiok adi-adi entzun dezagun haren mezua.



Gabriel Aresti
kultura elkarteak

Denborak ez dauka etenik eta aurrera egiten du tai gabe. Ohar-
tzerako, aurten laurogeita bat urte bete dira Gabriel Aresti sor-
tu zela, eta datorren urtean berrogei urte izango dira gazteegi
joan zitzaigula. Berrogei urteko bizialdi labur horretan, Gabrieleak
langile arduratsu eta nekazezinenak ere txunditurik uzteko mo-
duko lan eskerga utzi zigun egina. Mutikotan, diktaduraren ilun-
pe gaiztoenean eta hamabi urte doi-doi zituelarik, euskara bere
kasa aldez edo moldez ikasteko delibero irmoa hartu zuenetik
eta azken hatsa eman arte, Gabriel euskarari erabat emana bizi
izan zen. Euskararen luze-zabal guztiak bere baitan atxikitzeko
eta bere baitarik eskaintzeko grinak hizkuntza eta literatura arlo-
etan esparru asko lantzerako bultzatu zuen; hainbestearaino bultzatu
ere, ezen zaila baita hark jorratu gabeko arlorik aurkitzea.

Ondare oparo hori da, hain zuzen ere, iaz sortu genuen Gabriel
Aresti kultura elkarteak babestu eta zabaldu nahi duena, bilbotar
idazleak euskal kulturaren baratzean piztutako kriseiluak, denbo-
raren poderioz amatatu beharrean, geroan ere argi egiten segi
dezan. Aurrera baino lehen, esan dezagun bidenabar Gabriel
Aresti kultura elkarteak idazlearen beraren senideek eta Zenbat
Gara elkarteak osatzen dugula, irabazi-asmorik gabeko elkarteak
dela eta bere eginkizun behinenen artean honako hauek ditu-
ela: batetik, idazlearen ondare idatzia sailkatzea eta antolatzea;
bestetik, haren idazlanak osorik nahiz zatika berrargitaratzea; eta,
oro har, haren emaitzak iraganetik etorkizunera eramateko ba-
lio dezaketen lanak egitea. Ildo beretik, elkartearen estatutuek
beren-beregi aipatzen dute guztiz irekia dagoela helburu horiekin
bat datozkeen norbanako, elkarte eta erakundeekin elkarlanean
aritzeko, betiere Gabriel Arestiren euskalduntasuna eta bere

harrietaherri #50

justizia sozialarekiko atxikimendua nabarmentzeko eta garatzeko asmoz.

Aipagai darabilgun elkarlanaren erakusgarri, Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti kultura elkarteak aurten lankidetzan aritzeko hitzarmen bat adostu eta sinatu dute, bi erakundeei, elkar hartuta, arestion azalduko helburuak lortzen laguntzeko lan eremu zabalak eskaintzen diena.

Hain zuzen ere, orain aurkezten dugun liburuaren berrargitalpena lankidetzak hitzarmen horren aurreneko emaitza dugu. Gure iritzian, ezin genezakeen abiaburu eta euskarri hoberik hauta hitzarmenaren fruituak jendaurrean aurkezteko, *Harri eta Herri* liburuak ezin ederkiago biltzen duelako bere orrietan Gabriel Arestiren obraren funtsa eta, gainera, urteurren biribil baten karietara datorrelako; izan ere, bai baitira berrogeita hamar urte liburu estreinakoz argitara eman zela.

Harginak harria bezala lantzen zuen Gabrielelek poesia, lehenik, bere mailuz dena puskatuz eta birrinduz gizartearen kritikan, eta gero, bere lumaz dena maitekiro zizelkatuz eta moldatuz utopiarren eraikuntzan. *Harri eta Herri* liburu mugarririk dugu, gure literatura aro berri batera, modernitatera, eramaten lagundu zuelako; baina, orobat, zorroztaeri ere gertatu zen, orduko idazle eta irakurleen gogo-bihotzak astintzen jakin zuelako; eta, geroztik, oinarri bilakatu da, egungo idazleek, mende erdia igaro arren, ezinbesteko erreferentzia gisa hartzen dutelako oraindik bizirik dirauen eta oraingoa dirudien liburu bikain hau.

Beraz, esan genezake, Akademiak eta haren izena hartu duen elkarteak sinatutako hitzarmenari esker, Gabriel Aresti Euskaltzaindira itzuli dela, beti berea sentitu zuen eta berak hainbeste lan egin zuen etxera, alegia. Eta ez da edonola itzuli, berak Euskararen eta Euskal Literaturaren langintza zoragarrian bidaide izango lituzkeen euskaltzain eta idazle lagun eskutik baizik.

Honelako abegi ona ikusita, Gabriel Aresti kultura elkarteak zinez eta bihotzez eman nahi dizkie bere eskerrik zintzoenak Euskaltzaindiari, une oro bere lankidetzaz eskuzabala eskaintzeagatik; Bizkaiko Foru Aldundiari, Bilboko Udalarari eta BBK Fundazioari, argitalpen hau babesteagatik; eta liburuan parte hartu duten euskaltzain eta idazle guztiei, beren artikuluen bitartez liburua aberasteagatik eta, batez ere, haien bidez Gabriel Arestiren obra iraganetik etorkizunerantz eramaten laguntzeagatik.

Gabriel hemen balego, etxean eta etxekoen artean sentituko litzateke, eta bere obra hau berrirakurtzera eta berraztertzeraz goazen honetan, berak kopa altxatu, guztioi eskerrak eman eta topa egingo luke, «Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi» ozenki esanez.



Miren Josune Ariztondo

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura
foru diputatua

Gauza asko argitaratu da Gabriel Aresti bilbotar poeta handiaz. Hainbat dira bere idazlanak aztertu dituzten adituak ere. Ez da bada erraza ezer berririk idaztea. Baina arriskuaz jabeturik ere, zerbait esaten ausartuko naiz.

Gabrielek bere bizitzan pauso nabarmenak eman zituen euskal kulturari. Batetik, euskara ikasi zuen, hori ia-ia ezinezkoa zen garaian. Horrekin ondokooi etsenplu ederra eman zigun. Bestetik, gure hizkuntzaren habia eta babesleku jatorra izandako baserri eta arrantzale inguruetik atera eta bere girora, kale hiritarretara ekartzen saiatu zen, bertoko fabrika, bulego, denda eta bizimoduko neke, miseria, ahalegin, kezka, pozak eta esperantzak konartzeko. Bide berean, euskara bera gaurko kulturarako hizkuntza landu bihurtzeko eztabaidetan ere sutsu ibili zen ahaleginean eta euskara batuaren prestaketan esku hartu zuen zuzenki. Ordura arte euskaraz ukitu bako alorrak landu zituen, eta herriko gaiez gainera, mundu zabaleko idazle handien iturrietara ere abiatu zen, haiengandik edateko. Horretan, eta agian bata bestearengandik kulturalki urrun sentituta ere, Lauaxeta bera kezka berekoa izan genuen.

Gorabehera askoko urteetan bizi izan zen Aresti. Halere, denbora, oro har, epaile ona bezain zorrotza izaten da, eta balio gutxiko moda iragankorrek ahanzturaren eskuetan uzten ditu, udazkeneko haizeak orbelak bide bazterrean zokoratzen dituen bezalaxe. Baina ardo ona urteekin hobetuz joaten denez, era berean, artista eta idazle bikainen emaitzak ere denboraren joanean nabarmentzen egiten dira, handiago eta distiratsuago bihurtzen.

harrietaherri #50

Haren poesian esandako eta salaturiko gauza gehienak, behar-bada, gaur jada ohikoak eta normalak irudituta, guztiok onartzen ditugu, baina berak adierazi zituenean, oraindik berri-berriak ziren, gure artean ezohikoak, batez ere euskaraz esanda. Eta ideia haiek gaur normaltzat hartzeak, hain zuzen, esan nahi du Arestik etorkizunari igarri ziola, profeta izan genuela. Nor bere garaian eta bere herrian profeta izaten ez bada ere, azkenean urteek berari arrazoa eman eta merezi zuen lekuan jarri dute, bera bizi zenean batzuek hori aitortu nahi ez arren.

Orain, haren obrarik esanguratsuena, *Harri eta Herri*, berriz ere plazaratzen dugu, lehen argitaraldiaren berrogeita hamargarren urteurrenean, eta horrela Bilbok, Bizkaiak, Euskal Herri osoak omenaldia eskaintzen diote beren poetari, aldi berean euskaldun guztiok zor dizkiogun aitortza eta eskerrak emanez.



Ibon Areso

Bilboko alkatea

LERRO ARTEAN,
GABRIEL ARESTI

Poetak, hiriak bezalaxe, lerro artean sortzen dira. Gabriel Arestik makina bat bertso-lerro utzi zizkigun ezkutaturik bere lan oparo eta miresgarrian, eta pentsatu nahi dut ohikoa zuen probokatze-ko gaitasun horrek eraman zuela gurekin olgeta egitera; jakingo zuela, alegia, noizbait iritsiko ginela, poeta eta hiria, elkar eza-gutzera.

Zorionez, heldu da unea. Bilbok, Gabrielelek bezala, bere bidea egin du lerro artetik argitara, lurpetik atari zabalera.

Ez da beti behar bezala ulertu zertan datzan etengabeko eraldaketa hori, bila ari dena galduta dagoela pentsatzen dugulako askotan. Ez, Gabriel ez zebilen galduta. Bide berriak urratzen ari zen, maparik gabeko geografiak aurkitzera irten zen Zazpi Kaleetako bazter ilunetan, lantegi-sarreretan, beti goibel ageri zen zeru eta garai ilunetan argi-metxak piztera.

Aldeak alde, gure hiriak ere antzeko bidea egin duela uste dut.

Garai berri hauetan, argiak guregana zuzentzen diren honetan, ez dugu ahazten Gabrielen kemenari zor diogula distira horren zati bat, eta zor diogula diogu, zorretan baikaude geure letrak eta geure hiria lerro artetik argitara eraman zituen idazle eta gizon handiarekin.

Ohorea handia da buru naukan Bilboko Udalarentzat omenaldi xume honetan gonbidatuta izatea. Baina horren gainetik, ohorea da bilbotarra naizen aldetik, Gabriel Arestiri “eskerrik asko” esateko aukera izatea.



Xabier Sagredo

BBK Fundazioa

Gabriel Aresti,
berrikuntzarako harri jartzaile

URRIAK dira euskal letretan Gabriel Arestik adinako eragin eta itzal luzea izan duten eta duten idazleak. Euskara hamarkadetako bazterkerien ondorioz gainbehera zetorrenean, euskararekiko atxikimendua ahula zen sasoian, euskara ikasteko heldulekurik ia ez zegoenean, Gabrielelek euskara ikasteari ekin zion, bai eta lortu ere.

Erabaki horrekin ahulenaren aldeko hautua egin zuen Bilboko idazleak, denontzako eredugarri bihurtuz. Hori ez eze, bide urratzaile, harri berrien jartzaile ere izan genuen Gabriel. Euskal letrak berritzen, haize freskoa ematen ahalegindu baitzen hasieratik. Aldi berean, euskara biziberitzeko ezinbesteko helduleku bilakatu den euskararen batasunaren bultzagile eragingarri ere bihurtu zen bilbotar poeta.

Gabrielen bidez, euskarak ia presentziarik, ikusgarritasunik, ez zuen hirira egin zuen jauzi, gai berriak, ordura arte jorratu gabeak landuz. Gabrielen bidez, euskararen loraldiaren hazia erein zen Bilbon, Unamunok XX. mendearen hasieran Bilbo eta euskaraz jardutea kontraesankorra zela baieztatuz esaniko esaldi hura ezerezean utziz... eta ereindako hazi hura haziz joan da, loreak eta fruituak eman dituen arte.

Orainaz hitz egiten dugunean, etorkizunarekiko zalantzak burua eta bihotza astintzen dizkigunean, iraganean, baliabide eta aldeko gutxiagoekin aritu zirenak eduki beharko genituzke gogoan... ezinak ez baitu ezinik horiek ekinez gainditzen saiatzen bagara.

Pozgarria da BBK Fundazioarentzat Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* obra argitaratu zela berrogeita hamar urte betetzen diren urtean, Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti kultura elkarteak Gabriel Arestiren obra eta haren ekarria gizarteratzeko abian jarriko egitasmo honetan laguntzaile izateko aukera izatea, bai eta bestelako herri-aginteak bidelagun izatea ere. Gabriel Arestik merezi baitu horrenbeste... elkar hartzea, lankidetzan urratsak egitea euskararen eta euskal kulturaren mesederako.

GARAIKO EGOERA SOZIOPOLITIKOA



Joan Mari Torrealдай

Forua, Bizkaia, 1942

Arestiren 'Harria trilogia'
eta zentsura

Harri eta Herri liburua argitara eman zenetik 50 urte aurten, Xabier Kintanak Gabriel Arestiren zentsura kontuak aipatzeko eskatu dit. Egia esan, liburu honek ez zuen zentsurarik jasan. Zentsura frankistaren artxiboetan ez dut arrastorik aurkitu. Aitzitik, zigortua barik saritua izan zen liburua, argitaratu eta lau urtera: 1968an 'José María Iparraguirre' Espainiako Literatur Sari Nazionala irabazi zuen.

Aurrenekoak ez, baina 'Harria trilogiako' beste biak, hots, *Euskal Harria* eta *Harrizko Herri Hau* liburuek, biek pairatu zuten zentsura bortitza. Bi liburuon gorabeherak aipatuko ditut hemen.

Aurrera jarraitu aurretik, ordea, zentsura ezagutu ez duen irakurleari zuzenduta bi hitzetan azalduko dut zer den zentsuraren instituzioa.

Aginte frankistak boterea Madrilen hartu aurretik jarri zuen indarrean zentsuraren legea, azpian harrapatzen zituen lurralde guztietan. Eta luze iraun du, harrizteraino luze, 1983 arte, frankismo osoaz gainera trantsizioan ere bai.

Zentsuraren funtsa hau da: argitara eman aurretik sorkuntza lana (edozein delarik: izan literatura, izan kazetaritza, idatzia edo ikus-entzunezkoa izan) Estatuaren eskuetan utzi behar zen, eta horrek emango zion argi berdea ala gorria. Estatuan hainbeste urtetan publikatu den lerro bakoitza zentsoreen begietatik igaro da.

Esan gabe doa zentsura hamarkada guztietan ez dela bat bera eta berdina izan; aldaketak izan ditu gogorkerian, aldatu dira egiturak eta mekanismoak, eta irizpideak ere birmoldatuz joan dira. Baina kontrolak iraun egin du. Salbuespenik gabe.

Zentsurak bere bizialdi luzean izan duen aldaketarik nabarmenena 1966koa izan da. Fraga Iribarne ministroaren lege bezala ezagutzen da *Ley de Prensa e Imprenta* delakoa. Ordura arteko anabasa ordenatzearen meritua du batez ere, baina ezin da pentsatu zentsura kendu zuenik. Nominalki bai, hitza bera, aurretitzean ezin baitzen zentsura zegoenik esan, baina errealitateak gordin zirauen, lehengo lepotik burua. Tramitazioan bai ekarri zuela aldaketa: eskuizkribua 'borondatezko kontsultara' aurkezenezakeen ala, arriskatu nahi bazenuen, liburu gisa inprimatu ondoren 'depositura'. Baina batean zein bestean liburua merkatura zabaldu aurretik pasatu behar zen kontrola. Zein da, ordea, bi tramitazio moten aldea? Kontsultara eskuizkribua aurkezten da. Eta depositura, aldiz, liburua jada egina. Ezezkoaren kasuan, zentsuraturiko orriak aldatuz konpontzen da arazoa lehen hipotesian. Liburua jada moldatua baduzu, oster, edizio guztia pikutara bota behar duzu. Egia da, baita ere, erreparo gutxiagoz jokatzen duela zentsurak eskuizkribuarekin. Eskandaluaren beldur txiki bat izan ohi du liburua bera debekatzean.

Ondoko lerroetan, zentsore izendatzen ditugun horien txosten-txoak erakutsiko ditugu, 80ko hamarkadan nire soziologia tesirako egin nuen ikerketan aurkitu nituenak, ordura arte ezezagunak, autoreak emaitzaren berri jakiten baitzuen, ez zergatiena. Txosten horiek prozesu oso baten zati besterik ez dira. Txostengile horiek 'irakurleak' dira, izen horrekin ezagutzen dira administrazioan. Erabakiak hartu, horien gainekoek hartzen zituzten. Haiek bideratuta, noski. Euskal testuen 'irakurleek', gainera, pisu berezia dute, beraiek bakarrik ezagutzen baitute euskara eta horien itzulpenak agintzen baitu. Hala-holako itzulpena, askotan, adibideren batez erakutsi dugunez.

Euskal Harria / La Piedra Vasca

Titulu osoa luzeagoa da: *Euskal Harria eta beste 119 olerki / La Piedra Vasca y otras 119 poesías*. 1967ko urtarrilean aurkeztu zuen zentsurara liburua.

Euskal Harria borondatezko kontsultara aurkezten du Arestik, eta ez aurretiazko depositura. Zentsura aise gaintutuko zuenik ez zuen usteko.

Zentsuratik etor zitekeen egurrari aurrea hartu nahian bezala, liburuaren zentsura tramitazioa hasteko puntuan, José Antonio Zarzalejos *Ministerio de Información y Turismok* Bilbon zuen Delegatuari idatzi luze bat aurkeztu zion, liburua idazteko zioak azalduz. Merez du gutunak:

El que suscribe, Gabriel María Aresti Segurola [...] con el debido respeto y consideración tiene el honor de exponer:

Que queriendo publicar un libro de poesías, en edición bilingüe vasco-castellana, cuyo nombre en lengua vasca es EUSKAL HARRIA ETA BESTE 119 OLERKI y en idioma castellano LA PIEDRA VASCA Y OTRAS 119 POESÍAS, se cree en la obligación moral de exponerle los motivos que le han llevado primero a la redacción y le llevan segundo a la publicación del citado libro. Siendo España una comunidad de culturas, considera que la obligación de los escritores es llevar a un desarrollo de dichas culturas por un elemental sentido patriótico, y la de las autoridades, que velan por igual sobre el interés de todos los españoles, la protección de todas ellas culturas (sic). Particularmente en esta nuestra tierra vasca y señorío de Vizcaya, se asienta la lengua vasca, portadora de una cultura ancestral, anterior al nacimiento de todas las naciones y religiones de Europa, cultura y lengua que son orgullo y motivo de preocupación y especial cuidado de todo el que siente en su pecho el anhelo de los destinos de España. Por ello el que suscribe ha llegado a la resolución poética de una problemática étnica, anterior a toda situación política y social actual, resolución únicamente poética

que por su peso y trascendencia pudiera quedar involucrada en las torpes intenciones de muchos que ven en lo español el desarrollo de la cultura de una sola parte de España, de la cultura castellana, lesionando a España misma a través del menosprecio y ostracismo hacia la cultura vasca.

Por otro lado, el que suscribe, poeta, vive una realidad que le circunda. Consciente de sus obligaciones de ciudadano español y de la responsabilidad que sobre los poetas delega la sociedad, examina con ojo crítico la circunstancia que le rodea, denuncia los vicios de los poderosos, los abusos de los fuertes, las injusticias de los impunes. España arrastró durante siglos una incapacidad de desarrollo, producto de sus rencillas internas, particularmente patentes durante el pasado siglo de la eclosión de las guerras civiles. Llegados a este siglo, únicamente una sana política de desinterés ha podido llevar a nuestra patria hacia un equilibrio entre la justicia y la verdad. Nuevas leyes han sido y están siendo promulgadas y refrendadas, gracias a las cuales la sociedad española remontará su rémora secular. El poeta pretende en sus versos acelerar el espíritu de justicia del porvenir que se intuye.

Por todo ello, para evitar en lo posible los previstos ataques y presiones de los que a través de su odio hacia lo vasco son enemigos de España, y de los oligarcas que por su procacidad son sacudidos en este libro EUSKAL HARRIA = LA PIEDRA VASCA, para que la Ley española ampare en su protección a este libro que no pretende sino redundar en el bien de la comunidad, dado el alto carácter de justicia y equidad que la actuación de V.I. ha presidido siempre al frente de la Delegación del Ministerio de Información y Turismo en Vizcaya, el que suscribe tiene el honor de suplicar:

SUPLICA:

Que aplicando la Ley de Prensa, acoja en la cláusula de CONSULTA PREVIA al citado libro...

Liburua, ohiko bideari jarraiki, Bilbotik Madrilera bidali zuten. Madrilgo zentsuran sartu zenean Francisco Fernández Jardóni pasa

zioten, eta honek ez zion malezia gehiegirik antzeman, nonbait. Zentsore hori abokatua eta udal-epailea zen.

Hamabost foliotan hainbat pasarte arkatz gorriz seinalatzen ditu, eta horiek ezabatuz gero, ateratzeko moduan gelditzen dela irizten dio. Idatziz bere nagusiari helarazi zion pasartean ikusten da garbi zer salatzen dion Arestiri: euskaltzaletasun gehiegizkoa, abertzaleen goraipamenak, komunismo zaletasuna, kristautasunaren mespretxua...:

Esta colección bilingüe de poesías, algunas de ellas francamente buenas, viene impregnada de un espíritu de 'euskkerismo' tan exagerado a veces, que llega a la glorificación de separatistas como Aguirre, y en otras ocasiones el autor se muestra tan propenso a la simpatía por las causas comunistas nacionales, que no duda en dignificar personas como Fidel Castro y en consecuencia a la injuria de la nación norteamericana en sus soldados. Por otra parte y ya en el aspecto religioso su desprecio por el cristianismo llega hasta la blasfemia en ciertos casos, faltando al respeto hasta a la misma persona de Cristo.

Hay además alusiones a personas y sucesos para nosotros desconocidos, que pudieran tener conexión con el separatismo bizcaitarra, y que convendría fueran examinadas por persona experta en estas cuestiones.

Zentsoreen nagusiak ziurtasun handiagoa behar, nonbait, eta Antonio Albizuri agindu zion «premiatzko irakurketa berria» egin zezan. Jatorriz Debakoa da zentsore hori, baina euskara maila eskasekoa. Besteak ez bezala, horrek uste du liburugaiak ez duela orrialde garbirik eta ezin dela onartu:

POESÍA. Escrito en un estilo surrealista y simbólico, todo el libro es canto de rebeldía política e inconformismo de la situación del país vasco. Este se encuentra en terrible opresión y solo encuentra la palabra como arma de rebelión. Recuerda que Navarra, las provincias vascofrancesas son también vascas y deben unirse [...] hace referencias despectivas al jefe del Es-

harrietaherri #50

tado y en forma velada, llamándole Fran Fran y Sanfrancisquito. Hace uso irreverente de Jesucristo. Elogia al comunismo. No hay una página limpia de toda demagogia e irrespetuosidad. NO PUEDE AUTORIZARSE.

Irizpide horiekin ezabatu behar ziren hainbat hitz, esaldi edo poema osoak urdinez markatu zituen Antonio Albizuk 150 orritan. Aurrekoak 15 eta horrek 150, bada alderik.

Saileko buruak Antonio Albizuren irakurketa ontzat ematen du. 1967ko otsailaren 27an emango zaio Arestiri ebazpenaren berri, hots, edizioa ez dela gomendagarria. Liburua ezin dela argitara eman, alegia.

Arestik ez du amore eman nahi, eta José Antonio Zarzalejosen laguntzaz, *Dirección General de Información*-era idazten du, parte zentsuratuak zehazteko eskatuz:

El firmante de la presente entiende que el indicado libro no es una unidad por tratarse de 120 poesías, sin mayor ilación unas con otras. Tomando consejo de la amabilidad del Delegado del Ministerio en Vizcaya, Sr. Zarzalejos, cuya orientación y buen criterio no pueden ser por menos de ensalzados, me dirijo a Ud. para que me indiquen las partes del libro que consideran no son de ACONSEJABLE edición, al objeto de poder editar el resto sin contravenir las Leyes Españolas y las elementales normas cívicas de convivencia y respeto mutuo. Espero verme atendido en el sentido indicado, pensando que debe ser, y es, norma de la Administración esta orientación, sin la cual las letras y las artes de nuestra Patria quedarían en gran forma impedidas.

Otsailaren 25ekoa da gutuna, eta harrigarri azkar, martxoan, jasoko du erantzuna. 157 folio iritsiko zaizkio, gorritz eta urdinez markatuta, bi irakurketaren emaitza. Ezabaketa gehienak onartu beste erremediorik ez du Arestik, batez ere poema osoak ezabazten zaizkionean: 36 poema oso-osoak doaz zabortegira. Beste 7 *salbatzea* lortzen du, zatiak kenduta; gutzira 176 bertso gutxia-

go. Beste 12 poematan ere aldaketa txikiago batzuk egin behar ditu: 111 bertso *salbatzen* ditu horrela.

Bitxikeria bat ere bada tartean: Madrilgo zentsurak agindu gabe-ko aldaketak egin ditu Arestik. Hiru izen madarikatu desagertzen dira inausketa honetan: Aitzol, Txillardegia eta ETA. Txillardegiren ordeztan bere burua jartzen du Arestik eta ETArekin ordeztan «Bilbao... Athletic», horrelaxe.

Ohargarria da Zarzalejosen interesa obra hau ateratzean, ezohikoa. Zentsurako zerbitziburua den Faustino Sánchez Marín jaunari Arestik sartu dituen aldaketekiko bere adostasuna agertzen dio, keinu eta guzti:

Estos poemas se sometieron a consulta previa del Ministerio y el interesado accedió a cuanto se le dijo con las salvedades que se contienen en las cuartillas que te adjunto, cosas todas ellas que me parecieron razonables y así lo indica el autor.

Fuera de estas indicaciones nada hay que decir; el tema te advierto que es 'delicado' y el hecho de que salga como sale lo considero una baza importante; ya me comprendes.

Te ruego que si hay alguna objeción me lo comuniques por la vía más rápida.

Euskal Harria-ren jatorrizko bertsiotatik 120 poemetatik erdiak atzera bota zizkion zentsurak. Ediziotik kanpo utzitako poema horietatik 31 hurrengo liburuan sartuko ditu (*Harrizko Herri Hau*), beste bat (*Hiru euskal Lied*) jada argitaratua zegoen, eta 18 argitaratu gabe gelditu ziren, 1986an Susako edizioan agertu arte.

Harrizko Herri Hau

Zuzenean depositura aurkezten du Arestik *Harrizko Herri Hau* 1971ko maiatzaren 5ean. Liburua, hortaz, inprimatua dago, noiz argitara emango. Horregatik, inprimaturiko liburua atzera botatzek lekarkeen eskandaluaren beldur delako agian, nahiz eta liburuarekiko duen iritzia guztiz kontrakoa izan, zentsoreak (Antonio Albizuk) «isiltasun administratiboa» bakarrik proposatzen du: 273 lerro markatu zituen zentsoreak, horietatik %60 *Euskal Harria*-n jada zentsuratu eta kenduak.

Ez dakigu handik gutxira zer gertatu zen. "Isiltasun administratiboaren" ordez Aginte Judizialaren esku uzten dela liburua agertzen da zentsorearen txostenaren kopia egiten denean. Txostena Antonio Albizurena da, baina erabakia ez:

Libro de poesías incluido en la Colección Kriselu de la Editorial Lur. Poesía de difícil lectura, accesible solamente a una minoría de lectores. En su conjunto es rechazable por sus implicaciones políticas y matiz exaltador de la ideología marxista. Su temática fundamental es la protesta. Protesta contra el centralismo, contra la intromisión política e idiomática, contra los mismos vascos, a veces, por abandonar sus ideales y reivindicaciones. En muchas ocasiones su protesta está precisada pues el autor se enfurece contra la pérdida de idioma y la incursión del castellano; en otras, su protesta tiene mayor envergadura arremetiendo contra el régimen político, exaltando el espíritu revolucionario del pueblo vasco. En este sentido se glorifica la figura del Che Guevara, al que equipara con Cristo, citándose frecuentemente a Lenin y Marx. Altamente politizado especialmente a partir de la página 94, contiene elementos subversivos y alentadores del espíritu separatista. Entendemos que el contenido de la obra constituye figura delictiva, ya que parece ser se infringe el artículo 165 bis b) del Código Penal y 164 bis a) del mismo Cuerpo Legal, en relación con el Principio IV de la Ley fundamental de Principios del Movimiento Nacional; por lo que parece aconsejable no aceptar el depósito, debiendo ser puesto a disposición de la Autoridad Judicial correspondiente.

Cultura Popular y Espectáculos Saileko zuzendari nagusiak Ordena Publikoko magistratu-epailearen eskutan uzten du ale bat, delituzko obra izan daitekeelakoan, bahimendua egin ala ez erabaki dezan. Liburua gaztelaniara itzultzea agintzen du magistratuak. Pasarte esanguratsuenak itzuliko dira, 34 olerki, ez liburu osoa.

Zein da, bada, Arestiri egiten zaion salakuntza? Mariscal de Gan-te Ordena Publikoko epaileak honela formulatzen du salakuntza:

Resultando que la obra 'Harrizko Herri Hau', original de GABRIEL MARÍA ARESTI SEGUROLA, es un conjunto de poemas en idioma euskaro, en los que, en su mayoría, se glosa el irredentismo de los vascos con clara significación escisionista respecto al resto de los españoles, a los que incluso se nomina extranjeros, exaltando figuras de significación separatista, incitando para la liberación a la lucha e incluso a la fuerza y trazando paralelismos de Lenin y Che Guevara con Cristo.

Epaile horrek berak, 1971ko abenduaren 9an, Arestiren behin-behineko askatasuna erabaki zuen. Komisaldegira aldian-aldian joan beharra ere bai. Badirudi hiru hilabeteko presondegia eta bost mila pezetako isuna jasotzeko arriskuan egon zela Aresti. Baina iraileko indultuak salbatu zuen, eta bera libre eta liburua osorik gelditu ziren.

Itzulpenen kalte erantsia

Urte askotan, gehienetan, Madrileko zentsoreetatik inork ez ze-kien euskaraz. Gero sartu zen bat edo beste, euskal jatorrikoa, baina erdipurdiko euskalduna. Halakoak dira itzulpen gehien-txoenak, eskasak eta txarrak. Behin baino gehiagotan borondate gaiztokoak ere bai: dinamika dinamita bilakatzen denean bezala. Itzultzaileen indar erantsi hori ez da anekdotikoa, arriskutsua bai-zik.

harrietaherri #50

Arestiren *Harrizko Herri Hau* liburuan agertzen diren itzulpenak ere negargarriak dira. Hizkuntza maila eskasaren lekuko, hona lagin txiki bat: karrika = raíl; urrats = aguja; deskomekatu = desbaratar; zu = fuego; oihan = cama; bortxatu = estropear; axola = compasión; zede = sede; basati = montañés, solitario; dirdira = retintineo; sona = campana; Garaziko dornua = la misión de su tiempo.

Arestiren euskal testua

BASOKOAK

(orain arteko euskal mitifikazioaren ondorio lojiko eta segurua hau izanzen litzateke)

Misiolariak hiltzen hasiko gara Afrikako oihan beltzetatik, andre zuriak bortxatuko ditugu, hindutarren injinio aberatsak surtan jarriko ditugu, arabe mutilak gozatuko ditugu, euskeraren alde negroak bagina bezala portatuko gara, eta azkenean gerrilla-liburu bat irakurri beharko gizon basatiak garela, alferrik ez baita gure arraza ariotarranarekin azken hiru mila urte honetan soinez eta gogoz honelaxe kutsatu...

A zentsorea

LOS DE LAS MONTAÑAS

(Esto podría ser la consecuencia lógica y segura de la mitificación actual del vasco)

Empezaremos a matar misioneros en la cama de África empezando por los negros, estropearemos a las mujeres blancas los ricos ingenios de los indios los pondremos en fuego, les dulcificaremos a los chicos árabes, nos comportaremos en pro del vascuence como si fuéramos negros y al fin tendremos que leer un libro de guerrillas, para que nadie diga que somos hombres montañeses (solitarios), pues no es en vano nuestra raza sostenido con la de los arios en los últimos tres mil años con deseo...

B zentsorea

Empezaremos a matar misioneras [...]

quemaremos los ingenios de los indios ricos a los muchachos árabes los volveremos a favor del euskera como si fuéramos negros nos portaremos y al final un libro de guerrillas deberemos leer para que nadie diga hombres montaraces somos en vano nuestra raza con la aria en los últimos tres mil años y gusto así nos hemos cruzado.

HIZKUNTZAREN EGOERA



Xabier Kintana

Bilbo, 1946

Gabriel Aresti, euskara eta batasuna Bilboko zirimiripean

Euskararen egoera berrogeita hamarren hamarkadan

Gogoan dut Euskaltzaindiko egoitzara lehen aldiz 1962. urte inguruan hurbildu nintzela, hamasei bat urterekin. Orduko Bilbo hartan euskalduntasuna ia-ia katakonbetako zerbait zen. Alde batetik, frankismoaren zapalkuntza pairatzen genuen, geroagoko demokrata batzuek behin eta berriro ukatua, agian, beren erabateko erdalduntasunean, hura sentitu ere egin ez zutelako, baina euskaldunek urte askotan sufritua, besteak hartaz konturatu ez arren. Euskarak, ozta-ozta zirauen bizirik, eta eskolan eta prentsan hura dialekto bat besterik ez zela errepikatzen ziguten, garai hartan hitz horri espainiera arruntean ematen zitzaion adiera gutxiesgarrian.

Bertokoen mintzaira jatorra jende ezjakin eta landugabeen mintzamolde basa, ezgai eta lotsagarritzat aurkezten zen, eta, zer esanik ez, ezin pareka zitekeen inola ere espainola moduko hizkuntza eder, dotore eta aberats batekin. Gainera, Ameriketan, Afrikan eta Filipinetan ere mintzaten zen, Espainiapeko herrialdeetan eguzkia behin ere ezkututzen ez zen garaian espainolek eramanik. Eta *vascuence* gizagaixoari ez zioten asko laguntzen, bistan denez, Unamuno edo Baroja gureek, euskarari buruz ida-

tziriko gutxiespenek, agian, neurri handiz berek euskara ikasteko nabari zuten ezintasun pertsonala estaltzeko argitaratuak¹.

Hamalau urte nituenean, Bilboko aita eskolapioen ikastetxean nengoela, euskara ikasten hasi nintzen neure kontutik. Egia esan, hasieran hizkuntzaren bitxitasunak harritu eta geroago haren edertasunak liluratu egin ninduen. Ondoren, zeukan egoera tamalgarriak bultzatu ninduen bera buru-belarriz ikastera eta berari lagun ziezaioketen mugimendu politikoez ere arduratzera, hots, abertzaletzera.

Baina, laster konturatu nintzen, eta harritu ere bai, Bilboko orduko abertzaleek, gerraurreko axolagabekeriaren tradizioari jarraikiz, eskuarki beren naziotasunaren oinarri sendoena odolean zeramatela sinesten zutela, eta hori, batez ere, beren euskal deitura jatorrek frogatzen zietela. Politikaz kezkatzen zirenean ere, abertzale gehienek, garai hartan behintzat, folklore mailatik landa (txapela, kaikua, *adiós* ordez *agur* esatea, irrintziak, kantak, dantzak, esaldi sinboliko batzuk...) ez zioten euskarari ez bertoko kulturari jaramon handirik egiten. Gainera, garai hartan, abertzaleentzat behinik behin, ez zegoen nork bere iritzia libreki azaltzeko askatasunik, Francoren zentsura-errepresioak ez baitziren txantxetakoak. Horrexegatik ez zen beti erraza izaten jakitea nork benetan zer pentsatzen zuen.

Orduan nire eskuetara heltzen ziren informazio gehienak, euskara garbiaren aldekoak izaten ziren, Manu Egileor jeltzale zaharren inguruko lagun batzuek aldizka argitaratzen zituzten

1 Eta etxeko iturri garden horietatik edanda, aurreiritzi umiliagarri bezain zaharkitu horiek gaur arte errepikatzen dituzte euskararen aurkakoek: "No podía ser de otra forma, porque se trataba –dicho sea con el mayor de los respetos– de una lengua rural y primitiva, incapaz de competir con el latín y de evolucionar hacia formas más avanzadas que, quizás, hubieran podido convertirlo en idioma nacional" (82. or.). "El declive del vascuence es un proceso secular que tiene múltiples causas y nada tienen que ver con esa supuesta represión del idioma por motivos políticos. La razón fundamental de la regresión del euskara reside en su incapacidad para competir primero con el latín, después con las lenguas romances y, por último, con el castellano. Nadie persiguió al vascuence ni antes ni después de la incorporación a la Corona de Castilla" (84. or.). Jaime Ignacio del Burgo, *El ocaso de los falsarios*, Edit. Laoconte, 2001.

koaderno batzuetan barreiatuak. Argitalpen haiek ez zeramaten sorta-izenik, baina beren kontrazalean, era oso sinbolikoan, zuhaitz ebaki baten epaitondoa ageri zuten, gorantz kima erne berri esperantzagarria zeriola. Hori dela eta, izen propiorik gabeak izan arren, geroago Jon Bilbaok, bere *Eusko Bibliographia*-n liburuxka horiek *Enbor sorta* deiturapean sailkatu zituen.

Izkribu horietan behialako aita Imanol Arriandiagaren giroko hiperpurismo fantasiosoa segitzen zuten bultzatzen, gerraurreko garairik kartsuenetan baleude bezala. Urte batzuk lehenago, 1959ko apirilaren 2an, Etxaide, Irigaray, Arrue, Mitxelena, Oleaga, Villasante, Irigoien, Aresti, Txillardeggi eta beste euskaltzain oso eta urgazleenen adostasunaz, Euskaltzaindiak, adierazpen bat kaleratua zuen, eta dokumentu horretan atzerriko hizkuntzetatik jasoriko mailegu zaharrei benetako euskal hitzen izaera aitortzen zitzairen. Bide batez, jende euskaldunari berba horiek inolako kezkarik gabe erabiltzeko gomendioa egiten zioten (adibidez *abendu, aingeru, alkate, bake, balio, barkatu, bertso, eliza, errege, eskola, fede, gorputz, gramatika, jende, kantatu, kolore, lege, liburu, lore, meza, mundu, obeditu, olgeta, pentsatu, santu, seinale, umil, zapata, zeru...*). Era berean, nazioarteko maileguak (*literatura, politika, teknika, kilometro...*) euskaraz ere lasai erabilitezkeela esaten zen, eta, gainera, premiarik gabeko hitz berrien aurka argiro mintzatzen zen Akademia, garai hartako garbizaleek eskuarki zerabiltzaten *jaupari, txadona, txindi, uzkurtz...* gisako asmakeria bitxiak gaitzetsiz.

Euzkera garbija-ren aldeko aranatarrek aldarrikapen hura ezin barkatuzko sakrilegio eta gerra-deklaraziotzat jo zuten, Euskaltzaindia, ia-ia, euskara galbidera zeraman erakunde espainolista bat zela iradokitzen zuten. Bilbo aldean, hain zuzen, G. Aresti zen Euskaltzaindiaren aldarrikapen horren aldeko kide nabarmenenetako bat.

Zer esanik ez, euskaldun berri ia guztien antzera, ni ere hasieran oso garbizalea nintzen. Izan ere, orduan, espainolismoak eus-

harrietaherri #50

kararen aurka zerabilen desprestigio-kanpaina gogoan izanda, iruditzen zitzaidan, abertzale zintzoa izateko, nahitaezkoa zela hizkuntzaren garbitasunaren fabore jokatzea, erdaratikoen ordeztu hitz berriak asmatuz. Zoritxarrez, jende asko ez zen konturatu itxurazko garbizaletasun horrek atzean zer-nolako osin iluna ezkututzen zuen, hura irteerarik gabeko bide gero eta hertsia goa zela, inora ere ez ginderramatzana. Gainera, Luis Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca*-n (1961), hura salatzen ausartu zenean, kritika zaparrada ederra erori zitzaion, eta luzaro euskal kausarako susmagarri eta traidoretzat hartua izan zen bera ere.

Ene ustez, mundu guztiak zekien, arrazoi ezberdinengatik hori argiro aitortu nahi ez bazen ere, hizkuntzaren batasun teoriko horrek bere bidean bi oztopo nagusi zituela. Bata garbizalekeria zen, eta joera horrek indar handiena Bizkaian zeukan. Arantzarrek euskarak bere historian zehar inguruko hizkuntzetatik jasoriko hitz guztiak baztertu nahi zituzten, zaharrak zein berriak izan, horien ordeztu berek nola edo hala asmatu-rikokoak bultzatzeko. Horien eraginez bizkaiera idatzia beste euskalkietatik asko urrundu zen, desitxuratzera ere helduz. Baina goraxeago aipatu dudanez, arazo hau, teoriarik behintzat, nolabait 1959ko adierazpenarekin erabaki zen.

Beraz, bigarren behaztoparria gelditzen zen oraino, eredu batua-rena, hain zuzen, aurrekoa baino potoloagoa gainera. Jada gerraurrean Broussain eta Campion euskaltzainek beren informean idatzia zuten², demografia, geografia eta literatur tradizioagatik, komeni zela eredu batua erdikoa izatea: Gipuzkoa-Lapurdi aldeko euskalkietan oinarritua, eta beraz, bizkaieratik aski urrundu, baina hori ezin onartzeko zen sabindarren iritziz, berek indar politikoa handiena jaurrean zeukaten eta.

2 Euskaltzaindiaren beraren eskariz, 1920/2/24an Pierre Broussain eta Arturo Campion euskaltzainek euskara batzeko txosten bat aurkeztu zuten, eskuarki bien deituekin erazagutua: Broussain-Campion informea. Baina proposamenak ez zuen aurrera egin.

Hasieran taldeen arteko funtsezko desadostasunagatik, eta ondoren gerraosteko errepresioagatik, kontua da euskararen arazoa hainbeste urtetan egon zela praktikan ukitzeke.

Euskal Literaturaren hasi-masiak gogora ekarriz

Aurrera segitu baino lehen, eta batasunaren panorama osoa perspektiba historikoaz ikusteko, ez dagoke gaizki, oroimena freskatzeko, gure literaturaren ibilbide osoari begirada orokor bat egin eta aurretikoak ere gogoratzea.

Gure Historiari arreta pixka batez so eginez gero, ongi esan genezake euskal letrak aurreratu ahala, parean, euskaldunon elkarrekiko sentimenduak ere mamigaratzen aritu direla, eta, horrekin batera, gure hizkuntzaren batasuna ere egituratu dela. Hasierako euskal autoreek beren lanak idaztean, aurreko eredurik ezagatik, nahitaez beren inguruko eta euskalkiko hiztunak zeuzkaten gogoan, eta haiei ulertarazteko testuak prestatzen zituzten, hau da, belarriz jasoriko berba eta esaerekin, urruneko hitz, esaldi eta sintaxi era ezberdinak erabiltzeke. Baina halere, ikusiko dugunez, orduko batasunik eza azpimarratzen eta kontrakoa beharresten zuten jada.

Aldi berean –eta mintzairaren batasunaz arduratu baino lehenago–, euskal literaturaren lehen autore haiek bazerabilten buruan beste kezka nabarmen bat ere, hots, euskararen gaitasuna bera, azken finean beren buru-estimua eta nazio harrotasunaren seinale, kanpotik jasoriko irain-mespretxuek zalantzan jarria, eta, egia izanez gero, euskaldunen beren ezintasuna zatekeena. Beraz, jendeari, mundu osoari, euskara ere idazteko tresna egokia zela erakutsi nahi zioten, pentsamendua eta goi mailako gogoetak adierazteko orduan, euskaldunak beren mintzairaz ere ongi balia zitezkeela argi frogatzeko. Baina hori ez zuten egin, soilki, borondate oneko apologien bidez, buruturiko obra ederren lekukota-

harrietaherri #50

sunarekin baizik. Horregatik, Etxeparek, bere poema-liburuaren aurkezpenean, garai hartan euskarak zuen fama eskasa ordura arteko euskaldunek beren hizkuntzaz idazteko izandako nagikeriaren ondorioa dela deitoratzen du:

Zeren baskoak baitira abil, animos eta jentil, eta hetan izan baita eta baita zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago jaina nola batere ezten asaiatu bere lengoaje propriaren faboretan heuskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera, zeren ladin publiko mundu guzietara berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik, ezein reputazione bage, eta berze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daiteiela lengoaje hartan, nola berze orok baitute eskribatzen berian. (*Linguae Vasconum Primitiae*, hitzaurrea)

Halere, liburuaren azken bertsoetan, bere lanari esker, euskara egoera tamalgarri horretatik irteteko ordua jada heldu dela diosku argiro:

Berze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien;
orai dute phorogatu
enganatu zirela.

Gainera, azken poeman euskararen etorkizunaren aldeko aldarrikapena egiten du, geroaren apustu baikorra, eta euskaldun guztiok bultzatu nahi gaitu geure hizkuntzarekin harro senti gaitezen:

Heuskaldun den gizon orok altxa bezala buruia
ezi haien lengoajia izanen da floria!

Hogeita sei urte geroago, Joanes Leizarraga Beraskoizkoak ere antzeko kezka aitortzen du euskarak kulturarako zeukan badaezpadako gaitasunaz, auzokoek zalantzan jarria. Horrela, Etxe-

parek bezala, Leizarragak ere, euskararen egokitasuna³ erakutsi nahi du, eta aldi berean bere nazio-harrotasuntxo nabarmendu ere bai:

Alabaina segur izanez ezen heuskaldunak berze nazione guzien artean ez garela hain basa, non gure lengoaje ezin eza-gut eta lauda dezagun gure Jainko Jauna ... gogo egin nezan, neure ahal guziaren egitera, eta Jainkoak eman plazer ukan drautan guziaren borondate onez haren elizaren edifikazionetan enplegatzerá (1571eko Testamentu Berrian Joana Albretokoari eginiko aurkezpenean)

Halaber, Leizarragak oso argi zeukan nortzuentzat idazten zuen, eta haren Testamentu Berriaren eta gainerako doktrina-lantxoek heldze-eremuak norainokoa izan behar zuen. Kontuan hartu behar dugu berak besteren aginduz lan egiten zuela, hots, Joana Albretoko erreginaren aginduak eta Bearnoko sinodoarenak zehazki betetzeko, eta horretarako, bere liburuak gutxienez Iparraldeko euskaldun guztiengana helarazi behar zituen. Horregatik, bere jaioterriko lapurtar euskalkiaz gainera, bere itzulpenean Nafarroa Beherekoaren ezaugarriak ere txertatzen saiatu zen, Zuberoakoak ere aherentzi gabe. Hura izan zen, benetan, euskal letren historian euskalki zehatz batzuen gainera eredu batu eta zabalagoa moldatzeko lehenbiziko urrats kontzientea. Honela idatzi zuen berak *Heuskaldunei* deritzon hitzaurretxoan:

Gainerakoaz den bezenbatean, batbederak daki Heuskal Herrian kasi etxe batetik berzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibersitatea den; razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajeaz den bezenbatean ahalik gehiena guziei adi eraziteari jarraiki izan gatzaitza, eta ez xoil edozein lekhu jakineko lengoaje bereziri.

3 Euskararen eta antzeko beste hizkuntza ez ofizialen aurka ari ziren erdaldunen iritziak urte batzuk geroago ederki zehazturik agertu ziren Michel Eyquem de Montaigne (1533-1592) frantses idazlearen saioretan, 1580 eta 1588an argitaratuetan, H. Knörrek haren pasarte honetan erakusten duenez: *Sçavons-nous bien qu'en Basque & Bretagne il y ayt des juges assez pour establir cette traduction faite en leur langue?* 'Ba ote dakigu Euskal Herrian eta Bretainian ba al den nahiko epailerik beren hizkuntzan eginiko itzulpen hau [ongi egina ote den] erabakitzeko?' Montaigne 123 or. *Saioak* LI, LVI 10, 1580 eta 1588ko edizioetan. Henrike Knör, *Joanes Leizarraga: vida y obra*, Caja de Ahorros de Navarra, 2007, 123. or.

harrietaherri #50

Beranduago ere, aurreko mendetik erdaldunek euskararen aurka adierazten zuten gutxiespen hori oso ongi islatzen da hurrengo euskal idazleen lanetan ere⁴ (Oihenart, Axular, Etxeberri Sarakoa, Larramendi...) eta zein bere garaian, kontura zetorrenean, euskararen apologiak egiten saiatu ziren eta, orduko difamatzaileen aurka. Haiek ere euskararen gaitasunaz batasunik ezaz kezkatu-rik zeuden, eta aldizka nongo euskara zen onena eztabaidatzen zuten. Gogora ditzagun, adibidez, Axularren *Gero*-ren sarrerako hitzok:

Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira Euskal Herrian... Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko mintzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.

Iparraldeko euskalkien ondoan, Hegoaldean Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroa Garaian ere bertako hizketak lantzen hasi zirenean, funtsean nork bereari atxiki zion, baina ordurako, neurri batez bederen, jada ezagunak zituzten tarte horretan aurreko idazleek eginiko urratsak eta eskainiriko ereduak. Hor oinarriturik, euskalkien arteko literatur harremanak hasi ziren, bai lexikoan eta bai sintaxian ere elkar kutsatuz. Hizkuntza kontzeptuak, beraz, jada norbere euskalkiarena gainditzen zuen, eta, aldi berean, sorterrri osoaren neurri idealak zirriborratzen zituen. Era berean, Euskal Herria, jada Axularrek geografian gaurko zazpi herrialdeekin ongi definitua eta Etxeberri Sarakoak berretsia, irakurle potentzialen arabera birmugatzen hasten zen euskaldunen *imaginarium*-ean.

4 A. Oihenartek eta J. Etxeberri Sarakoak Juan de Mariana (1536-1624) jesuita gaztelauaren *Historia de España* aipatzen dute, euskarari buruz zerabilen iritzia erakusteko: "Solo los vizcaínos (= vascos, garai hartako gaztelaniaz) conservan hasta hoy su lenguaje grosero, bárbaro y que no recibe elegancia" (2. lib. 5. kap., 1592)

Greziara klasikoaren eredu idatzi eta hirukoitzaren bidetik, aita Larramendi jesuitak gure mintzairarako hiru euskalki zehaztu zituen (bizkaiera, gipuzkera eta lapurtera-nafarrera), eta euskaldunei hiruretan idatz zezatela proposatzen zien. Sebastian Mendiburuk goi nafarrera hautatu zuen, Iparraldeko euskararekin, bestalde, antz nabarmena zeukana. Bizkaian Mogelek eta Añibarrok jauerreriko euskalkia landuko zuten, baina idazkera aski bereziekin, eta batak mintzatze mailako fonetismoak (*etxia, mendija, osua*) transkribatzen bazituen, besteak, aldiz, hizkuntza biluzi eta eza-guterrazagoa zerabilen (*etxea, mendia, osoa*), gaurko eredutik hurbilagoa.

Hemeretzigarren mendean, hizkuntzalaritzako ikerketek garrantzi berezia eman zieten dialektoak ikertzeari, hortik abiatuik ama-hizkuntza zaharraren jatorrizko hitzen forma eta eboluzioa aurkitzera lagun zezaketela pentsatuz. Louis Lucien Bonaparte printzeak, filologiaren irizpideekin, euskalkien sailkapen zehatzagoa egin zuen eta horien lehenbiziko mapa ere utzi zigun. Bide berean, Arturo Campionek euskalki literarioen gramatika, Larramendiren hirurez gainera, zuberera ere sartu eta horren berezitasunak azaldu zituen. Azkenean, Azkuek, Bonaparteren mapa osatu zuen, erronkaria zubereratik aparteko euskalkizat bereiziz.

Baina euskalkiak aztertzen zituenean, Azkuek, aldi berean, argi zekusan euskarak, ikerketa soilaz gainera, batasunaren beharra ere bazuela, eta berak Hegoaldeko euskaldunengan bereziki pentsatuz, bere *gipuzkera osotua* proposatu zuen 1935ean. Harelere proposamenak ez zuen arrakastarik izan. Kontuan hartu, garai hartako sabindarrek ezin onar zezaketela, zein eta bizkaiera, hots, Arana maisuak bereziki maitatua, hain zokoraturik gelditzea.

Gainera, egiten ziren pausoak ez zihoazen beti aurrerabidean, euskalkien arteko harreman eta zubi emankorren ondoan, aldizka aurkako joerak ere sortzen ziren eta. Batzuetan bazirudien idazle probintzialistegiek bekatu barkaezintzat jotzen zutela aldameneko zein urrutiko euskaldunen berbak edo esaerak hartu

eta beren lanetan tartekatzea, horrek beren euskalkien jatorrizko birjintasuna zikinduko zuelakoan. Gainera, norbere sorlekuaren jatoritasunaren izenean, inoiz, euskalki guztietako forma berdintsuak eta jatorri zaharrenekoak bazterteraino ere heltzen ziren, batez ere Bizkaian, aldameneko euskalkietatik kutsaturik helduak zirelakoan. Horien ordez, analogiaz sorturiko forma erabat berriak bultzatzen ahalegintzen ziren (*ekarri ditu* edo *etorri gine(a)n* zahar jatorren ordez, *ekarri dauz* eta *etorri gintzazan*, adibidez), adizkera aberrante horiek eta inondik ere zaharrak ez zirenak, hain zuzen, Bizkaiko erarik jatorrenak zirela pentsatzen zutelako, oker.

Baina, ene ustez, arrazoirik printzipalena bestelakoa zen, orduko euskal gizarteak, ohituraz, kulturaz eta irakaskuntzaz aski erdaldunduak, oraindik batasun horren premia benetan sentitzen ez zuelako.

Halere, idazle batzuek, Lizardik, esaterako, Azkueri jarraikiz, bide zabalagoak jorratzen segitu zuten, euskalki ezberdinetako hitz, sinonimo eta apaingarriak kezkarik gabe erabiltzean. Baina horien idazteremua Penintsulako Euskal Herriaren mugetan gelditzen zen nagusiki, Pirinioez bestaldeko mintzakideez horrenbeste arduratu gabe. Gauza bera esan dezakegu, alderantzizko balioan, 1944an Pierre Lafittek argitaratu zuen *Grammaire basque* liburuaz ere, lan bikaina baina helburuz soilik Iparralderako mugatua.

Eta azken urratsak, erabakigarrienak, gerraondoan egin ziren. Hor abiadura azkartu zen eta batasunerako bilakabide hori, aurreko mendeetan idazlez idazle eta denboran zehar astiro garatua, nolabait laburtu eta azeleraturik, berdin ikus dezakegu Gabriel Aresti eta bere garaiko beste autore batzuen idazbide pertsonaletan ere. Gabrielelek obra batzuk bizkaieraz idatzi zituen, ondoren gero eta gipuzkoar eta lapurtar elementu gehiagoz osatu zituen, eta azkenean Hegoaldeko euskaldunon muga-esparrua gainditu zuen, Pirinioez bestaldeko euskaldunengana heldu eta Euskal Herria osoa besarkatu arte.

Batasunaren azken txanpan

Gure garaira berriro itzuliz, berrogeita hamarren hamarkadan Euskaltzaindiak batasunari buruz luzaro agertua zuen axolagabetasunak, batetik, eta bestetik Seber Altube, Federiko Krutwig eta Txillardegik bezalako euskaltzale nabarmenek politika-konpromisoen ondorioz Hegoaldetik aldendu beharrak, hutsune ageria utzi zuten Hegoaldeko euskal kulturaren panorama berez aski tristean. Halere, Txillardegik, frantziskotar gazteen Jakin taldeak, J.L. Davantek, T. Monzonek eta beste euskaltzale batzuek jada batasunaren arazoa ongi barneratua zuten Iparraldean, eta beren kontutik hizkuntza batuaren aldeko urratsak egiten segitu zuten. Ahalegin horien emaitza sonatuena 1964ko Baionako biltzarraren erabakiak izan ziren, Hegoaldean *Jakin*-ek eta *Zeruko Argia*-k laster argitaratuak, lau urte geroago Arantzazun hartuko zirenen aitzindari. Nik ere ondo gogoan dauzkat erabaki haiek, eta irakurri nituenean, erabat interesgarri iruditu zitzaizkidala, bai eta zer nolako poza eman zidaten ere.

Edonola ere, giro nahasi hartan ez zen beti erraza irizpide finko bati erabat eustea. Villasanteren liburua, adibidez, jada irakurria nuen eta garbizalekeriaren arriskuaz ongi konturatzen nintzen. Bestetik, literaturarako euskara batua lortzeko helburuarekin ere erabat bat nentorren neu ere, hartan euskaldunontzako hizkuntza nazional batua nekusalako. Baina, aldi berean, euskal erroz sorturiko hitz berriak ere nahitaezkoak jotzen nituen, horiekin euskarak mende askotan zehar inguruko erdaren pean izandako eragin umiliagarriak gainetik astinduko zituelakoan. Gainera, batasunerako proposatzen ziren aldaketak ez ziren beti egokiro azaltzen. Inon ez zitzaigun argitzen –edo neuk behintzat ez nuen azalpena inon aurkitu–, adibidez, zergatik ez zertara zetozen ordura arte Hegoaldean *mutilla* eta *miña* bezalako hitzetan erabiltzen genituen *ll* eta *ñ* letren ordez *il* eta *in* idazkerak gomendatzea.

Ezin nezake data guztiz segur esan, baina 1965 inguruan izango zen. Euskaltzaindiaren egoitzara bakarrik joan nintzen batean,

barruan bi lagun aurkitu nituen. Bata ezaguna nuen jada: Alfonso Irigoyen, garai hartan bertsolarien txapelketak antolatzen ibiltzen zen eta. Banekien berarekin zegoena ere nor zen: Gabriel Aresti, idazlea eta poeta, baina ordura arte pertsonalki inoiz ikusi gabea, eta ene orduko informazio iturrien arabera, ez omen zen oso lagun fidagarria, abertzaletasunari zegokionez behinik behin. Edonola ere, halako euskaltzale sonatuekin maiz mintzatzeko aukerarik ez nuela izango pentsaturik, berekin hizketan hasi nintzen.

Solasaren harian, proposatzen zen euskara batu hartan argi ikusten ez nituen puntu batzuk galdetu nizkien, gauza batzuekin ez baintorren ados. Irigoyen, egia esan, eszeptiko xamar ageri zen baina Aresti, ordea, bete-betean sartu zen eztabaidan, gogonez gainera. Ondo gomutan dauzkat oraindik berak emandako azalpenak. Esan zidan ñ eta ll letrak ez zirela euskara batutik baztertzen, baina hitz arrunten txikikariak egiteko balioaz uzten zirela. Nik ñabardura hori agian izenetan bai, baliagarria gerta zitekeela, baina galdetu nionean ea zer ezberdintasun egon zitekeen *baina* eta *baiña* palatalduaren artean, berak, umorez, adibide honekin erantzun zidan: "Nik zure kontra ez dut *baina* bat jartzen, *baiña* bat baizik, hau da bainatxo, oztopo txiki bat". Ateraldiak grazia egin zidan eta, harrezkero maiz egon ginen elkarrekin, euskal hizkuntza, kultura eta politika gaiei buruz mintzatzeko.

Handik laster egin behar izan nuen soldadutzak Bilbotik urrundu egin ninduen zati baterako, eta Gasteizko instrukzio-aldiaren ondoan, Burgosen urtebete egin behar izan nuen, artilleriaren kuartelean, oso luze egin zitzaidana. Izan ere, ni jada fitxaturik nengoen, urte batzuk lehenago aberri-egunean poliziak Irunen atxilotu ninduelako, eta, ondorioz, etxera aldizka etortzeko baimen guztiak ukatu zizkidaten soldadualdi osoan. Behin espainol armadatik lizentziatu eta gero, 1969ko irailean, Euskal Herrira itzuli nintzenean Arantzazuko Batzarra, euskararen batasunerako erabakigarria, aurreko urtean egina zen.

Arantzazuko Batzar hura, neurri batez Gabriel Arestiri zor zaio, berak kontatu zidanetik behintzat. Euskaltzaindiak, 1968an, bere fundaziotik berrogeita hamar urteak betetzean, euskaltzainak Bilboko egoitzan bildurik zeuden, Ribera kalean, eta efemeridea ospatzeko, bertan jaki eta gozoki batzuk zerbitzatu omen ziren, edariek lagunduak. Dena den, ez ziren gauza gehiegi izango, Akademiaren ohiko ekonomiaren egoera kontuan izanda.

Edonola ere, festa giro hartan, eskuarki hain serio egoten ziren euskaltzainak, Gabrielen hitzez, pixka bat txolindu ziren, zeren, gauza jakina denez, *bonum vinum laetificat cor hominis*, eta giroaren alaitasunaz baliatuz, Arestik proposamen zehatza egin zuen: on zela urteurren hura halako jan-edanetan ospatzea, baina, era berean, ea zergatik, dataren berezitasunaz baliaturik, ez zen behingoz egiten batzar berezi bat, bertan euskararen batasuna jorratzeko. Izan ere, Euskaltzaindiak bere fundazio-eginkizunen artean mende erdi lehenagotik jada hura aldarrikatua zuen, luzaroei aiantzia egon arren. Euforia giro hartan euskaltzainek baietz erantzun zuten, eta orduan Gabrielelek, biharamuneko ajeak bezperako akordio esperantzagarria erahantz ez zezan, eskatu omen zuen aktan jar zedila onartu zela batasunerako batzarra egin beharko zela. Eta egin halaxe egin zen, guztiok dakizkigun zorioneko ondorioekin.

Batasunaren aldeko idazle suharrena ordura arte Txillardegia izan zen, baina politikan zeukan militantziagatik –bera ETaren sortzaileetako bat izana baitzen– 1961ean muga pasatu eta lehenik Iparraldera eta geroago Belgikara ihes egin behar izan zuen. Halere, tarte horretan Arestik jakin zuen haren batasun-eskariaren zuzia eskuan jasotzen eta Euskaltzaindian aitzinago eramaten.

Gelditzen ziren euskaltzainaren artean, guztiek zekiten bazela gizon bat batasunaren gidaritzara ederki eraman zezakeena: Koldo Mitxelena, garai hartan Salamancako unibertsitatean indoeuropar hizkuntzalaritzako katedraduna. Haren doktorego tesi sona-

tua *Fonética Histórica Vasca* (1961), jada mugarrria zen euskal ikerketetan.

Mitxelenaren aholkuz, Arantzazuko erabaki gehienak Baionan lau urte lehenago Txillardegik-eta eginiko proposamenen bidetik zetozen, aldaketatxo ortografiko txiki batzuk salbu. Idazkera- eta deklinabide-arauez gainera, batasunerako oinarrizko lexikoa ere aurkeztu zen Arantzazun. Hitz zerrenda soila zen, berba hautatuen esangurarik azaldu gabe. Jada Bilbora itzulia nintzela, Gabrielelek proposatu zidan bion artean batasunerako lehenengo hiztegitxoa egitea, euskara-euskara, noski, Arantzazun onarturiko hitz zerrendan oinarritua, baina zerbait gehitua. Arestik *Batasunaren kutxa* bataiatu zuen liburua, eta 1970ean argitaratu zen.

Hiztegi hark bazekarren, halaber, hizkuntza batuaren alde, idazle askoren konpromiso idatzi eta sinatua. Ideia hori ere Arestirena izan zen, une hartan garrantzi handia zeukalako euskal gizar-teak argi ikustea jada idazle ezagun gehienak euskara batuaren proiektuaren alde zeudela.

Egiari zor zaiona betez, Arantzazuko Batzarra Manuel Lekuona euskaltzainburuaren zuzendaritzapean egin zela aitortu beharra dago. Halere, behin kongresu hura amaitu eta gero, Don Manuel-ek iritzia aldatu zuen erabat. Aldamenean aspaldiko lagun batzuk zebilzkion, Pedro Berrondo, besteak beste, eta batasunerako batzar hark euskararen bizitzari kalte besterik ez ziola ekarri errepikatzen zioten behin eta berriro. Kritika horiek isildu eta adiskide horiekin bake-bakean egoteko, aurrerantzean Lekuonak ez zuen nahi izan pauso gehiagorik egin hizkuntza batua bultzatzeko, ez eta erabaki zehatzagoekin hura osagaratzeko ere.

Arantzazu eta gero

Akademiaren hurrengo hauteskundeetan, 1970ean, Luis Villasanten irten zen euskaltzainburu, erabateko gehiengoaz gainera, eta harrezkero, frantziskotarraren gidaritzapean Euskaltzaindia batasunaren zereginari seriooki ekiten hasi zen. Handik laster pausorik segur aski zailena egitea erabaki zuen euskaltzainburu berriak: euskal aditza bateratzea. Lehen unetik G. Aresti partaide izan zen, hartarako izendatu zen batzordean.

Koldo Mitxelenaren hautua jakin ondoren, eta aditz batua funtsean erdialdeko euskalkien inguruan mamituko zela konturatu (gipuzkera-goi nafarrera-lapurtera), multzo horretan Aresti bizkaierazko forma batzuk bederen ahal zen neurrian txertatzen ahalegindu zen (*gara, zara, litzateke, lirateke...*), subjuntiboan, berriz, Pirinio aldeko adizkera klasikoek fabore agertu (*deza-dan/diezadan*), eta *ekarri, eraman* eta *erabili* aditz sintetikoek absolutibo pluralaren markarako, *-zki-* edota *-tzi-* artizkien ordez Iparraldeko *-tza-* forma bultzatuz. Horrela, maiz datibo formak izaten dituzten aditz horietan gipuzkerazko flexioekin berdin gera zitezkeen adizkiak bereizirik gelditzen ziren, (*nik dakartzat / hark niri dakarzkiz, zuk daramatzazu / hark zuri daramazkizu, guk darabiltzagu, hark guri darabilzkigu*), mezuak hobeki argitzeko.

Beraz, funtsean erdiko euskalkien ereduak hobetsi arren, ekialde eta mendebaldeko adizkera batzuk ere aditz sistema batuan integraturik gelditu ziren, azken emaitzan euskal hiztun orok geure euskalkietako ezaugarri, partaidetza eta osagarri batzuk eduki eta ikus genitzan. Hori, jakina, oso mesedegarria gertatu zen hasieran idazleek, eta gero euskaldun guztiek, euskara batua begi onez ikusi eta onartzeko orduan.

Euskaltzaindiko batzorde hori aditz batua aztertzen hasi zenean, G. Arestik Axular eta Leizarragaren obretatik autore horien adiztegi osoak atera, ordenatu eta publikatuak zituen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, batzordeko partaideok kontsultagai

harrietaherri #50

izan genitzan. Eta azpimarratzekoa da, hori guztia eskuz eta begiz egin zuela Gabrielelek, garai hartan, gure artean behintzat, ez baitzegoen ordenagailurik.

Ordea, bere literatur euskara pertsonalean, Arestik ez zuen jasozten, soilki, hizkuntza idatziaren eragina, horrez gainera euskara mintzatuaren elementu asko ere biltzen zituen, inoiz erregistro ezberdin horiek beti hain zehazki banatu ez arren. Alde horretatik, Bilboko poetak arreta bereziaz begiratzen zion bertsolarien, herriko jende xumearen eta behe mailakoaren mintzamoldeari, eta aldizka, sats arteko perlak ere aurkitzen zekien. Hori guztia, XVI, XVII eta XVIII. mendeetako klasikoen balioekin osatzen ahalginduz, belaunaldien eta tradizioen arteko sintesia lortu nahirik.

Arestiren heriotzaren ondoan Mitxelenak berak ongi azpimarratzen jakin zuenez, Gabrielelek bere euskara batua, *avant le mot*, horrela bataiatua izan baino lehenago, prestatu eta plazaratu zuen, bere lerro nagusietan urte batzuk geroago Euskaltzaindiaren babesean gatzatuko zenaren iragarle.

Gabriel Arestiren abertzaletasunaz

Gorago, iragaitzaz bada ere, bilbotar idazleaz luzaro ibili ziren zurumurrak aipatu ditudanez gero, ez nuke lantxo hau amaitu nahi Arestiren sentimendu politikoez zerbait gehiago esan gabe. Gabriel tratatu ahala, aukera ugari izan nituen harekin gauza askoren gainean mintzatu eta eztabaidatzeko, eta horri esker beraren nortasun eta ideologia bereziak ezagutzeko ere. Lehenengo eta behin, Bilbo hartako giroan, hau da, gurean euskaltzaletasuna ia-ia norbaitek ornitorrinkoen hazkuntzan jardutea bezain bitxia gertatzen zen garaian, ez dakit nola pentsa zitekeen espainolista maskaratua izan zitekeenik pertsona bat, bere kabuz euskara ikasi, gure literaturara hurbildu, euskal poesia landu eta prosarako kaletar gai oso berritzaileak zekartzanean. Noski, ezkerre-

koa zen, eta ez zuen Jainkoa ez eta lege zaharretan fede handirik erakusten. Hori gutxi balitz, maiz ironiaz, eta are sarkasmoaz ere, tratatzen zituen aurreko belaunaldi tradizionalak lagunak sakratutzat zeuzkaten balio batzuk, horietako ez gutxi, –ez ordea guztiak– denborak gupidagabeki erakutsi duenez, oinarri sendorikgabeak ziren arren.

Baina abertzale tradizional eta kulturaz aski espainolduen aurrean Aresti sarritan probokatzailerik agertzen bazen ere, gogora dezagun horixe bera egiten zuela espainolisten artean aurkitzen zenean ere. Gauza jakina baita, adibidez, haren lagun sozialista eta komunistei maiz beren antieuskalduntasuna aurpegiratzen ziela, eta euskal gauzetarako axolagabekeria ere bai, eta haie-tako batzuk nola erakarri zituen euskal arlorantz, besteak beste⁵.

Anekdotek mila azalpen teoriko baino argi handiagoa eskaini dezakete maiz, eta horregatik oraindik gogoan ditudan horietako pasadizo batzuk kontatuko ditut, horien argitan irakurleak berak juzka ditzan.

Behin Tomas Ellakuriaren Bilboko moldiztegi zaharrea zegoela –bertan inprimatu baitziren Gabrielen obra batzuk– hara editore ezagun bat agertu zen. Jaun kapeladun hark euskal gaiei buruzko berrinprimaketa ugari ateratzen zituen, luxuzko edizioetan, eta etxeko hormak apaintzeko liburuak metroka erosten zituzten erdi eta goi mailako erosleen hornitzailea izaten zen. Elkarrekin hizketan ari zirela, Ellakuriak –Amerikan hildako jesuitaren senidea

5 Euskaltzaindia izan da lehena aldarrikatzen euskara herritar guztien hizkuntza eta balio kultural orokorra dela, esklusibotasunik gabea. Izan ere, gure hizkuntza urte askotan hori egon da, erabili, maitatu eta indartu nahi izan duten guztien esku, eta oso argi dago orain arte nortzuk izan diren bera jagon, landu, ikasi eta bultzatzen ahalegindu direnak. Polemika bero hori nahikoa hoztu bada ere, inoiz aldizka darion keagatik, ez dirudi, horren sua oraindik erabat itzalia denik. Izan ere, gaur ere badira, euskara suspertzeko zerbait egiten den bakoitzean, euskaldun abertzaleoi behin eta berrito geure balio "identitario" eta "esklusibistak" defendatzeko bekatu larria aurpegiratzen digutenak, berek are portaera esklusiboagoaz, beti beren erdal balioak auzatzen ez balebiltza bezala, munduko bakarrik bailiren. Aldizka hain suharki gorapatzeko duten zorioneko aniztasun hori gorabehera, batzuek ez dakuski gu inon, ez-abertzale pluralista horien euskal emaitzak, eta bene-benetan gustatuko litzaiguke arlo horretan haietariko lankideak ere izatea, orain arte geuk bakarrik, eta esklusiban, hartu behar ditugun lanetatik atseden edo errelebo pixka bat hartzeko, besterik ez balitz ere.

bera- kontatu zien, inprimatzaileentzat behintzat haiek ez zirela oso garai onak, bezero batzuek ez baitzizkioten lanak behar bezain laster ordaintzen, eta zordun haietako baten izena aipatu zien. Hura entzutean editore kapeladunak honela esan zien: “-*Bai, horrek niri ere hainbeste diru zor dit. Baina jada asper turik nauka. Ordaintzen ez badit, salatu egingo dut, nazionalista da eta*”. Hitz haiek entzutean, Gabrielelek, ordura arte isilik entzuten egonak, honela erantzun zion: “-*Tira, hori horregatik salatze- ra bazoaz, bide batez ni ere sala nazazu, neu ere nazionalista naiz eta*”.

Egia da Gabrieli ez zitzaiola gustatzen bere burua harrokeriaz euskalduntzat maizegi agertzea. Eta areago arbuia ohi zuen -ene ustez gehiegi- *nacionalista* hitza, erdaraz gure artean ‘euskal abertzale’ balioaz eskuarki erabiltzen dena, nazioartean hitz horrek normalean daukan eskuindar balio peioratiboagatik. Izan ere, garai hartan, abertzale harroputz batzuen ahoan, eta erdaraz, “*Ni inor baino euskaldunagoa (= más vasco) naiz*” sarritan entzuten zen arren, Arestik ez zituen gogoko era horretako nabarmenkeriak. Halere, bizkaitarrak eta euskaldun berriak ginelako, Euskaltzaindian behin baino gehiagotan jasan behar izaten genituen gipuzkoar apaiz batzuen isekak, gu haien mailakoak ez bagina bezala. Ez zen berau horretan tematiena, baina behin Euskaltzaindikook, Bilbon, hileroko bileraren ondoan, bazkaltzen ari ginela, Nemesio Etxaniz jaunak nolabaiteko burlaz jardun zuen Bilboko “erdieuskaldunoz”. Ahopetik eta irribarrez, Gabrielelek honela galdetu zidan: -*Xabier, zuk ere nire odol talde bera duzu, ez da? Baietz erantzun nionean, ea hori egiaztatzeko dokumenturen bat aldean ba ote neukan itaundu zidan. Orduan txarteltxo bat ohi neraman diru-zorroan, autoan nenbilela istripurik izan eta odol transfusiorik behar izanez gero, xehetasun horiek azaltzen zituena, eta Gabrieli pasatu nion. Berak ere berea atera eta Don Nemesiori biak erakutsi zizkion irriz: -*Zer, hauek ere erakutsi behar al dizkizugu geure euskalduntasuna frogatzeko? Txartelak ikusi eta han biok odola O negatiboa genuela irakurtzean erabat isildu zen apaiz gipuzkoarra.**

Euskaltzaindiko bilerak Donostian izaten zirenean, Gabrielelek normalean bere automobilean eramaten ninduen. Eta Baionara ere bai, bertan batasuna zela eta, Txillardegirekin hitz egitera joaten ginenean. Errepide zaharretik joanda, Iparralderako bidean Donostia utzi eta Herrerara heltzen ginenean, bertako likore-fabrika edo biltegi baten parean igarotzean, hura bere klerikalismo bakarra zela gogoratzen zidan irribarrez, *Benedictine* edari gozoari zion zaletasuna aipatuz.

Ondo gogoan daukat muga pasatzen genuen aldi guztietan, Hendaiaiko zubiaren erdira heltzean, Espainia aldeko aduana-kontrola behin igaro eta gero, bere automobilaren leihoa ireki, ukabila atera eta *Gora Euskadi askatuta* oihukatzen zuela ozen-ozenki, honela amaitzeko, irribarrez: “–Hau hemen askatasunez esateko era daukagun baterako, ez dugu aukera alferrik galdu behar”.

Erlijioari doakionez, ez zen pertsona fededuna, baina, halere, kulturagatik eta haren literatur balioengatik, Biblia oso ondo ezagutzen zuen, eta segur aski bere inguruko kristau gehienek baino askoz hobeto, beraren poesian liburu santuetatik jasoriko aipamen eta esaldi ugariak lekuko. Batzuentzat harrigarria gerta litekeen arren, nirekin behintzat maiz hitz egiten zuen Bibliako pasarte batzuen esanguraz eta interpretazioaz. Hori bai: beti era laikoan.

Baina edonola ere, itxuraz sinesgabe gogorra zen hura oso ondo konpontzen zen elizgizon euskaltzaleekin, eta ez zituen haien me-rezimenduak ezkututzen. Vatikanoko Bigarren Kontzilioaren ondoren, 60ko hamarkadan Bilboko Sant Antongo parrokiari, Don Klaudio Gallastegik igandeetan euskaraz lehenbiziko mezak jarri zituenean, normalean hantxe aurki zitekeen G. Aresti ere, A. Iri-goien eta Gereñotar anaiekin batera, besteak beste, euskal giroa egiteko. Frantziskotarrak biziki estimatzen zituen, Luis Villasante, Imanol Berriatua, Bitoriano Gandiaga, Mikel Azurmendi, Joseba Intxausti, Joan Torrealdei, Paulo Agirrebaltzategi eta Jakin tal-

harrietaherri #50

deko gainerakoak. Aita Zavalaren lanaren miresle osoa zen, eta etxean *Auspoa* bildumako ale guztiak zeuzkan, Krutwigek ez bezala, bertsolaritzari herri poesiaren ezin utzizko altxorra zeritzon eta. Bere obretan, halaber, ez dira falta Iratzederren poesiaren laudorioak ere.

Arestik oso aintzat zeukan aita Mokoroaren herri-esaeren bilke-ta-lana ere, eta berari zor zaio, modu ene ustez erabakigarriaz gainera, haren obra erraldoia azkenean kaleratzea. Bilboko eskolapioen ikastetxetik pasatu ginen guztiok bagenekien, aita Justo Mari Mokoroa urte askotan zebilela euskal esaera jatorrak biltzen, hots, hizkuntza batetik bestera hitzez hitz ezin itzul daitezkeen idiotismo horietakoak⁶. Mokoroak euskalduntasunaren oinarria hizkuntzan zekusan eta ideia hori azpimarratua zuen bere *Genio y Lengua* liburu bikainean, zoritxarrez Espainian Francoren kolpe militarra hasi zen urtean inprimatua eta hargatik jendartean ia-ia zabaltzerik izan ez zuena. Liburu hartan Mokoroak argi eta garbi salatzen zuen ordura arteko abertzaletasun “deiturazalea”, eta *de facto*, Bizkaian batez ere, euskara baztertzen zuena.

Haren uste zuhurrean, hizkuntza ona eta bizia baina, ez zetzan lexiko garbi eta sintaxi arau hertsietan, baizik eta herriko jende jatorren eguneroko eta ohiko erabileran, eta hortik ikasi eta edan beharra zegoen, eta ez garbizalekeriaren predikatzaile maiz erdaldunengandik. Hortaz, etorkizuneko euskaldunei herri jarioko iturri fidagarria eskaintzeko, Mokoroa belarriz jendeagandik eta begiz era askotako idazle jatorren obretatik fraseologia-materialak biltzen aritua zen bakarka. Urteak eta urteak eman zituen lan horretan, baina gure gizona zahartuz zihoan eta eskolapioen ikastetxean esku artean zerabiltzan irakasle zereginetik (frantsesa irakasten zuen berak) kasik ez zioten astirik uzten bere lexikografia lana amaitzeko.

6 Adibidez, euskarazko *hori ez da azaren azpiko orria* ‘garrantzi handiko zerbait da’, *Donostian Donosti, gorostian gorosti* ‘ibil zaitez toki bakoitzean bertako ohituren arabera’, edo *Bai zera!* ‘ez dut sinesten’; gaztelaniazko *eso es papel mojado, ir a protestar donde el maestro armero, me importa un rábano, cortarsele a uno el aliento*, edo frantsesezko *ça va sans dire, manger de la vache enragée, au fur et mesure*, gisako idiotismoak.

Hirurogeita hamarren hamarkadako urte batean, Gabriel Aresti, Gregorio Monreal⁷ eta ni arratsalde batean Bilbon elkarrekin genbiltzala, *La Concordia* kafetegira sartu ginen, gaur egun bingoleku bilakatua, Bilboko Burtsaren egoitzaren ondoan. Bertan kafe bana edaten ari ginela, Mokoroaren esalditegiaren gaia atera eta hari buruz jardun genuen. Hirurok kezkatuak geunden, etorkizuneko euskararen aberastasunerako hain baliotsua gerta zitekeen obra hori artean lozorroan zetzalako, Mokoroak eskuz idatziriko koaderno askotan banatua. Tolosarrak jada hirurogeita hamar urte ongi beteak zituen, eta lehenbailehen lan hari ekiten ez bazion, gerta zitekeen obra hura inoiz ez ateratzea. Hizketaldian mezenas bat aurkitu edota lagun askoren arteko diru-bilketaren bat egin beharko zela aipatzen genuen. Eta orduan, hara zer bota zigun Gabrielelek: “–*Ba, nik badut adiskide bat, abertzalea eta diruz ondo dabilena, eta esalditegiaren proiektua proposatuz gero, segur naiz horretarako dirua emango lukeela*”. Gregorio Monrealek berehala galdetu zion: “–Eta non bizi da adiskide hori?” “–Hementxe, Bilbon, Lutxana kalean, –erantzun zion Gabrielelek– eta gauden lekutik horren etxera oinez joateko ez dugu behar bost minutu besterik”.

Esan eta egin. Berehalako batean lagun horren etxean presentatu ginen hirurok. Gogoan dut Borja Escauriaza jaunak bere etxean errezibitu gintuela, batoi dotore batez jantzirik. Bera agurtu ondoren, zertara gentozen azaldu genion. Arretaz eta interes handiz entzun gintuen eta gure azalpena amaitzean, bat-batean esalditegi hori amaitzeko bera dirua emateko prest zegoela esan zigun. Eta Gregorio Monreal ere, berotan egiten ez diren gauzak denboraz hoztu ere egin daitezkeela ondo jakinda, biharamunean Escauriaza jaunarekin bankura joateko gelditu zen. Horrela bildu ziren Mokoroaren hiztegirako lehenbiziko ehun mila pezetak, garai hartan dirutza aski potoloa zena, baliokidetzan segur aski

7 Orduan Gregorio Monreal doktorea Deustuko Unibertsitateko zuzenbide-irakaslea zen, baina handik urte batzuetara, 1980an, Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zenean, bertako lehenbiziko errektore izendatu zuten. Gerostik, EHUko Donostiako Zuzenbide Fakultateko eta geroago Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Fakultateko irakaslea izana da, jubilatuta arte.

harrietaherri #50

gaurko sei mila euro baino gehiago izan zitezkeenak. Eraitza horren ondoan, eskolapioek –azkenean!– aita Justo irakaskuntzatik liberatu zuten, eta laster beste mezenas batzuk ere animatu ziren obrari laguntzera. Ondorioz, Justo Mari Mokoroak harrezkero buru-belarri jardun ahal izan zuen esalditegia prestatzen, harik eta 1990. urtean amaitu eta bi tomotan argitaratu arte⁸.

Laguntza hau, Mokoroaren obraren hitzaurrearen 36. orrialdean idatziz aipatua eta eskertua dagoen arren, ez da egintza ezagunegia, eta pentsatu dut ongi datorrela batzuk kontura daitezen Gabriel Aresti egiazki zer nolako espainolista zen.

Arestiren probokazioak

Gabriel ezagutu genuen guztiok badakigu aldarte aldakorreko gizona zela. Eskuarki pertsona atsegina eta gizabide onekoa izaten zen, erabat umoretsua, baina bere inguruan ergelkeriak esaten edota, okerrago dena, gauzak bi aldiz pentsatzeke haiek etengabeki errepikatzen zirela entzutean, maiz ihardespen gogorra ateratzen zitzaion. Orduko euskal mundua ez zegoen ohiko kultur munduarekiko sintonian. Segur aski horretan ere diktaduraren eragina ikus zitekeen, baina, egia esan, gure gizartean maiz esaten eta onartzen ziren arinkeriak, eta are astakeriak ere, intelektual batentzat, bere herriko lagun askoren portaeraz benetan lotsaturik sentitzekoak ziren; eta euskal gauzei doakienez beldur naiz gauzek ez ote duten berdin segitzen. Horri gehitzen badizkiogu Arestiren etsaiek beragatik esaten eta idazten zituzten ganorabakokeriak, gezurrak eta irainak, ez da harrizkoa gure poetak ere, umorea garrazturik, haiei aldizka antzeko kritika mingarriak bihurtzea, inoiz bertsoetan ere islatuak.

8 Mokoroa, Justo Mari, *Ortik eta hemendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca*, Ed. Etor argitaletxea, 1990.

Probokazioekin hasita, bestela ematen bazuen ere, askotan Gabrielelek ez zuen lortu nahi izaten itxuraz zuzenean adierazten zuena. Hortxe dira, esaterako, 1967ko udan bere euskal lanen ortografiarako idatzi zituen erregelak. Horietan tz-ren ordeztu c, eta ohiko ts-ren lekuan x idaztea proposatu zuen, eskandalu handiz. Baina Gabrielelek, gure herria ondo ezaguturik, ongi zeki bere erreforma proposamen horiek ez zutelara aurrera egingo. Berak nahi zuena besterik zen: Euskaltzaindiak, munduko beste edozein hizkuntza-akademiak bezala, behingoz euskal ortografia erregela sendoak eman zitzala, bikoiztasunik eta zalantzarik gabeak. Horren ondorioz, euskara idazteko ez baitzegoen arau finkorik, tokian tokiko aldakiak baizik, hirugarren munduko berbera dialektaletan bezala.

Horren aurka, hain zuzen, egoera haren absurdoa erakusteko, Gabriel gauzak are nahasiago eta okerrago jartzen saiatzen zen sarritan, horrela, Akademiak, anabasa hartan ordena jarri, eta behingoz esan eta erabaki zezan zer zegoen ongi eta zer gaizki. Horixe da, hain zuzen, Arantzazuko Batzarrean erabakitzen hasi zena, hurrengo urteetan biribildua: euskara bakarraren ortografia behin betiko finkatzea. Hango erabakiak argitaratu ondoren, Arestik betiko amaitu zuen bere grafien ordura arteko anarkia, eta harrezkero idazle erabat diziplinatua agertu zen.

Baina normalean ez zuen bere esan aldrebesen interpretazioa azaltzen. Hori egitea irakurleari uzten zion, ea berorrek burmuineko geruza grisari pixka bat lan eragiten zion. Ezaguna da, esaterako, Tomas Meabe bizkaitar sozialistaren oroitzapenez idatzi zuen bertsoa:

Cierra los ojos muy suave,
Meabe.
Pestaña contra pestaña.
Solo es español quien sabe,
Meabe,
las cuatro lenguas de España.

harrietaherri #50

bai eta horrek ekarri zuen eskandalua ere, horretan pusilanime batzuek espainolismo-adierazpen bat ikusi uste zuten eta.

Horri buruz, Gabrielelek, behin haxe esan zidan:

-Nire alabak ulermen hobeoa dauka ergel horiek baino, poema hori irakurri nionean, berehala honela galdetu zidan eta: "Baina aita, ba al da inor lau hizkuntza horiek dakizkienik?".

Horretara ulertu behar dira, era berean, haren beste jarrera xelebretatzuk, aldizka eskandalu neurtuak sortu eta orduko euskal gizarte egonkor, lasai eta euskal arloan arduragabea asaldarazteko pentsatuak, ea behingoz iratzartzen zen. Eta oso garbi adierazita utzi zigun hori *To/stoi* izeneko bere bertso batean:

Kristo-zalea naiz.
Bera gerra ekartzera
etorri baitzen,
eta bakeak
euskerari
kalte egiten
baitio.

Garbizaletasunaren auzian, batzuetan ateraldi xebreak izaten zituen. Puristen erdibide famatuaz, hots, hitz tradizional batzuen ondoan neologismoak ere onartzeaz, berak haxe zioen: "Ez dago inoiz erdibide bakarra, bi baizik. Batzuek betiko *meza santua* esateko *meza deuna* proposatzen dute, baina, arrazoi berberagatik nik *jaupa santua* ere proposa nezake".

Euskara zein erdara izan, Gabrielelek betidanik izan zuen hizkuntza egokiro erabiltzeko kezka, eta bazekien inork ongi ezin azal dezakeela buruan daukana, aurretik forma egokiak ere behar bezala erabiltzen ikasten ez badu. Dirudenez, oso txikitatik sentitzen zuen berak hitzen esangurarekiko errezelo hori. Adibidez, berak

kontaturik, badakit umetan erdal esaera bitxi batek zer pentsa ematen ziola. Erlijioeko egiak eta aginduak adierazteko orduan, Elizak sarritan hizkera zaharkitua erabili izan du⁹, eta horrela, hamar aginduetako batek, bosgarrenak, gure Gabriel erabat aztoraturik eduki omen zuen luzaro. Izan ere, “*No hurta*”, ohiko jendeak, berba jaso horren ordeaz, *robar* ez beste darabilelako, berak agindua ‘*no untar*’ interpretatzen zuen, eta platerean saltsa gozorik jartzen zioten bakoitzean kontzientziatzko problema larria sortzen omen zitzaion.

Gabriel Arestiren ezkerreko aukera

Maiz esan da, edo iradoki behintzat, G. Aresti Alderdi Komunistetako kidea zela. Baina hori ez da egia. Nik dakidala behintzat, Gabriel ez zen inoiz alderdi batean afiliaturik egon. Eta ez zegoen afiliaturik, hain zuzen, Espainiako alderdi komunistan Euskal Herriaren naziotasuna eta independentziarako eskubidea garantiaturik ez zekuskielako. Halere, ideologiaz erabat marxista zen bera, eta nazioarteko politikan Sobietar Batasunaren aldekoa erabat, eta hango erregimenari egiten zitzaizkion kritika maiz justifikatuak ez zituen erraz onartzen. Segur naiz, baina hori balizko munduan espekulatzea besterik ez da, gurean egiazko euskal alderdi komunistarik izan balitz, Madrileko goi-agintaritarik gabekoa, Gabriel gogoz haren kide izanen zatekeela.

9 Gauza jakina da, antzina finkaturiko testuek, moldatu ziren garaian izan zuten zuzentasuna gorabehera, denboraren joanean, anitzetan beren jatorrizko esangura gal edo alda dezaketela, hitz eta esaera asko maiz ulergaitz edo zaharkiturik gelditzen direlako, eta horiek aldizka berrikusi eta eguneratu beharra ere izaten da. Gogoan dut, adibidez, gure belaunaldiak 1950eko hamarkadan erdaraz ikasitako *Pater noster* hartan, adibidez, oraindik *santificado sea el tu nombre, venga a nos el tu reino* gisako lexiko eta sintaxi arkaikoak erabiltzen zirela, orain jada gaurko erara erabat aldatuak. Euskaraz ere gauza bera egin nahi izan da, nahiz eta ahalegin horretan beti ongi asmatu ez, *Gure aita* izenburuarekin hasita, *Aita gurea* jatorragoaren ordeaz jarria.

Euskalgintza eta ikastolen mugimendua

Idazleek beren lanak egiteko euskal eredu batua behar bazuten ere, gure jende tradizionalen kultura maila apala eta euskal analfabetismoa kontuan izanda, bistan da arrazoi huts horregatik euskara batuak ez zukeela hain urte gutxitan lortuko izan duen arrakasta handia. Baina hizkuntza batuaren jaiotzarekin batera, beste mugimendu batzuk ere sortu ziren, aurrera egiteko euskara estandarraren premia zutenak, horiek, bizirik irauteko, euskara batua nahitaezkoa zuten eta. Horrela, eta horien bidez, hasieran idazle batzuen *desideratum* hutsa zena, handik laster noraeze-ko eta nahitaezko baldintza bihurtu zen: ikastolei, euskalduntze prozesuari eta alfabetatze kanpainari esker, hain zuzen, besteak beste. Ezin nagoke orduko aldizkariak aipatu gabe: *Jakin*, *Anaitasuna*, *Zeruko Argia...* guztiek arautze-bidean lan ederra egin zuten eta.

Bakoitzak bere esparru eta publiko berezia zeukan: ikastoletako haurrak eta gaztetxoak, txikitandiko euskaldun helduak baina erdaraz eskolatua eta euskara ez zekiten euskal herritarrak. Guztiek testu-liburuak eta euskal materialak behar zituzten. Ez zen gisa arlo berri horietan ere tokian tokiko euskalkiaz aritzea, jendearen mugikortasuna gero eta handiagoa egiten hasia baitzen, eta homogeneotasun beharra zegoen, munduko nazio zibilizatu guztietan gertatu izan den bezala.

Irrigarria zatekeen, adibidez, eskualde ezberdinekoak zirelako, euskara ahalegin handiz ikasten jardun ondoren, Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako edo Iparraldeko euskaldun berriek gero elkar ulertzeko zailtasunak izatea. Edota ikastola ezberdinetako hurrek, udaleku berean bildu eta elkarrekin ezin jolastea, bata bestea konprenitzen ez zuelako. Eta Deustuko Unibertsitatean 1971n Euskararen batasunaz antolaturiko Antropologi Asteko jardunaldietan Xabier Gereñok oso zuhurki seinalatu zenez, gainera, euskal testuliburuak, euskalkitan eginez gero, koste

material izugarria izango zuketean, tirada dialektal urrien prezio gorakadagatik.

Ez da ahanztekoa, halaber, alfabetatze eta euskalduntze kanpainak egin zuten lan ikaragarria, garai hartan Rikardo Arregik hasia eta geroago AEK, HABE eta beste euskaltegietan gaur arte garatua. Aipatzekoak dira, halaber, P. Altunak edota I. Berriatuak euskara ikasteko metodogintzan egindako lan gogoangarriak ere. Edonola ere gogora dezagun arlo horietarako ere euskara batua izatea ikasleentzako abantaila ikaragarria izan zela.

Euskara batuaren arrakastaren gakoak

Herri batzuetan, gizarte eta administrazioaren premiei erantzuteko, botere publikoek behartu dituzte bertako akademiak hizkuntzaren estandarizazioa egitera. Gogoan izan, adibidez, Turkian Mustafa Kemal Atatürk presidentek joan den mendearen lehen herenean bultzatu zuen turkieraren idazkeraren erreforma, arabiar alefatotik latindar alfabetora aldatuz¹⁰. Katalunian, berriz, joan den mendearen hasieran Prat de la Riba Bartzelonako Diputatu Nagusiak Pompeu Fabrari deitu zion, garai hartan Bilboko Industri Ingeniarien Eskolako kimika-irakasle katedraduna zenari, berak katalan hizkuntzaren batasunaren proiektua gida zezan. Baina nazio askotan, autogobernu propioa izan arte, ez da grafia-aren arautzea gertatu, eta kasu horietan administrazio eta irakas-kuntzaren premiei erantzuteko presaka eta korrika aritu beharra izaten dute.

10 Turkiera, XX. mendearen hasieraraino arabiar letrekin idazten zen. Idazkera berria finkarazteko, Atatürk jeneralak agindu zehatz bezain zorrotzak eman zituen. Agian gogorregiak, gure gaurko ikuspegi zibilizatutik behintzat, baina kontua da hango jendeak berehalaxe ikasi zuela arau haiek ongi betetzen, ortografi okerrekin idatziriko izkribuak legeak isunaz zigortzeko agintzen zuen eta. Gurean euskal testuetan oraindik ageri diren idaztoker potolo eta ugariak ikusita, maiz pentsatu dut, damurik, euskaldunok hor ez ote garen, gure kalterako, gauza batzuetan zibilizatuegi bihurtu.

Gurean, honetan bederen, behingoz garaiz ibili ginen, eta G. Aresti, Txillardegi eta Mitxelena bezalako idazle batzuen ardura eta aurreikusmenari esker, geure hizkuntzaren batasuna jada erabakia genuen autogobernua lortu aurretik, eta horrela, 1980an, gerraosteko lehen euskal gobernu autonomikoa jarri zenerako, euskara batua prest geneukan, bere lerro nagusietan behintzat, lehen unetik hizkuntza nazional gisa literaturan, irakaskuntzan, hedabideetan eta administrazioan erabiltzeko egokitua.

Euskara batuak izan duen arrakasta arrazoi bat baino gehiagotan ikusi beharko genuke. Bata, noski, gizarte premia izan zen, gorago aipatua. Beste bat, proposaturiko oreka eta egokitasuna, neurri handiz Mitxelenaren sen on eta zuhurtziaz lortua, aurreko urratsen segida logikoa egin zuelako. Baina bada hirugarren arrazoi bat ere: euskara batuaren aldeko idazle batzuek, hizkuntza “berri” horrekin beren lanetan lorturiko maila distiratsu eta erakargarria, Arestik poesian eta Txillardegik edo Mitxelenak prosan, adibidez, ondo nabarmena. Horien emaitzak ederrak ziren, formaz eta mamiaz. Ezingo diogu inoiz Krutwigi ukatu batasuna proposatu eta bultzatzeko merezimendu handia, ez eta gure hizkuntza, baserri girotik, zientzia eta nazioarteko gaietarako proiektatzea ere. Baina era berean, egia ere bada Federikoren idazkera gogor, artifizial eta latz hura ez zela inondik ere eredu erakargarria, eta beragatik bakarrik izan balitz, ez zatekeela sekula lortuko hainbeste jende bera onartzea ere.

Eliza eta euskararen batasuna

Vatikanoko II kontzilioaren ondorioen arabera (1962-65), ordura arteko latinaren lekuan, liturgian herri-hizkuntzak ere erabiltzea erabaki zen, ekialdeko eliza ortodoxoek jada lehenbiziko mendeetan eta protestanteek XVI. mendetik aurrera praktikan jarria zutenaren bideari jarraituz. Horretara, euskarari ere, nolabaiteko ofizialtasuna onartzen zitzaion elizkizunetan. Pauso hori, noiz eta

frankismoaren garaian emana, oso mesedegarria gertatu zen hizkuntzarentzat, eta Biblia osoa euskara estandarrera itzultzea ekarri zuen. Halere, hasierako neurri esperantzagarri haien ondotik, eta euskararen geroagoko ofizialtasun politiko eta administratiboa gorabehera, Elizak euskararen lehenagoko erabilera dialektalari eusten segitu du, eliztarren alfabetizaziorako tresna egokia izan zitekeenaz baliatu gabe.

Hizkuntzaren batasuna, heldutasunaren sinboloa

Jende zibilizatu guztien historian, hizkuntzaren batasuna bertako dialektoen nahitaezko heltze-puntua izaten da, eta gizartearen garabide-maila eta premia berezien arabera kasu batzuetan lehenago eta beste batzuetan beranduago gertatzen da. Izan ere, horrek ez bestek erantzun baitiezaieke gizarte horren egitura sozial eta politikoak dituen komunikazio-premiei. Estatuak hizkuntza-eredu batu eta finkatua nahitaezkoa izaten dutelako, beren administrazioa antolatuko badute.

Batasunaren eragileak, ordea, ezberdinak izan daitezke, nazio bakoitzaren historia propioaren arabera: tradizioa, merkataritza-harremanak, Estatuaren gobernamentua, armada, eskola, erlijioa, literatura... Faktore horiek tokian tokikoak izaten dira, eta, beraz, nazio batek ez dauka horiek beste batetik mimetismo hutsez kopiatzerik. Horregatik, oinarrizko bultzatzaile horien arabera hizkuntzaren batasuna bera ere denbora eta modu ezberdinetan planteatu, mamitu eta garatu ohi da.

Maila pertsonalean ere, idazleak berezkoa izaten du bere pentsaera adierazi eta bestek irakurria izan nahia, eta horrek ibilbide jakinari ematen dio hasiera. Lehen saioetan ingurukoak eta lagun ezagunak izaten ditu gogoan. Horientzat idazten du, eta, bere irakurleak bihurtzeko asmoz, horiexen hizkera eta hizkuntz erregistroak erabiltzen ditu. Geroxeago baina, hizkuntza-

ren egiazko hedadura urrunago heltzen dela konturatzen da, eta orduan, auzo-dialektoen eta jende urrunduagoen ezaugarriak ere hartu eta bere idazkeran integratzen saiatzen da, pixkanaka bere hizkuntza ahalik eta erabiltzaile gehienengana iristeko gogoarekin. Bide horretan idazleak hizkera aberastu egiten du, dialekto ezberdinetako hitzak eta sinonimoak tartekatzen ditu, hango eta hemengo esaerak onartzen, eta sintaxia bera ere zaluagoa erakusten du, ahalik eta hitzun gehienak besarka ditzan.

Denboraz, idazlearen idiolektoa ugaltu egiten da, pertsonaia, toki, giro, egoera eta maila ezberdinekin lexikoa bereizi egiten da, ñabardurak agertzen dira eta lehenagoko sinonimia hura pixkanaka esangura bereziko berbetan banatzen hasten da. Hasieran esangura hurbileko edozein hitz ia edozer esateko erabil daitekeen arren, pixkanaka, iragazte-bide luzean zehar, zehaztasun berriko kontzeptuak xeheki mugatzeraino heltzen da. Pintatzai-leak ere hasi-masietako brotxa lodi trauskila zokoan utzi eta gero eta pintzel kalibratuagoak izaten ditu.

Eboluzio hori gurerara ekarriz, euskal idazleen ibilbidean ere, beti era artezean ez baina maiz sigi-sagako meandro bihurgunetsuen antzera, hizkuntzaren bilakatze bidea etengabea izan da, harik eta, jakina denez, Euskaltzaindiak jada bere fundazioko helburuetan jarria zeukan egiteko hori seriozki hartu arte. Eraldatze horretan, azken buruan, euskarak ere munduko beste kultur hizkuntza guztien irtenbidea hartu zuen, batasunarena, eta horren premia sentitzean, bai mintzatzeko eta bai idazteko, arau zehatz batzuk jarri beharra izan zuen.

Hortaz, euskararen batasunerako eboluzio historiko eta orokor horretan, eta berarekin batera, joan den mendearen amaieran eboluzio pertsonal hori ere gertatu da, batasunaren azken apustu zehatza egin zuten idazleengan bereziki nabarmendua. Horien artean, gure gaiari zuzenik doakionez, nahitaez Arestirena aipatu beharra dago. Izan ere, bizidunen eboluzioaren filogenesi osoa,

ituraz behinik behin¹¹, izaki bakoitzaren azken ontogenesian laburbiltzen den bezala, umekia haurdunaldian zehar antzinako asaba zaharren oinarizko formatatik iraganez, Gabriel Arestik ere lehen pausoak ezinbestean euskalkietan eman zituen, gipuzkeraz, bizkaieraz, ondoren lapurtera moderno zein klasikoez, eta horrela pixkanaka Pirinio aldeko nafar euskara batura heldu arte¹².

Lehenagoko saioetan euskaldun frantses edo espainolentzako ereduak proposatzen zituzten bitartean, Arestik ipar eta hego euskaldunentzako hizkuntza batuaren alde egin zuen erabat, eta aukera horretan, zalantzarik ez, eredu nazionala proposatu zigun, Euskal Herri osorako onargarria izan beharreko mintzaira, aurreko multisistema probintzialak alde batera utzi eta, hain zuzen, horiek gainditzeko pentsatua.

11 Darwinek ongi formulatu zuenez, izaki bizidunak, ingurugiro aldakorrari erantzuteko, etengabeko aldaketan ari dira, berak ere, eboluzioz, toki eta aldi bakoitzerako formarik egokienak lortu arte. Inguruaren aldaketa horiek, ordea, ez dira behin betikoak izaten, eta denboraren joanean hotz-beroak, garaiera, inguruko fauna eta flora itxuraldatuz doazen neurrian, bizidunek ere aldatu beharra daukate, baldintza berrietara egokitzeko. Iruditzen zait, *mutatis mutandis*, hau da, aldatu beharreko guztiak aldatuz, gizarteak eta horien komunikabide nagusiak diren hizkuntzak ere antzeko garabidean ari direla. Izan ere, mintzaira guztiak ere etengabe antzaldatzen ari dira, bizidunak bezala, beraien erabiltzaile diren gizakien eta gizarteen beharizanak aldatzen diren neurri berean. Ikus Stephen Jay Gould-en *Ontogenia y filogenia*, Col, Drakontos, Ed. Critica, Madrid, 2010.

12 Jaime Ignacio del Burgok bere *El Ocaso de los falsarios* liburuaren 89. orrialdean honela dio: "*La identidad de Navarra no padece por el hecho de que el primitivo idioma de los vascones –dando por supuesto, lo que es más que discutible, que el batúa lo fuera– continúe su recuperación e, incluso, se extienda a toda la Comunidad como idioma cooficial*". Ez da erraz ulertzen, unibertsitate-ikasketak dituen arren, euskaraz zipitzik ez dakien pertsona bat, eta politikaria izanez bere jaioterriko oinarritzko kulturaz gehixeago jakin beharko lukeena, nola ausart daitekeen honelako ganoragabekeriak idaztera: ("*Hasta impulsieron a Navarra un nuevo nombre –a mi parecer horrendo–, olvidando que los navarros siempre la habían llamado en vascuence Nabarra, siendo Nafarroa un término introducido en época reciente no sé si como fruto de un purismo lingüístico ajeno al habla popular de nuestra tierra o por alguna razón de tipo político que no llevo a alcanzar*", 91. or.), *Nafarroa* izena, jada 1571ko Testamentu Berriaren hitzaurrean lehenbiziko aldiz dokumentatua, eta hortik aurrera (Oihenarte, Axular, Etxeberri, Mendiburu, Kardaberaz, Campion, Azkue, Mitxelena, Villasante...) euskaraz azken lau mendeotan etengabeki erabilia izan dela jakin gabe. Bestalde, logika hutsez, euskara batua, XX. mendearen bukaeran nolabait hezurramitua denez, ezin daiteke izan antzinako bascoiek duela bi mila urte egiten zutena bera; gaurko gaztelania eta erromatarrek garai hartan ekarririko latina berdina ezin izan daitezkeen bezalaxe. Baina egiaeren alde, esan dezagun, batuak, zerbaitekin antzik baldin badauka behintzat, *Nafarroa* Garaiko euskararekin daukala. Formaz ez dago alde handirik, kasu, Joan Amenduek, Iruñeko semeak, 1564an idatzi zuen hilaritzaren eta gaurko euskara estandarren artean, testua, Jose Maria Satrustegik ondo idatzi zuen bezala "es asequible para cualquier vasco medianamente informado de nuestros días".

harrietaherri #50

Mitxelenak, Arestik, Txillardegik, Letek eta beste idazle, euskalari eta euskaltzale handi batzuek, beren jakituria, asmamen eta aha-leginez, euskara batuaren itsasontzi zabal eta sendoa utzi digute, horren gainean euskal zein mundutar kulturen itsaso zabaletik lau haizeetara nabiga dezagun guztiok.



Anjel Lertxundi

Orio, Gipuzkoa, 1948

Arestiren proiektua eta Dante

Berrogeita Hamar Urte dira Arestik *Harri eta herri* argitaratu zuela. Distantzia hori aski da Gabriel Aresti bezalako figura bat aztertzeko? Liburu fundazional bat, *Harri eta herri*, utzi zigun. Baina haren aurretik, eta beste batzuen artean, *Maldan behera* dago. Zer toki izango luke gaur gurean, Arestik *Harri eta herri* sortu izan ez balu?

Aresti hil eta hamar urtera (1985ean, beraz), Joxe Azurmendik esaten zuen *Jakinen*: “Aresti asko aipatzen da. Irakurri ere egingo dela espero dut (alegia, ez dut uste inoiz baztertuta eduki dugunik). Baina hil eta hamar urtetara ez zait iruditzen haren azterketan asko aurreratu dugunik. Betiko planteamendu alferrikako batzutan preso gaudelako gertatzen da hori seguruenik”.

Eta urtebete geroago, Jon Juaristik, *Susa* etxeak Arestiren obrek in osatutako edizioan: “Oraindik Arestiren mundu sinbolikoak aztergabe dirau. Euskal kritikoek badute hor eginkizun interesgarri bat. Arestiri buruz astakeria asko esan da”.

Salbuespen batzuk kenduta (tartean, Aurelia Arkotxaren *Imaginaire et poesie dans “Maldan behera” de Gabriel Aresti* edo Iñaki Aldekoaren *Munduaren neurria*), Joxe Azurmendik eta Jon Juaristik esandakoek gaurko egoeraren ispilu izaten segitzen dute.

*Maldan behera*ren argitalpena porrot sekulakoa izan zen, eta gaur ahanzturaren ganbaran legoke baldin *Harri eta Herrik* behartu ez bagintu atzera begiratu eta *Maldan beherari* ahanzturaren hautsak kentzera. Eta hautsak kendutakoan, garbi ikusten da

harrietaherri #50

Maldan behera dela, bere gainkarga sinbolikoarekin, *Harri eta Herriren* zimendua, edo, nahiago bada, Harriaren gaineko eraikin poetiko goranahi baten ataria. Halaber, *Maldan behera* bada aurreko poesia klausuratzan duen obra ere.

Aurreko garaiaren klausura eta aro berri baten atari. Arestiren poesia kongresu edo dena delako zorrotz baten zain dago.

Arestiren ia poesia guztia (*ia* kentzera ausartu beharko nuke) proiektu zehatz baten emaitza da, eta proiektu horren lehen atala eta ataria *Maldan behera* dugu. Liburuaren hasieran ageri diren lau aipuak (autoreen erreferentziarik gabe eta bakoitza bere jatorrizko hizkuntzan emana) proiektuaren habe edo euskarri intelektual gisa har daitezke:

–*Ich gebe kein Almosen; dazu bin in nicht arm genug* (Nik ez dut limosna ematen; ez naiz horretaraino heltzeko lain pobre. Nietzsche).

–*Ego sum vitis; vos palmites* (Ni naiz mahatsondoa; zuek aihenak. Joan ebanjelaria).

–*There is no danger for us, and there is no safety in the Cathedral* (Hemen ez dago arriskurik guretzat eta Katedralean ez dago segurtasunik, T.S. Eliot).

–*Estoy al borde mismo de tu sueño* (Zure ametsaren ertz-ertzean nago, Pedro Salinas).

Nietzscheren filosofia, Biblia, literatura unibertuala, gaztelaniazko poesia...

Arestiren proiektuko lau habe intelektualak.

Aipuak dira, baina ez dira aipu soilak. *Argudioak* deitzen die Arestik. Gure literatura klasikoan, elkarrizketa edo eztabaida da

argudio hitzaren zentzuetako bat; elkarrizketa edo eztabaida batean erabilitako diskurtsoa edo arrazoiketa da beste adiera.

Arestiren kasuan, argudioak badira argi-iturriak ere. Bere arrazoiketan argi egin eta bere posizio intelektuala ulertzeko arrasto nagusiak.

Argudioak debatea pizteko, argudioak debatea oinarritzeko, argudioak berak debate. Helburu eta bitarteko. Arestik debatea piztu nahi du, kontzientziak eskandalizatu, aurreko aro kulturala klausuratu eta berri bat inauguratzeko.

Maldan behera espresioak *menditik hirira* irudia dakarkigu gogora, baina ez du hori soilik esan nahi, adieretako batek –*menditik hirira* konstrukzio ideologikoak– esapiderearen hedadura zabala abduzitu baldin badu ere gure kontzientzia lexikoan. Lizardiren bultziak naturatik hirira garamatza, horixe egia, baina *Maldan* beherako poeta, Moises bezala, basamortura jaisten da, *eremu latzean* hasten du bere ibilbide profetikoa, bere arima da-goelarik “mirari baten zain”.

Profetek bezala, poetak errebelazio bat darama eskuetan, eta modu profetikoan obratu nahi du basamortuko ibilbidean. *Maldan beherako* lehen bertsoetik agertzen digu poetak bere asmoa: mendia utzi nahi du eta maldan behera jaitsi, Zaratustrak egin bezala Nietzscheren obra ezagunean. *Untergang*, Nietzschek hain maitea zuen hitza, darama lehendabiziko poemak titulutzat.

Gainbehera. Eguzki sartzea. Arratsa. Erorikoa. Hondamendia. Kaosa. Hori guztia esan nahi du alemanez *untergang* hitzak.

Maldan behera, alegia. Malda behera horretatik abiatzen da Arestiren poesia, Arestiren proiektua.

Aro berri bat inauguratzen duen askok ez daki aro berri bat inauguratzen ari denik. Hala gertatu zitzaion Cervantesi. Inoiz, ordea,

artistak oso ondo daki zer nahi duen, badaki zertan ari den. Asmo bat du, eta asmo hori gauzatzeari eskaintzen dio bere ahalegin guztia. Halaxe Arestik. Egin zuen guztia, euskara batuaren aldarria ere barne, proiektu artistiko zabal goranahi baten antolamendua da.

“Orain hemen nago, eremu latz honetan”, dio poetak *Untergangen* ondorengo poemaren lehen bertsoan. Poemak *Haritzia* du izena. “Orain eznago hor, eremu latz horretan”, dio laugarren poemako lehen bertsoak. Poemak *Lizardia* du izena.

Poetak markatu du bere ibilbidearen hasiera.

Sendan aurrera Hariztiak Lizardiarekin topo egin duen bezala, estratan aurrera egin, eta Iratze Ederrarengana egiten du txango. Galtzadatik barrena, Lore-mendia topatzen du. Eta kaminoan, Herri-bitartea.

Ibiltzen hasi aurretik, poeta bere aurreko tradizioan zegoen, baina “orain eznago hor, eremu latz horretan”. Apartatu da, apurtu ditu forma eta ideia estetiko gastatuetara lotzen zuten sokak.

Zeruko Argian argitaratu zuen *Lizardi*, poeta izeneko artikulutxoan Arestik garbi esaten digu Lizardiri buruz pentsatzen duena. “Lizardi ezta esplikatzen. Lizardi konprenitu egiten da”. Kastako poetak ez baitira esplikatzen, konprenitu baizik. Baina Danterekin gertatu zen bezala, Lizardirekin ere gertatuko da Arestiren ustez: “Danteren gainean hainbeste saio eta hainbeste estudio egin dela pentsatzen dut, eta hilotz ustel baten aurrean aurkitzen naizela sentitzen dut. Haren gorputza hil egin dute ganibet-kolpeka”. Ez du halakorik gertatzerik nahi Lizardirekin, nahiago du pentsatu “Lizardik urrezko orri bat idatzi zuela euskal literaturan, guztirik ederrena, guztirik dizdiratsuena [...] Baina egun batean, badakit, filologo bat etorriko da [...] eta Lizardiren gorputza hilen du ganibet-kolpeka”.

Arestiren itzulpenen artean bada bat, apenas aipatzen dena. Danteren *Jainkotiar komediak* Infernuari eskaintzen dion liburuko lehen kantuaren itzulpena da, hiruzpalau folio besterik ez. Bertan, Dantek bere ibilbide pertsonala hasten du:

Gure bizitzaren bide erdian, oihan ilun baten aurkitu nintzen, eta han zuzeneko bidea eznuen ikusten. Ene, pentsamentuan beldurra berriztatzen duen baso basati lakar eta gogor hau zein zen esatea gauza gaitza da benetan.

Halako batean, ordea, Dantek Virgiliorekin egiten du topo:

Haiz hi Birjilio, mintzairazko hain hibai haundia sortzen den iturria?

Ez dakigu -ez dakit- Arestik noiz egin zuen Danteren itzulpen txoa. Interesgarria litzateke jakitea (bide batez: gainerako itzulpenen datak jakiteak ere informazio asko emango liguke).

Dantek Virgiliorekin daukan enkontrua bezalakoa da *Maldan beherako* Hariztiak Lizardiarekin, Iratze Ederrarekin, Lora-mendiarekin egiten duena, eta, Aurelia Arkotxak apuntatzen duen bezala, Danteren *selva oscura* bezalako giro batean dago Haritzia ere bere ibilbidearen hasieran:

Nire gurariak galdurik, lur hauetan
Arbola adar-gabeen parean naiz orain.
Landare zekenak baitaduzka eremuak,
Erratzak harean, haitzetan kalamuak,
Nire arima dago mirari baten zain.

Danteren norabide eta zentzu bereko aipamen bat egiten du *Harriri eta herrin* Oteizari eskainitako poema luzean:

harrietaherri #50

Gu ezkara hemen lasai
bizi. Guk eztugu
sentitzen paradisu bat. Dantek ere etzuen holakorik
asmatuko.
Hau da basatza haundi bat.
Hemen aingeruen arimak ere likistuko lirake.

Lizardian, Iratze ederrean, Lore-mendian izandako enkontruen ondoren –aurreko belaunaldi poetikoarekin karta-partea egin eta gero– Aresti prest dago bere ibilbide poetiko pertsonalari ekiteko.

Horixe baita, nire iritziz eta besteak beste, *Maldan beheara*: karta-partea egitea aurreko belaunaldiarekin.

Erreakzionarioa izatea egozten zion Arestik Berpizkunderari:

La Berpizkunde se distingue por su reaccionarismo, es el trasunto lógico de la época en que vivió y de la sociedad que la dio a luz. Es una literatura idealista, sin ningún interés social, que no trata ni toca de cerca ni de lejos los problemas del hombre de la calle; naturalmente no encuentra eco en el pueblo [...] quitando acaso únicamente la honrosísima y meritorísima excepción de Lizardi.

Salbatzen duen bakarra Lizardi da, belaunaldi hartatik Arestiri zerbait esaten zion ahotsa. Baina Lizardiren bideak ere ez du Aresti asetzen, bide hark eginak ditu bereak, agortuta dago iturria. Arestik hautsi beharra dauka Lizardirekin bere bidea egingo badu, bere kabutan darabilen proiektua gauzatuko bada.

Lizardiren-eta eremu latza ere atzean utzi du Arestik, ihes egin du jada hain estimu handitan daukan poetaren itzalpetik. Aurkitu du bere bidea: *Herri-bitartea* du, kaleko gizakiaren arazoak kaleak ulertzeko moduko hizkera batekin tratatzen dituen poetika.

Esango dute –eta esaten dut– *Maldan beherako* hizkerak ez duela Arestik laster garatuko duen euskararen heldutasunik; poesiak herren egiten diola alditan bai neurkeran eta bai erritmoan; asko esan nahiak –sinbolismoaren ugariak– ito ere egiten diola poema bat baino gehiagoren jarioa.

Baina *Maldan behera* liburuan Gabriel Aresti dago bete-betean.

Hortik aurrerako idazkuntza depurazio-lana izango da.

Arestik Lizardirengatik esaten zuen gauza bera ere esan dezakegu guk Arestirengatik:

Aresti ezta esplikatzen. Aresti konprenitu egiten da”. Baina hori egia izan dadin, Aresti irakurri behar da. Zenbat irakurtzen da gaur Aresti?

Ibon Sarasolak dio *Harri eta herri* izan zela “euskal irakurle berrien zati nagusi batek ezagutu zuen lehen obra.

Irakurle berriak?

Sarasolaren aipamen horrek –esaldia 1971koa da– asko iradokitzen du. Arestik *Harri eta herri* argitaratzen duenean, kontzientzia literario berri bat sortzen ari da gurean eta kontzientzia literario berri horri ari zaio Aresti hizketan.

Irakurle berrien kontzientzia horretatik gatoz.

60ko hamarkadan, apalki bazen ere, irakurlearen paradigma aldatzen ari zen, euskararen nukleotik literaturarenera zihoan. Euskarara sustatzeko edo fedeari eusteko baino, irakurle berriak gozatzeko nahi zuen irakurri. Hausnartzeko. Bere mundua sakondu eta besteena deskubritzeko. Autore/editore/irakurle triangelua ere ez zen jada ordu arte bezalakoa. Gizartea laiotzen ari zen, laiotzen hasita zegoen euskararen ingurua ere.

Eta laiotze prozesu horretan, irakurle berriak zeuden. Julio Cortazar edo Gabriel Aresti edo Sartre irakurtzen zekitenak. Baita Marcuse edo McLuhan ere.

Arestik oso gainean zeukan Unamunoren itzal luzea, eta eskainiak zizkion aipuak eta ziriak Unamunori, “el bilbaino más reaccionario que haya existido, aquella *rara avis* que se llamaba Miguel Unamuno [...]”.

Laster Oteiza irten zitzaion bidera, eta *bidera* diodanean ez naiz modu metaforikoan soilik ari. Aresti Arantzazura joaten zen aldira, (Arantzazura bidea, benetan luzea!), Arestik Oteizaren apostoluak ikusten zituen, baina ez orain dauden frisoan, bide bazterreko paretaren kontra abandonatuta zeuden enkofratu-kaxa batzuetan baizik. Eta Aresti “biziki haserretzen omen zen”, diosku Paulo Agirrebaltzategik, harrizko apostoluak hala ikusita.

Bazterrean pilatutako harri zaharrak eraikin berri baten zain.

Ez zen lehendabiziko aldia Arestik topo egiten zuela harriaren indar sinbolikoarekin. Trikuharriak; Durangoko Mikeldi; gure mendietako harria, Oteiza eta Muñoz inspiratu zituen granittoa Arantzazuko baselizan obratu zuten lan artistikorako... Baina hori guztia baino lehenago eta hurbilago, Arestik hizkuntzan dauka –herri eta harri hitzen arteko hoskidetzak bideratzen duen uztarketan– indar sinboliko nagusia, oso etekin handikoa, harriari buruzko trilogiaren giltzarri edo harri maisua izango den baliabidea. Harriarekin zerikusia duten irakurketa poetikoak dauzka, halaber, memorian: Manuel Mariaren *Sermón para decir en cualquier tiempo*; Celso Emilio Ferreireoren *Longa noite de pedra*. Miguel Hernández-ek “vascos blindados de piedra” deitu zigunekoa Jon Juaristik gogorarazi zigun bezala.

Baina, batez ere, Eliot dauka. Haren poesia itzultzen ibilia da Aresti, eta ezaguna du “harri zaharrak eraikin berri batentzat” bertsoa. Arestirentzat ez da aldarri txarra egin nahi duena buru-

tzeko. Ezaguna du, halaber, Elioten beraren “dezifratu ezin diren harri zaharrak” bertsoa. Hain zuzen ere gure historiaurreko harri zahar berak dira, Oteizaren kromlechak, dezifratu ezin diren harriak.

Oteizak bezala, Arestik ere dezifratu ezin den harri zaharra hartzen du gaitzat, baina gaurko herriarekin lotzeko, harri zaharrekin eraikin berria jasotzeko. Euskal identitatea historiaurrera eramatea baino –Oteizak eta beste hainbat artistak egingo duen eran–, Arestik historiaurretik gaurko garaira ekarri nahi du harri zaharra eta herri berria eraiki. Atzoko harria eta gaurko herria batera, etorkizunari begira.

Eskultoreak historiaurrean aurkitu nahi zuen euskal identitatearen eta estetikaren ezaugarri nagusiaren sorrera, eta ikusirik eraikuntza megalitikoetan ageri den hutsa, Oteizak abangoardiako eskulturgintzara ekarri zuen huts hori. Arestik, ordea, harri haiek jaso zituztenen hizkuntza dauka, herriaren mintzoa: *Mal-dan beherako* harrizko Herri-bitartean egiten den mintzo hura da Arestik modernitatera ekarri nahi diguna.

Arestik etorkizunean ikusi nahi du Euskal Herriaren aro ideala, baina hizkuntzaren harririk gabe ezin etorkizunik eraiki. Etorkizuna nahi duelako iraultzen du poesia, zertarako bestela?, eta etorkizuna behar duelako behar du euskararen batasuna, bestela zertarako hartu hainbeste neke?

Esatera doana indartzeko erabiltzen ditu Arestik aipamen pertsonalak, bere gorabeherak. Niaren presentzia etengabea tresna gramatikal bat baino zerbait gehiago da. Esan nahi du bera dela bere obrako pertsonaia nagusia, Dante ere *Komediako* pertsonaia nagusia eta ardatza den modu berean:

Nire buruaz mintzatzen naiz, naizelako
munduaren neurria.

harrietaherri #50

Aresti poesiaren zentroan jartzen da. Ez da lekuko soil bat, protagonista baizik: gertatzen dena ikusteaz gainera, parte hartzen du berak sortutako mundu poetikoan.

Arestiren munduaren neurriak ez dira zientifikoak, ez dira erretorikoak. Existenzialak dira.

Arestiren poemetan oraineko elementuak agertzen dira. Pertsonak (Oteiza, Aresti, Ataungo Joxe Miel, Mikel Lasala...), tokiak (Arantzazu, Bilbao, Deustuko unibertsitatea, Getaria...), gertakariak (Aleman barku baten etorrera, Lasaren poema batzuk irakurtzen dizkio Oterori...), baina poemaren denbora ez da sekula oraina. Izatez, ez da iragana edo etorkizuna ere. Poemek beren denbora propioa dute, denbora esentziala, gauzen muina biziarazten eta iraunarazten duen denbora, gure denboraz haratago dagoena. Poesia sozialaren arrisku handiena denbora poetikorik ez eraikitzea omen zen (Nerudari gertatu zitzaion poema askotan). Arestik oraina traszenditzen du, gure iragana eta etorkizuna baino haratago dago Arestiren poemetako denbora. Horregatik egiten zaizkigu, berrogei urte geroago, gaurkoak. Inor ez da bitan bainatzen ibai berean. Poema berean ere ez. Edertasuna da muina, eta poesiaren denbora da edertasuna gordetzen eta zaintzen duen giltza:

“Filologoen, gizon xerioegi horiek, edertasunarekin akabatuko dute; poesiaren haragia sendatu nahirik, haren arima bihotzkoarra hilen dute”, idatzi zuen Arestik Koldo Mitxelenaen Lizardiri buruzko hitzaldi bat entzun ondoren. (*In margine*: ohar bedi filologoen kontrako diatriba horrek antz handia duela Oteizak filologoen-eta kontra botatzen zituenekin).

Poeta bere garaian bizi da, baina garaia traszenditu egiten du. Eskritore batek –Arestik *eskritorea* ulertzen zuen zentzuan– ez. Eskritore baten hitza denboran da, denborarekin batera edo denboraren gainean egiten da.


Poeta baten hitza denboraz harago dago, historiaren aldirietan, hitzaren bizian, eta irakurleak hitzaren denboran bilatu behar du poesiaren trenpua.

Irakurleari harridura eragiten dio *Harri eta harriko* eskaintzen zerrendaren luzeak eta zerrenda emateko moduak. Baina izenen zerrenda luzea ez da izen-zerrenda hutsa, *Harri eta herri* jaiotzen den euskal munduko kultur giroaren mapa bat baizik, Dantek ere *Komedian* egindako aipamenekin bere garaiko mapa kulturala marraztu zuen bezala.

Zedarrituta gelditu da orubea.

Profetak –Arestik– liburu hasierako zerrendako jendea dauka gogoan, haiekin argudioan ari da, haien artean gauzatzen ari da bere proiektua: garai poetiko eta kultural bat ehortzi nahi du; garai poetiko eta kultural berri bat inauguratu.

GABRIEL ARESTI ETA BILBO



Bernardo Atxaga

Asteasu, Gipuzkoa, 1951

Aresti eta Oteiza,
bitza paraleloak

1968ko uztailaren 22an hileta izan zen Andoaingo elizan Rikardo Arregiren gomutan. Zeremoniaren aldi batean, koadrotako jaka zeraman gizon bat aldareko mikrofonoaren aurrean paratu zen, eta poema bat esateari ekin zion erretzailearena zirudien ahots zakarrez: “(...) *Eta Sasiolako bida-ertzean / neure anaia-
ren zapata odoleztatuak / ikusi nituenean, / zapata haek eneak
izan zitezela / eta odol hura / enea izan zedila / gutiziatzearen
indarrez / kezko bola batek itotzen zeuzkidan / birrikak. Sasio-
lako orena / Rikardo Arregirena / Milaka geunden hartzeko bai-
na / hartu duzu hoberena...*”. Berritasun handia izan zen niretzat. Garai hartako beste askok bezala, euskaraz hala idatz zitekeenik ere ez nekien. Mezetako liburuak, bai, baina XX. mendeko kutsua zeukan poemarik ez.

Elizatik irten, eta kanposantura joan zen segizioa. Hartan, soinu bat iritsi zitzaigun pareko mendi batetik, alde batera Tarzannen filmetako tan-tana zirudiena, baina, zinez, egur hotsa zena. “Txalaparta” ari zirela jotzen adierazi zigun norbaitek, Euskal Herriaren tradizio zaharretik jasotako perkusio-tresna. Berritasuna berritasunaren gainean, hark ere harritu egin ninduen. Ez nuen aditzerarik. Ez zuen ia inork.

Gaurko egunetik begiratuta, garbi ikusten dut une hartan, hileta hartan, jarri zela aurreneko aldiz ikusgai Euskal Herri berria, aurreko “Euzkadi” delakoa ordezkatzera zetorren oraingo “Euskadi” hau. Egia bada, edo egiaztat joko bagenu, zeinahi *erro*ma Remo bezalako gorpu-hazi batek fundatzen duela, ez da zalantzarik, Rikardo Arregi izan zen gure lurraldean oinarri hura, edo haie-

tako bat. Alde horretatik, ez zen harritzekoa Andoaingo elizan, gorpu-hazia jasotzen zuen hilkutxaren inguruan, euskal gizarteko sektore eragile guztiak gertatzea, salbu eta, agian, sektarioenak: “Euskal Herria puskatu nahi zutenak”, Espainia bat eta bakararren aldekoak, edo, beste muturrean, “Euskal Herria ito nahi zutenak”, abertzale ultrak, zipotz zinezkoak. Ez zen harritzekoa, halaber, Gabriel Aresti eta Jorge Oteiza present egotea; lehenengoa arimaz eta gorputzez; bigarrena, arimaz bakarrik, “txalaparta” esaten omen zizaion tresna hura tarteko.

Beren leiendek urrundu egin dituzte, bi pertsonaia desberdin ez ezik bi mundu desberdinekoak izan balira bezala: bata Bilbokoa, kontularia ogibidez, ez batere aberatsa, ideologia komunistakoa, poeta, hizkuntzalari, euskara batuaren aldeko lehian maiz aritua eta maiz zauritua, euskal literaturan mugarri izan zen *Harri eta Herri* liburuaren egilea; bestea, gizartearen goi mailako familia bateko semea, munduan asko ibilia, arte modernoaren ezagutzaila aparta –Juan Eduardo Cirlot bezalako teorikoekin parez pare ibiltzen zena–, eskultore ospetsua, euskaltzalea baina ez euskalduna, erromantikoa Wilhelm Humboldt edo Telesforo de Aranzadi izan ziren moduan, *Quousque tandem...* itzal handiko liburuaren egilea; baina haien hitzak erreperatzen baldin badira, ez da halako urruntasunik.

Honela dio Gabriel Arestik *Harri eta Herri*ko Q poeman: “(...) *Nik eztut Jurgi Oteiza eskultorea ezagutzen, / baina hainbeste bider ikusi ditut haren harriak, / haren apostoluak / bularretik eginikako baten ttua / edo gurdi batek zapaldurikako arratoia-
ren hilotza / balira bezala / kamino gaitz horretako bazterretan / eroririk, / ezen / oraindik eznaizen fariseoekin akort / geratzen; / harri hoek beren lekuan ikus ditzadan arte, / eztut errotarriekin / komekatuko*”, eta Jorge Oteizak, Xabier Letek *Garaia* aldizkari-rako gaztelaniaz egin zion elkarrizketa batean, 1977an: “*Gabriel Aresti, lagunak izan ginen, eztabaidatu egiten genuen, batez ere teatroaz, poesiaz, kultur politikaz. Egun batean, Donostiako Al-
dundiaren Liburutegitik ateratzean, bera sartzera zihoan, hizketa*

egin genuen, eztabaidatu egin genuen. Esan zidan despedidan, ahotsa jaitsi eta nire belarrian utziz: "Beldurra ematen dit zu euskaraz hasiko zaren egunak"(...). Pentsarazi egin zidan..."

Aintzat hartzen zuten elkar, beraz, eta bere argitalpen garrantzi-suenak ere ia garai berean egin zituzten –*Quousque tandem...* 1963an atera zen, *Harri eta Herri* 1964an–; baina bien uztarketa areago zihoan. Ibilbide parekoa jarraituz, transformatze *bera* eragin zuten euskal kulturaren barruan.

Has gaitezen Oteizarekin. Pentsa dezagun, berriro gogoia Andoaingo hiletan jarrita, txalapartari buruz.

Hasiera batean, txalaparta "burdinazko palanka batekin kolpatzen den ohol bat" baizik ez zen, gazteek "ezkonberriei serenatak emateko" edota antzeko jai irrigarrietarako erabili ohi zutena; gero, berriz, batez ere Gipuzkoan, Oria eta Urumea inguruetan, sagardo sasoiaren helduera bezeroei adierazteko perkusio-tresna. "Bere doinua, osoki erritmikoa, herri txikitako kanpai-bandeoaren imitazio bat iruditzen zait", idatzi zuen Aita Donostia musikologoak. XX. mendearen bukaera aldera, ordea, gainbehera zegoen tresna. Ez zen ia interpretaririk, txalapartaririk, geratzen. Zehatzago, lau interpretari geratzen ziren: Zuaznabar anaiak, eta Goikoetxeatarrak.

–"Guk hementxe jotzen genuen" –dio Ramon Goikoetxeak 1985ean egindako bideo batean, Juan Mari Beltran adituari erantzunez–. Bere bizitza guztia Erbetegi-Etxeberri baserrian pasa duela, dio jarraian, eta 75 urte dituela, bere anaia Asensiok, berriz, 80–. "Bai, guk hementxe jotzen genuen, eta txalaparta aditzen zutenean, Alzuetatik, Donostiatik eta leku guztietatik etortzen ziren, eta edan eta jan ondoren, denak balantzaka, eta halaxe ibiltzen ziren gure aitona eta besteak, oholen azpitik pasatzen ziren guk txalaparta jotzen genuen bitartean, goizaldera arte, erdi mozkortuta denak, bai gu eta bai kanpotik etortzen zirenak..."

harrietaherri #50

Bideoak Goikoetxea anaien interpretazio bat jasotzen du. Hartu bakoitzak bi makila motz zilindro formakoak, eta zumitzezko bi saskien gainean kokatutako ohol bat kolpekatzeari ekiten diote. Asensio izenekoak, erritmo bera markatzen du atsedetik gabe; Ramonek, kontrapuntuan, bariazioak eginez, oinarri hori hausten du. Soinua sinkopatua da, eta, kanpaien bandeoa ez ezik, zaldiaren korrika ere ekartzen du gogora. Bigarren interpretazioan, gazte batek hartzen du Asensioaren tokia, eta erritmoa frenetikoa bihurtzen da. Zaldi bat korrika, bai, baina arrapaladan. Kanpaia joka, baina larritasunez.

Ekitaldia deigarria da, eta oholaren soinua, apala eta sendoa aldi berean, atsegina. Baina, dohain horiek gorabehera, ba al zuen txalaparta delako hark inolako etorkizunik? Egoera hartan, sagardozaileen festarako aitzakia zela, inolakorik ez. Iraungo badute, balio bat aitortu behar zaie ohiturei, tradizioei, gauzei, eta joan den mendeko urte haietan –1950, 1960, 1970–, Espainiako diktadurak ez zion inolakorik ematen euskal kulturari; ezta hizkuntzari berari ere. Txalaparta ahaztua izango zen luze gabe, eta, gehienera, txokoren bat lortuko zuen museo etnologiko batean.

Baina aldatu egin zen egoera, eten bat gertatu zen. Sentsibilitate edota ideologia berri bat zekarten kultur eragileak azaldu ziren. Tartean, iragarri bezala, Jorge Oteiza eskultorea. Hala zioen *Quousque tandem*-en txalapartari eskainitako pasartean: “*La txalaparta es un ritmo primitivo, ritual, que aún se conserva, casi perdido en algún lugar guipuzcoano (...) No es un tan-tan el de nuestra txalaparta, es un txu-khum, txu-khum (abierto y dirigido al hombre, no a la Naturaleza) (al oído del hombre) que una de las voces describe como el sitio fijo (antinatural) de un río, para que la otra voz lo empuje, lo descoloque, lo obstaculice, lo desvíe, lo realice (...)*”.

Oteiza artista ospetsua zen ordurako, eta urteak zeramatzan bere hamalau apostoluak, –“bularretik eginikako baten ttua edo

gurdi batek zapaldurikako arratoiaren hilotza balira bezala” kamino bazterretan eroririk zeuden apostolu haiek–, Arantzazuko basilikaren frisoan kokatu nahian; baina *Quousque tandem*ekin zeukan asmoa desberdina zen, Euskal Herrian Wilhelm Humboldtekin hasi zen mugimenduaren ildotik zetorrena, erromantikoa alde horretatik: herri tradizioa –“tradizio txikia”– munduan, bizitzan, berriro barneratzea. Tartean, noski, txalaparta. “Zer tresna harrigarria, txalaparta! Berpiztu dezagun!”, hots hori zegoen bere asmoaren atzean.

Jorge Oteiza ez zen agian izan txalapartaren lehen baloratzaila, hala nola ez zen izan cromlechena –John Evansek idatzi zuenez, jarrera baloratzaila hori nagusia zen daniar nazionalisten artean XIX. mendean, beraiek izan zirelarik gainera “historiaurrea” kontzeptuaren asmatzaileak–; lehena izan zen, ordea, herri kultura, eta zehazki txalaparta, lekuz aldatzeko jardunean, baserri girotik jaso eta abangoardiaren zirkulu sofistikatu eta goi mailakora eramaten. Bere modura, gainera, bere manerekin. Izan ere, Strinbergek bere buruaz idatzi zuena errepikatu daiteke Jorge Oteizaz: “ez da ni bezalako surik ezagutu”. Gizon sutsua zen, zinez, ekina. Gabriel Arestik eta biek antza zuten horretan ere.

Leku edota zirkulu aldaketak segituan izan zuen arrakasta. Hirurogeiak amaitu baino lehen bazen Remigio Mendibururen arte pieza bat perkusio-tresna aintzat hartzen zuena, ezinbestean “Txalaparta” izena zeukana eta *Ez dok amairu* taldearen ikur bihurtu zena. Bide berean, talde hartako kide ziren Artze anaiak, aro berriko lehen txalapartariak, *txu-khum-txu-khum* egiten zuten oholak eta makilak sagardotegietatik atera zituzten, eta kontzertuetara, antzerkietara edota Rikardo Arregirenaren tankerako hiletetara eraman.

Artze anaiak 1972ko *Encuentros de Pamplona* delakoetara ere joan ziren, eta han izan zuten txalapartaren berri garaiko musikari abangoardista ospetsuenak, John Cagek, ZAJ taldekoek, Luis de Pablosek. Azken honek ez zuen ahaztu, eta handik urte ba-

tzuetara Bonneko hiriak obra bat eskatu zionean, *Zurezko Olerkia* konposatu zuen:

En los encuentros de Pamplona de 1972 había visto tocar la 'txalaparta', a los Artze Anaiak, de Usúrbil. Ya conocía el instrumento desde hacía más de diez años -lo escuché en la inauguración de una exposición del escultor Remigio Mendiburu a principios de los sesenta-, pero quizá no estaba yo entonces en el buen momento para comprenderlo. Al oír a los Artze la cosa cambió. Tuve la certeza de hacer algún día 'algo' para ese instrumento. La oportunidad vino con el encargo alemán.

Zurezko Olerkia Bonneko Beethovenhallen estreinatu zen 1976an, eta segidan Madrileko Fundación Marchen. Zerbait lehenago, Artze anaiek disko bat grabatu zuten Milaneko Ricordi etxean, txalaparta hutseko emanaldia. Garai bertsuan, Mikel La-boa bere ekitaldietan erabiltzen hasi zen. Burutua zen aldaketa.

Hurrengo urteetan, laurogeitan, laurogeita hamarretan, txalaparta zirkuluz aldatu zen, edo, hobeto esan, beste zirkulu batean hasi zen agiria ematen, politikoan. Euskal kulturaren muin bihurtu zen askorentzat, identitatearen seinale. Beti izan zuen, noski, hasieratik, kontsiderazio hori, eta bistakoa da haren defendatzaile eta erabiltzaile gehienak, Oteiza eta gainerakoak, abertzaleak zi-rela ideologiaz; baina ez zen, salbuespenak salbuespen, kalean, leku publikoetan sumatzen. Bestela zen orain. Beste dimentsio bat zeukan fenomenoak. *Txu-khum txu-khum* delakoa nonahi entzuten zen: eskoletan, olentzerotan, festetan, irrati sintonietan. "Lehen lau izan ginen, Goikoetxea anaiak eta Zuaznabartarrak; orain legio gara", esan ahal zuten txalapartariak.

Dimentsio eta zirkulu aldaketak emaitza zoragarriak izan zituen. Zoragarria da, gaur egun Oreka TX-en ibilerak jasotzen dituen *Nomadak* filma ikustea, non txalaparta India, Mongolia, Maroko edo Finlandiako musikarien ondoan azaltzen den -eta tresna, Finlandian, izotzekoa da-; zoragarria Kepa Junkeraren txalaparta, zurezko oholen orde z harri laminak daramatzana; zoragarria

–bukatzera noa zerrenda– Ttukun, Chieftains, Crystal Fighters edo Madonna artistek harekin lortzen dutena.

Begirada, begiratzeko modua, beti da sortzailea, eta ez da gertaera bitxizat hartu behar Cervantesen nobelan kontatzen dena, on Kixotek jiganteak ikusi zituela haize-errotak baizik ez zeuden tokian. Horregatik idatzi da mila aldiz, ez dela errealitaterik, interpretazioak daudela. Zailena, kasu horietan, begirada edo interpretazio delakoen hedadura da, gailen suertatzea gizarte batean. Jorge Oteizak lortu egin zuen. Mago lana egin zuen euskal kulturaren. Ezer ez hemen, ezer ez han, eta, *alehop!*, perkusio mota berezi bat airean *ad maiorem patriae gloriam*.

Eta Sasiolako bida-ertzean / neure anaiaren zapata odol-
leztatuak / ikusi nituenean, / zapata haek eneak izan zitezela / eta
odol hura / enea izan zedila / gutiziatzearen indarrez / kezko bola
batek itotzen zeuzkidan / birrikak. Sasiolako orena / Rikardo Arre-
girena / Milaka geunden hartzeko baina / hartu duzu hoberena...

Pentsa dezagun orain Gabriel Arestiri buruz, eta egin dezagun galdera izenburuan aipatutakoa aintzat hartuz, alegia “bizitza paraleloak” izan zirela berarena eta Jorge Oteizarena. Alegia, zein izan zen Gabriel Arestiren txalaparta? Zer atera zuen berak sagardotegiaren zirkulu apaletik goi zirkulu batera eramateko? Erantzuna eskura dator, baldin eta Pello Errotaren eta Udarregiren arteko elkarrizketa hura gogoratzen bada. Pello Errotak: *“Lagunduko al digu / guzian jabiak, / berak eman zizkigun / abilidadiak, / atera dijoazte / predikadoriak, / sekula estudiatzen / ibili gabiak”*. Udarregik: *“Asiera eman du / Pello Errotariyak / errespuesta orain / Juan Joxe Udarregiyak. / Batek ainbat deretxo / daukagu guk biyak; / gure kolejiyuak / sagardotegiyak”*. Azkar esanda, Gabriel Arestik bertsolaria atera zuen sagardotegitik. Edo zehatzago: bertsolari zaharra, lehengoa, “abilidadiak”, “errespuesta” “deretxo” eta holako terminoak inolako kezkarik gabe erabiltzen zituena. Zergatik, eta nola, hori da azaldu nahi nukeena.

Jakina den bezala, Gabriel Arestiren poeta izateko modua profetarena zen; ez, hain justu, mehatxu eta iragarle den gizonarena, baizik eta, herriari edo hiriari egia botatzen dionarena haren huts eta txarkeriak salatuz. Alde horretatik, ez da zalantzarik, Jeremias, Amos, Elías eta beste profeten ildoan kokatzen dira *Harri eta Herriko* poema asko. Liburuaren bigarren parteko A poema, kasu: “*Beti esanen dut / egia. / Nire ahotik ezta hitzik aterako / egia eztena. / Ezpainak apurtuko zaizkit, / hortzak eroriko zaizkit, / mihina ebakiko didate, / baina nik / eztut / gezurrik / esanen (...)*”. Edo bigarren parte bereko W poema: “*Egia bat esateagatik / alabak / hil behar bazaizkit, / andrea / bortxatu behar badidate, / etxea / lurrarekin / berdinu behar bazait; / Egia bat esateagatik, / ebaki behar badidate / nik eskribitzen / dudan / eskua, / nik kantatzen / dudan / mihina; / egia bat esateagatik, / nire izena / kenduko badute / euskal literaturaren / urrezko / orrietatik, / inoiz, / inola, / inun / eznaiz / isilduko*”.

Amosek zioen, Bibliaren arabera –bizkaierazko bertsioa daukat aurrean– “ni ez naz profeta, ezta profeta-seme be; artzaïña naz, basapiko-zaiña”, eta era berean mintzo izan ziren beste profetak ere, esanez ez zeukatela dohain berezirik egiaren jabe izateko; Jainkoarengandik jasotako mezuak ematen ziela hura zabaltzeko nahia, kosta lain kosta, bizia arriskatuz ere. Gogoratu: Amos eta Ezekiel erbesterratuak izan ziren; Jeremias “iñor ez lez mindu eta naigabetu zan, eta iñork baiño gehiago sufridu eban”, eta eraila izan zen azkenean, hala nola, geroago, profetarik nagusia, Jesus.

Jainkoaren eta gizakien arteko mediumik ez den garaian, ordea, edota halakorik onartzen ez den gizarte aurreratuetan, profetari –poetari, kasu honetan arriskua hartzea beste aukerarik ez zaio geratzen; ez dauka autoritatea eskuratzeko beste biderik. Erbeste, kartzela edota bazterketa soziala jarri behar du balantzaren alde batean, eta behin ordain hori, sufrimendu bide hori, onartu eta gero, ezer galtzekorik ez duela, leku-estra batean kokatzen da; libre da, eta egia esan dezake. Leku-estra horretan, ber-

tan nahi gabe daudenekin suertatzen da, axolagabeekin, arriskua konturatu gabe har lezaketenekin, haurrekin, mozkorrekin, eroekin. Baina hurrek, mozkorrek eta eroek aldi batean esaten dute egia, une batez egoten dira beste leku horretan; ez luzaroan eta etengabeko nekea hartuz, poeta profetikoen moduan.

Egiaren auzia, beraz, topografikoa ere bada. Non kokatzen den nor, egia esateko aukera izango du, edo ez. Pentsa dezagun bufoiengan: ez zen bakarrik erregearen kontrafigura; erregeari zernahi esan ziezaiokeena ere bazen, hain zuzen ere bere muntrotasun fisikoak eta oinarrizko pentsamendu batek –“denek behar dute noizbait egia, erregeak ere bai”–, leku-estra bat ematen ziolako monarkiaren erakundean. Grezia zaharrean ere berdin bide zen: Arkilokok adieraz zezakeen inork esan ezin zuena, baitailan beldurra izan eta ezkutua botatzea ulergarria zela; baina bera sazerdotea zen, sistemak berak ematen zion leku-estra bat egia katarkikoa zelakoan.

Itzul gaitezen sagardotegira. Han dago Txirrita, eta batzuetan umea ematen du, bestetan eroa edota mozkorra. Eta halako batean, honako bertso hau botatzen du: “*Etxe maiorazkua / nintzen tokamentuz / baldin serbitu banu / aita pulamentuz / ene bizimodua / beti dabil kantuz / despatxatuko naute / ez banabil kontuz*”.

Gabriel Arestirengana iristen da bertsoa halako batean, eta balio handikoa iruditzen zaio, poeta sozialaren definizio aparta. Hurrengo pausoan, Jorge Oteizak txalapartarekin bezala, goi zirkulura jasotzen du, bai bertso hori bera, eta bai sagardotegian mamitzen den bertsolaritza. “Bertsolariak dira egiazko poeta sozial bakarrak”, aitortzen dio Angel Zelaietari –ikus idazle honen *Gabriel Aresti. Biografia*–. “Poeta baserritarrak, eskolarik gabeak, baina nire iritzian euskaldun poetarik onenak, olerkari guztiak baino hobekak”.

Pentsa liteke, beharbada, Gabriel Arestiren ahalegina eta aurreko euskal intelektual batzuen berdina edo antzekoa izan zela; baina ez dut uste horrela denik. Pentsa dezagun, kasu, Manuel Lekuonarengan.

Bere *Literatura oral euskérica*-ren zergatiaz galdetu nion behin Andoaingo Arregitarren etxean. 1970. urte aldera izango zen. Erantzun zidan berak: “Oñatiko nazioarteko Batzarrean herri-poesiari buruzko ponentzia bat aurkeztu nuen eta Alemaniako irakasle bat hurbildu zitzaidan, esanez euskaldunok ez geneukala ezer literaturaren arloan, ez geneukala Heine bat. Gizon haren mespretxuak min egin zidan, eta erantzun nion Euskal Herrian ehunka poeta geneuzkala, bertsolariak, eta une hartantxe erabaki nuen, liburu bat egingo nuela bertsolaritzaren balioa erakusteko. Euskaldunok ez dugu zertan lotsaturik Heine bat ez daukagulako”.

Literatura oral euskérica liburu jantzia eta zer erakutsi handikoa da, eta, ez da zalantzarik, bertsolaritzak azken berrogeita hamar urteotan izan duen garapen eta arrakasta zuzenki lotuta dago harekin; baina ahalegina erromantikoa zen, nazionala –bertsolaritzaren beraren balioa goratzea, eta ondorioz Euskal Herriarena–, eta ez zuen, berez, zirkulu aldaketarik proposatzen: bertsolariek bere ohiko lekuetan jarraitu behar zuten, eta, aldi behin, erakustokietan, antzokietan, azaldu. Aitzitik, Gabriel Arestik termino unibertsaletan aztertzen eta baloratzen zuen fenomeno, eta helburu oinarritzako baten aldeko lehiak kokatzen zituen bertsolariak, egiaren frontearen, profeten ildoan, Pablo Neruda, Nazim Hikmet, César Vallejo, Blas de Otero eta bera bezalako poeta sozialen konpainian, garaiko literaturaren abangoardian.

“Gaur egun bertsolariak Karmeldarren komentuan egiten dute urteroko bilera. Holako bilera batera, Txirrita ez litzateke joango ezta lotuta ere!”. Hala esan zion Gabriel Arestik Angel Zelaietari, eta argigarria da iritzi horren argira azken berrogeita hamar urteotako bertsolaritzak izan duen jokaera aztertzea. Ezagutzen

dudanaren arabera, lerro lekuonatarra jarraitu du, –Karmeldarren komentuan biltzen ziren bertsolariena–, eta, txalaparta bezala, identitatearekin lotutako fenomeno bat bihurtu da, politika aberzalearen zabaltzaile. Gure tribuaren doxa ideologikoaren aurka daudenek –erabat edo puntu jakin batzuetan– inoiz baino lan zailagoa daukate. Alde horretatik, Txirritaren garaia xamurragoak ziren.

Pentsa liteke Gabriel Arestik frakasoa eman zuela bere ahaleginean, indartu egin baitzuen berak ere bigarren mailakotzat jotzen zuen identitate-lerroa, ez profetarena, poeta sozialarena; baina –arroteen moduan aditzera ematearren– bere arrautzak bi gorrigo zeuzkan. Bertsolaritzari balioa ematean, bertsolaritza bera baino gai askoz ere garrantzitsuagoa zeukan gogoan: hizkuntza, euskara. Izan ere, hizkuntzaren inguruan auzi latz bat zegoen; betidanik, noski, gutxiengo baten hizkuntzaz ari garela, baina inoiz baino latzagoa XX. mendearen hasieraz geroztik. Txirrita bera ere konturatua zegoen horretaz. Gogoratu Victoria Eugeniako 1935eko lehen bertsolari lehiaketan kantatu zuen bertsoa:

Larogei urte gañean ditut
nago anketako miñez,
Donostiara etorria naiz
erren aundia egiñez,
bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez,
euskera iya aztu zait eta
erderarikan jakiñ ez,
maixu batekin eskolan laster
asi bear det latiñez.

Badira bertsoaren beste bertsio batzuk, baina muina, hizkuntzei buruzko erreferentzia, berdina da guztietan. Belarri fina zuenez, Txirritak sumatu egiten zuen etorkizunak zekarkiona: bere euskara, “abilidadadiak”, “errespuesta” “deretxo” eta holako terminoz bete, bazterrera zihoala. Boterea zeukaten intelektual euskal-

dun gehienak, Sabino Aranak sortutako alderdikoak batez ere, hizkuntza garbi, berezi eta desberdin baten alde zeuden, hala nola zegokion orduko pentsamendu nazionalistari –nazionalismoa desberdintasunean oinarritzen da, eta ahal duen guztietan hura areagotzeko ahalegina egiten du–. Ez zuten ezertarako behar euskara “mordoiloa” deitzen zuten hura.

Gabriel Arestiri izugarria iruditzen zitzaion purismoa, ideologia nazionalistaren hizkuntz eredua; bigarren ematen zion haren ondorioz sortutako konstruktoak. Bi arrazoiengatik: gutxiengo baten mania gailentzen zitzaiolako herriaren praktikari, lehenik; bigarren, Etxeparerekin hasitako tradizioa eteten zuelako. Gogoan daukat oraindik, beti eduki dut, nik idatzitako lehen antzerkiaren originala irakurri ondoren, berak egindako komentarioa, gaztelaniaz, Angel Zelaietari idatzitako gutun batean: “(...) Finalmente, tengo que ponerme muy, pero muy serio, con los restos de purismo que laten en Atxaga. Atxaga tiene que elegir entre ser escritor o ser purista. Esto parece una chorrada, pero es una verdad que únicamente podrá comprender quien tenga sensibilidad literaria. El mismo título es monstruoso. El llamar a esta obra *El redondo y el punto* es de pena. Su título debe de ser *El Círculo y el punto*, o sea en vascuence *Zirkulua eta Puntua* (o como no tendremos más remedio que escribir antes de que nos vayamos, *Círculua eta punctua*”.

“Tiene que elegir entre ser escritor o ser purista...” esan nahi zuen volapük edo esperanto hizkuntzetan ezin zela ezer sortu, eta euskararen konstruktoarekin ere ez zela ezer sortuko: ez poesiarik, ez nobelarik, ez kazetaritarik, ez pentsamendurik; ezer ere ez. Hizkuntzak berak ere ez zeukan inolako etorkizunik.

Beraz, Gabriel Arestik bigarren arrazoi bat zeukan, bigarren gorringo bat, Txirrita, Pello Errota, Udarregi eta gainerako bertsolariak goi zirkuluan kokatzeko: ez ziren poeta sozialak bakarrik; euskara mordoiloa erabiltzen zuten euskaldunak ziren, gainera; zinezko arieteak konstruktoaren aurka. Eta bertsolari zaharrak

bezala, berdin *Acto para la Noche Buena* idatzi zuen Pedro Ignacio Barrutiak ere. Mondragoiko eskribauaren antzerki horretan, dio San Josek:

Izorra sentitzen dot neure esposea, aditu ezin dot nik zer dan kausia. Dontzella bat ain garbia, Nola zaran zu, Maria, nola da posible? Ai, ai, ai ene! Ez dot nik merezitzen zeugaz gelditzea, zer egingo neuke, ai, ene tristea? Fuertza da joatea. Inposible egotea zeuganik ausente, ai, ai, ai ene!.

Gabriel Arestik, nola ez, goi zirkulu batean kokatu zuen antzerkia, Bertolt Brechten estetikaren ildotik interpretatuz, eta ez zuen etsi plazaratu arte. Denok entzun ahal izan genuen orduan –nik neuk Santutxuko Karmelon egin zen errepresentazioan– “dontzella”, “fuertza da joatea” eta halakoak erabiltzen zituen euskara hura.

Lerro berean, Gabriel Arestik *Pello Errotaren bizitza* famatu zuen, Antonio Zavalak Mikela Eliceguiren ahotik jasotako kontaera, eta euskal nobelarik onena zela zioen. Gainera, *Kaniko eta Beltxitina* argitaratu zuen, Iparraldeko tobera, eta baita Leizarragaren antologia bat ere, *Euskal protestantismoa zer zen*, Xabier Kintanaren hitzaurrearekin... *Borobila eta puntua* delako nire obrari buruz komentarioa egiten zuen gutun berean, enkargua bidaltzen zidan: ikasi egin beharra neukan hizkuntza, eta horretarako klasikoak irakurtzea beste aukerarik ez neukan. “Badakit alukeria dela Axular, Agirre Asteasukoa eta abarrak irakurtzea, baina ez dago beste erremediorik, ezinezkoa da haiek irakurri gabe euskal eskritore izatea”. Bertsolari zaharren alde, euskal klasikoen alde... beti hizkuntza gogoan; konstruktoaren aurka, beti.

Zer zor diogu Gabriel Arestiri? Oro har, gizakiak ez dira oso eskuzabalak izaten profeta lanak egin dituztenekin eta ibilera aski bakartia egin dutenekin; are eta gutxiago nor horrek arrakasta izan badu. Gogoratu Cristobal Coloni gertatua: aurrena esan zuten gezurra zela Amerika bilatu zuelako kontua; gero, egia zela, baina aurkikuntzak ez zuela inolako baliorik; azkenez, balio han-

harrietaherri #50

dia zuela aurkikuntzak, baina ez zuela berak egin. Puntu honetan, nork berea esan dezala. Niretzat pertsona eta idazle funtsezkoa izan zen, Oteiza baino hamaika aldiz gehiago: *Borobila eta Puntua* obrari buruzko gutun hura bidali zidalako, aurrena, kritika eginez baina idazle izan nintekeela adieraziz; bigarren, euskara zama ideologiko itogarri batetik libratu zuelako gehienek baino indar eta irizpide hobez, eta guretzako, hurrengo belaunaldientzako, prest utzi. Baina, nola jakin? Nola zehaztu eragin baten arrazoiak? Agian 1968ko uztailaren 22an hasi zen dena niretzat, Rikardo Arregiren gomutan egin zen hileta gogoangarri hartan.



Karmelo Landa

Ea, Bizkaia, 1952

Bilbon dabil Gabriel Aresti

Harri eta Herri liburuko lehen poema Bilboko Otxarkoaga auzoan kokatu zuen Gabriel Arestik. “*Hemen dago gizona... /... Otxarkoagan*”¹. Bigarrena, berriz, Arte Ederren Museoa, eta Zorrotzako portuan “*aldarrika*”, hirugarrena.

Bilbon dabil Gabriel Aresti *Harri eta Herri*ko aipamen gehienetan, edo bestela ere ez da Bizkaiko hiriburutik askorik urruntzen; liburuko poemetan denetara agertzen diren 23 toki-izenetan, Bilboko auzo, etxe, kale eta plazak aurkitzen ditugu, eta noizean behin begirada eta pausoa Artxanda, Derio edo Arrigorriagaraino luzatzen dira, eta inoiz agertuko dira Mundaka, Laudio, Zornotza, Zarautz, Oñati edota Arantzazu. Geografia hurbilak, poema datatu eta lekutuak sarritan.

Abando, portua, mugak, aduanak:

1933. urteko urriaren 14an jaio zen Gabriel Aresti, Abandon, Barroeta Aldamar kaleko 2. zenbakian, 6. solairu-txapituluan; ibai ondoko etxea da berau, parean portuko Aduana zaharraren egoitza duena; ibaiaren bestaldean, berriz, Bilboko udaletxea du parez pare; Gabino Aresti aita, “*euskaldun galdua*” semearen hitzetan

* **Gabriel Arestiren lanei buruzko erreferentzia guztiak** “Gabriel Arestiren Literatur Lanak”, SUSA, 1986, 10 liburuko bildumatik hartuak dira; beraz, horrela laburtuko da aipamena: SUSA-(liburu-zenbakia), tituluak, orrialdea:

1 SUSA-2, *Harri eta Herri*, 11-13 or.

harrietaherri #50

(umetan euskara jakin arren, gero galdu zuena). Ama, Asun Segurola, Karrantzakoa zen jatorriz.

Nik hiru urte kunplitu nituenean, Espainian gerra zen. Ni orduan erdalduna ninzen. Ez beste arrazoiengatik ezpada nire gurasoek, naiz eta euskal apellidukoak izan, euskeraz ez zekitelako, erdal herri batean jaio nitzelako, Bilbaon, Bizkaiko hiriburu berrian.

Gizonak asko sufricen du. Baina are gehiago sufricen du haurrak... Gerra batean bizi den haurrak. Naikoa alimenturik, naikoa elikaturarik ez duen haurrak... Eta hala genbilzan gu, haur flakoak, lur zihorkatu haretan; ikaca lapurcen genuen; garia eta ogia ohostucen genuen; tabakoa eta ardoa ebaxten genuen... Lortu genuen kultura apurra ere, aginka eta ukabilka hartu genuen liburu debekatuetatik.²

Gerraondoko urte haietan, garaileen kultura inposatua da nagusi Bilbon, kultura- eta hizkuntza-ordezkatze prozesua indarrean da, eta ez da erraza gertatzen inorentzat gerra aurreko euskal pizkundearen haririk berraurkitzea.

... egun batean, amabi urte nitularik, nire buruaz lotsatu nintzan, euskaldun motz bat nintzala konturatu nintzan eta nire buruaz egjin nintzan lotsatu. Eta andik liburu-denda batera joan nintzan, euskal ikaspide edo gramatika on bat erostera.³

Albia plaza, Bilbo abertzalearen habia:

Gabriel Arestiren jaiotetxetik hurbil Albia plaza dugu, Abandoren bihotzean; Abandoko errepublika Bilbotik bereizia eta aurkaria izan zen historian zehar, harik eta XX. mendearen hasieran batu ziren arte.

2 SUSANA-10, *Artikuluak, hitzaldiak, gutunak*, 86 or.

3 SUSANA-10, *idem*, 42 or.

Albiako plazan zeuden Berastegiko Eskolak (orain Justizia Jaurgia egin duten leku berean); han egin zituen Gabriel Arestik lehen ikasketak, mutil eta neskentzako sarrera ondo bereziak zituena eskola-etxe handi hartan.

Albian jaiok ziren, halaber, bai Sabino Arana baita Txabi Etxebarrieta, Arestik berak gogora dakarren legez:

Ai, Albia, Albia, dohakabe guztion kabia, (bertan jaiotzen ginen Sabino eta Txabi, eta ni ere, guztirik dohakabeena) orain, Sabino, askok Abandoko arranoa deitzen haute, zuek biok, Sabino eta Txabi, zuek arranoak, ni usakumea, oraino hegazi ikasi ez dudana, zuek haiz artean, ahuntz saltolariak harrapatzen zenuzuten, ni berriz, akerrek bere adar okerren artean hartzen naute.

Sabinoren ondoan haren gaizkia bizi izan da, haren razialismoa, euskararen kontzepzio faltsua, haren teokratizismoa. Baina haren ongia enterraturik dago. Zeren beste Sabino bat dago, guri, populu zeheari ezkutatu eta ebatsi zaiguna.⁴

Sabino Aranaren jaiotetxea, beraz, auzoan zuen Gabriel Arestik. Aranatarren etxea 1857. urtean eraiki zuen Sabinoren aitak, Santiago Arana ontzigile ezagunak, Ibañez de Bilbao kalearen orduko 10ean, Albia plazaren albo batean, eta etxe hartan jaiotzen 1865ean Sabino Arana, familia karlista ezaguneko; gerora, baina, Sabin Etxea bezala ezagutuko zena, abertzaletasun jelkidearen sinbolo bilakatu zen, eta 1898ko urte seinalatuan, manifestazio espainolista bateko partaideek harrikatu egin zuten aranatarren etxea; beranduago, Aresti auzoan bizi zelarik, buruzagi frankistek Sabin Etxea suntsitzea erabaki zuten: etxea birrindu eta arrasto guztiak gabarra batean sartu eta Kantauri itsasoan desagerrarazteko plana egin zuen Genaro Riestrak, Bizkaiko gobernadore zibil falangistak; haren hurrengoak, Jose Macian Perez gobernadoreak agindu zuen 1960ko abenduan etxearen suntsipena, eta itsasora ez baina Larraskituko zabortegira jaurti

4 SUSAS-10, idem, 116 or.

harrietaherri #50

zituen hondakinak. 1960ko urte hartan Meli Estebanekin ezkondu berria zen Gabriel Aresti, eta bikotea Barroeta Aldamar kaletan bizi zen oraindik, gurasoen etxean; auzotik bizi izan zuen, beraz, Arestik Sabin Etxearen suntsiketa.

“Bilbaoko erdal herritik”:

Harriaren zikloa deitu izan zaio Gabriel Arestik *Harri eta Herri* honekin hasi eta *Euskal Harria* eta *Harrizko Herri Hau* obrekin osatu zuen trilogiari. Bi ezaugarri nabarmentzen dira, besteak beste, ziklo honetako liburuetan: lehen pertsonatik eta Bilbotik idatziak direla: *“Joxepe/nire laguna/hurrun dago,/han goian,/zerutik hurbil,/eta ni berriz/hemen behean,/osin ilun honetan,/Bilbo deritzan/infenu honetan.../ Hura han goian,/Arantzazu deritzan/gailur haretan/paradisuharetan...”*.⁵

Jarrera poetiko hori *Harri eta Herri* beraren hasieran azaldu du Arestik: *“Nire buruaz mintzatzen naiz, naizelako munduaren neurria”*. Entzun nahi zionari argi agertuz, gainera, nondik eta nola osatzen zuen obra: *“Nik eztut gauzarik asmatzen. Euskera Bilboko portuan ikasi dut, urdaiazpiko frijitua jaten nuenean, kafesne koinakaturia edaten nuenean.”*⁶

Urte batzuk lehenago hasi zen Aresti bere inguru hurbilean gertatua poesiaren eremura ekartzen, eta bi adibide zehatz aipa daitezke, behintzat, zentzu horretan:

- **“Bizkaitarra”** saileko lehen konposizioan, Mungia inguruko baserrietako bizimodu zein *“lurralde dultzia epela ezitia”*, Barakaldon eta Sestaon pairatzen zuten *“miseria tristea”*rekin⁷ kontrajartzen ditu.

5 SUSAS-2, *Harri eta Herri*, 71 or.

6 SUSAS-2, idem, 21-23 or.

7 SUSAS-1, *Lehen poesia*, 37-38 or.

- **“Zuzenbide Debekatua”** obra, 1961ean amaitu zuena. Urte haietako bi gertaera larri agertzen dira obra luze honen iturburuan: batetik, poetaren lagun mina zen Gabi del Moral Zabala gazte bilbotarraren atxiloteta, epaiketa eta kartzelaratzeta, 1959ko irailean gertatua, eta are larriagoa bigarrena, 1961eko martxoaren 27an Bilboko Bolue-ta auzoan gertatu zen Jabier Batarrita, Arestiren *“lagun bizikleteroa”*ren erailketa, guardia zibilen kontrol batean tirokatua⁸.

Hortik aurrera, bai *Harri eta Herri* hau, bai Harriaren zikloan kokatzen ditugun hurrengo *Euskal Harria* eta *Harrizko Herri Hau*, eta, oro har, Gabriel Arestiren literatura guztia norabide nagusi horretan abiatu zen.

Naziotasun berriaren kapital sinbolikoa sortzeari ekin zion Gabriel Arestik, horretarako idazle, hizlari, euskaltzain, editore eta polemista rolak bereganatuz.

Bilbo hartu zuen Arestik kontradikzio horren agerrune nagusitzat, Euskal Herri osoaren metonimia gisa. Intrahistoria da Gabriel Arestiren erreferentzia metodologikoa. Bilboko jendartea eta modu zabalagoan euskal gizartea dira bikoiztasun horretan harrapatuak aurkitzen direnak, historian zehar. Nekazaria eta jauntxoa. Oinaz eta Ganboa. Herritarra eta hiritarra, bizkaitarra eta bilbotarra. Langilea eta burgesa. Euskalduna eta erdalduna. Anton eta Gillen.

Arestik klase borrokarekin uztartu zuen nazio-zapalkuntza, horretarako euskal oligarkiaren sorrera eta klase dominatzailearekiko bat egite edo fusio prozesua ilustratuz. Hiru erreferentzia historiko eskaini zituen horretarako:

8 SUSÁ-1, idem, 241 eta 294 or.

1: Bizkaiko Foru Berriaren erredakzioa, 1526. urtean: une horretan gertatzen da, Arestiren ustez, euskal oligarkiaren osaketa politikoa eta Gaztelarekiko bat egitea.

Orduan kendu zizkiguten harmak. Orduan eman zizkiguten Fuegoak. Orduan hasi zen gure malda-behera, egoera triste eta larri honetara heldu arte, non ez dakigun euskaldunaren izenak zer esan nahi duen ere.⁹

2: Gatzaren matxinada Bilbon eta Gernikan, 1631-1634: aparteko garrantzia eman zion Arestik pasarte historiko honi. Alde batetik, Bilbon kokatzen du matxinada, euskal herritarren altxamendua (Aiorabide, buru eta eredu) eta ordurako Gaztelako Koroarekin bat egin duen bertoko oligarkiaren arteko borroka (Idiaquez, haien ordezkari). Bi pertsonaia horien bitartez osatzen du Arestik sinbolizazio prozesu osoa, lehenago historikoa eta gero literarioa, *habitus* berritu baterako patrioiak finkatuz.

Bilboko Gatzaren Matxinadaren aurkezpen literario pertsonifikatua burutu zuen Gabriel Arestik, Aiorabide alde bateko ordezkari aurkeztuz, eta Idiaquez, Ciudad Realeko dukea, bestekoa.

Nor zen Aiorabide:

Aiorabide etorri zen herriaren buruan; hura zen herri sanoa, eta hura zen Aiorabide buruzagi braboa.¹⁰

9 SUSA-10, "Artikuluak, hitzaldiak, gutunak" 90 or.

10 SUSA-10, idem, 90 or. *Bilboko Gatzaren Matxinadaz*, 1630-1634 bitartean herri-errebolta indartsuak gertatu ziren bai Bilbon baita Bizkaiko kostaldeko hainbat herritan, gerora "Gatzaren errebolta" deituak. Garai hartan, Felipe IV.a zen Espainian errege, eta Olivares-eko konde-dukea haren kontseilari nagusia, eta koroa espainiarrek Europan zituen gerrak medio, zergak igotzeko agindua eman zuten 1630ean, tartean gatzaren gaineko zerga. Gatza ezinbesteko kontserbatzailea zen orduan, arraina eta okela gorde ahal izateko, eta beraz, herriko jendearen elikadurarako. Herri-althamenduak gertatu ziren, bai nekazarien artean baita hirietako biztanleen artean; Bizkaiko jauntxoek horretaz baliatuz, Batzar Nagusien kontrola eskuratu nahi izan zuten, bertako partaideei gaztelera irakurri eta idazteko gauza izatea erreklamatzu, besteak beste. Herritarrek Gernikako Batzar Nagusien aurrean manifestatu ziren 1631ko irailaren 24an, baita aretoa okupatu ere. Errebolta Bilbora hedatu zenean, bertako merkataririk dirudunek, gertaeren beldurrez, bando-aldaketa egin zuten, eta "Koroarekiko Ituna" proposatuz txostena idatzi zuten Bilboko udaletik, eta azkenik, 1633. urtean, Bilboko agintariek Koroarekiko obedientzia negoziatu egin zuten. Hortik aurrera, Ma-

Nor zen Idiaquez:

Azkenean Bilbaoko plazan urkatu zuten Aiorabide; urkatuarazi zionaren izena duque de Ciudad Real da, Ciudad Realeko dukea. Zuen artean, modu zaharreko erromantiko batek pentsatuko du: 'eta nola diren atzerritarrak gurekin aldrebesak eta gorrotagarriak! Ikusten duzue?, nondik etorri diren gure gaitz guztiak? Ciudad Realetik!'

Eta ez. Halakoa ez dadila engaina. Halakoa ez dadila tontoa izan, zeren Ciudad Realekoa ez zen Ciudad Realekoa, duquea baizik. Deitura euskotarra zedukan; jaiotetxea, Bizkaian; hizkuntza naturaltza, gure euskera; eta akats handi bat: dirua. Diruagatik traizionatu zuen herria.

Eta honela hasi zen bipera-kasta hori, suge klase hori, euskaldun burges edo aberatsen kasta higuigarria.¹¹

Bi erreferente historiko hauek sinbolo bihurtuko ditu Arestik poetizazio prozesuaren bidez: "Euskal Harria" poema ezagunaren interpretazio-klabeak eskaintzen dizkigu, Harria (Aiorabide) eta Itogina (Idiaquez) identifikatuz:

... euskaldun klase hori itoginaren parekoa da, eta urteen buruan, mendeen eta mendeen buruan, ur tantak harria jaten du."¹²

drilgo gorteak errepresio latza bideratu zuen, Ciudad Realeko dukea erregearen armadaburu bidaliz Bilboko matxinatuen aurka; Juan Alonso Idiak ez zen Ciudad Realeko duke tituluduna, gipuzkoarra, Idiaketzarren dorretxea Zestoan baitzegoen. Bilboko "notableen milizia" antolatu zuten errege-armadaren laguntzaile, eta 1634ko maiatzaren 23an gauaz buruzagi matxinatuak atxilotu eta urkatu egin zituzten, tartean zirela Aiorabide, Muga, Puente, Lasagabaster eta Bizkaigaba hiritarrak.

11 Orduetik hirurehun urte bete zirenean, Bilbok matxinatu erailen aldeko oroigarria eskatu zion Lucarini eskultore ezagunari eta San Anton elizaren horman jarri zuten erliebez egindako lana.

12 SUS-10, idem, 91 or.

3: Gerra karlisten zergatia eta bi kontradikzioak/KON-TRAESANAK- Arestiren ustez, XIX. mendeko gerra karlisten

arrazoi sakona kapitalismoaren garapenak eskatzen zuen lurra-
ren jabego pribatua ezartzean dago, Bizkaiko lurra eta lur azpia
bizkaitar guztiena baitzen ordura arte. Meatzeen esplotazio ka-
pitalista garatu ahal izateko, ezinbestekoa zen, beraz, Bizkaiko
Foruak baztertea.

Une horretatik aurrera osatzen den euskal gizartea bi kontraesa-
nez gurutzatua ikusten du Arestik: batetik, bertoko burgesia abe-
rastua, desnazionalizatua eta Espainiaren batasunaren aldeko
amorratua, eta bestetik, langile klase esplotatua, zeinean ge-
hiengo zabal bat erabat deseuskaldundurik dagoen.

Euskal naziotasunaren aurkezpen berritua:

Arestik naziotasun berritua proposatzen duenean, subjektu indi-
bidual eta kolektiboa birdefinitu behar ditu. Nor da euskalduna?
Zeren arabera? Horretan ere urruntzen da aranismotik, zeinen
iritziz, etorkinen etorrera masiboak arrisku bizian jarri zuen euskal
etniaren biziraupena.

Definizio modernoek bestela aurkezten dute etnia kontzeptua:
“kultura konpartitzen duen komunitatea”. Definizio hau bat etor-
daiteke Arestiren pentsamenduarekin. Oso kezkatuta agertzen
da gizarte kapitalista berriak erabat aldatu duelako euskal herri-
tarren komunitatea, lehenago homogeneoagoa.

Euskal nortasuna bi elementu nagusiren bitartez finkatzen du:
klasea eta hizkuntza, edo bere hitzetan esanda *“ogia eta eus-
kara”*.

“Ogia mahaian eta ogia izpirituan. Nire arimaren ogia eus-
kara da. Euskal Herriko langileen semeoi bi ogiak ukatu zitzaiz-

zkigun. Ai, ene! Gernika destruitu ondoan Euskadin egon ziren erdaldun maisuak eta latindun apaizak!”¹³

Kultura konpartitzen duen komunitatea, beraz. Baina Gabriel Arestik euskarari berari ematen dio garrantzia nagusia: “*Gure etnia definitzen duen elementua da euskara, gure nazionalitatearen determinantea*”.¹⁴

Modu horretan konturatzen da euskal komunitatearen egoera agonikoaz:

Gaur egunean Bilbao, Etxebarri eta Barakaldo erdal herriak dira... Aurrera egin eta Zazpi kaleetatik zuen konpainian (ardoa, ardoa, ardoa)... Mundu guztiari galdetzen niola: Nork daki euskeraz? Les grands cimètieres sous la lune.¹⁵

Hizkuntza (eta ondorioz, nazio) ordezkatzeko prozesua abian ikusten du Arestik Bilbon eta inguruan, eta badaki jakin ez dela berezko prozesu naturala. Aitzitik, oraintsu Juan Carlos Moreno Cabrera adituak “ordezkatzeko bilatzen duen elebitasuna”¹⁶ ikusten du gertaera horren azpian.

Puntu honetara helduta, Gabriel Arestik bi nazionalismo mota definitu zituen: popularra eta burgesa:

Nazionalismoa burgesentzat bere pribilegio ekonomikoak defendatzeko arma besterik ez da. Burgesiak asko maite omen ditu kultura nazionalaren baloreak, baina beti, beti, beti onartuko ditu atzerritarren modak eta moduak¹⁷

13 SUSANA-10, idem, 91 or.

14 SUSANA-10, idem, 114 or.

15 SUSANA-10, idem, 231 or.

16 SUSANA-10, idem, 200 or.

17 MORENO CABRERA, Juan Carlos: *El nacionalismo lingüístico*, Peninsula, Barcelona, 2008.

harrietaherri #50

Bikoitzasun horrek ezinezko bihurtzen du, beraz, kultura konpartitzen duen komunitatea, ezinezko egiten du euskal nazioa. Sua eta ura ezin nahasi. Zatiketa erabatekoa da, eta geografian bertan ere isla du:

... nire oinetan Bilbaoko lau bailarak ikusiaz, han urrutian Ibaizabal... gero Abandoko ibarra, eta azkenean ezkerretara Barakaldo eta eskubitara Getxo. Horregatik gustatzen zait Bilbao, gauzak argi eta garbi ikusten dira, ezer disimulatu gabe, pobretasuna ezkerretara eta aberastasuna eskubitara.¹⁸

Gizarte zatikatu hori etengabe agertzen da Arestiren gogoetan, baita literatur lanetan ere, ezin gaindituzko zauri moduan. Baina nazionalismoaren ikuspegi berri horretatik, proposamena luza ztera ausartzen da Gabriel Aresti, berebiziko gaurkotasuna duena berau:

Eskari bat egin nahi diogu euskaldun burgesiari... eskari ingenuoa. Bere pribilegioak ukatu behar ditu euskaldun izan nahi baldin badu behintzat. Kausa komunaren alde lan egin dezala, horrela izan gaitezen euskaldun guztiok libre Euskadi libre baten barrenean... Herri bakar bat izanen gara klase sozialik gabe... Zeren bestela, ene euskal kide bihotzekoak, finis Vasconiae!¹⁹

Kapital sinboliko berriaren errepresentazio literarioa:

Goian aipatu diren guztiak eremu literarioa aldatu zituen Gabriel Arestik eta sinbolizazio prozesua burutu, sinboloen interpretazio egokirako klabeak ere eskainiz:

18 SUSA-10, *Artikuluak, hitzaldiak, gutunak*, 118 or.

19 SUSA-10, *idem*, 67 or.

1. **Harria eta itogina**: Harria-herria eta itogina-oligarkia euskalduna:

Asko maitatzen dut euskal harria. Baina euskaldun klase hori itoginaren parekoa da, eta urteen buruan, mendeen eta mendeen buruan, ur tantak harria jaten du.²⁰

2. **Nire aitaren etxea**: euskara, Euskal Herria:

Batez ere abertzale diruzaleengandik, aberats jainkorik gabekoengandik eta elizgizon Kristoren etsaiengandik defendituko dut nire aitaren etxea, horiek eman baitigute aberri ilun eta triste bat.²¹

3. **Mailua**. Poesia mailu bat da, herri lokartuaren kontzientzian kolpatu eta iratzarri nahi duena.²²

4. **Sua eta ura**. Klase antagonikoak Euskal Herriaren historian, Oinaz eta Ganboa, Oñatiko aberatsak eta Eibarko forjariak.

baina ura eta sua ezin nahas ditezke;
Irakin eta iraungi, ez dago ezer beste.
Inork erran ez dezala: 'Adiskide zaitetze!'²³

5. **Bilbaoko kaleak**. Geografia sozialaren agerpena hiriaren konfigurazioan:

Bilbaoko kaleak,
gora eta behera,
errekatik mendira,
bazuk artezak,
gehienak zeharrek,

20 SUSÁ-10, idem, 120-121 or.

21 SUSÁ-10, idem, 1 or.

22 SUSÁ-10, idem, 69 or.

23 SUSÁ-2, *Harri eta Herri*, 63 or.

harrietaherri #50

lurra estali da
exez eta gizonez,
gizonak leku batetik bestera
eramateko
makinez,
bizioz eta bekatuz,
karitatez eta kriminez,
plaza biribilak,
zumardi zabalak,
.../...
Autonomia,
Adiskidetasuna,
Bakea,
Libertatea,
Foruak,
maitatu ditudan gauzak
Urkijo ministroa,
Gardoki kardinala,
Mazarredo almirantea,
Egia jenerala,
Arrikibar ekonomista,
higuindu ditudan gizonak...²⁴

Hiria bera bihurtu du poema honetan, Bilboko kale izendatueta, gizarte kontradikzioen agerleku sinbolikoa, eta ez hori bakarrik, bere aukera zein den ere argi azaldu du, noren alde eta noren aurka dagoen poeta bera. Bilboko geografia bera du borrokagune Gabriel Arestik. Poesia mailu bihurtu du Bilboko kale artean.²⁵

Horregatik gustatzen zait Bilbao, gauzak argi eta garbi ikusten dira, ezer disimulatu gabe, bai, pobretasuna ezkerretara eta aberastasuna eskubitara.²⁶

24 SUSA-10, *Artikuluak, hitzaldiak, gutunak*, 119 or.

25 SUSA-3, *Euskal HARRIA*, 59-63 or.

26 Ikus, ideia honen gainean: IZAGIRRE, Koldo: "Poeta gizon egin zenekoa" (in: ARESTI, Gabriel: *Harri eta Herri*, Susa, 2000); ikus baita: ASTIZ, Iñigo: "Okerbideak ez baitaki

6. **Gillen, Anton eta poetaren nia Bilbaoko portuan.** Jatorri euskalduneko langilea eta etorkina, esplotazio berak berdindurik portuko lanetan, eta Gabriel Aresti poetaren kontzientzia soziala piztuz, in "Zorrotzako portuan aldarrika".²⁷

7. **Ogia.** Gizakion elikagaien sinbolo metonimikoa, baina hedaturaz, kulturaren eta nortasunaren errepresentazio metaforikoa:

Nik ogia falta ukan nuen, eta ogia maite dut, ez dakidala Jainkoarren, berriz falta!" .../... Ene arimaren ogia euskara da. Horregatik mintzatu naiz lehen ogi materialaz eta espiritualaz...²⁸

Elementu horiek osatzen duten kapital sinboliko berria poesia liburuetatik haratago hedatu nahi izan zuen Gabriel Arestik, eta ahalegin bereziak burutu zituen zentzu horretan, bai hitzaldiak nonahi eskainiz, bai artikulu polemiko eta zirikatzaileak argitara emanaz, eta horrez gain, poema ugari kantu bihurtu eta herritarren belarrietaraino heltzeko moduak bilatuz.

Gabriel Aresti, Bilbotik, nazio oso batentzat ari zen literatura sortzen, eta horregatik ez zuen bere eremua poesiarara mugatu nahi izan. Literatura sistema osatua nahi zuen euskaraz, eta helburu horren atzetik abiatu zen narraziogintzan, nobelagintzan, antzerkian, saiakeran, filologian, liburugintzan. Nazio literatura eta nazio hizkuntza modernatuak nahi zituen, zentzu literario zein ideologikoan.

Klase oso baten alde ari da, halaber, itoginaren azpian harri iraun duena luzaroan, baina orain desegiteko, harea bihurtzeko zorian ikusten duen euskal herritar xumeen klasea, eta asmo horri jarraituz ekartzen ditu bere lanetara: Eibarko forjariak, Bilboko matxinatuak, portuko langileak, Derioko marmolariak, Cortes kaleko prostitutak, Otxarkoagako eta Ollarganeko herritar pobretuak. Bilbon baitabil Gabriel Aresti.

mintzaerarik", in *BERRIA* egunkaria, 2014ko abuztuaren 30a, 26 or.

27 SUSAS-10, *Artikuluak, hitzaldiak, gutunak*, 67 or.

28 SUSAS-2, *Harri eta Herri*, 15-17 or.



Angel Zelaieta

Mallabia, Bizkaia, 1940

Gabriel Arestiren etxea
Hierro egunkarian

Gabrielek 26 artikulu bota zituen *Hierro* egunkarian, hamahiru 1962an eta beste hamahiru 1966an, berak dioenez “herrikideen pentsamentu meharra zabaltzeko asmoarekin”: euskal dantza, bertsolaritza, zinema, antzerkigintza, Bilboko bibliotekak, itzulpengintza, literatura, toponimia, hizteigintza, Bilbo hiriaren sorrera, Isabel II.a, Bizkaiko Jaurerria, Ugarte traidorea... gaiak jorraturaz.

Y desde aquí,
desde estas columnas del diario Hierro
de Bilbao,
yo, Gabriel Aresti,
como poeta y como pueblo...

Hierro arratsaldekoa 1937ko uztailaren 5ean sortu zen, José Antonio Giménez Arnauren zuzendaritzapean, Correo 17an, *Euzkadiren* etxean. (Zalbidea, 1998).

Guk dakigula, Gabrielelek 1962ko apirilaren 6an argitaratzen du berton bere lehen artikulua. Gabrielelek berak adierazten dio Norbert Tauer jaunari zein asmo daukan *Hierron* jarduteaz: “Nire herrikideen pentsamentu meharra zabaltzeko asmoarekin hamalau artikulu eskribitu nituen hemengo falanjist eguneroko batean, bertatik despedida eman zidaten arte.” (Aresti, 1962).

harrietaherri #50

Dakigula, Gabrielelek 13 artikulu argitaratu zituen 1962an. Isilaldi luze baten ondoren, beste 13 1966an, eta beste behin ikusten dugu mahai inguru batean, 1967an.

Hainbat antzerki lan idazten du eta Kriselu antzerki-taldea sortzen. Orixe Saria irabazten du bere *Harri eta Herri*k eta Lizardi Saria *Euskal Harriak*.

Lau urte hauetan euskararen batasunaren oinarriak jartzen ditu Euskaltzaindiak eta ahalegin honen “motorra” Gabriel bera izan zela adierazten dute Mitxelenak, I. Berriatuak eta bestek.

Garai berean, Bladi Otero eta Yolanda Pino hartzen ditu etxean.

Era bizi batez agertzen du Bilbo hiria bera *Hierroko* etxe honean: Olaetatarren ezpata-dantzaz “lo inauténtico son las barbas, las pieles...” salaketa egingo du. *Soroak* taldeaz “demuestran cómo se puede tocar la guitarra electrónica (...) y seguir siendo vascos”. Sarritan hurbiltzen da Bilboko liburutegietara: “Pedimos a la biblioteca Sagarminaga, de la Diputación, y a su director, señor González Echegaray, complete su colección de libros vascos, lo cual podría llevar a cabo por poco dinero y escaso esfuerzo” hots egiten du eta gehitzen: “Solución: adquirir la de Guerra... Buscar remedio a esta, para nosotros triste, situación”.

Euskaltzaindiaren laguntzaz, RM Azkue Ikastola legeztatzen dela-eta pozik botako du: “La Diputación ha abierto el primer colegio bilingüe oficial”.

Kide izan zituen *Txinpartak* taldekoez “más se dedicó y se dedica, a la espectacularización del folklore, que a una verdadera actividad teatral” esan ondoren, “un nuevo grupo de teatro vasco, éste ya con preocupaciones culturales y con ambición artística: el *Kriselu*” aurkezten du eta erronka jotzen: “Nos atacarán: lo deseamos”.

Pelotari ikusten du eta esaten “(...) se afirma, casi se grita, que *Pelotari* es fundamentalmente vasca por su espíritu, por el carácter de sus formas de hacer, (...) Francamente hablando, sin paliativos, *kupidarik gabe* que diría Txirrita, para mí todo ello no es más que un escapismo. (...) fenómeno análogo al del folklorismo, piensa que de la misma forma que gentes que han perdido el vascuence, para justificar su falta de intención de recuperarse para la que debiera ser su lengua natural, se viste de kaiku, boina y abarcas para refugiarse en la romería, en la danza y en el monte, así también todos estos intelectuales se refugian en su batalla por lo estético por igual causa. (...) después de tanta presunción de espíritu, el *pelotari* es tratado exclusivamente en su aspecto puramente físico, como un bello animal, ya que la película no es otra cosa que una consecuencia de poses de nuestros deportistas pegándole a la pelota en sus diferentes modalidades, al objeto -así me lo parece a mí por lo menos- de conseguir efectos en el espectador más relacionados con el sentimiento que con la razón, lo viriles que somos los vascos, lo super-hombres que somos; pero el lado humano de la pelota, las apuestas, por ejemplo, el trasmundo que existe en empresas en que se mueve tanto dinero, las consecuencias que puede tener y tiene en la realidad no sólo para el *pelotari*, sino también para el aficionado, todo ello queda, me atrevo a suponer que deliberadamente, ignorado por los realizadores. (...) El mismo nombre nos lleva al temor: *Ama Lur* Madre Tierra. Y tenemos la prevención de que al igual que ocurrió en *Pelotari* en la nueva película también se olvide al que debiera otorgarse más importancia al *Anaia Gizon*, a nuestro hermano el hombre”.

Arestiren *Hierroko* etxe honetan aparteko egoitza du Zabalaren *Auspoa* bildumak. Aita Zabala “primera autoridad en materia versolarística” legez aurkezten du, eta gehitzen: “(...) creemos necesario dar razón de cada uno de los tomitos”: R. Artolaren *Sagardoaren grazia ta beste bertso asko* (*La gracia de la sidra y otros muchos versos*). Marcelino Soroaren *Gabon* (*Navidad*), *Au ostatua!* (*iVaya posada!*) y *Anton Kaiku*). F. Apalateguiaren *Euskal*

mutillak armetan, (*Los mozos vascos en armas*. Pepe Artolaren *Ustez laguna detan ta beste bertso asko*, (*Quien creí que era mi amigo y otros muchos versos*). Pepe Artolarena laugarrena: “hijo de Ramón Artola, de quien heredó el apellido y seguramente la sangre, pero de forma alguna el genio, por lo cual no queremos dar nuestra opinión, ya que no la merece”.

Bosgarrena, *Euskalerritik zerura ta beste ipui batzuk* (*De Vasconia al Cielo y otros varios cuentos*) da: “Esta apreciable colección de cuentos que se lee con facilidad, por el tema y el estilo, nos parece uno de los más logrados aciertos de *Auspoa*, en lo que se refiere a dar lectura a los vascos que no tienen mayor cultura literaria”.

Toribio Alzagaren *Ramuntxoz* adarkada gogorrek botako ditu: “(...) el menos acertado de sus intentos es esta comedia, que ni siquiera es suya, ya que se basa en la novela de Pierre Loti, y Alzaga no hizo otra cosa que traducir la adaptación castellana de un tal Figuerola, cuyas demás características personales se desconocen. Para colmo, emplea aquí Alzaga ciertos terminachos pseudopuristas, más propio de un estudiante de vasco por el método *Euskaltzale Bazkuna* que de un comediógrafo cara al público”.

R. Azcarateren *Galtzaundi ta beste bertso asko* (*Calzonazos y otros muchos versos*), gogoz ikusten du: “El genio de R. Azcarate comenzó y terminó con *Galtzaundi*. Todos los “otros muchos versos” son productos de una romantiquería, de un romanticismo comprado a muy bajo precio, y nos dejan los ojos llenos de sueño y la boca llena de bostezos. Pero *Galtzaundi* es otra cosa. *Galtzaundi* es todo un personaje, tomado seguramente de la vida real (ya que en sus versos se menciona a sí mismo el buen Azcarate), y sus versos de música propia, aunque no de rima muy rica, son de acertada composición y muy propios, con el acierto de la combinación de la copla mayor con el zortziko menor”.

Zortzigarrena, Antero Apaolazaren *Patxiko Txerren* da: “Es la segunda vez quien en esta colección se nos da gato por liebre (...) Se trata esta vez de una novela corta de Antonio Trueba, el tan merecidamente olvidado cancionista y cuentista encartado, traducido a un ágil vascuence, clasicista y popularista, del que más de un escritor actual debiera tomar ejemplo, como nosotros hicimos hace tiempo. (...) El librito lo prologa el joven polígrafo eibarrés Juan San Martín, quien, si bien no ha tocado el texto, se permite una serie de notas de pie de página, explicando lo que está más claro que la explicación”.

Victoriano Iraolaren *Oroitzak (Recuerdos)* da bederatzigarrena: “(...) en el caso de este escritor donostiarra del siglo pasado se ha repetido la injusticia que con el aramayonés P. Barrutia ocurrió anteriormente. Es Iraola un gran literato, de una fuerza desacostumbrada, poseedor de todos los recursos del habla popular. (...) nosotros encontramos su humor sumamente fino, reflejo exacto del modo de pensar de nuestro pueblo”.

Eta bukatzen zuen: “Además de estos nueve números, se ha publicado otro más, el décimo, bajo el título de *Errege Egune-ko bertso saioa*, los versos que en el teatro Victoria Eugenia, de San Sebastián, cantaron (...) Basarri, Uztapide, Xalbador y Azpillaga (...) Sobre este último librito daremos amplia reseña próximamente”.

Euskal hitzak zein diren eta ez diren litzateke beste gela berezi bat Etxe honetan. Hasteko, Euskaltzaindiaren *Euskera. Trabajos y Actas de la A. De la L. V.* (1961) delakoaren aurkezpena litzateke. Irigoienen lana, “A brazo partido, contra la incomprensión de muchos, la mala fe de varios y la indiferencia de los demás” dena, gorapatuz hasten da.

Aresti arduratuta dabil zein diren euskal hitzak, zein den euskara jator eta eredugarria eta, “Aunque con gran retraso” heldu zaion ale honetan, interesgarri ikusten ditu jarraikook: Villasanteren

“Despojo sistemático de la lengua de Axular”, Aita Arangurenen “Las flexiones verbales del franciscano Pedro de Astarloa” eta Ángel Irigarayren “El texto de un catecismo alto navarro (mezcla de meridional y septentrional), interesante por sus particularidades dialectales”. Baita ere José María Satrústeguiaren “Aportación al estudio de la Onomástica Tradicional Vasca”. Egokideritzo bertan agertzen den ikuspegiari “una animadversión rigurosa hacia ciertos antropónimos de nuevo cuño, inspirados en posturas banderizas, que tampoco nosotros podemos considerar como tradicionales vascos, ni siquiera como vascos en la mayoría de los casos. (...) Rechazamos el nombre *Kepa* por inventado o aclimatado extemporáneamente, pero por parecidas razones, tampoco podemos aceptar el *Piarres* ni el *Pedro*; entre ellos nos quedamos con *Petri*. Rechazamos al *Jon* por banderizo, al *Manes*, por populachero, al *San* y *Juan* por no vascos, y nos quedamos con *Joane*, que es lo tradicional”.

Behin Bilbon afaria izan zuten “algunos vascófilos”, Mitxelena buru. Eta galde egin, seguru, honek: “Si tuvierais que elegir entre *aizko* y *kutxillo* para decir *cuchillo*, ¿qué elegiríais?”. Txillardegik, “mal enfocado (...) sacó a relucir el *erdiko bidea*”, hots, ez mordoiloakeriarik ez garbizalekeriarik. Ez zuen hori onartzen Gabrielelek, eta zioen: “Desde hace mucho tiempo estoy empeñado en una dura lucha contra toda conturbación de la verdad en la literatura vasca, contra toda mixtificación en cualquier aspecto de nuestra vida cultural”. Zein den euskara “garbia” arazo honetan, eztabaida gogorra -ukabilka hasteraino, behin- izan zuen Gabrielelek *Ikasle* eta *Bordazale* jaunekin. Garai honetan Euskaltzaindian nagusi samar zen joeraren aurka ziharduten: “va orientando a difamar, a tuertas o a derechas, el trabajo de la Academia de la Lengua Vasca” kexatzen da Gabriel. Eta hauek gorai patzen zuten Arrandiagaren *Matai Deunak-Legezko Josu-Kristó gazko goizparra* honen euskara moduaren aurka, F. Mendizabalek eginitiko “Esmerada traducción de *Los cuatro evangelios*” jartzen du. Maiteago ditu Leizarragaren itzulpenenak, eta “La de Olabide no hay quien la entienda” gaineratzen du.

Euskal hitzak zein diren auzi honi oso lotua agertzen da hiztegi-gintza *Hierroko* Etxe honetan: begiko ditu Landuchiorena, Michelenaren ikerketak, J. A. Etxebarriaren ahalegina, A. Múgicaren hiztegia... baina "Un literato vasco necesita un diccionario redactado en vasco" dio, eta itxaropentsu ikusten du Euskaltzaindiaren asmo "berria", berak bultza eginda, asko eta asko, abiatua: "En la reunión que, como todos los meses, hizo la Academia de la Lengua Vasca el pasado mes de abril, a instancias del académico vasco-francés M. Jean Haritchelhar y del que estas líneas escribe, se tomó el acuerdo de empezar la tarea de redacción del diccionario vasco-vasco" idazten du, kartsu, ohar tekniko honekin: " (...) si la "H" es letra orgánica de la lengua vasca o es simplemente un emplasto que los vasco-franceses han colocado ahí por una mala noche de verano. Ya que en vascuence no creemos recordar una sola palabra que empiece por "AA", y las que se puedan buscar son acortamientos de palabras que empiezan por "AHA", pero solamente un rudimentario y arbitrario acortamiento, ya que la realidad es que palabras como, por ejemplo, "AHAL", al desaparecer la "H" en los dialectos vasco-españoles, hacen que las dos aes se ensamblen en una sola; es decir: "AHAL" :: aal: "AL".

Literaturgileei buruzko iritziak ere agertzen dira, nahiz ez hainbeste: J. Etxaidez "firme puntal de la literatura vasca", G. Celayaz "escritor irregular, cuando nos ofrece oro es de veinticuatro quilates" eta Kirikiñoz "dio una lección de serenidad y escribió para ser leído. Es padre de la moderna literatura vasca" esanez irakurtzen zaio. Aparteko aipamena egiten du Irigarayz: "*Esbozo de la literatura vasca profana*, de Irigaray, rara virtud para descubrir viejos textos de la lengua" esanez.

Ángel Ortiz Alfauren gidaritzapean, Esteban Clemente Romeo, Mario Ángel Marrodán, Gregorio San Juan eta Manuel Revueltarekin batean egiten duen "Mesa Redonda" delakoan, baina, isil xamar ikusten dugu. "La poesía vasca oral es la mejor del mundo..." hots egiten du. Eta Ángelek "-Un paréntesis para Ares-

ti: ¿qué poetas en vascuenece merecen ser citados?” galdeztzan, diotso: “Muchos, miles quizá. Pero vamos a dejarlo en los más notables: Lizardi, Echepare, Serafin Baroja, padre de Pío y de Ricardo, Barrutia, Basterrechea, Loramendi, etc. En fin, ten en cuenta que los primeros poemas vascos son anteriores a la existencia del castellano o, por lo menos, anteriores a Berceo...”. Eta ze poesia modu irakurtzen den galdetzan hau erantzuten du: “Yo tengo muy poco tiempo para leer... Me gusta mucho la poesía simbólica, que es lo que procuro leer últimamente: Valery, que me ha gustado muchísimo. Eliot, que siempre me ha parecido magnífico... En castellano, Neruda, Vallejo... Mi poeta preferido, Manuel Curros Enríquez...”.

Eta garaikide, nahiz zahartxoago zuen Orixez: “*Lau Urtaroak nire begietan*.(...) Orixe murió el año pasado, poco después de haber recibido este premio. Por ello no daremos nuestra opinión sobre el valor de este su último trabajo sobre sus implicaciones humanas. Sólo recordaremos que a uno de los más destacados poetas españoles se le excluyó recientemente de un concurso poético precisamente porque por su nombre y por su categoría hubiera cerrado el paso a otros que no tienen tanto renombre ni tanta categoría. Lo mismo debiera haber hecho la Academia Vasca con *Orixe*. Lo debiera haber colocado en el Jurado calificador y no entre los calificados. Fuimos varios los poetas vascos decepcionados (casi engañados, o sin casi) en este asunto”.

Bertsolaritza da *Hierroko* Etxe honetan habe sendoenetarikoa. Epaimahaiko da Gabriel Mungian (“Concurso de bersolaris. Se celebró el domingo en Munguía. Ganó Juan Lopategui, en cerrada lucha con Embeitia”), eta Markinako kanporaketetan (“Concurso de bersolaris en Marquina. Venció José M. Arregui, en competida pugna con Domingo Iriondo”).

Alegerago atera bide zen Mungiakotik: “El domingo era día de feria en Munguía (en la única Munguía del año 1962). Por la cantidad de *baserritarras* que acuden a hacer sus tratos de ga-

nados, día apropiado para celebrar una semifinal de bersolaris. La cual se celebró en la plaza misma, con gran asistencia de público, tanto mungués como de las aldeas de alrededores” idazten du, bertsolaritza eta herritartasuna elkarturik ikustean, pozik. “(...) se presentaron diez bersolaris. Y para jurado estuvimos cuatro académicos correspondientes, y el que, sin serlo, es gran poeta y ha ganado el reciente concurso *Lizardi*, el morgatarra Antonio Bilbao. Los bertsolaris presentados fueron: Florencio Zárraga y Pedro Castrejana, (...), Nicolás Ibarquengoitia, de Múgica, y Juan José Uriarte, de Rigoitia (...), Eusebio Olalde, los hermanos Ortúzar (sobre todo ese revoltoso duende que responde al nombre de *Ichurri*), (...), Abel Embeitia, (...), Manuel Basabe y J. Lopategui”.

Lopategik lortu zuen “la copa donada por el Ayuntamiento de dicha localidad y el dinero en efectivo destinado a tal fin por la Caja de Ahorros Vizcaína”.

Ez zen, hurrean, hain pozik itzuli Markinakotik. “Más que la plaza de un pueblo vascongado -idatzi zuen- parecía, en muchas cosas, la “Main Street”, la calle mayor de cualquier ciudadaja del Sur de los Estados Unidos. Sólo faltaba la nota de color y pintoresquismo de la raza negra. Los jóvenes vestían inelegantes atuendos; las muchachas, antiestéticos pantalones. Y, desde luego, preferimos el castellanizado vascuence de un Bermeo, por ejemplo, al muy puro de Marquina, ya fue, acaso por muy puro, la gente de la plaza prefiere hablar en castellano”.

Epaimahaikide izan zituen “Agustín Zubicaray, Eusebio Erquiaga, el padre Echenagusia, Alfonso Irigoyen, quien dirigió el concurso”.

Penaz komentatzen du hango jarduna: “Entre los nervios de Urrutia, y la escasa gracia que le echaron al asunto todos los bersolaris, el público se aburrió bastante en estas dos pruebas”.

Mungiakoarekin parekatzea ere penagarri egiten zaio: “(...) comparando esta exhibición del miércoles con la del domingo anterior en Munguía, vimos una disparidad entre los elementos presentados. Mientras que los de la zona de Munguía suplen la falta de oficio a base de gracia, salero, *piperra*, *gatza*, los de Marquina, más bersolaris, más divos; parece que no consideran muy necesario el ejercicio del ingenio. Buscan y rebuscan la “redondez” del verso, se afanan en enriquecer la rima, en entonar bien las músicas, en encajar bien dentro de ellas las palabras, en adoptar poses y posturas. El resultado de todo ello fue que buenos bersolaris que eran todos ellos, consiguieron llegar a aburrir el público, mientras que en Munguía, con menos preciosismo por parte de los bersolaris, la gente se lo pasó en grande”.

Arrazoa eduki lezake Gabrielelek “gracia, salero, *piperra*, *gatza*,” eskatzen dituenean, eta ez “(...) Buscan y rebuscan la “redondez” del verso, se afanan en enriquecer la rima, en entonar bien las músicas, en encajar bien dentro de ellas las palabras, en adoptar poses y posturas” delako hau.

Gutziz interesgarritzat jotzen dugu Gabrielen “La sidrería y el convento / (O sobre cuál es la mejor escuela para un bersolari)” artikulua. Ez du hain begiko bertsolariek Markinako karmeldarren komentuan urtero egiten duten bilera. Erratua dakusa Baserri, zera dioenean: “Hasta la saciedad nos ha repetido (...) *Basarri* que por fin los bersolaris salieron “sagardotegi-txulotik”, *del agujero que es la sidrería*, y se aventuraron en empresas más encomiásticas, y que son ya dignos de la consideración y del respeto humano, como si antes hubieran sido malas bestias, réprobos o perversos corruptores de buenas costumbres. (...) los bersolaris van perdiendo su básico carácter, que no es, en contra de lo que tanta gente cree, la improvisación (aparte de que la existencia de la improvisación en los bersolaris es relativa, ya que mucho de lo que se tiene como tal, en realidad no es otra cosa que una gran memoria y una habituación cerebral al mecanismo de medidas y rimas), sino que dicho básico carácter

es su calidad de poetas sociales, de críticos de la sociedad, de denunciadores de vicios y corrupciones”.

Zorrotz agertzen du bere ustea bertsolaritzaz: “Desde que los bersolaris se han acercado al convento por dejar la sidrería, no creo que haya bersolari que se dé cuenta de cuál es su misión, de por qué y para qué compone y canta. Se dedican a hacer reír o hacer llorar, olvidándose de que lo que tienen que hacer, es hacer temblar. Verdaderamente *Lazkao Txiki* es un buen cómico, pero mejor lo es Gila. *Xalbador* es un gran lírico, pero me quedo con Paul Elourd (sic) o Blas de Otero. Pero, sin embargo, los bersolaris viejos no me dejan elección, me tengo que quedar con ellos o quedarme sin nadie”.

Ez du begi onez ikusten komentuko bilera hori, ez dena txirritarra: “Actualmente los bersolaris hacen su reunión anual en el convento de los Padres Carmelitas de Marquina. A semejante reunión no hubieran arrastrado a *Txirrita* ni atado (o a menos que le hubieran dado una buena *soldata*). *Txirrita* se hubiera quedado en la sidrería. (...) Ya murió *Txirrita* y *Basarri* los sacó de las sidrerías. Ahora se reúnen, como el precepto anual, por lo menos una vez al año, en un convento. Ya no son pueblo, ya están más arriba”.

Politika gaiak izango lirateke *Hierroko* Gabrielen Etxearen azken zutabea. Zenbaitetan, garaiko gertaeren oihartzun direla esango genuke. Lehen hauxe, adibidez: “El pasado año, que recuerde, se conmemoró con un brillante trabajo del embajador Areilza en la revista *Vizcaya* de la Diputación Provincial de nuestro viejo Señorío, el centenario de Sabino Arana y Goiri” idatzi ondoren, abandotarra ere “con la llamada Generación del 98” elkartzen du: “uno de los más típicos representantes de la citada generación del 98 española, es el fundador del separatismo vasco”.

Geure ustez, beste gertaera interesgarri bat Bilbo hiriaren handitzea da. Gabrielelek ontzat ematen duelakoan gaude: “Bilbao,

fundado sobre el hierro, villa mercantil y pujante, absorbió las tierras campesinas circundantes” ohar egin eta gehitzen du: “La expansión de Bilbao no ha terminado. (...) La industrialización del país exigía que la villa industrial se tragara unos Municipios de régimen de vida casi totalmente campesino y agrícola”.

Antza denez, garai honetan nahiko bizia da hirien eta elizateen arteko harremanez jardutea. (Mungiako bertsolari txapelketara doanean ere, han begiratzan dio bertan gertaturiko elkartzeari: “Cuando llegamos al centro mismo de Munguía contemplamos una fuente, la cual lleva una inscripción, que dice: “*Biak bat eta biena*” (“Las dos somos una, y yo soy de las dos”). Nos enteran que la fuente está enclavada en el lugar exacto que dividía las dos Munguías del pasado, la villa y la anteiglesia. Y que de allí nace el espíritu de la inscripción”).

Bilbo Handia izango den errealitate giza-politiko horrek zein izen edo deitura beharko luke?

“Mi amigo me dijo:

-¿Cómo llamarías entonces a la nueva gran ciudad: Ayuntamiento de la villa de Bilbao, y de las anteiglesias de Abando, Begoña, Deusto, Erandio, Baracaldo, Sestao, Basauri, de la villa de Portugalete, de las anteiglesias de Guecho, Lejona, Echévaurri, Lujua, Zamudio y así hasta aburrirse?

-No. La llamaría Ayuntamiento de la merindad de Uribe”.

Nor zitekeen ‘mi amigo’ hori?

Entzutetsuak gertatu ziren 1966an Bilbo hiriaren sorrera ospakizunak. *Hierro* egunkariak berak ere “Seireungarren urteurrena Gernika irasi ebala don Tello Jaun Kondeak” izenburua eman zion orrialde bati, letra handiz, apirilaren 21ekoan, eta gai horretaz idazten dute Gabrielelek, Carlos Magunagoicoecheak eta M. García Venerok. *Hierrok* berak dakarrenez (66.V.1), Gabrielelek

“conferencia en vascuence y sobre el tema *Gernikako Arbolari Juntetxearen espirituam* (sic) *eskeinitako poesi-erramua: Usadio zaharraetageroko* (sic) *esperantza*” eman zuen.

“Isabel de Vizcaya” artikuluan, Juana de Albretengana jotzen du: “(...) (a la cual debemos los vascos la primera traducción que de las Sagradas Escrituras se ha hecho a nuestra lengua vernácula, por encargársela al clérigo calvinista, natural de Briscus, en la Baja Navarra, Joanes de Leizarraga)”. Beronen seme “Enrique II de Navarra”k Frantziako koroa bereganatu zuen legez, gertatu eizen Isabel II. arekin: “Los vizcaínos nombraron señora de Vizcaya a una noble castellana, sobre la que después, por azares históricos, recayó la corona de Castilla, por nombre Isabel, madre histórica de la moderna España. (...) Podemos decir que no fue Vizcaya la que se unió a Castilla, sino que fue Castilla la que se unió a Vizcaya”.

Politika historikoaz dihardu, baita ere, “El traidor Ugarte / (Apuntes para un drama Shakesperiano en torno a las Juntas de Guernica)” delakoan, Sagarminagari (“historiador de nuestro Señorío, cuyo nombre lleva nuestra Biblioteca Provincial”) jarraiki: “el famoso estanco de la sal” dela eta, Bilbon urkatuak izan ziren Morga, Juan de la Puente, Vizcaigana anaiak eta Ajobaride “con lúgubre silencio y terror de la muchedumbre”.

Eta sail honetako beste bat “Reivindicaciones forales ¿para quién?” da, Laudioko Maderas Reunidas lantegian diharduenean idatzia: “(...) creo recordar -dio- haber leído que en el orden del día de algunas de las sesiones de nuestra Diputación de Vizcaya ha sido incluido este asunto”. Gipuzkoan ere, “*El Diario Vasco*, de San Sebastián, ha publicado últimamente dos editoriales, uno de ellos, particularmente, el, con el título “Reivindicación”, aparecido en su número del día diez de los corrientes, valiente y sereno”.

Eta galdetzen dio irakurleari: “¿El pueblo vasco saldrá beneficiado de la concesión del Concierto Económico?”, eta, zehazkiago, Arabagatik: “Tenemos el ejemplo de Álava; como muy cercana a Vizcaya, única de las provincias españolas que, con Navarra, goza de los privilegios del Concierto Económico. ¿Goza realmente el pueblo alavés, el pueblo llano, el pueblo humilde, el pueblo pobre, de alguna ventaja con este resto del régimen foral? ¿O son, por el contrario, las grandes Empresas industriales quienes sí se benefician, y sí grandemente, por lo menos en un pasado muy próximo, con jugosas exacciones en el Impuesto de Beneficios de Sociedades y Renta del Capital. Si la respuesta es negativa para la primera de las preguntas, y afirmativa para la segunda, ¿qué nos importa a nosotros, a mí, poeta; al portero de mi casa, al guardia municipal, al calderero, al mandrinador, al ajustador, al contable, al pueblo en general, la concesión de estos Conciertos Económicos, que únicamente pueden interesar al capital en el sentido de reducciones de su tributación fiscal?”.

Gabriel poetak beste arlo batera nahi du eraman Kontzertu hau: “(...) me atrevería a proponer que se llevara a cabo un Concierto Cultural de nuestras Diputaciones con los Ministerios que corresponda (Educación Nacional, Información y Turismo, etc.), al objeto de que al costado de toda la cultura castellana de Vizcaya y Guipúzcoa, escuelas, institutos, academias, colegios, universidad, prensa, radio, televisión, teatro, cine, etc., se fomente la creación en euskera (o si es necesario vascuence), de todos esos vehículos de culturalización del pueblo, para que nuestra lengua natural y vernácula goce de los modernos medios de difusión que contribuyan a su pervivencia. Y que si es necesario para costear el elevado importe a que ascendería este quimérico Concierto Cultural, se alce el porcentaje de los impuestos de beneficios del capital en la proporción que sea precisa”. Eta bukatzen du, umore puntu batez: “Aunque es seguro que muchos de quienes hoy solicitan la vuelta al régimen foral, traspasarían sus industrias a las provincias de Castilla. Con lo cual saldría ganando toda España”.

Bibliografia

En los intermedios del Concurso Vasco-Navarro de Ochotes	1962.IV.6
Comparaciones intempestivas: Michelena y Paramount	1962.IV.13
Naste Borraste: Auspoa X	1962.IV.18
Naste Borraste: Euskera (1961)	1962.IV.25
Las Bibliotecas bilbaínas y los Libros Vascos	1962.IV.27
“Los cuatro evangelios” traducidos por los frailes de Aránzazu	1962.V.9
Apellidos y Palabras Vascas	1962.V.11
Dos folletos alaveses firmados por Iksale y Bordazale	1962.V.23
Nombres vascos de localidades vizcaínas	1962.V.25
En el aniversario de la fundación de Bilbao	1962.VI.15
Dos números más de la colección Auspoa	1962.VI.27
Concurso de bersolaris en Mungía: ganó Juan Lopategui	1962.VII.17
Concurso de bersolaris en Marquina: venció José M. Arregui	1962.VII.21
Isabel de Vizcaya	1966.IV.14
La formación política del Señorío de Vizcaya	1966.IV.21
Bilingüismo en las Juntas de Guernica	1966.IV.28
El traidor Ugarte	1966.V.19
Reivindicaciones forales ¿para quién?	1966.V.25
Diccionarios de lengua vasca	1966.VI.18
Kriselu, grupo de Teatro Vasco	1966.VI.4

harrietaherri #50

- La incógnita escritura de un poeta analfabeto ... 1966.VI.11
- La sidrería y el convento 1966.VII.2.
- Homenaje a Kirikiño y a la cátedra de
lengua vasca 1966.VII.9
- La película Pelotari 1966.VII.16
- Esbozo de literatura vasca profana,
del Dr. Irigaray 1966.VII.19
- Analfabetismo y vascuence en Álava 1966.VII.29
- Hoy, poesía (Mesa Redonda) 1967.V.15

ARESTI, G., Euskaltzaindiaren ABA-TAU-Gutundegia artxihoan gordetzen den eskutitza.

ZALBIDEA, B., 1998, "La prensa del movimiento en Euskadi" in *Cuadernos de Historia-Geografía de Eusko Ikaskuntza*. 1998, 225-233. (euskonewsmedian ere).

ZELAIETA, A., 2000, *Gabriel Aresti. Biografía*. Zarautz (2. ed.).

GABRIEL ARESTIREN LITERATURA



Txomin Peillen

Paris, 1932

Maldan gora

Oraindik, amaren esnea darien idazle berri zenbaitek ziotek «Arestik ez du literaturan ondokorik izan». Euskal literatura haiekin hasi balitz bezala, alta Gabriel, jakin huen maldan behera, aranisten eta beste sakristauen idazkiak errespetu guziarekin irakurri ondoren, ez hintzela bide horretatik abiatuko. Behin aitortu hidan «Mirande ez banu irakurri ez nintzen euskal literaturan sartuko hain zen motza, murrizta, goibela, dotrina hutsa euskal literatura».

Geroztik gutarik anitz berdin hire ondotik etorri gaituk. Gabrielek ez bagintu euskaraz baita gaztelaniaz idaztera bultzatu eta maldan gora eraman argitalpenetan lagundu, ez nuen literatura horren sasietan jarraituko, ez eta euskaldun komunista eta ateo baten bizitza eleberri gai hartuko. Duela hogeitun urte hire oroime-nari hau bidali nioan:

Aresti

Bizi laburreko

euskararen arkangelu,

ez haiz Loramendian,

ez eta Iratze ederretan galdu:

hormigoiez bete olerki galtzadan,

hormigoiez estaliko den mendian

lorerik ez,

iratzerik ez

hik landatu haritzik ez.

harrietaherri #50

Hirekin batean, gogoan dizkiat bulego batean nozitu duzuen euskal idazleak: Jon Etxaide Donostian, Gipuzkoako mapetan eta garatu gabeko portuen marrazten; hi, Gabriel Aresti, Bilboko portuaren trafikoan paper belzten, olerki idazten edo gutun idazten jarduten ez huenean eta Jon Mirande Finantzetako bulego zikin batean. Zer *chupatintas* kondenatuak, zer ordu luzeak buka daitezzen zain eta urrunean erretreta. Balio al du bizitzeak baldin ez bada idazten?

Hire bizitza
Mahai bat,
idazmakina bat,
kadira bat.

Idazten, bai idazten eta konturatzen haiz, Gabriel, maite dituan txiroak, maite dituan baztertuak ez dutela hire euskara maitea ezagutzen. Uste huen gaztelaniaz itzulpena ipiniz hire mezua hobeki zabalduko zela eta apur bat lokartu burges txikiak ernatuko zirela, baina militantez kanpo erran hidan ez huela sinesleez besterik ukitu. Eta herria eta populua?

Malgizonen abenturismoa delako satiran ongi azaldu huen nolakoa zen eta bilakatzen ari zen euskal gizarte kontserbadorea herri xehe eta apalaren bizkarretik bizi zena eta bizi dena. Bai honela ikusten hituen euskaldunen burges ohitura zaharrak:

Otarraínak eta lanpernak jatea, xanpaina eta whiskia edatea eta *montediosak* erretzea, haiei bakarrik izanen zaie zilegi. Sopelako eta Bakioko txaletak haien jabetzakoak izaten segituko dute. Berdin yateak eta fabrikak. Eta gogo-*girlak* Eta zerbitzuko neska-meak. Eta *caddyak*. Eta eskeko pobreak. Eta eskeko fraideak. Eta meza emateko fraileak. Eta priora. Eta Guardianak. Eta guardianaren izeba Jaxinta, oraindik baserrian bizi denak...

(...)

Zeren jabetza pribatua sakratua da, eta Legezko ez- dakitzenbatgarren manamenduak (dotrina erdi-ahazturik dugu) hala baitiotsue: "Ez diguzue lapurtuko, guk zuei lapurtu dizueguna."

Gabriel, lagunak edo hobeki erran lankideak bahituen bulegoan baina lanak eman *panem* horrez kanpo *circences* bazuten: futbola

Lau lagun futbolaz hitz egiten
eta hi asperturik,
euskaraz edo erdaraz idazten.
Heurek joan den igandeko
San Mameseko
Balompie partidua
Goraipatuz gozatzen.
Hogeita hamar mila ikusle
Zer aintza!
Bi edo hiru aldiz gehiago
Sartuko ziren
Lekurik izan bazen.

Bilboko proletarioen hizkuntza gaztelania bada, ez duk espainol literatura hobeki ikusia, nahiz olerkariak goretsi. Liburu denda batean

Blas de Otero,
Hamar liburu saltzen
Bost biblioteki,
Hiru adiskideri,
Bi irakurleri
Jo ta ke! Aintzake
Non dira gizonak, olerkizaleak,
Buru bat dutenak
Berdin goibel
Berdin alai direnak?

harrietaherri #50

Gizon 'moderno' animaltasunera itzultzen da: zer poza batak irabazten besteak galtzen! eta umeen gisa apustu jokatzeko eta zakurrari hezurra kentzen zaion moduan fanatikoaren garaitza kentzen zaionean, atzaparka eta ausikika, ukabilka zerri eta tximino amorratuak beste taldeko etsaiekin borrokatzen. Oi futbolaren zibilizazio balioa!

San Mamesen
Tximinoen moduan
Baloari ostikoka,
hogeita bi lagun,
hogeita ta bi pizti
eta hogeita hamar mila
ume sogile.

Azken aldian elkar ikusi genuenean, esan nian Darwinek arrazoi zuela, tximino mota bat ginela. Eta hik erantzun: baina denak ez dira zuhaitzetarik jaitsi eta diot kirol talde horiekin zuhaitzak eraiki direla, jaitsi zirenak, berriz zuhaitzetara tximinoen gisa oihuka igo daitezkeen, aztoratu eta liluratu daitezkeen, bizitzaren gorabehera ahazteko: *Panem et Circences*. Eta gizabanakoak on egiten dion kirolaren jardutea gal dezan: besteak ikusiz askietsi dadin. Kirolaren ordeztu orroa eta txistu.

Eta hik Gabirel
Hor bulego beltzean,
Mirandek bezala
Etxaidek bezala,
Kanpoan eguzkia zenean
Edo euri freskoa turrustan,
Belarraren
Iraren
Loreenganako ganorea galdu.

Bakoitzak zenituzten zuen amildegiak, Mirande alkohol eta liburuetan itotzen zen, hi Gabriel "txinbo" Bilboko, Sestaoko, Barakaldoko kaleetan murgiltzen, etxean Europako beste olerkarien obrak irakurriz bizkortzen, Curros Enríquez eta da Portaren obrak itzultzen, aldiz Etxaide mendietan gora bulegoko asperra eta Donostiako jende artaldeari ihesi Zuberoako mendietan, udan Gipuzkoakoetan, larrazkenean.

Nola idatz gogoan zehar, ideiak gaudituz sentitzen huen herri baten irudi bat edo hobeki erran irudi ñabarrak eta nahasiak nola erakutsi. Bizkaiko Blas de Otero eta Galiziako Mendez Ferrin irakurriz eta ezagutaraziz. 1975. urtean *La poesía es un medio de educación de las masas* idatzi huen eta horregatik gure olerkari zaharrenak eta bertsolariak gogoko hituen, baita astolaster eta komedia idazleak, halere

Euskaldun asko oraindikan
Ez dira gai hire olerki ederrenak
Zein diren ikusten.
Askok, gaztelaniaz itzuli zirenak
Ederresten
Baina ez nuen uste
Maldan Behera itzuliko zela
Eta hain gaizki.
Bai ohoratua hintzen
Ulertua izan gabe,
ordu txarretako borrokaria.

Hizkuntza dela-eta batzuek nekez uler dezakete zein txiroa zen gure literatura profanoa eta zein zaila zen liburuak lortzea. Ibiñagabeitiaren bitartez nenbilen. Bai, bai olerki eredu Basarri izan nuen eta prosa eremuan gaur baztertuak diren Juan Antonio Irazustaren (1884-1952) bi eleberriak eta Jose Eizagirrenen eleberria (1881-1948); beraz orduko idazle askoren gipuzkera osotuekin saiatu ginen.

Gabriel Aresti hire bidea ez zuan hori izan. Jakina, Bilboko euskara bazenik ere ez hekien, aranisten euskara eta manexen *eskuara* ez hituen gogoko, eta gutun harremanetan jarri hintzen Iparraldeko neska batekin, Baigorrikoa zela uste diat. Hasieran, oso euskara txukuna huen eta antzerkietan agertzen duk, batik bat *Mugaldeko herrian eginikako tobera* delakoan, halaber euskara batura zeraman bidetik *Maldan behera* idatzi huen gizarte eta literatura baten aldaketa handia iragartzen zuena.

Denborarekin eta entzunik euskara erdi alferki ikasten zebiltzarenengandik kritikak, euskañolez idazten eman hintzen. Egia da horrelako hizkuntza badela lekuka Bizkaian, baina ez denetan. *Gorbeia*ko *artzainen esaundak* ikasleekin aztertu nituenean konTURATU ginen aditz guztiak gaztelaniaz zirela eta hiztegia ere, beraz Iparraldeko gehienentzat hebreera. Hizkuntza-populismoak ez dio irakurle gehiago ekarri euskarari, eta Europan inongo herrietan ez da egin. Berari esan nion eta euskararen muina bilatu dugunok ez dugula *nire* aitaren etxea esaten, *gure* aitaren etxea baizik, eta hori zuen Euskal Herriaz mintzatzean erran nahi.

Bitartean, aita Villasantek akuilaturik lapurtar klasikoan jarri zitzaigun Federiko Krutwig heleniko-euskara mota batean, Mirandeko kutsatua izan zen eta gipuzkera osotuan idatzi olerkiak aldaxue eta hik ere bide horretatik euskara aberastu huen; behin eleberri bat hizkuntza horretan eman nuen.

Literaturan ibiltzea finkatu gabeko hizkuntza batean iparrorraztik gabe bogatzea da. Gure ondoko belaunaldian uste dut aukera onak hartu dituztela. Arestiren ekarpena gaietan izan da. Nahiz ez duen zentsurarekin nahi zuena idatzi, euskal prosa behintzat ez da galdu frantsesa bezala, familiako eta idazlearen arazoak salatzen; besteak ere aipatzen dira, Historiaren errainuak eta zantzuak non-nahi agertzen dira eta gure herriaren gaurkotasuna aztertzen, bere akatsekin, itsukeriekin, baita hainbeste elkartasun-ekintzekin, hauek baitira gure balioak.

Antzerkia aipatu dudanez geroz, duela hoge bat urte idatzitakoa emango dizuet:

Gabriel
Azken aldian elkar ikusi genuenean
Gomutatzen zait,
oroitzen zait,
hire lagun gonbitea
'Datorren udan
Ean, itsas bazterreko herrian
Oporrak elkarrekin pasatuko
Ditiagu.
Bazekiat antzerki bat nola egin
Eta hik irudimena zeukak;
Bien artean idatziko diagu'
Ez zen Ean hori izan
Eritasunak
Heriotasunak
Eroan hinduan.

Gabriel, ez omen hintzen politika iritzietan argiegi izan! Bai, ez argiegi ezker/eskuin, espainol/euskaldun erradikal zenbaiten us-tetan, baina olerkari batek ez du alderdi baten zerbitzuan izan behar. Hire *Lau teatro Arestiar* liburuaren kontrazalean argita-letxeak jarri hitzengatik *Anaitasunako* ateak itxi omen zizkieten hala dio behintzat Anaitasunako zuzendariari bidalitako gutunean Errebistaren ideologiaren kontrako zer erranik ez nuela erran be-har. Orduan hau eskatu nuen: erran zekidala, ea zein gai ukitu behar ez nituen, eta zein uki ahal nitzakeen Ez nengoela ni batere konforme zentsurarekin; eskritoreari mintzatzeko libertatea uka-tzen baldin bazitzaion hobe zuela eskritoreak, klasikoen hiztegia taxutzea eta pinpilinpauxak bildumatzea.

Gabrielek ez zuen pinpilinpauxarik bildu baina klasiko baten hiz-tegia abiatu zuen, hots, Beskoitzeko Leizarragaren itzulpenekoak.

harrietaherri #50

Arazo berdina izan nuen *Gero* argitaldareekin, bakearen ize-
nean nik egindako antologiatik Miranderen hiru testu kendu zituz-
tela eta zentsuraren beharrezkotasuna Xabier Letek, tinta gorritz
idatzi gutun luze batean "argitu". Eiki, Arestiren kasuan ortografia
zailaren arazoagatik ez zituztela argitaratu haren lanak, liburu ba-
tean egin zitekeena, ezinezkoa omen zen aldizkari batean.

Beste behin, Elizaren inguruko norbaitek Arestiren liburu bat
zentsuratu zuen, baina gaztelerara itzuli ondoren, zentsore batek
besteak baino argiago zelako-edo, esan zuen bakean utzi behar
zela liburua eta idazlea, jende gutxi ulertuko zutelakoan eta gu-
txiagok jarraituko.

Gure Gabriel nahikoa minbera zen, nahiz batzuetan laudorio eta
irain batzuk umorez hartu. Naski, ez zuen ez EAJ-PNVko ez eta
Partido Comunistako kartarik baina famatu zen:

Españolista omen naiz, eta hori bekatu omen da Euskal
Herrian. Hala baitabilza Euskal Herriko asto guziak arrantzaka:
Aresti, puta-seme, españolista, marikoia, marxista, faltsoa! (Bai-
na gero nire poesiak firmatzeko ez dadukate batere disimulurik).

Gabrielen azken olerkia badator antzinako bertsolariet zerabilten
grafian eta antzean ia ez da bere buruaren ordenua baina euskal
gizarteari zuzendua, *Zortzi verso berri* :

Horra zortzi verso berri
Bost beltz eta hiru gorri,
aire gueldi honetan nahi dauzkizuet nik eçarri,
heuscaldunec ikas ditzaten adimendu-arguigarri.

Obreroa fabriketan
eztabila berriketan,
relogiuaz controllaturic nequez eta corriquetan:
gorde ahal ditezque haren icerdiac barriquetan.

Arratsean etcheraino
Dena da ke eta laino;
aire hotzic, ogui çuriric eztu hartzen egundaino.
vici-modu hoberic ezta obreroen hori baino.

Bitartean alcatetsa
Neguritic cer grandeça;
goico iaunac, cer poderio! Ceruetan har badeça;
andre horrec bere alçoan hartu çuen Unquiesal

Ferrol eta Erandio:
nork odola edan dio?
Gestapoac Granadan eztu eman ecer amodio.
Populua galduric dago eguia hau ezpadio.

Asperturic nago bakez,
Ogui belcez, bay eta kez;
bethi vici beharco badut hain tristeric eta nequez;
hobe nuque hiltzen banaute kaleetan tiro batez.

Burgesaren plommu hura
Bihotzean ez dut gura.
Galtzen bada herri xehea burgesentzat zer galdu da
ogui ordeç jan deçaçgula hartu dute ohitura.

Euzcadiri Espaignia
zer nolako konpainia
plommu berak bioi bizitza omen die kentzen ia
gerratean lagunak dira, ez gaitezin estrainia.

Gorazarre hau bihoa Gabriel Aresti adiskidearen oroimena-
ri, bera izan zitekeen gurekin eta nire adineko beste batzuekin,
baina esaten da belar ona gazterik galtzen dela eta belar txarra
zahartzenago.



Ana Maria Toledo

Antzuola, Gipuzkoa, 1954

Preziorik gabeko mailua
herriarentzat

Gabriel Arestik (1933-1975) *Harri eta Herri* (1964) argitaratu zuela mende erdia bete dela ospatzeak parada egokia eskaintzen du, urte horretatik aurrera mamitu zuen poesiari darion ikuspegia aztertzeko. Herriarekin duen etengabeko elkarrizketatik ernetzen da. Ez du marfilezko dorre batetik “aukeratuentzat”, “guxiengoentzat” idazten, aitzitik, herriaren hitza iturri ubide horretatik jasotako hitza jorratu eta, eragiketaren ostean, berriro ematen dio. Ez dago salerosketarik, bere poesia ez delako salerosgai: debalde hartutakoa, debalde bihurtzen du, *Harri eta Herrin* “Profeta bati (Jurgi Oteizari azaldu nahirik)” izenburutzat daraman poeman esan bezala:

Nire poesia oso merkea da, / Herriaren ahotik hartu nuen /
debalde, / eta debalde ematen diot / herriaren belarriari.¹

Baina, bere poesia merketzat jo arren, dohainik herritik beretu eta atzera herriratu arren, herriaren karruselean dantza egin arren, jasotakoa eta itzulitakoa ez dira berdinak: tartean poetak landu du. Hutsaren truke jaso eta bihurtzen du, ez horregatik eskuratutako moduan, baizik eta egituratu ondoren. *Azken harria* (1979) idazlaneko “Berriz hitzaren jabetzaz” poesian dioenez,

1 Aresti, G., 1969, *Harri eta Herri. Piedra y Pueblo*, Bilbao: Gráficas Ellacuría, 2. argitaralpena, 104. Aurrerantzean egingo diren aipamenetan HH laburdurarekin izendatuko da.

harrietaherri #50

Baina poetak / hitza / herriari bihurtzen dio, / hiztegi batetan / bildu ondoren, / ama erditu-berriak / ume jaio berria / bera izorratu zuen / aitari / ematen dion / bezala.²

Poetak, Jainkoaren era berean, ezerezetik sortzen zuela uste zuen Erromantizismoaren garaia aspaldi iragana da. Poetak ez du hutsetik sortzen. Arestik herriaren ahotik bildutakoa egosi eta eratzen du. Beraz, herria sorkuntzan kide duela esan daiteke.

L. Goldmann-entzat,

el carácter colectivo de la creación literaria proviene del hecho de que las *estructuras* del universo de la obra son *homólogas* a las *estructuras* mentales de ciertos grupos sociales o en relación inteligible con ellos, mientras que en el plano de los contenidos, es decir, de la creación de mundos imaginarios regidos por estas estructuras, el escritor tiene una libertad total.³

Aurreraxeago, berriz,

las categorías mentales no existen en el grupo más que en la forma de tendencias más o menos avanzadas hacia una coherencia que hemos llamado visión del mundo, visión que el grupo no crea, pero de la que elabora (y sólo él puede elaborar) los elementos constitutivos y la energía que hace posible su reunión. El escritor importante es precisamente el individuo excepcional que consigue crear en cierto campo, el de la obra literaria (...) un universo imaginario, coherente o casi rigurosamente coherente, cuya estructura corresponde a aquella hacia la que tiende el conjunto del grupo. (226-227)

Literatur idazlana ez da banakoaren sorkuntza, idazlanak adierazitako munduaren egiturak gizatalde batzuen buru-egiturekiko homologo direlako. Idazle handiak beren gizataldeko mundu-ikuskerara arte bihurtzea lortzen duten ohiz kanpoko gizabanakoak

2 Aresti, G., 1979, *Azken Harria*, Donostia: L. Haranburu Editor, 44. Aipamenetarako erabiliko den edizioa da. Aurrerantzean, AH akronimora laburtuko da.

3 Goldmann, L., 1975, *Para una sociología de la novela*, Madrid: Editorial Ayuso, 226.

dira. Arestik ere ez dauka bere idazlana gizabanako soilaren sorkuntza legez:

Herriaren karruzelean dantza egiten badut, / Nola izanen naiz
otso bakarti bat? (HH, 112)

Arestian aipatutako “Berriz hitzaren jabetzaz” poesian agertu-
takoaren arabera, jabego bakarra du poetak:

Hitza bakarrik da / poetarena: / Hitza eta hitzak. (AH, 44)

Halere, aitortutako jabegoaz berehala desjabetzen da, herriari emateko. Hau da, herritik jasotako hitza landu eta, ondutakoaren jabegoarekin gelditu gabe, langai-emaileari itzultzen dio. Bere egitekoa, amarenarekin konparatzen du poetak; herriarena, oste-
ra, aitarenarekin. Aitak ama ernaltzen duen moduan, herriak poeta
ernaltzen du eta, ernaldutako amak haurra sortzen duen moduan,
herriak ernaldutako poetak “superhitza”⁴ sortzen du. Honela
bada, Jainkoak bezala hutsetik sortzerik ez izanagatik poetak, er-
naltzen dutenean sortzaile bilakatzen da. Herria da Aresti poeta
ernaltzen duena. Herria jatorri duen hitza bide, poesia sortzen du
herriarentzat. Horrenbestez, gizatalde batzuen buru-egitura hartu
eta, hauen mundu-ikuskerara arte bihurtzeko gaitasuna duen ohiz
kanpoko banakotzat jo daiteke.

Ezohiko gizabanako hori, sexu femeninoko hautematen du eta,
herria, aldiz, maskulinoko. Sexu femeninoaren bereizgarria sor-
tzeko ahalmenari lotzen dio. Sexu femeninoaren bereizgarri
biologiko horren jabe izateaz gainera, genero femeninoari ego-
tzitako rola ere betetzen du poetak, emakumezkoarengandik
espero den portaera erakutsiz. Mendez mende Mendebaldea
eraikitzen joan den kulturaren “eman” andrearen ekintza izan da,
honek emandakoa “jasotzea”, gizonezkoarena izan den bitartean.

4 R. Barthes-ek “écrivain” eta “ecrivant” bereizten ditu. “Écrivain”-en hitza “es una materia (infinitamente) trabajada; es un poco como una super-palabra”. Barthes, R., 1977, *Ensayos críticos*, Barcelona: Editorial Seix Barral, 179.

harrietaherri #50

Beraz, poetaren jokabidea ematea eta herriarena hark eman-dakoa jasotzea den aldetik, historian barrena andrezkoek eta gizonezkoek eraikitako estereotipoak jarraitzen dituzte batak eta besteak, poetak eta herriak.

1. Poesia: mailua

Herriak ernaldutako poetak sortutako eta “erditutako” sorkaria-ren sexua zehazten ez bada ere, badirudi kulturalki genero maskulinoari egotzitako ezaugarrien eramaile dela. Behin baino gehiagotan, poetaren sorkaria mailuarekin uztartzen da:

Esanen dute / hau / poesia / eztela, / baina nik / esanen diet
/ poesia / mailu bat / dela. (HH, 72)

Mailua indarraren eta ekaitzaren jainko mitologikoen ikur bihurtzen da.⁵ Indarra, fisikoa behintzat, genero maskulinoari egotzi zaion berezitasuna da.

Noizbait dimisioa aurkeztera iritsi izan zen poetak, dimisioa balio-gabetuz, bertan behera lagatako zereginari berriro heltzen diorean, mailutat dauka herriratzen duen hitza. Kantabriako itsasoa kolpatzen duen mailua da:

Nik / poetatzatik / dimisioa / presentatu nuen / kantsazioaren
aitzakiarekin. / Baina nola aitzakia hura gezurrezkoa zen, / berriz
ere artu nuen eskuan mailua, / eta Kantabriako itsasoa jo dut
kolpeka. (HH, 120)

5 “El martillo (...) se convierte en el emblema de los dioses mitológicos de la fuerza y la tempestad. En la simbología religiosa –usado para clavar a Cristo en la Cruz– es instrumento de la Pasión y emblema de la Crucifixión.” Pérez Rioja, J. A., 2008, *Diccionario de símbolos y mitos*, Madrid: Editorial Tecnos, 308.

Jotzea, jotzera bultza dezakeen oldarkortasuna, portaera maskulinoari lotu izan zaio Mendebaldean eraturako kulturari.

Harrizko Herri Hauko (1970) "Azken euskaldunaren heriotzea. Xabier Leterekin batean" bi hizkuntzetan paratu zuen. Euskaraz hasi eta, euskaldunen hizkuntza inork ez diolako ulertzen euskal bertsoan erdara erabiltzera behartuta dagoela gaineratu ondoren, bere ahotsaren ezaugarriak adierazten ditu gaztelaniaz:

Mi voz es un martillo, / negra poesía, / palabra firme y llena /
de feroz hombría, / que repica en tus clavos, / dulce madre mía,
/ y, mientras te golpea, / sufre tu agonía.⁶

Bere ahotsa den mailua, hitz irmo eta gizotasun amorratuz bete da. Indarra, irmotasuna, gizotasun amorratua, genero maskulinoaren bereizgarritzat hartu izan dira.

Mailua errementariaren berezko lan-tresna da. Errementaria poeta madarikatuarekin eta mespretxatzen den igarlearekin parekatzen da. Indiako antzinako testu sakratu batean, *Rig-vedan*, munduaren sortzailea errementari bat da.⁷

Mailua aldi berean da lan-tresna sortzaile eta suntsitzaile, bizitza eta heriotza lanabes. Poetak, mailuarekin Kantauri itsasoa jo du kolpeka. Chevalier-entzat itsasoa, "símbolo de la dinámica de la vida" da. Guztia itsasotik ateratzen da eta hara itzultzen: jaiotzen, eraldaketen eta birjaiotzeen lekua da.⁸ Hortaz, Kantauri itsasoa mailuz kolpatzen badu, honen bizitza eraldatzeko asmoz egingo du.

6 Aresti, G., 1970, *Harrizko Herri Hau*, Donostia: Lur, 103. Aurrerantzean HHH akronimoaren bidez izendatuko da.

7 "Hay una estrecha unión entre metalurgia y alquimia: el herrero está asimilado al poeta maldito y al profeta despreciado, según Alleau. En el Rigveda, el creador del mundo es un herrero." Cirlot, J. E., 2007, *Diccionario de símbolos*, Barcelona: Siruela, 247. Arestik ere poeta madarikatutzat dauka bere burua. Aipatu berri den bertsoan, "El poeta maldito / no puede quererle" (104) dio Euzkadirekin dituen harremanez.

8 Chevalier, J.; Gheenbrant, A., 1995, *Diccionario de los símbolos*, Barcelona: Herder, 689.

harrietaherri #50

Bere ahotsa mailu omen, “negra poesia”. Kolore beltzaren sinbologia oso zabala da. Kolore bat baino gehiago, kolore guztien ukazioa dirudi. Heriotzaren, doluaren sinbolo da. Kristautasunaren sinbolismoan Ilunpeko Printzearen kolorea da... Haatik, “el negro es también la tierra fértil, receptáculo de la semilla que no muere del Evangelio”.⁹ Heriotzaren, lurraren edo mistikoen gaueko zeharkaldien irudi bezala, kolore beltza bizitza berritu baten promesarekin ere uztartzen da: gauak egunsentiaren promesa eta, neguak udaberriarena daukan bezala¹⁰. Beraz, Arestiren “negra poesia” hau, mailu duen ahotsarekin gizarte-egitura berri bat eraikitzeko, bere garaikoa iraultzen jardutearen metaforatzat uler daiteke.

Esaten duenez, ama eztiaren iltzeetan jotzen ari da mailuarekin. Amaren sinbolismoa itsasoarenarekin ez ezik, lurrarenarekin ere, harremanetan dago honako alderdi honetatik bederen: bata zein bestea bizitzaren umontziak dira. Amaren sinboloa itsasoaren eta lurraren sinboloek barneratzen duten baliobitasun berberaren jabe da: bizitza eta heriotza elkarren hurreneko, korrelatibo dira. Jaiotzea amaren sabeletik irtetea da; heriotza, lurrera itzultzea. Ama babesaren, berotasunaren, samurtasunaren... ziuertasuna da, baina, kontrara, izan ere bada, zapalkuntza-arrisku, inude eta bide-erakusle izatearen eginkizunetan gehiegi luzatzeak eragin dezakeen itomenagatik.¹¹

“Dulce madre mía” metaforaren erreferentea Euzkadi da. Metafora hau jasotzen duen ahapaldiaren aurrekoan argitzen du:

Euzkadi, madre mía, / no puedo quererte, / pues sólo me prometes / sufrimiento y muerte. / Más sufriendo y muriendo, / he de defenderte, / a golpes de un martillo / vigoroso y fuerte.
(HHH, 103)

9 Chevalier, J.; Gheenbrant, A., op. cit., 749.

10 Chevalier, J.; Gheenbrant, A., op. cit., 750.

11 Ik. “ama” sarrera Chevalierren hiztegian, 674-676.

Arestiren ahotsa den mailua Euzkadi iltzatzen ari da eta iltzatzen diharduela Euzkadiri sorrarazten dion agonia berbera pairatzen du poetak. Arestiri bere ama Euzkadik oinazea eta heriotza berterik ez dizkio agintzen. Sufrituz eta hilez defendatzera doa Euzkadi. Horretarako arma du mailua den bere ahotsa. Ahots horren bidez, bere egunetako Euzkadi iltzatuko du, Euzkadi¹² berri bat jaio dadin. Euzkadiren heriotzatik birjaiotako aberriarentzat Euskal Herria izendapena egokiagotzat ote zuen?¹³ Ezin maita

12 Litekeena da Arestik ez deitzea Euzkadi, ezagutzen duen gizarte moduaren heriotzatik birjaiotako aberri berria. "Zenbait euskal seme abertzalek beren herriari jarritako izen berria" adieraziz azaltzen zuen *Batasunaren Kutxak* "Euzkadi" sarrera. Ik. Euskal Idazleen Elkarte, 1970, *Batasunaren Kutxa*, Donostia: Lur Editoriala, 143. Luis Mitxeleneraren agintaritzapean hartutako erabakien gainean Gabriel Arestik eta Xabier Kintanak moldatutako liburu horretako hitzaurreetako batean, "Hitzen esplikazioa Kintanak tajutu du, eta azken ukitua Arestik eman dio" (10), esaten denez, argi dago Arestirentzat Euzkadik zuen esanahia. Ez zu(t)en arrazoi-faltarik. Sabino Aranaren eskutik datorren neologismoa jatorrian, hark sortutako alderdi politikoko kideek eta aldekoek bereganatua dute. Dena den, gakoa ez da hiztegi mailakoa soilik. Izan ere, XX. mendearen 60. urteetan behintzat, denotazioaren eremua gaindituz, konnotazioarena jadetsia du. Aberria izendatzeko Euzkadi erabiltzeak ez du adierazten neologismo batez baliatzea bakarrik, baita kontzeptu politiko, sozial eta kultural jakinarekin bat egitea ere. Bestelakoa da Arestiren ikuskera, oso bestelakoa: terminoaren zuzentasun linguistikoaz izan zezakeen iritziaz landa, terminoak irabazia duen zama ideologikoak ez du erakartzen. Neologismoak jasotzen dituen bigarren mailako esanahiek urruntzen dute, izenak lurralde jakin bat izendatzeaz gain, abiapuntu eta oinarri soziopolitiko zehatzak ere biltzen dituelako. Horregatik, ez da harrigarria ahotsa duen mailua Euzkadi hiltzeko erabiltzea, ezta honen heriotzatik birjaiotako aberriako beste izenen bat hobestea ere, neologismoak konnotazio-mailan eskuratutak dituen esanahiengatik: izenak izan ezaguna barne hartzen du.

13 *HHn* ez da agertzen Euzkadi terminoa. Aurreneko aldiz, behin baino ez bada ere, *La piedra vasca. Euskal Harrian* (1967) azaltzen da. Halaber, erabilera bakarrekoak diren "Euskalerria" ("Lau gorazarre" poeman "Euskalerrri maitagarriari" bertso-lerroan, 87) eta "Euskadia"rekin batera ("Harri eta Herri" poeman "Euskadiako mendiak" bertso-lerroan, 93). "Boza bostgarren" izenburutzat daraman poeman darabil "Euzkadi" ("Hau ez da Euzkadi; hau da Gaztela" bertso-lerroan, 144). Gero jarraipena du *HHHn* eta *AHn*. Beraz, lau idazlan poetiko hauetako azken hiruretara darama Euzkadi neologismoa. Euskal Herria / Euzkadi terminoez baliatzeko moduari buruzko azterketak bakarrik eman ditzake ondorio fidagarriak. Bataren eta bestearen erabilera sinonimiaren mailan kokatzen duen batzuetan, edo beti, ala ñabariduraren batek bereizten dituen behatu beharko litzateke, ez baitago alde batera uzterik Euzkadi esanahi politiko baten jabe dela eta Euskal Herria adiera politikoetatik kanpo gera daitekeela, euskaraz mintzo den hiztun-komunitatea izendatzeko eginkizun soila ere izan dezakeelako.

Beste bat izanik jardunaldi honetarako hautatutako aztergaia, ezin sakondu gehiago gai berriari, baina bego, oraingoz, Euskal Herria terminora baino ez zuela jo *HHn* eta idazlana osatzen duten lau parteetan egin ziola leku:

Lehen partean, "J): Entzun nahi didanari..." izenburua daramanean, "Euskal herria mundu agirre da", 40.

Bigarren partean, " Y): Gauza bat dago / haltuetatik / Euskalerria / zaintzen duena: / Axularren begia", 74.

Hirugarren partean, "E): Axularrek / eman zion / Euskalerrri / itzala", 84, edo, "F): (...) / Bularrak moztu zizkaten eta / Euskalerrriak diotsa / Solomo luze dultzerik gabe / Eman zaidazu bihotza", 84, edo, "Q): Profeta bati (Jurgi Oteizari azaldu nahirik)" izenburu daramanean, " (...) / Bilboko zorriak / Euskalerrri guztira / sakabanatu dira", 118.

Laugarren partean, "A): Astepeko sekretarioaren bertso berriak" sailean dioenez, "Euskalerrriari ez det ikusi / oraindik bide zuzenik", 137.

harrietaherri #50

dezakeen Euzkaditik maita dezakeen Euzkadira ala, beharbada, izenez ere aldatuz, Euskal Herrira¹⁴ igarotzea bilatzen du. Edozein kasutan, zeinahi izenez izenda zezakeela ere birjaiotako izaki hori, izaki berrian poetak duen itxaropena da azpimarragarriena, gazteleraz idatzitako ahapaldi sail honen azkenak iradokitzen duenez,

En las manos del viento / dejo mis asuntos. / Quiero yacer contigo. / Moriremos juntos. (HHH, 105)

Elkarrekin hil eta, nolabait esateko, gisa honetako hilartitz bat bideratu: hemen dautza ama Euzkadi eta honen seme poeta. Aipatutako lehen bi bertso-lerroetan, ordea, haizearen esku utzi ditu poetak bere kontuak eta tradizio biblikoan, haizea “es sinónimo del soplo”, arnasa sortzailea, betiere; bizitzaren hasiera.¹⁵ *Hasierak* kontatutakoaren arabera, Yahvek gizona sortzeko sudurrean haizea ufatu zion eta bizigabea zen gizona arima bizidunarekin piztu zen.

Birjaiotze-prozesu oro esperientzia mingarria da. Baita hau ere.

Mailu duen ahotsa lur eta itsaso zehatzak kolpatzeko ditu: Euzkadi eta honen itsasaldea bustitzen duen Kantauri itsasoa. Paratutako poesiarekin bizileku duen aberria itxuraldatzea du xede.

Hala, poetak erditzen duen sorkaria, historikoki genero maskulinoari egotzitako rola bereganatuz, indar eraldatzaile baten eramaile da. Hiztegi batean bilduta herriratzen duenak aldaketak

14 Aurreko oin-oharrean aipatutako “Q): Profeta bati (Jurgi Oteiztari azaldu nahirik” konposiziotik jasotako bertso-lerroetara heldu baino lehen, honakoa ere esana du: “ (...) / Nirekin dagoena / Euskal Herriarekin dago, ni harekin bainago”, 110. Dena den, Euskal Herriarekin dagoela aitopenetik ezin ondoriozta daiteke, Euskal Herria Euzkadiren heriotzatik birjaiotako aberria denik; izan ere, leku berean, aurrerago, dioenez, (...) / Hemen gertatzen dena / kontatu behar dut. / Zortziko nagusian / kantatu behar dut. / Gure Euskal Herria / sendatu behar dut”, 126. Alabaina, Euzkadi hil beharra adierazten duen poetak sendatu beharra baino besterik ez du hautematen Euskal Herrian. Nolanahi ere, jadanik aditzera emandakoa gogorarazi behar: Arestiren obra poetiko osora hedatutako Euskal Herria / Euzkadi izendapenen erabilaren azterketatik bakarrik lor daitezke ondorio sendo batzuk.

15 Chevalier, J.; Gheenbrant, A., op. cit., 1070.

ekar ditzake amatzat daukan Euzkadira. Poetak landutako hitza-
ren boterea da.

R. Barthes-ek 'écrivain' eta 'écrivain' bereizten ditu bakoitzak
betetzen duen eginkizunaren arabera: "*la función del 'écrivain'*
es decir en toda ocasión y sin demora lo que piensa."¹⁶ Honen
aurrean, "la función social de la palabra literaria (la del 'écrivain')
es precisamente la de *transformar el pensamiento* (o la concien-
cia, o el grito) en *mercancía* (184). Arestiren poesia mailu bat
da, poetaren ahotsa mailu bihurtzen da eta, lanabes honi esker,
eralda dezake Euzkadin indarrean dagoen pentsamendua: bere
baitan helburua duen sorkaria gabe, jomuga jakinaren menpe
dagoena da: kolpatzeko darabilen tresna betetzen ez duen abe-
rria hil ostean beteko duena birjaio dadin.

Gauza jakina da marxismoak literatura gainegituran lekutu zuela,
baina egituraren eta gainegituraren arteko harremanak zehazte-
rakoan, bada ñabardurarik beren burua marxistatzat jotzen dute-
nen artean. Bada, islapenaren teoriari eutsi dioenik. Hau da, egi-
tura edo oinarria une historiko batean gizarte baten antolamendu
ekonomikoa eratzen duen produkzio-harremanen multzoak osa-
tzen badu eta gainegitura une historiko hori ezaugarritzen du-
ten erakunde eta ideien multzoak, hauek, egitura, antolamendu
ekonomikoa islatuko lukete. Dena den, mekanismo horretatik
lerratu zenik ere aurki daiteke. Engels bera, kasu, egiturari eragin
erabakigarria atxiki arren:

No es cierto que la relación económica sea la única activa y
que todo el resto no ejerza más que una acción pasiva. Al con-
trario, se trata de una acción recíproca sobre la base de la nece-
sidad económica que es, en última instancia la determinante.¹⁷

16 Barthes, R., op. cit., 183.

17 "Carta de Engels a Hanz Starkenburg, 1894". Ik. Garasa, D. L., 1973, *Literatura y Sociología*, Buenos Aires: Editorial Troquel, 47.

harrietaherri #50

Nahiz eta teoria marxistak kulturak bakarrik historiaren ibilbidea alda dezakeela ukatu, ez du eginkizunik gabe uzten gizarte kapitalistan:

En la sociedad capitalista, la cultura se transforma en mercancía y es deformada por la ideología; a pesar de todo, puede todavía ir, parcialmente, más allá de estos límites. Puede aún ofrecernos un tipo de verdad –no naturalmente, una verdad científica o teórica, sino la verdad de la forma en que los hombres sufren sus condiciones de vida, y cómo protestan contra ellas.¹⁸

Kritika marxistaren ezaguera handiegirik ez duenak ere jakin badaki zer eskatzen dion idazleari: bere artea langileriaren kausaren alde jartzea. Ildo horretan dabil Aresti.

Izaera pasiboa, harkorra, egotzi izan zaio herriari, heroiaren, buruzagiaren, aitzindariaren aurrean. Gizonezkoari eman izan zaion rolez ezaugarriturik datorren poeta-amaren sorkariak herria pasibotasun horretatik ateratzeko ahalmena eraman dezake: bide-erakusle bihur daiteke.

2. Preziorik ez duen poesia

Arestik hartzailea aukeratuta dauka eta hau gogoan hartuz ekiten dio bere lantegiari. Herriarengana iristea ahalbidetuko dion moduez baliatzea ezinbesteko du. Hartzaile duen herriaz duen irudira egokitzea nahitaezko baldintza da komunikazioa eraginkorra izan dadin. Igorlea da hartzailearen ezaugarrietara moldatu behar duena:

Eztakit nola atrebitzen naizen / honela eskribitzera, / euskera klaro batean, / euskal garbi honetan, / Nik nahiago nuke, / egiaz

18 Egleton, T., 1978, *Literatura y crítica marxista*, Madrid: Zero, 89-90.

diot, / holako hitz zakarrrik ez erabili, / ni ere garbi-zalea bainaiz / (...)/ Baina hola gertatu da, / eta nik eztut kulparik. / Nire lekua dago / herriaren aldean. (HH, 108)

Edonork uler dezakeen mintzaira erabiliko du.

Garbizaletasunaren gaia pil-pilean dagoen garaian idazten du. Arautu eta normalizatu gabe dagoen euskararentzat ahalik eta hauturik garbienak egitearen aldeko den gizataldetik urrutiraturaz, garbizaletasuna baztertzen du: beste gizatalde bati zuzentzen dio ahotsa, herriari, eta honek garbizaleen euskara ezezaguna duenez, garbi du ez liokeela ulertuko. Bere poesia elikatzen duen herriak ez ditu ezagutzen tradizio zaharretik berreskura zitezkeen hitz garbiak edo eguneroko mintzairan bizitarik ez duten hitz berriak... Herria hartzaile izanik, honek beregana dezakeen mintzairaz baliatu behar du: mintzaira argia, garbizaletasunak ekar dezakeen iluntasuna, ulergaitasuna, saihestuz.

Mintzaira argia, eduki apalak, errazak, igortzeko. Nola esana, hala esateko modua, galga berean kokatzen dira: herritar ororentzat eskuragarri. Forma eta edukiak maila berean egon behar dute. Hegel-ek adierazi moduan, “todo contenido concreto determina una forma adecuada al mismo.”¹⁹ Hegel eta Marx bat zetozen eduki zehatzak forma erabakitzen zuela baiesterakoan: edukien aldaketak forman eragiten du. Herriarengana heltzeari ematen dio lehentasun osoa. Poetak badaki ezarri duen lehentasunak kostuak dituela eta ordaintzeko prest dago:

Gauza zelaiak, / errezak / edonork konprenitzekoak, / esan behar ditut; / azalduko naiz / Bizkaiko / gizonik / tontoena, / baina, hala ere / hatzamarra / eztit / inork / ahoan / sartuko. / Ezta ausartuko / listoa. (HH, 80)

Aurrenik aipatu den “Profeta bati (Jurgi Oteizari azaldu nahirik)” poesian, jadanik aurka jarria zuen Oteizaren “mintzaira” eta berea:

19 Hegel, *Filosofía de las bellas artes* (1835). Eagleton-ek aipatua, 40.

harrietaherri #50

Egia da Oteitzaren eskultura eztudala / nik konprenitzen, /
baina ni eskolarik gabeko gizon bat naiz / eta hori ez da harritze-
koa. / Baina Jurgi Oteitzak nire poesia konprenituko du, / duda-
rik gabe, / gauza errezagorik ezpaita inoiz / gizonaren eskutikan
atera. / Jurgi Oteitzaren eskultura konprenitzeko / bista luzearen
(sic) behar da, / baina nire poesia konprenitzeko / ezta behar /
belarri zorrotzen (sic), / agian / harek listoentzat eskulpitzen zue-
lako, / eta nik / tontoentzat / eskribitzen / dudalako. (HH,104)

Jurgi Oteizaren eskultura ulergaitza egiten zaio. Itxura, Oteizaren obra artistikoa beste gizarte-geruza bati zuzentzen zaio: poetak ez dakusa, ez bere burua, ezta bere poesiaren jasotzailea ere, gizarte-geruza horren parte. Iritsi nahi duenengana iristeko eragozpenik ipiniko ez dion mintzaira nahitaezko du. Hartzailea, herria, adimen gutxiko edo gabekotzat jo izan dute beren burua adimen handiagokotzat daukaten goragoko gizarte-geruzatakoek. Horregatik, tontoentzat idazten duelako, sor lanak tontoak dituelako hartzaile, ez dio axola Bizkaiko gizonik tontoen legez azaltzea. Eskolarik gabekotzat agertuz, tontoa den herriaren parean jarzen du bere burua. Herria deitzen duen giza multzoarekin bat egin nahiak beraietako bat bezala aurkeztera darama: poetak ere ez du ulertzen Oteizaren sorkuntza; bera ere eskolarik gabeko gizona da. Alabaina, badu ezaugarri bat herri deitzen duen giza multzotik bereizten duena: tonto hau ez da listoen beldur. Listoei aurre egiteko gauza da. Eskolarik gabea izan arren, Bizkaiko gizonik tontoen moduan ezagutzera eman arren, sortzailea ez da listoen erasoen beldur. Azken batez, modu esplizituan adierazi ez izanagatik, bere poesiaren hartzaile den herriak ez duen ahalmen edo botereren baten jabe da tontoentzat idazten duen poeta hau. Ahalmen edo botere horrek listoen aurrean hesia ezarri eta, babestu egiten du.

Hala, aske sentitzen da sortzailea. Bere hitzak, bere sorkariak, ez du merkataritza-baliorik:

Hemen bakarrik gauza bat dago / inork saltzen edo erosten eztena / eta hori da / Gabriel Arestiren poesia, / Hain merkea baita / ezen ezten preziorikan. (HH, 122)

Baliobitasunari etekina ateratzen jarraitzen du. Mailua, kolore beltza, itsasoa edo ama sinboloen baliobitasunarekin jokatu duen poetak baliobitasun berri batera jotzen du, preziorik ez izateak, debaldekoa izatearen esanahiarekin batera oso balioetsua izatearena baitu. Hain baliotsua non preziorik ere ezin jar dakioken.

Idazlana, arte-obra oro bezala, salerosgai bihurtzen da, eskaintza eta eskaeraren arteko legeen menpeko. Honela bada, zeregin sortzailea ere merkatuaren eskakizunetara makurtzen da. Jakinarren gainean dago Aresti:

Hemen orok du bere prezioa: / Eskeinduera eta eskatuaren erreinua da hau. / Hemen Jurgi Oteizaren eskulturak ere, / Agustín Ibarrolaren pinturak ere / Gabriel Zelairen poesiak ere, / saldu eta erosi egiten dira. (HH, 122)

Aipatu egileen adierazpen artistiko desberdinak salerosgai direla aitortu eta gero, jarraian, berearengandik bereizten ditu. Bereizterakoan ez ditu alderagai izendatu dituen artisten sor lanak soilik, baizik eta gauza oro: Arestiren poesia baino ez da geratzen merkatutik kanpo, salgai ez den produktu bakarra delako.

Merkatuak prezioaren arabera erabakitzen du arte-obraren balioa. Balioa eta prezioa berdintzen dira. Beraz, "erabilera-balioetik" "truke-baliora" igarotzen da. Marx-ek dioenez, "como valores de uso las mercancías son, ante todo, de cualidad distinta, pero como valores de cambio, sólo pueden ser diferentes en cantidad."²⁰

20 Marx, C., 1970, *El Capital*, Buenos Aires: Editorial Claridad, 8. argitalpena, 23. G. Devillek laburtua.

Marxen aburuz, kalitatearen aurrean kantitateari nagusitasuna emanaz, gizarteak ekoiztutako produktu guztiak merkatuko sale-rosgai bihurtuz, artearen aurkakoa da gizarte kapitalista.

Kulturaren merkatuan indarrean dauden balioei arrotzak zaizkien balioak adierazten dituen arte bat sor daiteke gizarte garatu batean eta, itxuraz paradoxikoa den egoeran kausitu, sistemaren aurka egiten duten, sistema suntsitzea xede duten arte-obrak truke-balioa hartzera iritsi direla sumatzean. Oteizaren eskulturak, Ibarrolaren pinturak eta Zelaiaren poesiak kulturaren merkatuan indarrean dauden balioei arrotzak zaizkien balioak adierazten dituzten sorkuntzak dira, zalantzarik gabe, Arestirentzat; baina, guztiarekin ere, sistemaren aurka egiten duten arte-obra hauek truke-balioa izatera heldu dira. Ez horrela, berea, hain merkea izanik, preziorik ez daukalako.

Erkatzen dituen sor lanak bitarteko desberdinak baliatuz burututakoak dira. Hiru sortzaile horietako batekin baino ez dator bat erabilitako bitartekoan, Gabriel Zelaiarekin, hain justu: biak mintzaira dute lanabes. Lantzen duten hizkuntzak banatzen ditu, ordea. Zelaiak hizkuntza ofizial batean ontzen du bere poesia. Ofiziala ez ezik, ozeano Atlantikoaren bi alderdietara hiztun komunitate zabalek komunikazio-tresna dutena da. Bistakoa da merkatura begira Arestik eta Zelaiak jorratzen dituzten hizkuntzak ez daudela parean. Agian, horregatik sartzen du Zelaia truke-balioa eskuratu duten sortzaileen sorkuntzen artean, berea kanpoan uzten duenean. Bere poesiarentzat truke-balioa gabe erabilera-balioa nahi zuela argi eta garbi azaldu zuen Arestik. Sor lanak truke-balioaren saretik at gordetzeko norbere borondateak izan dezakeen eragina alboratuz, hizkuntza-mailan egin zuen aukerak lagun zekiokela erants daiteke. Gutxi batzuen hizkuntzan paratuko du bere poesia, arautu eta normalizatu gabeko hizkuntza batean, ama-hizkuntza ez zuen hizkuntza batean, ama-hizkuntza hizkuntza arautua eta milioika zenbatzen ziren hiztunez osatzen zenean... Hau guztia, noiz eta, euskara kultur hizkuntza izan ote zitekeen oraindik auzitan jartzen zen garai batean, zapalkuntza

eta bazterketa bortitza pairatzen duen hizkuntza den sasoi batean, eskola-hizkuntza izaten hasi berria den egunetan eta euskal hitzun garaikideak beste hizkuntza batean irakurtzen ikasitakoak direnean, argitaletxe-industria bat izatea gehienez ametsen erresumakoa zenean... Baldintza hauetan nekez lor zezakeen bere poesiak truke-balio handiegirik²¹.

Helburua adieraziz eman zaio hasiera azterlan honi: Arestik *Harri eta Herri*ekin irekitzen duen aldian ontzen duen poesiaren oinarriak zehaztu. Azken hitz hau euskarri izan zuen ikuspegia laburbiltzeko da: preziorik gabeko mailua herriarentzat. Herria hartzaile aukeratzen duen poetak, bide-erakusle, gidari, aitzindari izatearen eginkizuna gordeaz berarentzat, ahotsaz baliatuz beteko du bere buruari egotzitako lantegia. Ahots hau mailu bilakatu eta iltzatzen ari da bere egunetako aberrian indarrean dagoen pentsamendua, heriotza horretatik aberri berri bat birjaio dadin. Baina, ez da bakarkako lana, gizatalde mailakoa baino. Horregatik, herria, hartzaile izan aurretik igorle du, mailu duen hitza herriatik hartutako langaia erabiliz taxututakoa da eta. Hitzak osatzen duen ondare horren harat-honatak, esku-aldaketak, debaldekoak izanik norabide guztietan, merkatuaren legeak saihesten ditu. Herritik jasotako hitza mailu bihurturik itzultzen du Arestik bizi duten egoera iraultzeko elkarrekin: gozatu goiburupean gabe, salaturenaren azpian mamitutako poesia da, oker dagoena zuzentzeari ekiteko.

21 Egia da poesia sozialaren ildoan kokatzen diren lehen bi idazlanak bi hizkuntzatan argitaratu zituela. Nola *Harri eta herri*ren hala *Euskal Harriaren* lehen edizioak Arestik berak eginiko gaztelaniarako itzulpenarekin kaleratzen dira. Ez horrela, *Harrizko herri hau*. Idazlan hau gaztelaniaz plazaratzen denerako mundu honetatik joana da Aresti. Itzulpena bide euskararen erabilerak ezarritako muga linguistikoak hausten ditu. Dena den, muga linguistikoek gainera, muga kulturalak ere gaingitu behar ditu oihartzuna hedatzeko; izan ere, esperientzia zehatza duen sortzaileak testuinguru jakinean mamitutako obrak beste testuinguru batzuetan beste esperientzia batzuk bizi dituztenei zerbait iradokitzeo ahalmena izan behar du. Berenbegeri sortzaileak sor lanarekin izan ditzakeen erroka hauei, zehatz-mehatz literarioak ez diren alderdiak gehitzen zaizkio, idazlanari ahalik eta iraunkortasunik luzeena eta oparoena bermatzeko eginahalean. Bistakoa da Arestik argitalpen elebietara jotzen duenean, hartzailearen eremua zabaldu nahian dabilela. Zeinahi kasutan harrigarria ez dena eta are gutxiago indarrean dagoen sistemaren aurka egitea xede duen idazlanaren egilearengan. Itzulpenak gehiagorengana heltzeko modua erraztu bazion ere, argitalpen elebia ez da erakargarriena eta Euskal Herrian euskaraz ez zekitenengana iristeaz gain, muga hauen gainetik, gaztelaniaz mintzo den hitzun komunitatearen merkatuan sartzeko, merkatu horren gorabeheren ezagueraz zutenen esanetara jartzea ekarriko ziokeen.

ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA:

Aresti, G., 1969 [1964], *Harri eta Herri*. Piedra y Pueblo, Bilbao: Gráficas Ellacuría, 2. argitaralpena.

Aresti, G., 1967, *La piedra vasca. Euskal harria*, Bilbao: Gráficas Ellacuría. G. Arestiren olerkiak; Agustín Ibarrolaren marrazkiak.

Aresti, G., 1970, *Harrizko Herri Hau*, Donostia: Lur Editoriala.

Aresti, G., 1979, *Azken harria*, Donostia: L. Haranburu Editor.

Barthes, R., 1977, *Ensayos críticos*, Barcelona: Editorial Seix Barral.

Cirlot, J. E., 2007, *Diccionario de símbolos*, Madrid: Siruela.

Chevalier, J.; Gheenenbrant, A., 1995, *Diccionario de los símbolos*, Barcelona: Herder.

Eagleton, T., 1978, *Literatura y crítica marxista*, Madrid: Zero.

Euskal Idazleen Elkarte, 1970, *Batasunaren Kutxa*, Donostia: Lur Editoriala. G. Arestik eta X. Kintanak moldatutako edizioa.

Garasa, D. L., 1973, *Literatura y Sociología*, Buenos Aires: Editorial Troquel.

Goldmann, L., 1975, *Para una sociología de la novela*, Madrid: Editorial Ayuso.

Marx, C., 1970, *El Capital*, Buenos Aires: Editorial Claridad, 8. argitaralpena. G. Devillek laburtua.

Pérez-Rioja, J. A., 2008, *Diccionario de símbolos y mitos*, Madrid: Editorial Tecnos.



Arantxa Urretabizkaia

Donostia, 1947

Mailua eta harkaitza

XX. mendeko euskalgintzaren esparruan hiru izen nabarmendu behar bagenu, Gabriel Arestirenak hortxe egon beharko luke. Noski, aukeratutako esparrua ez da lorategi bat, baso hostotsua baizik eta basoetan, zuhaitzik garaienak sendotuko badira, azpian basopea behar dute, era askotako landareak.

Euskal letren munduari hurbildu nintzaionean, 1969ko udan, liburu bakarra nuen irakurria euskaraz, Txomin Agirreren *Garoa*, ordurako mende erdia gainditua zuen liburua. *Garoa*rekin alfabetatu nintzen, Maria Dolores Agirreren eskutik eta bai, bazuen liburuak lilura pitin bat niretzat, aspaldiko mundu galduen distira.

Oraina ulertzeko eta geroa amesteko, ordea, ez zidan liburuak balio. Horretarako frantsesez irakurtzen nuen eta, noski, gaztelaniaz. Ez nuen pentsatzen euskarazko liburu batek bilatzen nuen eskainiko zidanik. Literatur zalea nintzen (gehiegitxo ere bai, gure ama zenaren ustetan), baina literatura beste planeta batean kokatzen nuen, edo ilargiaren alde ilunean.

Sarasola eta Saizarbitoria izan ziren zuzenean ezagutu nituen lehen idazleak. Haragizkoak ziren eta nire mundutik oso hurbil bizi ziren. Gainera, mutil ederrak ziren biak ala biak.

Sarasolak aipatu zidan Gabriel Arestiren izena. Esan zidan poeta bizkaitar haren indarrak harritu egingo ninduela. Erosi nuen *Harri eta Herri* eta ez ninduen zapuztu. Ahots indartsu eta niretzat guztiz berria aurkitu nuen, nituenik jakin gabe barruan neuzkan

harrietaherri #50

sentikizunei hitza jartzen ziena. Berehala erabaki nuen nik Arestik bezala idatzi nahi nuela.

Ahots horrekin batera izan nuen euskararen batasunaren auziaren berri. Agirrerekin ikasitakoa gure etxeko hizkuntzatik hurbil zegoen eta hori zen niretzat erreferentzia, guretzat euskara etxeko hizkuntza baitzen, ez beste inongoa.

Arestiren liburuak, berriz, beste doinua zekarren, guztiz arrotz izan gabe, mailu baten bortitza zuen hizkera. Batasunaren dogmari lotu nintzaion, sinestun berriaren garras. Ikasgai gutxitan ikasi nuen Arestik bultzatu zuela Euskaltzaindia batasunerantz eta Euskaltzaindiak Koldo Mitxelenari eskaini ziola ontziaren lema. Ikasi nuen jakintsu batzuk bildu zirela Arantzazun aurreko hilabeteetan eta haiek erabakitakoa zela euskararen salbabide bakarra.

Ez nuen artean Aresti ezagutzen eta lehen aldiz harekin topo egin nuenean, Durangoko azoka elizaren atarian ospatzen zen egunean, edadeko gizon bat iruditu zitzaidan. Hogeita hamasei urte zituen eta nik hogeita bi. Ez zen inondik ere zaharra, baina niri beste belaunaldikoa iruditu zitzaidan: ezkondua zegoen, haurrak zituen, amerikana bat zeraman soinean eta gure aitak jantzi zezakeen alkandora, gorbata eta guzti.

Bezperan, Eibarren ostatua hartuta, joan ginen Durangora Sarasola, Saizarbitoria eta neroni, nire orduko bi zaldiko urdinean. Autoaren atzealdean kartelak generamatzen, zuriaren gainean berdez marraztutako letretan "LUR" jartzen zuela. Gure argitaletxearen izena zen, baina kartelak ez zuen ematen horren berri.

Hasi ginen kale hutsetan barrena kartelak paretan jartzen azoka izango zenaren inguruan eta bizpahiru kartel jarri genuenean udaltzaina azaldu zitzaigun, esplikazioak eskatzen. Kendu zituzten jarritako kartelak, joan behar izan genuen komisariara, es-

plikatu genien azokarena eta han bukatu zen gure lana. Saizarbitoritari esker ez zizkiguten kartelak kendu.

Gizon gorbatadunaren algarek, biharamunean gure abentura txikia kontatu genionean, betaurrekoak astintzen zizkieten. Mailuaren indarra zuen ahotsak bazekien barre egiten. Barre egiten eta ahulagoak babesten. Agian aita hil berria nuelako eskertzen nion "Urretagipuzkoa" esaten zidanean edo besoa bizkar gainean jartzen zidanean. Ez nekien orduan zer zen gurasokeria. Ez nekien, era berean, handik hamarraldi askotara nire iloba izateko adina zuten mutil batzuek gurasokeria bera azalduko zidatela.

Mailuaren indarra zuen gizon gorbataduna ezkondua zegoen, bi alaba zituen eta gure aita zenaren lanbide bera: kontu-eramaile. Gainera, futbola maite zuen. Behin, Iparraldeko bazter batean Euskaltzaindiko bileran geundela, sotanez inguratuak, bazkalondoan hasi zen Aresti etxera itzultzeko auto baten bila. Emaztearekin zegoen eta ordulariari begira esan zuen ez ziola denbora emango Donostiara joan, han Bilborako autobusa hartu eta ez dakit ze futbol partida ikusteko.

Suertatu zen ni nintzela autoarekin batera zorioneko partida ikusi eta gauerako ostatu eman ziezaiokeen bakarra. Seguru asko aita bizirik balego ez nukeen horrelako eskaintzarik egingo. Heldu ginen etxera, esan nion amari bikote hura telebista ikustera zetorrela eta gero bertan egingo zutela lo. Amak esan zidan ez zuela berak etxean zer eskaini etorri berriei, ez bazen ogia, gazta eta arrautzak. Beheko tabernara bidali ninduen ardoa erostera.

Egongelan genuen sofa-ohean egin zuten lo. Idazleak gero eta hurbilagoak iruditzen zitzaizkidan. Ulertu nuen era askotakoak izan zitezkeela eta ez zirela aparteko mundu batean bizi.

Espero ez nuena euskararen batasunaren inguruan sortutako lisakarra izan zen. Ez nekien orduan zer-nolako trebetasuna dugun

harrietaherri #50

iritzi desberdina duena arerio bilakatzeko, zer-nolako zailtasuna eztabaida zibilizatu baten ondorioz adostasunetara heltzeko.

Handik gutxira mailuaren irudia ez zen egokia Aresti deskribatzeko. Olatu guztien erasoari eusten zion harkaitza zen niretzat. Halako batean norbaitek kontatuko du euskararen batasunaren bide latz eta mingarria.

Arrazoi zuen Arestik, baina gizarteak hori aitortu baino lehen hil zen. Azken aldiz ikusi nuenean gaixorik zegoen. Orduan bai zirudiela zaharra. Zerbait ikusiko zuen gure aurpegian, igarriko zigun izua. Esan zigun lasai egoteko, Franco oraindik bizirik bazegoen, berak ere bizirik iraungo zuela, ez zela Franco hilik ikusi arte hilko. Diktadoreari bost hilabeteko bitzta gelditzen zitzaionean hil zen Aresti. Ez nekien orduan handik urte askotara bere izena eraman-go zuen kale batean biziko nintzela.

GARAI BATEKO LEKUKOTASUNAK



Harkaitz Cano

Lasarte, Gipuzkoa, 1975

Argazkia: Blazej Wisniowski

Arestirena zenik ez nekien
kasetea

Egun are errazago egin daiteke, jakina. Photoshoparekin. Baina tinta bakarreko inprimaki eta afixen garaian trokelaren teknikak emandako soslaiak nonahi ziren 70 eta 80ko hamarkadetan. Zuri-beltzeko argazkietatik abiatuta egindako siluetak, bai, baina argazkietako grisak oro ezabatzen zituztenak erretratua pintzelkada edo esprai beltzaren bidez sinplifikatzeko. Ezagunena, nola ez, Che Guevara zatekeen, txapelak eta bizarrak bisaje karismatiko espraigarria sortzen zioten eta diote; ezin uka estetika mitoa areagotzeko lagungarri denik. Baina baziren gure herriko horma eta frontoietan gerora izena emango genien beste hainbat aurpegi ere. Pertur. Txiki eta Otaegi. Violeta Parra. Ekintzaile eta sortzaileen soslaiak kalean nahas-mahas, sarri larru berberaren baitan elkarbizitzen zirenak, etengabe hornei geruza berriak erantsiz. Eta soslaiekin batera, haiek esandako esaldiak edo haiei buruz esandakoak, testuingurutik kanpo berez ziurrenik ez zuten biribiltasun bat hartzen zutenak brotxak erantsitako zama lodi eta iraunkorra zela kausa. *Hizkuntza bat ez da galtzen... Herriak ez du barkatuko.* Gisa horretakoak. Derioko Perez y López marmolistek hilobiren batean zizelkatuak bailiran hitz haiek ere. Ai, zer arrisku dakarren pertsona bat bere une bateko bisajera eta behin esandako esaldi biribil batera laburbiltzeak... Garaitsu hartan ikusiko nuen lehen aldiz Gabriel Arestiren argazkia ere eskolako liburu batean, teknika berbera, zuri-beltzeko trokelean, gizon serio bat ez bazen, gizon bat serio bai, behintzat, pastazko betaurreko lodiak soinean, begirada apur bat kizkurtua, bertan egon nahi ez edo bertan egotearekin batera handik urrun ere egotea desio lukeena. Geroztik sarritan ikusi dut marrazki hark oinarri zuen argazkia, baina ez zait tinta bakarrez osatutako irudi

harrietaherri #50

haren eta irudi hark iradokitzen zizkidan beste antzeko silueta sinplifikatuen, aurpegi-aldarri edo aldarri-aurpegiaren lehen inpresio hura burutik ezabatu. Ezabatu ez zaizkidan bezala irakaslearen hitzak, argazkiko hura *Nire aitaren etxea* poemaren egilea zela esan zigunean, eta poema irakurri ondoren hura “euskal testurik itzuliena” zela erantsi zuenean. Lehen aldi asko lehen aldi direnik jakin gabe garunean atertu gabe iltzatzen joatea, hori da beharbada ume baten oroitzapenak eraikitzea, eta halaxe gertatu zen Arestirekin ere. Beraz, poema bat, gezi-sorta ziruditen esaldiekin egin zitekeen zerbait zela irakatsi zigun Arestik. Vladimir Maiakovski, Nicanor Parra, Charles Bukowski... horiek denak askoz beranduago ezagutu genituen, eta haiengan ere Arestiren moldeko geziaren gisako neurtitzak preziatu genituen gehien beharbada. Arestik ezarri zigulako agian gu harekin identifikatzeko lain zen lehen silueta poetikoa.

Beraz, poesia mailu bat zen. Beraz, “lukurreria” zer demontre zen begiratu behar izan genuen hiztegian. Beraz, poemak itzuli egiten ziren beste hizkuntzetara. Lehen aldi asko lehen aldi direnik jakin gabe garunean atertu gabe iltzatzen. Numerologia ere alde zuen irakasleak gurekin: gu jaio ginen urtean hil zen Gabriel Aresti, 1975ean. Hartara, ez zitzaigun ahaztuko Franco noiz hil zen ere, Gabriel Aresti hil zen urte berean gertatu baitzen diktadorearen heriotza. Gure ahalegin memoristikoa hori izango zuen alde Arestiri buruz galdetzen ziguten azterketa egunean. Loriari eta Bilboko kale bati uko egin zenion modu berean, Gabriel, ahaztu egin zitzaizun idaztea: “Ez dut nahi batxillerrei nire liburuen izenburuak buruz ikaslaraz diezazkieten”. Idatzi izan bazenu ere kasu gutxi egingo zizuten, egia esan.

Baina ederragoa da Gabriel Arestiri buruz dudaren bigarren oroitzapena. Ederragoa da askoz, urte mordoxka bat pasa zelako Gabriel Arestiri buruzkoa zela jakin nuenerako. Urte luzetan, Gabriel Arestiri buruzkoa ez zela uste izan nuelako. Gabriel Arestiren lan ikusezinarekin duelako zerikusia, eta gero eta gehiago estimatzen dudalako lana bistaratu bai, baina idazlea ikusezin

bihurtzea. Musikarekin du lotura bigarren oroitzapen honek, eta garai hartan –derragun Orwellen urte malapartatua ez zela hain urrun izango– behin eta berriro entzuten nuen Oskorriren kasete bateko kantekin. Dantzarekin eta izpiritu alegera kutsakor batekin lotzen nituen zenbait kantekin. Nola jakin behar nuen bada nik *Gora ta gora beti* zelebraziozko haren hitzak Gabriel Aresti delako batenak zirenik? Kasete harekin ikasi nuen hitzen indarra zein den musikaren meandroa besarkatzen dutenean: zu besarkatzen zaituztela. Baziren kantu hartan, jakina, ziento bat aldiz entzunagatik ulertzen ez nituen hainbat kontu kodifikatu, nire kasa abesten nituen zatiak edo txarto abesten nituenak (in-gelesek horri *mondegreen* deritzotela uste dut). *Gora ta gora beti* kantuko hitzek, kantu on guztiek bezala, etzi idatziak dirudite, horregatik iruditzen zaio entzuleari Erresuma Atzemanekin bate-tik datozela, inolaz ere ez poeta baten lumatik. Eta horregatik harritu eta pozten da entzulea, ibai zahar bati ibaiadar berriak ezustean aurkitzen dizkionak bezala, hitz horiek ezagutzen zuen idazle baten lan ikusezina direla jakiten duenean, nerabearoa ongi pasata jada, noiz eta, eskolako argazki zuri-beltz, saturatu eta siluetaduna duen irudi berbereko Oskorriren LP-a eskuratzen duelarik, jatorrizkoa, eta ez karatula biluziko kasete mutua. Bai, Arestiren aurpegi moztua ageri da *Gabriel Arestiren oroimenez* diskoan, eta berdin izan zitekeen Perturrena ere, aurpegi-aldarrien garaikoa delako. Kasete hura berriz entzutea da nire buruari jarri diodan ariketa, honenbestez. Gaur egun *pirata* esango litzaioke, ez baitzuen OSKORRI beste hitzik gainean, baina garai hartan inori ez zitzaiokeen halako izendapenik burutik pasako. Ez dut, ordea, kasete hura zintaz betetako zapata kaxa hautsezta-tuetan topatu. Lehen arazoa –fetiixista bat naiz, zer egingo zaio– diskoa lortzea bera izan da, honenbestez. Oroitzen dudanez, kasetea osaba-izebaren batek grabatua zen, zalantzarik gabe, baina osaba-izeben etxean behar lukeen LP-a ez da inondik ino-ra ageri. *Malgré moi*, biniloaren zitzada zikin eta xarmentaren gutziari uko egin eta iTunes zatarrean birtualki erosteko etsia hartu dudanean etorri da lehen ezustekoa –birritan pentsatuta hain ezusteko izan behar ez lukeena–: diskoko kantu guztiek lau-

kiluze gorrian bildutako hitz ohartarazlea dakarte: *EXPLICIT*. Ez nau hainbeste harritu ebidentziaren gorriak iTunes-ek euskarazko kantu esplizituen (what the fuck is *explicit*, anyway?) detektatu, epaitu eta salatzeke prestutasunak baino. Hitz hauek ez direla ume inozo edo guraso ergelentzako, ez eta poza zerbait leuna eta etengabea dela uste duten belarri sentiberegientzako ere. Guretzat bai, ordea.

Entzun ondoren esan dezaket, ez musikalki, ez hitzei dagokienez, diskoak ez duela indar aminirik galdu. Izatez, ia berrogei urte beranduago, klasiko mamitu baten trinkotasuna dario leku guztietatik, hasi eta buka. Nire buruari gaia jarrita ari naizenez, aletu dezadan entzute ariketa honen emaitza inpresionista, kantuz kantu:

Emazurtz. Eusko gudariak ereserki solemnearen segundo guztitako –eta lirika askoko– intro sotilaren ondotik abiatzen da. Zapatak erosteko diru faltaz kexatzen ziren blues zahar haietan bezala, miseriaren erretratua da nagusi hemen, bigarren pertsonak bereizten duen arren hau, ia beti lehen pertsonan abestea baitzen gospel, beltz izpiritual eta blues arranguratsuen ohitura. Zine neorrealista italiarraren gomuta ere badakar *Emazurtz* kantuko giroak: gizonen gerra, haurren gosea, gau eta egun lanean diharduen nekazariaren lan eskerga eta eskergaitza, pobreen esperantzak... Vittorio de Sicaren *Ladri di biciclette* (1948) ekartzen du gogora, istorio hura ere, komeni da gogoratzea, etxeko izara erabili gabeak bahitura-etxera eramanda hasten baitzen; mairidireak bahituran emanda trukean hartutako diruarekin erosten zuten aita-seeek gero lapurtuko zieten bizikleta. Niri behintzat, film haren oihartzunak ekarri dizkit Arestiren “ezkondu hintzanean/ bost gona hituen,/bi bahituran jarri/bi saldu hituen,/ soinean dunan hori/ diagon zaharra” horrek. Duintasunaren aldarri bat da, funtsean “inoren zorrik ez dun ordainduko” dioen leloa, emakume bat Euskal Herri bihurtua, aitaren etxean ekonomia domestikoa –gonen salerosketa, besteak beste– nork burutzen zuen argi eta garbi uzten duena, ikurrinaren atzea, tra-

puaren atzea, amaren gonapea ote den ala ez, hainbeste esatera ausartzen ez naizen arren. Prousten madalenarena egiten hasita, gogoan dut kantu honen leloan hitz bat suertatzen zitzaidala beti deigarri, edo, hobe esan, hitz hori pluralean emateko hautua: “heure etorkizunak ditun apainduko”. Duela hogeita hamar urte oso deigarria zitzaidan *etorkizunak* hori, agian etorkizuna (Arestik berak itzulitako T.S. Elioten *denbora futuroa*) bat eta bakarra zela erakusten edo adierazten zigulako eskolastika patu-zaleak edo patu-menpekoak, eta ezezagun zizaizkigulako oraindik errealtate paraleloei eta multibertsoei buruzko teoriak. Zientzia fikzio gutxi irakurri genuen artean, nonbait. *Etorkizunak apaintzearena*, dena den, lorpen estilistikoaz haratago doa nire ustez, bizi filosofia oso bat garatu baitaiteke bi hitz horien bueltan. Gorputzean tatuatzeko ere esaldi txarra ez, sinesten hasita bainago, isuri aise bezain galera errazeko sare sozialetan hitz parrastadak sortu ahala xahutzen diren garaiotan, norbere gorputzean esaldiak tatuatzea datekeela poesia iraunkortzeko bide bakanetakoa jada. *Etorkizunak apaintzea*. Hori da kantua zirrinda baikorra, kantua on guztiek behar duten sabaiko argi-zuloa. Gainerakoan, ezkor eta lurtar. Ginelako gara. Erran nahi baita: zurtz ginelako gara zurtz. Eta luze izanen.

Laugarrenez Nerea etorkizunaren aurrean. Bigarrenez bigarren pertsona. Hika hasten da oraingoan “Heure ahizpei esaien”. Ilunetik argira doan kantua, *in crescendo*, ezerezetik etorkizunean izango ditugun balizko zopa eta fruituetara. Duintasunaren aldarrikapen bat ere bai. Ogia vs. apirila. Ogia vs. aitaren ondra. Ez ditzagun, esaten digu Gabriel Arestik, *honra*, udaberria eta *libertatea* sal. “Zetazko boza/ erretenaren ondoko murmurio kantariak” horretatik aurrera datoz fruituak eta egunsentia. Gure sentitzen dugu oso Arestiren euskara, baina salbuespen berezirik bada: Gernikako arbola “oilaritezurik” dagoela gaztigatzen digunekoa, adibidez. Beste *mondegreen* bat hemen: oilaritez baino *oilarrezaturik* edo *oilarrez beterik* irudikatzen nuela nik, alegia, Gernikako arbola, de Sicarena baino gehiago Buñuelena zatekeen irudi surrealistan. “Axularri kendu zenion hitz ederra oilarite/

Eta zeuk eman zenion hatsa gorri” omenduko zuen Koldo Izagirrek *Balitzko erroten erresuma* (1989) poemario gogoangarrian, hark ere bigarren pertsonan. Hain gertu sentitzen dugu euskal poesian mugarri izan zen Izagirreren omenaldia, gezurra baitirudi Izagirrek berea eman zuenetik urte dezente gehiago igaro izana jada, Aresti hil zenetik *Balitzko erroten erresuma* argitaratu zen urtera pasa zirenak baino. Niri behintzat, bihar atzotuan bizi ote garen sentimendu deserosoa eragiten dit horrek. Biziko ez bagina bezala etorkizunaren mirabe, jakinaren gainean etorkizunean gaudela jada. Etorkizun atzotu eta atsotuen mirabe.

Guretzat. Hona hemen gaurkotasun itzeleko beste kantu bat: “Guretzat berdin dira/ astea eta jaia” bertso-lerroek berdin balio lezakete gaur egun astean sei egunez lan egiten duten langile esplotatuentzat, zein geure burua esplotatzen dugun autonomo masokistontzat –barka *extimitate* kasketa hau: igandez ari nauzue ni neu ere hau idazten–. Jakina, beste bat zen Arestiren intentzioa –*diñot nik*–, lanaren gogorra ere kantagai bihurtzearen inteligentzia; kantuaren tresna, poesiaren tresna, fikzioaren tresna funtsean tresna ederra delako neke fisikoa eta bizi eta ustiatzen gaituen garaiaren gordina umorez eta ironiaz erredimitzeko (galdetu bestela antzinako blues kantariei: handiagoa omen zen suizidio tasa esklabo-jabeen artean esklaboen artean baino... Jabeek ez zuten kantatzen). Hau ote da *apaintzen* asma-tu ez dugun etorkizun atzotua? Etorkizun horretan bizi gara? Ala iristear dago etorkizun hori, aurreko kantuan gaztigatzen zenigun bezala, Gabriel? Lehen bi kantuetako “zu” hori “gu” bihurtzen da hemen. Elkartasun kolektiboak dakartzan indarra eta poza kutsatzen ditu kantu honek, lehen entzunaldietan aldiro zalantza egiten nuen arren “lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia” esaten ote zuen Natxo de Felipek, ala, are erradikalago “*dana* bihurtzen dugu kantatzeko gaia”. *Party song* bat dela esatea ez da agian esajerazioa, eta ziurrenik, Tapia eta Leturiaren *Hik lan eta nik jai* kantuarekin batera, festara gonbidatzen duen euskal kanturik alaienetakotzat hartuko nuke, jendeak ez baitio kantuaren amaierako mezu ideologikoari sobera erreparatzen. Horretaz gain, es-

plizitu izatetik libratu beharko lukeen bertute garaikide bat ere badu, egun oso boladan dagoen hitz itsusi eta politikoki zuzen bat erabiltzeagatik: kantu *inklusiboa* baita, fededunentzat zein sinesten ez dutenentzat dauka lekua, kalea denona delako (“zin egin behar dugu zintzoki,/ bakoitzak duenagatik;/ sinestedunek dudarik gabe/ bere Jangoikoagatik/eta sineste gabeek berriz/ bere ohoreagatik”). Jendeak, jada dantzan edo kalejiran dabil-lako erreparatzen ez dion kantua amaierako karga ideolo-gikoari dagokionez, koherentziaren aldarri bat ere badakar (“gure ekintza izan dadila/ gure hitzaren alaba”, edo: “bide honetan bal-din bagoaz,/ jakin dezagun zergatik”), eta langilearentzat heldu-leku kristaua ere ematen du: “nekea eta lana dirade/ zorionaren aldaba” (zer gehiago eska dakioke kantu bati?). Koherentziaren eta lanaren aldeko mezu hauek, ezin uka, ez datoz oso bat gure garai fribolo, likido eta aldakorrekin, baina...

Badakizu non nagoen. Kantu hauxe ez nuen batere gogoan. La-burra da, diskoko laburrena, presaz eta fusilatu aurretik idazten duzun gutun bat bezain labur. Hotsandiko hasi eta derrepente amaitzen da, amaituta ez balego bezala (eta agian halaxe da, agian ez dago amaitua: ez hainbeste kantua, kantua hitzek iradokitako historia baizik, berriro ere *denbora futuroa*). Eta gau-zak zer diren, infernurako txangoa prestatzen duen kantu honen hasierako koru maskulino indartsuak Kalakan taldeak ere nonbai-tetik edaten duela ekarri dit derrepente gogora; murrugregor-riarretan fraideak gizonki abesten, kobazulo baita eliza hitzaren bigarren adiera. Koru beldurgarria da kantua hasierakoa, pisuzkoa, sendoa, harrizko oihartzun epikoak dituena, infernuko sugarren gogorazle. Badakigu non dagoen, leku iluna da. Bil-bo eta Gernika berriro aipatuak, lehen Bizkaia izan den bezala. Geografia fisikoak baino gehiago balio duen geografia bat: ma-darikatuaren geografia. Baina baita gerra luzeak madarikatutako Bilborena ere. “Eskribitzen badaustazu, badakizu non nagoan”, dio Arestik. Gaixorik edo kartzelan dagoenari gertatu ohi zaio: erraza dela haren helbidea zein den jakitea, ez du bolada batez etxe aldaketarik espero.

Maldizio betikoa. Bigarren pertsona berriz, baina oraingoan ez festarako edo altxamendurako, ohartarazle baizik. Saxo bat eta gitarra elektriko bat, oroitzen ez nituenak. Diskoko kanturik luzeena –maldizio baten iraupena bezain luzea– eta letra laburra dueña, hala ere. Begizkoa azkar eta labur delako. Maldizio musikal bat, Arestik botatako *voodoo* oihu lazgarri, erdiragarri bat, erremitan Gabrielen izena daramana eta gutun-azalean ere badueña nori igorri: “Zuei/ Bartzelonako euskaldun/ unibersidade mutilok,/ egian dioxuet,/ zuen artetik batek/ baldin eta esplotatzen badu,/ hemendik hamar edo hiru urtera,/ beraren anaia/ obrero/ edo kontadorea,/ hori/ zuen arteko/ hori,/ neure maldiziorik borobilenarekin/ hornituko dudala,/ sipula-sipulorum,/ mundu honetako/ puta/ semerik/ semeena/ bezala”. Zenbat aldiz grabatu ote zen “putaseme” hitza euskaraz disko batean ordurako? Nik kasete hartan entzun nuen estreinakoz, eta egin zidan efektua ez da egundo itzali. Nintzen umeak –orduan ez baitzen iTunes-en EXPLICIT ohartarazlerik–, ez zuen, jakina, ulertzen, Bartzelonako euskaldunen kontra zer izan zezakeen kantari hark; esan dut lehen kantaria eta letragilea berbera zirela niretzat garai hartan, ez zegoela modurik egiletza biak bereizteko. Gaur egundik ikusita, ordea, Arestiren *voodoo* ahalmena eraginkorra izan bada, asko izan behar dute derrigor haren maldizioaren sarean eroritakoak.

Gure ama itsasoa. Ama berriz. Bigarren pertsona berriz. “Zerumugarik eta hondarrik/ ez dakizun itsasoa”. Gabriel Aresti lirikoena, fabrikarik gabeko alderdi ilargitarra metafora barnebiltzaile baten zerbitzura. Natxo de Feliperen kantakera leunena.

Maite dugu mundua. Kantuak garbi uzten du Arestiren kezka eta salaketak ez zirela Euskal Herrira mugatzen. Hego-lpar ardatzen arteko gatazka eternala koplatara ekartzen du, sotil eta garbi, epelkeriarik gabeko bertsoetan. Kantua 60etako iraultza *hippyaren* ildotik hasten dela esango luke despistaturen batek (“Guk maite dugu mundua,/ hau gure sentimendua,/ maitasunean helduko zaigu/ heriotzeko ordua”), baina berehala gaiztoztzen digu Arestik, berehala dakar zirtoa, umore beltza, hemen ez

baita *flower power*aren arrastorik. Indiorik onena lurpean datzana dela dioen *yankien* errana aipatzeak, Hiroshima Japoniak jaso zuen “katixima” dela esanez ironizatzeak, edo “Amerika amerikarentzat” zela aldarrikatzen zuen Monroe doktrina hitzetik hortzera ekarri ondoren Ipar Amerika *Goiko Amerika* bezala birbataiatu eta hura “bihotzez gorrotatzen” dugula esateak, ez du zalantzarantz zirrikiturik uzten. Gaurkotasun gehiago nahi duzue? Honatx atzo Vietnamen bezala gaur Afganistanen eta bihar Iranen edo Sirian balioko duen neurtitz sorta: “Afrikatik miloika/ gizon beltz ekarri/gero esklabotzaren/ uztar-pean jarri;/ orain libre daudela/ ez dago hain garbi,/erabiltzen dituzte/ gerraren ongarriri”. Leungarririk gabe, baina errealtateari biharkotasuna ziurtatzen dion umore printza gaiztoarekin jantzita. Non zaudete *hip-hop* kantari, MC eta bestelako? Euskal poetarik *rapeagarriena* da Aresti.

Astoarena. Nire bihotzeko fonotekan hasieratik geratu zen hau iltzatuta. Hauxe zen umetan gehien gustatzen zitzaidana. Satira bat bezala hasi eta kolpe ia *gore* batekin amaitzen den alegoria. Animaliekin beti egon den eztabaida: zilegi ote dute zerua? Zakurrik bai ote da linboan? Azken aldion, krisiagatik edo auskalo zergatik Vaticanoak linboa ere amortizatu duen honetan, poetaren patua da bakarrik segurua, Arestiren garaian hark gaztigatua: “Poeta naizenez gero, ez dut zerurik espero”.

Oinaz eta Ganboa. Galaxiaren indar ilunaren erakusgarria. Euskal kantugintzako kanturik tristeena ez bada, ez dabilkio urruti ohore hori. Euskal leinuen izenak hartuagatik oinarrian, giza kondizioaren mizkinkeria ezin laburbil liteke hobeto, gainerako kantu guztia irensten baitu, erakarmen fataleko zulo beltz batek bezala, azken ahapaldiak: “Bost-ehun urtean egon/ gara justizi-eske/ baina sua eta ura/ ezin nahas ditezke,/ irakin edo amata/ ez dago ezer beste/ inork ez dezala esan:/ «adiskide zaitzte»”.

Gora ta gora beti. Aldarrikatzaile, baina *Guretzat* kantua bezala, alegiantzia aldarrikatzen du batez ere, erreibindika daitekeenik

eta gauzarik iraultzaileena. Lehenik eta behin, “euskerak bizi gaitu” hura zegoen. “*Euskarakin bizi gaituk*” ote zen, nik nire artean. Pertsonifikazioaren eta sintesiaren klabeak bereganatu gabe oraindik –lehen aldi asko lehen aldi zirenik jakin gabe atertu gabe garunean iltzatzen– ez zen haur batentzat samurra gaur egun hain erraz ulertzen dugun esaldi hori geureganatzea. Egun aise esango genuke, ordea, ez agian “euskarak” baizik eta “angustiak bizi gaituela”.

Honaino nire buruari jarritako ariketa proustiarra. Egia esan, poztekoa ere bada azken aldion Arestiri buruzko ikuskariak ugaritu izana. Izan ere, norbaitek pentsatu bazuen Gabriel Aresti modatik pasa zela inoiz (egon ote zen ba modako?), ez zuen literatur sena handirik, eta are gutxiago ezagutzen zuen giza-jendea. Ez zuen ezagutzen ez ulertzen, ezta ere, T.S. Elioten poema Arestik itzulitako eran: “Denbora presentea eta denbora pasatua akaso daude presente biak denbora futuroan”. Garai ziurgabeotan (egon ote da garai ziurrik?), kemen emaille da oraindik ere *mea culparik* gabe mea ematen duen meatz-zuloa den idazle agorrezin hau. Funtsean, ez da hainbeste aldatu Arestirena zenik jakin gabe Arestirena ere bazen kasete hura entzutearen poderioz poeta hura bere DNA n sartua zeukan umearen ezjakintasuna. *Mondegreen* asko dago oraindik, kantuetan eta kantuetatik kanpo. Geure kasa benetan ulertu gabe murduskatzen dugun hitz gehiegi. Zaila da ulertzea, adibidez, nolatan izan daitekeen euskaraz lehenaldiko hitz bat “arestian”. Niretzat, Arestian beti izango da bihar. *Denbora futuroan*.



Unai Elorriaga

Bilbo, 1973

Aresti jaunaren mailegua

Pentsa liteke idazle batzuk estimatzen ditugula gure poetikan, gure iruditerian, arrastoak utzi dituztelako. Edo, beharbada, gure literaturan arrastoak utzi dituzte estimatzen ditugulako, eta estimu horrek eraiki du, apurka-apurka, konturatu gabe askotan, gure literatura ikuskera. Inpresioa dut gauza biak gertatzen direla maiz: Gabriel Aresti da, hain zuzen ere, adibide arginetako bat.

Nortasun literarioa da Arestiri (eta edozein idazleri) gehien estimatzen diodan ezaugarrietako bat. Ez da neurtzen erraza, kritikari edo unibertsitate irakasle askok ez zukeen aipatuko, ez zukeen artikulua batean emango, ez zukeen sistematikoki analizatuko, baina horretarako balio du gauzei akademiatik kanpora erreparatzeak; elementu lausoa nortasun literarioa, segituan antzematen dena ordea.

Nekez gozatzen dira erraietaraino artelan trukagarriak, sortzaile batengan eta beste batengan eta beste batengan errepikatzen direnak, oso modu egokian eraikita daudenak baina edonorenak izan daitezkeenak, teknikak ondo ikasi dituen edonorenak. Kontrakoa da Arestiren kasua; ez soilik bere ia edozein lan irakurrita berehala dakigulako bilbotarrarena dela, ezin beste inorena... Harago doa nortasun hori: Gabriel Arestiren moduko idazle batek edozer, edonoiz eta edozelan egiteko baimena ematen dio bere buruari.

Askatasuna da, beraz, Gabriel Arestirengan idazle batek estima dezakeen beste puntu kontuan izateko bat. Ematen du literaturako neurri eta muga guztiak ezagutzen zituela, ondo ezagutu

harrietaherri #50

ere; izan ere, muga horien barruan idatzi zuen testu bat baino gehiago eta, mamian igar daitekeen bezala, atsegin handia hartzen zuen arau guztiak, edo asko, hausten.

Gogoangarria da nola desitxuratu zituen sonetoak *Euskal Harria* liburuan, esaterako. Gutxi izango dira literaturan sonetoa baino forma estuagoa eskatzen duten neurriak: silaba kopurua, bertso-lerroen tamaina, errima edo azentuaren posizioa zorrotz zaintzen ditu. Arestik, ordea, poesia sail batean, jantzi formal guztiak apurka baztertu eta biluzi egin zuen forma hori nahi zuen “sonetoa” lortu arte.

Liburu bereko “Esan eta esanen dudana” poeman ematen ditu beste mila haustura, maila desberdinetan baina noranzko berean:

Isilcen naiz. Hemen. Nago. Orain ez naiz.
Esan dudana da arrazoia, bai, argudioa.
Narama. Ni. Nora. Nahi. Duen. Harek. Esan. Dudana. Da.
Esanen. Dudana. Izanen. Da. Arrazoia. Bai. Argudioa.
Isilcen. Naiz. Orain ez naiz. Isilcen. Naiz. Hemen.
Nago. Egon.
Bai. Argudioa.

Beste alde batetik, hitzen bitartez eraikitako irudiak edo, bestela esan, ikusmen-kolpeak sortzeko gaitasuna da poeta batek eta, oro har, literaturagile batek duen erronka handienetako bat. Gabriel Aresti aditua izan zen hitzak eta pentsamenduak irudi bilakatzen... Hona hemen *Harri eta Herri* liburuan, Oteitza eskultorea helburu duen poema luze horretan, emandako irudi segida:

Nik eztut Jurgi Oteitza eskultorea ezagutzen,
baina hainbeste bider ikusi ditut haren harriak,
haren apostoluak,
Bularretik eginikako baten ttua

edo gurdi batek zapaldurikako arratoien hilotza
balira bezala
kamino gaitz horretako bazterretan
eroriak

Sortzaile batzuek oso modu egokian dakite gogoeta mundu horretatik irudien mundura pasatzen, jauziak egiten dituzte etengabe, atzera eta aurrera, burmuinetik begietara. Esan liteke eroso sentitzen direla irakurlearen iruditeria pizten, etorkizuneko idazleen kolore literarioa eskuztatzen. Hori da, zalantzarik gabe, bilbotarraren kasua.

Gabriel Arestik sortu zituen irudi jakin batzuk, askotan errepikatzen direnak eta idazleari buruz hitz egin dutenek atergabe aipatzen dituztenak... Baina badira beste bazterreko batzuk ere, azpimarratzea merezi dutenak:

Nire ordu hori
datorrean,
alferrik izanen dira
damuak
nire arimaren kolorearen kontra
munduko
zezen eta aker eta ahari guztiak
oldartuko badira ere.

Hizkuntzaren erabilerak sortzen ditu sarritan idazle batengan buruhausterik konplexuenak, sistematizaturik ez daudenak batzuetan baina oso presente beti. Batzuk hizkuntza aberatsenaren bila abiatzen dira hasieratik, aberastasun hori zertan datzan larregi definitu gabe beharbada. Lexiko anitza, sinonimoen erabilera gaixobera, sintaxia eta morfologia une oro berrituz, egiturarik ezkutuenera, klasikoenera joz. Gabriel Arestiren joera, bakarra baldin badu, ez zen, inondik inora, bide horretatik bideratu. Bertsio-lerro batean baino gehiagotan aldarrikatu zuen kontrakoa:

harrietaherri #50

Eztakit nola atrebitzen naizen
honela eskribitzera
euskerako klaro batean
euskar garbi honetan.

Garunetara zuzen heltzen zen hizkuntza nahi zuen Arestik, argia, trabarik gabekoa. Askotan errepikatzen zituen sintaxi moduak, morfologia, lexikoa, konplexurik gabe, iltze baten moduan sar zitezten irakurlearen barrenetan, orratz baten moduan, ahoz sortu eta kontsumitzen den poesiak egiten duen legez. Kontuan hartzekoa da, ildo horretatik, bertsolariaren ezagutza eta erabile-ra, neurri zaharrak, berriak, molde norabide anitzekoak... guztiak hartu zituen ahotan.

Baina hori horrela izanik, maite zuen Gabriel Arestik bestea ere: Axularren irakurle nekazina zen, esate baterako. Eta Sarako erretorearen hizkera ez zen, gaur egungo irakurle askorentzat, Arestik nahi zuena, "klaroa", trabarik ez duena. Haren egiteko modu asko erabili zituen, ordea, idazle bilbotarrak, han-hemen testua iluntzera ere heltzeraino.

Egin zituen itzulpenetan ere bigarren joera hori da nagusi: ez zituen euskaratzeko idazle errazak aukeratu... Pentsa liteke, hala ere, ariketa moduan egin zituela, estimatzen zuen idazle haren barne mekanismoa ulertu nahian. Adibide ezin hobea da T. S. Elioten itzulpen hau:

Desaffectioneraco da hau leku bat
Lehenengo dembora eta gueroco dembora
Argui confus batetan: baina ez egun-arguia
Guelditasun lucidoz formac fornitzen dituena
Permanentia suggestivoz rotatione gueldian
Gueriçac edertasun ihescorretara daramaquiena
Ez-eta spiritua purificatzeko ilhuntasuna
Sensualitatea privationez husten duena
Temporalitatetic affectionea purgatzen duena.

Ez plenitatea ez vacantia, bakarric dirdira bat
Demborac cimeldutaco beguitarte appurtuen gainean
Distractionetic distractioneac distractua
Fantasiaz bethea eta sentituz hustua
Concentrationeric gabeko apathia tumidoa
Haice hotzac eramandaco guiçonac eta paper-çatiac
Demboraren aurrean eta ondoan diraunsan haicea
Birica erien barreneco eta campoco haicea
Lehengo dembora eta gueroco dembora.

Pentsatzen da, hala esaten du Jon Juaristik, James Joyce itzul-
tzeko ahalegina ere egin zuela Gabriel Arestik. Elioten kasuan
bezala, edonork daki, Joyceren prosak ere mila koska ditu, gain-
diezinak zenbait seguruenik. Jon Juaristik berak zituen Arestiren
eskuizkribu asko etxean, antza, aztertu gabe artean. Oso modu
berezian kontatu zuen nola galdu zituen:

Zoritxarrez, Joyce-ren itzulpen hipotetiko hori, existitu balitz,
betirako galduko litzateke. 1975-aren Irailaren 15ean, Erakunde
Benemerito batek errejistro bat egin zuen nire etxean. Errejistro
honetan aurkitutako *material suversivo* delakoa, Isaac Deuts-
cher-en *Las raíces de la burocracia* artikulua eta Gabriel Ares-
tiren eskuizkribu multzo haundi batez osatzen zen. Francoren
heriotzaren ondoren, eskuizkribu hauk berreskuratzeko ahalegin
guztiak alferrak izan ziren. Egun ere, ez dut haien destinoa eza-
gutzen. Maiatzeko Amen semeak bezain desagerturik diraute.
Eta haien artean, posibleki, Joyce-ren euskal itzulpen bakarra.

James Joyceren balizko itzulpen hori betiko galdu zen, beraz,
baina Eliot itzultzeko erabili zuen golde bera erabili bazuen irlan-
darraren kasuan, irakurketa nekeza izango zen zalantzarik gabe,
baina egokia, ziurrenik, euskal itzulpengintzako zenbait arazori
buruz hausnarketa egiteko...

Gabriel Arestiren poesiagintzan gozarazten nauen beste puntu
bat ahozko literaturaren erabilerarena da. Lehen ere aurreratu
dugu bertsolaritzaren molde asko erabili zituela testuetan; nabar-

harrieta herri #50

mentzekoa da, guztiarekin ere, koplak zaharrari eman zion pisua. Koldo Izagirrek ere esaten du:

Kopla zaharraren posibilitate poetikoez abisu emana zegoen aspaldi Manuel Lekuona, gerraurreko kontua da. Baina olerkarietan behinik behin inor ez zen horretaz seriozki arduratu (...). Koplaren itxurazko inkoherentzia, lehen lerroen irudi plastikoaren eta hirugarren eta laugarren lerroetan adierazten den pentsamenduaren edo sentimenduaren arteko lotura irrazional lilurgarri hori –*avant la lettre*-ko surrealismoa– Arestik ekarri zuen goien gradura. Koplak berak eskainiriko baliabide tekniko hau bere sakonean harturik, era ezin gozoagoan adierazi ahal izan zuen euskaldunon mindura.

Asko dira adibideak; batzuk moldea hutsik hartuta eta bere obsesioez beteta, baina beste zenbait ahozko tradizioak eskaintakoa ondo aprobetxatuta:

Munduan beste asko lez,
arta buruan oskolez.
Atzo aspertu nintzaden
maisuez eta eskolez.

Badira erreferentzia ezkutuagoak ere, ahozko tradizioa ondo eza-gutzea eskatzen dutenak, oso gutxik ulertuko dituztenak. Jolas moduan ikaragarri ederrak iruditu izan zaizkit beti; literaturaren ikuspegi ludikoa, baina jolasetik harago doana. Esate baterako:

Arrosa
eta haren bost orriak,
krabelina
eta haren hamabiak;

Horren azpian dagoena:

Larrosatxoak bost orri daukaz
krabeliniak hamabi...
Gure seintxoak gura dabenak
eskatu beio amari.

Eta hori guztia da, irakurle eta idazle moduan, Gabriel Arestiri maileguan hartu izan diodana eta gero beste idazle batzuegan, beste literatura eta beste geografia batzuetan, berretsi izan dudana: nortasun literarioa, horrekin estu lotuta doan arlo guztietako askatasuna, idazleak berak bere buruari ematen diona, ikusmen-talkak sortzeko joera, burmuinetik begietara eta alde-rantzizko bidaiak prestatzen dituen, hizkuntzarekiko jarrera zabal hori, naturaltasun landuaren peskizan eta ahozko literatura tradizional eta berriarekiko begirunea, gero erabat itxuraldatzeko bada ere.

Badira, beraz, mailegu horretan kontuan hartzeko gauza batzuk... Beste asko ere egongo dira; izan ere, mamiari gutxi erreparatu izan diot testu honetan, existentzialismoari, ezkererako joerari (eta haren eskuman/jarriko gara/ezkerrekoak), barru-geografie... gure ikuskeretan ezarian baina zorrotz sartu direnak seguruenik. Baina, erdiaren erdia balitz ere, gure sasoikook badugu zer eskertu; nekez eskuratzen dira gaur egun horren mailegu oparoak...



Aingeru Epaltza

Iruñea, 1960

Beti esanen dut

Ez nuen inon aurkitzen ale zahar mitikoa, Itxaropenak 64an atera zuena. Lekunberrira eraman izanen nuen, bertze liburuekin batera, han etxea erostea gogoratu zitzaigularik, eta gero hura ere kaxa bete batean ezkutatu izanen, gure esperientzia landatarrari amaiera ematera deliberatu ginelarik. Iruñeko etxe berria gure liburutegi mardulerako tikixkoa izan eta kaxen erditsuak –berrogei bat- banatu behar izan genituen amaren trastelekuaren eta amaginarrebarenearen artean. Ez nintzen harritu mende Erdiko liburua etxean ez atzemanik. Emaztearen amarenean ere alferrik ari izan nintzen bila, kaxaz kaxa. Gurearenean beharko zuen, baina murreratu ninduen kanpoan izan, Andaluziako anaiarenean. Trastelekuko giltzarik ez, nik.

Aferak konponbidea zuen. Itxaropenak ateratako edizioarenak aspaldi egina zuen. Alabaina, Susak berria plazaratu zuen 2000. urtean. Akatsik gabea, nonbait. Iruñeko euskal liburu denden sare oparoak neurria ematea baizik ez nuen falta.

Baikorra ni. Ez Elkarren ez Auzolanen ez zuten haren hondarririk. Abarzuzan ere, eskasean. Guztietan aukera eskaini zidaten, argitaletxeari eskatzeko. Ezetz. Oporraldian ginen. Hoberenean ere, irailaren erdialdea arte luzatuko zen liburua eskuratu arteko denbora. Fede handirik gabe jo nuen Katakarak-era.

Nahasmendu pizar bat eragiten didate ostatudun liburu dendek. Kafetegia jendez mukuru zegoen abuztuko arratsalde behingoz eguzkitsuan. Ate bat haratago, berriz, masak ez ziren, irakurtzeko gosez, elkarri zanpaka metatzen ari. Hedoi liburu saltzaile gaz-

harrietaherri #50

teak bezero bakarra zuen areto mortuan. Aittun mehe txapar bat salmahaiaren parean ari zitzaion eskaera jakinarazten. Ez nion erreparatuko haren aho argaletik jalgi ez balira nire izena eta nire azken liburuaren izenburua.

Idazle guztion ametsa da liburu denda bat zapaltzen dugun aldiro norbait topatzea gure liburu bat eskukatzen, haztatzen, ferakatzen eta, are amets gozoagoa, hura pagatzen eta eramaten. Paperak zilgardatzen nabilenetik, bi-hiru aldiz baizik ez zait gertatu. Barkagarria bekit, beraz, jakin-mina. Kasik jauzi egin nuen, agurearenganako tartea murriztu beharrez. Hainbertze murriztu, haren espazio pertsonala inbaditzeko gupidarik ez bainuen izan. Bertze edonor jazarria sentiaraziko zuen nire gehiegizko hurbiltasunak. Itxuraz, ohartu ere ez zen egin gizonttoa. Liburu saltzailea eskaera betetzera abiatua zen, eta agureak inguruko apaletan finkatuak zituen begiak. Nahierara begiztatu nuen, alde batetik lehenbizi, bertzetik gero. Haren jaka argi karratudun higatua gehiegizkoa zen halako arratsalde bero baterako. Pastazko be-taurreko ilun lodiek ere lekuz kanpo ematen zuten, begi ttikien gerizan, nahiz eta bati baino gehiagori boladakoak irudituko zitzaizkion. *Vintage* zorionekoaren mirariak.

Hedoi itzuli zen salmahaira. Anarteraino ez zen, nonbait, nitaz ohartu. Keinu adierazgarria egin zidan eskuan zekarren liburua erakusteko. Nik, aittunaren gibeletik, are keinu adierazgarriagoarekin ihardetsi nion, nire berri eman ez ziezaion bezero adindunari. Maite dut jendeak nire liburuak erostea, ez haiek sinatzea. Gehienetan arrunkeiak baizik ez zaizkit gogoratzen.

Hedoik nire erraietako kumea poltsa batean sartu eta agureak, eskerrak jendetasun onez emanda, liburu dendaren barrunbeetara abiatu zen “azken nobetateez” zerbait murmurikatu ondoan.

Behar baino ozenago agurtu ninduen liburu saltzaileak:

-Hara nola loditzen ari garen gaur eskubide editorialak!

Hedoi aipu oneko poeta da, hiru libururen egile. Badu idazle jendeen kezken berri.

-Ezaguna? –galdegin nuen aho-azpiz, liburu dendaren barne aldera keinu egin bidenabar.

Agureak, 10-15 metrora, liburu gizona zeukan esku artean. Ilya Ehrenburgen autobiografia zela uste dut.

-Migel Ariztia. Bezero ona, inondik ere, euskaraz nahiz erdaraz.

Haren aditzerik ez nik, hartaraino.

Nire mandatua agertu nion gazteari.

-Durangoko iazko uztakoa, ezta?

Irri apal bat jalgiarazi zidan saltzailearen zirtoak.

-Hobe duk aurkitzea. Bertzenaz, herorrek utzi beharko didak etxean segurutik daukaan alea.

Ez zen osotara broma. Han izan ezean eskean hasi beharko nintzen lagun eta ezagunen artean.

-Nekez. Gurasoenean gelditu zen.

-Non aitarenean baino hobeki, etxea defenditzen.

Egiten ahal zidan, bederen, irri baten oparia, nik istant bat lehengo bezala haren txantxa ez aise ere hobearen lepotik. Begiak ordenagailuan landaturik zituen, ordea.

-Zorioneko gaude. Ale bat gelditzen zaigu, bakarra.

harrietaherri #50

Hogei segundo geroago, nire eriek ferekatu zuten azaleko mailua-
ren irudia. Hasieratik ireki nuen, frogatu nahi iduri huraxe zela, eta
ez bertzerik, nahi nuen altxorra. Begiak berez isuri zitzaizkidan
Koldo Izagirreraren aitzinsolasera. "*Sinatuko zukeen manifestu
hau? Zer esanen ote zukeen egun bizi dugun egoeraz?...*" Bil-
tzeko paperik ez xahutzeko agindu nion Hodeiri.

Kafetegian tarte bat botatzeko asmoa nuen, pinta bete *kronen*
baten inguruan, irakurketa zaharren oroitzapena berritzen. Lekua
kaskezurretaraino betea zegoen oraino, beroaren itzuri aterpetu-
riko jendeekin. Hain justu irteerara ailegatzan ari nintzela, ohartu
nintzen mahaitxo bat husten ari zela nire bizkarrean. Ez bat ez bi
jiratu nintzen, baina ateratzen ari zirenak aitzina egiteko traba.
Hamar segundo galdu nituen horrela. Nire eskua kadira baten
bizkarrean paratu orduko, bertze lagun bat jabetua zen mahaiaz.
Arestiko aittuna nire ondotik aterea zen, noski, liburu dendatik.
Zalutasun bere adinerako harrigarria agertu zuen, ipurdia ezarrita
niretako izan behar zen tokian. Ene begiratu beltzak begi-kliskarik
ez zion aterarazi. Boza goititu zuen, ostatuko zalapartan entzuna-
razi beharrez:

-Partekatu eginen diagu, nahi baduk.

Ezustean hartu ninduen eskaintzaren doinu etxeakoak.

-Inporta ez bazaizu.

-Batere ez. Bata bestearen irakurleak gaituk, azken batez.

Xelebrea, gizonttoa. Haren irribarrea bilatu nuen, bromaren
egiaztagarri. Piperra baino serioago zegoen beti.

-Barkatu beharko nauzu. Ez dut gogoan Migel Ariztiak idatzitako
deus.

-Hara! Hedoi hitzontziak nire berri eman dik dagoeneko.

Burua niregana makurtu zuen, aitortzan iduri.

-Ez duk gogoan, inork ez duelako inoiz deus izkiriatu izen horrekin.

Neurrian, maite ditut adinekoen txorakeriak. Nire txanda ere ez dago hain urrun.

Ene lagun berriak ardoa nahi zuen, Errioxakoa. Marka onekoa eskatu nion, baina kafetegian zeukatenarekin etsi nuen. Niretako, berriz, zerbeza. "Nafar garagardoa", zioen iturriko txartelak.

Mahaira itzuli nintzelarik, nik erositako printza esku artean zuen aittunak.

-Zer eta "poesia zibila" –penatu itxuran-. Mende erdiaren ondok, ezin orri meta hau irakurri lotsagorritu barik.

Arruntean ez naute halako kontuek asaldatzen. Egun hartan, niretako hartu nuen laidoa. Hainbat minutuz, edizio zaharraz nituen oroitzapen guztiez baliatu nintzen liburuaren bertuteak aletzeko. Halako irri zuri baten itxura hasi zen nire entzulearen aurpegian moldatzen. Hastapeneko harridura sumin bilakatu zitzaidan.

-“Liburu honi esker, Bilbon kokaturiko nobela beltzak idazten dira egun” –errepikatu zuen nire azken arrazoia, modu jostari amorragarian.

-Egia da, ordea.

-Egia. *“Beti esanen dut egia”*. Bere buruaz hartua behar, hori idatzi zuenak.

Eskuin eskuak dardari egiten zion. Boz mehea loditu nahi izan zuen eta horrek izugarri desitxuratu haren ezpain artetik ateratako hotsa:

harrietaherri #50

-“Nire ahotik ezta hitzik aterako, egia eztena”. Horiek bai profeta-uste baten berbak. Orduko abade-hobiari biguin, baina sotana-dunek baino gehiago maite pulpitu.

-Halaxe nahi eta behar zuen garaiak: berritzea, apurtzea...

-Apurtzea? Gero guztian baino Bibliaren aipu gehiago baitago liburu honetan!

-Zertaz harritu? –ekarri nuen gogora-. “Axularrek eman zion Euskalerriri itzala”.

Sumatu nuen. Ez zitzaion disgustukoa izan nik ere aipua egin izana. Bertze batekin ihardetsi zidan:

-Hura, gainera, “Gorbeia mendian dago ehortzirik”.

Bat-batean, jostetan ari ginen:

-Poetari, orduan, Gorbeia joateko gutizia sortu zaio barrenean, “bertan organizaceko euskararen salbazioa...”

Itxaropenak 64an ateratakoa galdua nuen etxetik, baina ez idazlearen geroagoak, Kriseiluren edizio zaharrekoak.

-“...baina hemen geracen naiz, kale arte honetan, milagro baten zal”.

Hark bururatua zuen. Haren bisaiak haur azkar-uste batena iduri zuen, azterketako galdera zailenaren erantzuna asmatu eta gero.

-Halako ezinikusia izateko, ongi ikasia duzu haren lana.

Eztitzen ari zitzaidan haserrea, jakin-min berretuak lekua kenduta. Nire solaskideak 80 bat urte izanen zituen; bat edo bat gehiago,

beharbada. Haren esku finek eta gorputz uzkuertuak paperen artean ibilia salatzen zuten.

-Beharko ikasi.

Azalpenen baten esperoan gelditu nintzen. Ez zen halakorik etorri. Gure eleketaren hasieraz oroitu nintzen.

-Oraino ez didazu esplikatu zertaz garen bata bertzearen irakurle.

Erosketa berria berreskuratua nuen. Hark poltsatik kanpora atera zuen nire liburua.

-Izan behar huke erantzuna hire kabuz aurkitzeko gauza.

Nahasmenduak istant bat baizik ez zidan iraun. Nire irri-karkailak inguruko mahaikoen begiak bihurtarazi zituen guregana.

-Txiste polita! Nor ehortzi zuten, orduan, Derion, 1975eko ekaineko egun hartan?

-Inor ez. Zerraldo barnean bi-hiru zaku harri zeudean.

Berriz ere, ziri zantzuak bilatu nituen haren aurpegi meharrean. Auzoan zuen ziria.

-Non zinen zu, bada, Euskal Herriko *inteligentzia* zuregatik negarrez ari zen egun hartan?

-Denak negarrez ez!

Berriz ere haurra, bisaia horretan. Galdera errepikatu behar izan nion.

-Bada, denak negarrez ez baziren ere, non zinen zu?

harrietaherri #50

-Ezetz asmatu.

Keinu egin nion eskuarekin, jakin zezan segundo bat ere ez nuela galduko igarkizun ergeletan. Mahai gainean jo zuen, eri-koskorrekin:

-Hementxe. Iruñean.

Arestian baino irri-karkaila ozenagoa atera zen nire ahotik.

-Opusen klinika unibertsitarioan –gehitu zuen, dudarik egin gabe-, hil adina bizi, beste gibel baten zain.

Boza ikaragarri apaldua zuen, eta horrek egiatasuna eransten kontaerari. Pailazo plantan, bi besoak goititu nituen.

-Errenditzen naiz. Konta iezadazu.

Erran zitekeen nire erreguaren esperoan zegoela.

-Gazteek antolatu zitean dena: Natxok, Ramonek, Xabierrek, Bernardok...

-Bernardok.

Ezin nire sineste eza agerian ez utzi.

-Joseba zuan orduan. Asteasun ere ez zitean ezagutzen.

-Jakina, Asteasun ere ez.

-Bada, horiek guztiek, osasunez maldan behera nindoala ikusita, Jorgerekin berba egin zitean, eta Jorgek, berriz, Iruñeko aberats batekin. Diruduna eta haren aita Jorgeren mezenasak izanak zituanean lehenago.

-Jorge Oteizaz eta Juan Huartez ari zara?

Ergel erabatekoei gisa hartara begiratzen zaie.

-Nortaz bestela? Bai arterako bai euskal kontuetarako hoztuak zeudean huartetarrak, ETAk anaia bahitu zienetik aurreko urtean. Hala ere, Jorge ikaragarria zuan jendea bere proiektuetara erakartzen. Huartek, jakina, harremanak zitian Opusekin. Klinika unibertsitarioan lehen urratsak ematen hasiak zituan transplante kontuetan, eta amorratzen zeudean akuriak edukitzeko.

-Akuriak?

Arrailen bat irekia zen nire sinesgaiztasunean. Uste dut ohartu zela.

-Garai hartan bizirik atera nintzaien bakarretakoa izan ninduan. Hain bakarretakoa, ez baitzioten inolako publizitaterik eman kontuari.

Isildu eta jostailu baten gisara erabili zuen baso hutsa esku artean. Istant bat gabe, zutitu eta ardoa eskatu nuen berriz haren dako, niretako bertze zerbeza batekin batean. Bide bazterrean gelditutako auto bati gasolina botatzea bezainbat izan zen.

-Operazioa ekainaren 15ean egin zidatean. Orduko, gazteek egin beharreko guztiak eginak zitiztean ni Basurtutik hona ekartzeko, nire heriotzaren plantak eginda. Nola moldatu ziren? Luze joko likek dena esplikatzek...

Hitza kendu nion:

-Transplantearena konprenitzen ahal dut. Heriotza itxuratu beharra, ez.

harrieta herri #50

Goibeldu zen aittunaren bisaia. Minutu bat baino tarte luzeagoan, inguruko bezeroen kalaka, bertze hotsik ez zitzaidan belarriratu.

-Nekatua nengoan –jaulki zuen, hondarrean-. Nekatua baino are-ago, potroetaraino.

Mintzo zen begi-bistako kontua balitz bezala zeren gainean ari zen. Ez zen hain begi-bistakoa.

-Zertaz, potroetaraino? Bilboz?

Hankartean ziztatu banu ez zukeen jauzi handiagorik eginen.

-Zer Bilbo eta zer Bilbo ondo. Bilbao! Arestian isildu nauk. Orain ez: euskaraz Bilbao!

-Tira, Bilbao.

Nire amore emateak indarra eman zion. Eskua bular aldera hurbildu zuen, antzerki zaharreko aktore baten itxuran.

-*“Hemen,/ –deklamatu zuen- Bilbaoko erdal herri honetan,/ kantatzen dik ene mihinak/ idazten dik ene eskuak,/ (eta hau jatorriz ez duk euskal herria),/ (eta hemen inoiz ez zuan lege Gernikako forua)”*. Hau ere ez dago liburu honetan.

Bere papera ongi zekien agure txoroak. Eta etorria, erruz zuen.

-Ezta hau ere: *“Hemen, askotan esan dut, ez dago herri bat. / Hau da herri baten kontra alzatau eta zabaldutako hiria”*.

-Hori berdin-berdin erran liteke Iruñeaz. Gainera, zure Bilbao hori franko aldatu da azken 40 urtean.

“Zure” erranda bere jokoan sartzen ari nintzen. Ez zitzaidan axola. Irrikan nengoen jakiteko elkarriketa ero horrek zer portutara eramanez ninduen.

-1975ekoa baino euskaldunagoa duzu –segitu nuen argudiatzen-. Eta 1975ekoa baino ederragoa, inondik ere.

Agureak behako basa luzatu zidan.

-Ederragoa? –mesprexuz- Idatzia daukat nonbait: *“Hemen egunaren argia debekaturik dago”*. Orain, nahiago egunaren argia debekaturik zeudeneko denborak. Aspaldi honetan itzuli izan naitzenetan, begietan min eman izan zidak plastikozko eta titaniozko argi sasiko horrek.

Oroitzapen zaurituetatik odola balerio bezalako bisaia agertu zuen nire solaskideak. Hainbertzeraino, non susmo txarra hartu bainuen, malkotan abiatuko ote zen. Tarrapatata atxiki nuen lotu gabe utzitako hari-muturra:

-Bilbaoz ez bazen, zertaz, orduan, potroetaraino?

Hiru segundotan bereganatu zuen, berriz ere, deklamatzeko jarrrera.

-*“Eskarrik asko/ eman behar dizut,/ neure Herria/ neure Euskal/ Herri/ bihotzekoa...*

Ez zuen boza hainbat goititu, baina inguruko mahaietako isilaldi batekin batera gertatu zen. Bezero batzuei haren figura txaparra lerratu zitzaizkien begiak.

-...*neure ahalegin guztien/ pagutan/ (hainbeste neke, izerdi,/ buru-hauste,/ buruko-min,/ errierta,/ desasosegu)...*

harrietaherri #50

Goganbeharturik, irriren bat aditu nuen guregandik hurbil. Gihar bat ere ez zen higitu aittunaren bisaian.

...errendatu didazun/ sari honen/ preziatuagatik,/ ipur-zuloa izorratzen didaten/ hemorroide/ polit hauengatik”.

Txaloak burlazkoak ziren, segurantza osoa dut horretaz. Seriotan hartu zituen aittunak.

-Ez nintzen ez profeta ez igarle –bere buruaz kontent-. Eta hala ere, etorkizunean zerbait ikusten nuen, gustatzen ez zitzaidana. Ez nuen hori hurbiletik bizi nahi.

-Zer ikusten?

Oraingoan ez ninduen ustekabeen harrapatu. Zorionez, beren solasetara itzuliak ziren inguruko mahaietan.

–“Hemen oro da zilegi,/ baita euzkotar abertzaleen erotasuna ere./ Hemen inor ezta konturatzen/ ekaitz haundia/ hurbil/ dagoela...”. Hau bai, liburu honetakoa.

-Baina idazlea –“idazlea” erran nuen orain, huraka– aldaketa sozialaz ari zen poema horretan, iraultzaz-edo.

-Memelo, hik zer arraio dakik zertaz ari nintzen.

Irainak min eman zidan.

-Beste alde batetik –segitu zuen, alegia deus ez- nire egitekoa konplitu zuan. Idazle gisa neure onenak emanda nengoan, baina tropa gaztea zetorreen atzetik. Joseba, Ramon, Ibon... Han eta hemen bazeudean nahiko zantzu gure literaturari urrezko aroa zetorkiola sumatzeko. Idatzia neukaan: *“Lehen: Gazi./ Ora-in: Geza./ Gero: Gozo”.*

-Erranak erran, beti profeta.

Mendekutik franko zuen nireak. Ez zen jabetu.

-Ez uste. Josebak paper batzuk ekarri zizkidan aste batzuk lehenago. Haietan, halako zerbait irakurri berria nian: *“Eta pentsa Bonny and Clyde garela eta zu soineko gorritz;/ Irlaren bate-tara joanen ginateke, bestalde...Inon irlarik balego;/ Edo herri honetako proiektuetan murgilduko/ Utopia ausartenak ere hain zikoitzak ez balira hemen...”*.

-Hori *Etiopia*-n dago, 1978ko lana.

“Harrapatu zaitut!” eranstea. Horixe baizik ez zitzaidan falta izan.

Esku bakarrarekin jaso zuen berak erositako liburua. Nirea.

-Orrialde hauek guztiak argitaratu ziren urte berean idatzi hituen?

Arrazoi borobila zen, nornahi ahalketzeko eta isilarazteko heinekoa. Ni are gehiago pipertu ninduen. Bertze saihets bat bilatu nuen, min eman beharrez.

-Alegia, jende batzuk zuk erran nahi zenituenak zuk erranen zenituzkeen baino hagitzez hobeki erraten ari zirela jadanik.

Berriz ere zuka ari nintzaion. Aise eman zidan errefera.

-Hire ahotan tragedia ematen dik, eta alderantzizkoa duk: poza. Entzun, hau berriagoa duk-eta: *“Poeta espekulatzaila da,/ poeta eremuen birkalifikatzailea da./ Zapaltzen dituen orubeen lurrak,/ arnasten dituen eraikinetako giroak kalifikatu nahian/ hainbeste iraultzen ditul ezen bazterren iraultzailatzat jota/ baztertua den”*.

-Zure –berriz ere “zu”- *“poeta naizen ezkerol eztut zerurik espero”*-ren bertsio luzeagoa.

harrietaherri #50

-Eta batez ere gaurkotua. Norena ote?

Ez jakin. Garaipena berritu zen haren begitartean.

-Bada, hiri honetako seme batek argitaratu dik aurten. Luis Garde dik izena. Hobetu ezak hori.

Kafetegia hustuz zihoan. Barra aldean ere ez zen mugimendu handirik nabari. Gure mahaiaz landa bertze bi baizik ez zeuden okupaturik. Batean, bikote bat, neska eta mutila. Bertzean, emakume bat pare bat haur ttikirekin.

-Familia zurekin etorri zen Iruñera?

Itsu-itsuan jaurti nuen. Baita haztatu ere. Nire begiei ihesi, ezezkoa egin zuen buruarekin.

Aski izan behar zitzaidan. Bulkada gaizto batek berriz ere dantzarazi zidan mihia:

-Ados egonen zen, noski, zure erabakiarekin.

Minutu erdi batez edo ez zuen deus erran. Gero, astiki-astiki mintzatu zitzaidan, mihian debekua balu bezala:

-Haiendako 39 urte ditut hilik.

Lotsatua iduri zuen, baina, gorritu beharrean, zurixkatuak zitzaizkion masailak. Argi bat egin zitzaidan buru barnean.

-Bazen bertze arrazoi bat zuk eskapu egiteko, ezta?

Ezpainak loturik, nire liburua ireki eta orri pasaka abiatu zen, nitaz ahantzia iduri. Ez ninduen adoregabetu. Nik ere nire erosketa berraren emaitza hartu nuen esku artean, baina ni, hura ez bezala, zerbait zehatzaren bila ari nintzen.

-Nola zuen izena...? Fina? Lina?

Uste baino aiseago atzeman nuen.

-Nina, jakina. "...*Eta posible da/ noizean behin/ Ninarekin/ ohean sartzeko/ burjes/ bekatua/ kometi dezadala...*".

Nire/bere liburutik begiak goititu gabe xuxurlatu zuen:

-Ez zian Nina izena.

Orain ni nintzen garaile.

-Nola zuen?

-Papao halakoa! Benetan uste duk halakorik esango diadala?

Bikotearen mahaia genuen hurbilena. Gure aldera bihurtu ziren berriz mutilaren nahiz neskaren begiak.

-Bai, emaztea abandonatu nian, beste emakume batengatik!

Oihuak urratu beharrean jarri izanen zuen aittunaren eztarri ahula.

-Bai, hiru alabak abandonatu nitian, gazteenak 7 urte ere ez zituela!

Beldurtzen hasia nintzen odola bildu eta ezbeharren bat gertatuko ote zitzaion.

-Txikienari idatzia nioan: "*Zer iguriko dun, Nerea, ezpada/ sufrikario, min luze bat, negar sakona, / eta intzirin amairik gabeko eta urrazaille bat?*" Horrexen oparia egin nioan horrela ihes eginda.

Lasaitzera entseatu nintzen. Alferrik.

harrietaherri #50

-Dagoeneko pozik?

Haurrekin zegoen emakumeak ere sentonaren ateraldiaren errudun egiten ninduen. Ezagun zuen bere kopetilunean. Gizonttoa negarraren atarian zegoen berriz, bere betaurreko handien gibelean, eta ni alu zikin bat sentitzen ari nintzen. Desenkusa bat murmurikatu nuen. Gero bertze bat. Eta hirugarren bat ere bai. Uste baino aiseago onartu zuen hark.

-Errua neuk izan diat. Zaharren gaitza, ezin isildua.

Etorri bezala urrutiratzen ari zen ekaitza, aurtengo udako edozein arratsalde iduri. Bikoteak alde egina zuen, eta emakumea eta haurrak bide beretik ari ziren. Aittunak poltsan sartu zuen liburua.

-Trago eginen dugu berriz? –nik.

Harendako galdera meta neukan gogoan.

-Hartu ditudan biak ere sobera dituk nire gibel berri-zaharrerako –erantzun hark, zutitzearekin batera-. Nire bila zatozak, gainera.

“...el” aditu nuen kanpotik, ezin bereiziz “Migel” edo “Gabriel” izan zen. Emakume bat, hegoamerikar itxurakoa, keinuka ari ziztzaion kafetegiko kristalaz harata. Agureari baino 20 bat urte gutiago jo nizkion. Polita izana zen noizbait. Gizonak nire liburuaren poltsa altxatu zuen, agur gisa.

-Gustura irakurriko diat, aurrekoak bezala.

Ene jarlekutik ikusi nuen nola kateatzen zen emakumearen besoan, eta nola galtzen ziren biak, tipi-tapa, tipi-tapa, Karrika Nagusian barna, Takonerako norabidean.

Pauso hotsak aditu nituen nire bizkarrera.

-Ariztiarekin txutxu-mutxuka?

Hedoik giltzapetu berria zuen liburu denda.

-Txutxu-mutxuka, baita mokoka pixka bat ere.

Liburu saltzaileak zerbeza bat eta ur minerala eskatu zizkion barran jadanik hesteko gogoz egonen zen zerbitzari aspertuari. Garagardoa nire parean utzi zuen.

-Klinika Unibertsitarioko transplantearena kontatu dizu? –hark, ene ondoan jarrita.

Edaria bide zaharretik joan zitzaidan.

-Elkarrekin suertatu zareten unean pentsatu dut: “arrain ederra, Ariztiaren sareetan”.

Lan bikoitzean eman nuen hurrengo minutua: eztulka eta gaztea gorrotatzen. Noizbait galdegin ahal izan nion:

-Jende guztiari kontatzen dio?

-Gogoko duenari bakarrik.

Kontuak, bederen, alderdi onik bazuen: agureak gogoko ninduen. Erlojuari begiratu nion. Etxean berantetsiak izanen ziren jadanik. Hurrupa luze batez hustu nuen edalontzia. Galdera bakarra gelditzen zitzaidan:

-Eta? Zer deritzok haren istorioari?

Hedoik gogoeta egiten zuela iruditu zitzaidan.

-Auskalo. Batzuetan, kontu xelebreak aditzen dira liburu artean.



Toti Martínez de Lezea **Gasteiz, 1949**

Gabriel Aresti Poeta

Ohikoa izaten da gugan arrastoa sakon utzi duten pertsonen gorespenak entzutea, eta Gabriel Aresti ez da salbuespen bat; azken urte hauetan bezala ez da inoiz laudatua eta aipatua izan. Bada Arestiz hitz egiten duenik adiskide min batez hitz egiten den moduan, berarekin hitz-aspertu ederrak eta isilpeko kontuak konpartitu izan balituzte bezala eta haren beldurren, esperantzen eta sentimendu barnekoienen berri zehatza izan balute bezala. Beste batzuek, berriz, haren obra aztertzen dute begi akademikoz eta esan nahi zuenaren edo ez zuenaren interpretazio ustez egiazkoa eskaintzen digute. Bada haren ondareaz betiko topikoak errepikatzen dituenik ere. Denek goratzen dute poeta, idazlea, eta gizona, haize kontra bere ideiei irmo eutsi ziena. Zenbatek ezagutu zuten benetan ordea? Oso gutxik. Zenbatek egin zuten haren alde, lurrean sakon sustraiak botatako haritz baten tankerako sentimenduak adierazi zituenean? Are jende gutxiagok. Denbora ez da alferrik pasatzen, baina hor gelditu dira haren lanak, elkarrizketa gutxi batzuk, haren ahotsa, eta ezin konta ahal euskaltzalek haren memoriari eta lanari dioten mirespena, bizi zelarik esaten dena baino aitorten txikiagoa egin bazitzaion ere.

Izan ere, Arestik asko sufritu zuen bere garaikideen ulertu ezinagatik, bera arrotzat jotzen zutenen mesfidantzagatik, euskal –eta baita espainiar– ortodoxia linguistiko eta politikoaren zaindarien goganbeharragatik. Nik ez nuen ezagutu. Ezin dut, beraz, pertsonari buruz hitz egin, eta ez zaizkit interesatzen ez haren filiak ezta haren fobiak ere. Bere burua gogoz eraiki zuen euskaldun hura interesatzen zait, gizona interesatzen zait, ekaitzari au-

harrietaherri #50

re egin ziona eta era askotako intolerantziatzko itsasoetan barrena bere ontzia onik atera zuena, kantu inspiratuen egilea, amets editorialetan parte hartu zuen abenturazalea eta euskal kultura eta hizkuntzaren aldeko langile nekazina. Ez dizkiot prentsako artikulua irakurri ezta antzerki lanak ere, haren poesiagintzaz irakurle moduan besterik ezin dezaket hitz egin, ezin naiz barneratu literatur eztabaida semantikoetan. Erudituentzat uzten dut hori. Nik ezin dut.

Euskaraz bi hitz elkarren segidan irakurtzeko gauza izan nintzeneko jakin nuen bazela Gabriel Aresti izeneko idazle bat, eta berehala eskuetaratu zidaten *Harri eta Herri* poema liburua. Adiskide baten oparia izan zen. Adiskide hark esaten zidan gure aitona-amonen hizkuntza galdua berreskuratzeko biderik hoberenetakoa zela poemak irakurtzea eta abestiak ikastea. Hiztegi baten laguntzaz irakurri nituen bertso-lerro haiek Alkizan. Gipuzkoako herri txiki hartara “exiliatu” nintzen hilabete batzuk, neure borondatez, lapurtu zizkidaten sustraiak kosta ahala kosta berreskuratzeko ahaleginez. Behin eta berriro irakurri nituen poemak harik eta buruz ikasi nituen arte. Egun haietan, Benito Lertxundiren lehen disko grabatua entzuten nuen. Batak eta besteak, Lertxundik eta Arestik, jarri zioten musika eta letra gure herri honen parte sentitzeko nire gogoari. Ordura arte, sorterriari lotzen ninduen lotura bakarra izan nuen, alde batetik, gurasoen ikuspegi erromantiko, mindu eta ezkutukoa, eta bestetik, Barandiaran, Azkue edo Barojaren gatzelaniazko obrak. Gasteizen ez baitzen, frankismoaren urte gogorretan, hitz bakar bat ere entzuten euskaraz, eta ez zegoen aukera txikienik ere ikasteko, euskal usaina zuen edozer galarazita zegoen erabat. Euskal Herriko beste edozein herritatik fabriketara lanera iritsitako euskaldunak ere erdaraz mintzo ziren, garai hartako zapalkuntza politiko kulturalaren beldur. Ezagutu zuenak ez beste inork ezin imajina dezake nola zen hura. Hortik datorrit arrakalarik eta pitzadurarik gabeko miresmena pertsona haiekiko, gure hizkuntza zaharra ikasi baitzuten, berena egiteraino, eta gauza izan baitziren hizkuntza horretan lan egiteko, beren burua adierazteko, herri zahar honenganako

maitasuna eta kezka idatziz paperera iraultzeko. Gabriel Arestik, Xabier Kintanak edo Txillardegik lortu zuten; beste batzuk, berri, bide erdian gelditu ginen. Haiak lortu bazuten, zergatik zuk ez? Erreprotxe hori entzuten dut maiz etxe euskaldun batean hazi direnen ahoetan, inguru euskalduna izan dutenen, edo familia erdaldun batean jaio arren, euskaraz hezi direnen ahoetan. Euskal prentsara edo liburuetarako bidea zabalik izan dute, irratia entzun dute, telebista edo zinema ikusi dute euskaraz. Posible zela sinetsi zuten hainbat pertsonari esker, beren gurasoek eta aitona-amonek baino errazago izan dute. Errespetua eta esker ona merezi dute, beraz, garai ilunenetan zuziari eutsi ziotenek. Beharra ikusi zuten gure hizkuntza argira eramateko, ikasi zuten haize kontra, idatzi zuten, irakatsi zuten eta beraientzat berreskuratu ez ezik gure eskuetan jarri zuten.

Gabriel Arestik gazte-gaztetatik oso garbi izan zuen bere sorkuntzaren mundua euskararen bidez loratzekoa zela, *Harri eta Herriren* bere ideia ezin zela adierazi beste hizkuntza batean, hitzek hots bera aurkitzen ez dutelako, eta lortu egin zuen; aitaren eta amaren etxea defenditu zuen zekien modurik hoberenean, XIX. mendean aingura botata zegoen literatura kostunbrista eta erromantiko bati bere inspirazioa erantsiz. Baina beste zerbait ere egin zuen Arestik: haren haurtzaro eta gaztaroan euskal identitatea zapaldua zegoen, egurrez hebaindua, eraila eta kartzelan sartua, Gabrielelek beste hainbat intelektualekin batera –ez asko, dena esan behar bada– parte zuzena hartu zuen identitate hori jasotzeko prozesuan. Eta prozesu horretan, euskaltzale askoren jarrerak ere lagundu zuen: muga pasatzen genuen Labeguerieren diskoak Charles Aznavour-enen zorroetan ezkatututa ekartzeko edo liburu debekatuak erosteko; pastoralak ikustera joaten ginen, bertso lehiaketetara ere bai, hitzik ulertzen ez bagenuen ere, eta baita ardi txakurren edo gazta lehiaketetara ere; ahal zuenak ahal zuena jartzen zuen erdi sasi artean zeuden ikastolei irauten laguntzeko; Mairulegorretako leize-zuloetara joaten ginen edo Ez Dok Amairuren kontzertuetara, adibide batzuk jartzearen, gure kultur identitate arpilatua nork bere erara gordetzeko

eta berpizteko. "Txoria kaiolan", hara hor garai hartako kantua eta *leitmotiva*. Horrekin deskribatzen da ondoen orduko egoera. Gure egarria kantu bidez asetzen genuen, edo zentsuraren langa gainditzea lortzen zuten liburuak irakurriz bestela. Mendebalean gerraren eta zapalkuntzaren kontra eta langileen eta herrien eskubideen alde deiadar egiten zen garaia zen hura, eta gure sorteri txiki baina handi hau bihotza erdiraturik zalantzan zebilen erresistentzia pasiboaren eta borroka armatuaren artean, eta horrela ibili gara nire hirurogeita bost urtetik berrogeita hamabostean, eta Arestiren kasuan, hil arte ez zuen besterik ezagutu.

Testuinguru horretan, iruditzen zait zaila dela urte haiek bizi izan ez zituztenek ez Arestiren poesia ez Aresti bera ere ulertzea. Ez naiz metrikaz ari, ez jakintsuen iritzian jaso zituen kanpo eraginez edo eragin politikoez; ari naiz hitzei jariatzen zaizkien sentimenduez, ari naiz barruko borroka pertsonalaz, kontraesanez, asmoez, ametsez eta ameskeriez, lilurez, ari naiz sortzaile baten lana era batera eta ez bestera osatzera bultzatzen duten elementuez. Oinazea dago poetaren bertso-lerroetan, arrangura bere herriaren-gatik, bere sustraiengatik, kexa bere garaikideek erakusten zioten ulertu ezinagatik, sumina dago langileriaren-gatik, gizakiek bizi dituzten justiziarik gabeko eta desberdintasuneko egoerengatik, eta gai horietan mugarik ez dago. Baina esperantza ere badago bertso-lerro horietan, eta maitasun handia familiarenganako, eta ez bakarrik etxepe berean bizi denarentzat, baita klanarenganako eta tribuarenganako ere. Maitasun gero eta handiagoa, utopiarren lekua heldutasunak hartzen duen neurrian.

Alferrikako lana da Arestik sinesten zuenaz, nahi zuenaz edo pentsatzen zuenaz hitz egitea, gure herriaren orduko egoera politikoa kontuan hartzen ez badugu, alegia garailearen inposizio ideologikoa onartzen ez zuen edonoren kontrako jazarpena gertatzen zela, edo hura bazela, halaber, galtzaileen isilpeko jarrera hartzea. Gure gurasoen belaunaldiak eta dagoeneko adinean sarturik bizi garenonak esperientzia traumatikoa bizi izan genuen, eta oraindik ere haren arrastoak ez dira ezabatu; aldaketa sozial

bat zetorrelako euforiatik etsipenera edo isiltasunera igaro ginen nolanahi ere, odol kutsuko gerra bat tarteko. Ez genuen hitz egiten gertatu zen “gauza hartaz”, ez nabarmentzea izaten genuen aholku nagusia, eta etxeko sukalde batzuetan pertsianak jaitsita baino ez zen herrimaren eta esperantzaren sua pizten, auzoek ezer entzungo ote zuten beldurra gainera kendu ezinik. Markatuta jaio ginen gerraurrean, gerran edo gerraoste hurbilean jaio ginen guztiok, batzuen beldurrak, besteen txalo-hotsak, zernahi dela ere guztion bake nahiak markatuta. Giro hartan sortu ziren Gabriel Aresti bezalako pertsonak, euskal kultura berpiztearen bide malkartsuari ekin ziotenak. Zerk eraman ote zuen euskara gazte-gaztetatik ikastera ez dakit. Beharbada, aitona-amona euskaldunak zituelako, aitaren kontrako jarrera naturalak, desadostasunak itotzen zituen frankismoaren gerrikoak, gaztetasunak dakarren berezko errebeldiak, nork daki, baina batere zalantzarik ez dago berak hizkuntza horretan aurkitu zuela bere ahotsa adierazteko bidea, buru argitsu batzuek, baita euskal herritarrek ere, balio folklorikoa besterik aurkitzen ez zioten hizkuntza horretan. Bestalde, oinarrizko justiziaren aldeko borrokan, kultura propioaren erreibindikazioan diharduen pertsona bati ez zaizkio arrotz egiten bestelako jakintzak eta bestelako giza eskubideak ere. Normala da, beraz, beste asko bezala, Aresti ere gizakien arteko berdintasunaren aldeko ideia global batek erakarria izatea, eta sentimendu horrek bere obran ere isla izatea. Nahigabe bat baino gehiago ekarri zion horrek gainera. Inor ez omen da bere herrian profeta, eta hori hala gertatzen da mugitzen zaren zirkulu handi edo txikitik irteten bazara.

Ez dakit zein izango zen, duela ia berrogei urte hil izan ez balitz, Arestiren gaur egungo jarrera politiko, sozial edo emoziozkoa; ez zait inporta gainera, lehenago ere esan dut. Haren poemek orain berrogeita hamar urte sortzen zidaten sentimendu bera sortzen jarraitzen dute nigan, eta bereziki horietako batzuek; atsegin dut pentsatuz bere buruari leial izaten jarraituko zukeela gaur egun biziko balitz, eta pena hartzen dut ikusiz haren destinoak ez ziola asti luzeagorik eman.

harrietaherri #50

Hilko gara eta ahaztuak izango gara, baina badira bakan batzuk, Gabriel Aresti bezala, gure memorian jarraituko dutenak. Ez dira asko izaten.



Miren Agur Meabe

Lekeitio, Bizkaia, 1962

Lau ohar denboraren
orratzetan

Ezagun dugu Arestiren meritua gure imaginario kolektiboa sortzeko orduan. “Egia” esatera etorritako poetak historiarekin eta antropologiarekin uztartutako sinboloak eguneratu zituen –izan harria, etxea edo mailua– eta bide-urratzaile gertatu zen beste batzuentzat bidegabekeriaren kontrako asmo handian. Itun Zaharreko profetei bezala, mandatu bat errebelatu zitzaizen –injustiziak, boterearen lagunak eta errealtateari bizkar emanda estilo-jolasetan galtzen zirenak salatzea– eta onartu egin zuten.

Geroago, idazle gazteagoek, enkargu horri muzin egingo zioten arren, frankismoaren hondarretan huraxe gertatu zen boligrafoari tinta zuzena ateratzeko modua. Jaio berria zen kontzientziak iratzarriko zituen poesia, hain poesia erabatekoa, non egia bat esateagatik poetak sufrutuko zukeen baita alabak hiltzea eta emaztea bortxatzea ere. Hiperbole sinbolikoa da esakune hori, zintzotasuna beste ezeren gainetik jartzekoa den gizon ozarraren dema, baina traba egin dit beti, agian emakumea naizelako edota epika handien zalea ere ez naizelako. (Guzman el Buenoren kondairaren kutsua hartzen diot, Tarifaren defentsan setiatzaileei saskatua berak jaurti zienekoa, atxilo zeukaten haren seme gaztea hil zezaten, berak ez zuela-eta gotorlekua errendituko).

Arestiren testugintzak gure oroimen eta praktika literarioan sustrai sendoak bota dituela ospatzeko sasoi honetan, haren lerro batzuk aipatuko ditut neure bizitzarekin alde edo moldez duten zerikusia aintzat hartuta. Lau asterisko antzeko dira, Arestiren irakurketak neure denboraren orratzetan sorrarazten dizkidan oin-ohar partikularrak.

Lehen oharra: Antiojudun gizonaren begirakunea

Umeak ginela, Gabriel Arestik betertzetik so egiten zigun *Lengua Española* liburuko argazki zuri-beltzetik. Liburuz beteriko apal baten aurrean ageri zen, lepoa pixka bat jiratuta eta begirada tinko, “zer nahi duzue?” edo “noren bila zatozte?” galdetuz bezala. Letra hispanikoen adibideen artean ematen zuen testuliburuak, Rosalia de Castro eta Salvador Espriurekin batera, eta hiruron poemak genituen irakurgai, ele bitan, gaztelaniazko idazle handien ondoren, azken partean, txikiago, arrotzago.

Egia esanda, nire ume-begiei erakargarriago egin zitzaizkien Arestiren jaka koadroduna baino Rosaliaren ile-mototsa eta so-lapadun lebita; eta, idazkeraren aldetik ere, musikalitate gardednagoa eta iruditeria finagoa topatu nituen galziarraren errimetan. Halandaze, norbera lehenbiziko zirriborroak egiteko trantzean egonda, norabait begiratu behar, eta bigarrena hartu nuen eredutzat, ibaiak, ilunabarrak, agurrak eta min-hasperenak barra-barra neureganatuz.

Rosaliarekiko atxikimendu pertsonala gogora ekarrita, Arestik ere bazion begirunea, bere karta-joko literarioan “Txangako bas-toa” eskaini izanak erakusten duenez: “Errosalia Castrok enamoratua / Bere buruarekin egin du tratua / Higuinduko duela eremu ingrata / Madrileko doanatik han ateratua / Padroneratua / Justizi-hartua / Ez bateratua / Ez separatua / Europatasunaren ate zarratua”. Rosalia, galziaz letren ama, eta Gabriela Mistral 1945eko Nobel sariduna hautatu zituen emakume bakarrak, ia galduta baina ez hutsaren hurrengo karta sortako gainerako hogeita hamazortzien artean: Poe, Kafka, Rilke, Shaw, Mirande eta abar aberats bat.

Horiek horrela, eta testuliburura bueltatuz, *Nire izena* poemak bazeukan zerbait aztoragarria, batez ere “Pérez y López. Mar-molistas. Derio” hartan. Abizen horretako hilarri-egilerik izan den ala ez gutxi axola zaigu, baina zer diren kasualitateak, Interneten

agertzen da, antzinako liburuen katalogo batean, Antonio Xavier Pérez y López bat, 1781ean tratatu bat idatzi zuena zertaz eta legezko ohoreaz eta desohoreaz. Anekdotak polita, jakinik zenbaterako garrantzia zuen ondreak Arestiren poetikan.

Eskola nazionallean, 70eko hasieretan, usainik ere ez nion hartu gure literaturaren mugari bihurtzen ari zen poetaren mezuari, eta are gutxiago igarri zer oihartzun zeukan ordurako ikuspuntu sozial eta politikotik, edota gerora izango zuena garaiarekin uztartzera etorritako poetika berri baten abiapuntua izateagatik.

Akorduan daukat nire atzeko mahaian jesartzen zen neskak esan zuela: “Poesia hau txarto eskribiduta dago, euskeriak ez dauko c-rik eta...”. Eta albokoak erantzun ziola ahapeka: “Ez dakizu euskeraz eskribidutia prohibiduta dagoela ala? Igual horrexegaitik ipini behar izan dau holan...”. Inozentzia bedeinkatua geurea. Orrialdea pasatu, eta aurrera.

Bigarren oharra: Ahizpei esan beharreko errekadua eta enarak

Nerabezaroan deskubritu nuen Arestiren beste aurpegi bat iruditu zitzaidana Nerea alabari eskainitako poeman. Konplizitatez eskatzen zion “Hire ahizpei esaien, hik txikia...”. Neskatoak ahizpei eman beharreko errekadua tristea izan arren –zergatik ez zegoen ogirik etxean, nola bizi ziren esperantzarik gabeko gizon doilor diru-goseak, eta ogia bai, baina apirila edo aitaren ondra ez direla erosten–, zetazko boza eta erretenaren murmurioa askoz maitekorrago egin zitzaizkidan bizargile hordiaren koinata maingua baino.

Urte haietan bazen Lekeitio *Sustraia* aldizkaria, gaur egungo herri-aldizkariaren aitzindarietako bat, gazte batzuen artean osorik mekanografiatu, fotokopiatu, orriz orri gratatu eta hilean behin

kaleratzen genuena, guztion partaidetza errimea ez bazen ere. Jendeak gogoz erosten zuen, euskaraz izateak askatasun kolorea ematen ziolako, besteak beste. Hala behar zuen. Arestik ere, etorkizuna marraztean, alabari esana zion “egunen batean libertateak ere zoparekin kantatuko zuela euskaraz”, eta aurreikusten zuen Gernikako arbola –orduko “gaur” hartan inork ezagutzen ez zuen hilotza– goiko adarreraino beteko zela fruituz.

Idazlearen heriotzaren aurreneko urteurrenetako batean, zuzendari-lanak egiten zituen lagunak poema pare bat ekarri zuen aldizkarian sartzeko. Nork atera nahi zizkion begiak Ogeiako enarari? Halaxe, behinola, zentral nuklearren aurkako manifestazioaren hotsak kalean entzun, eta neu ere, latineko ariketak mahai gainean utzita, kalera jaitsi nintzen erradioaktibitatearen aurkako pegatina ipinita. Afalorduan, baina, osabak errieta egin zidan, aldizkaria eskuan astintzen zuela: “Zer ipini duzue hemen? Iberdueroren akzioak saldu? Diru hori madarikatuta dagoela?...”. Hortz artean erantzun nion, nerabearen errebeldia sanoarekin: “Ez tapatu gizonaren ahoa...”. Gaur izan balitz, (auto)zuzenketaren praktikan trebatuago, antzera baina erabat diferente erantzungo niokeen: “Ez tapatu emakumearen ahoa...”.

Hirugarren oharra: Basurtuko pikukak

Arestik herri-moldean eginikoen artetik, bertso-printza hauek esmatzen ditut bereziki: “Melitxu Basurtuko / Piko meladua / Mesperu ustel gozoa / Sagar eztsua / Laster izango zaraz / Neugaz ezkondua / Neure bizi lekua / Ezta komentua”. Dakigunez, Meli eta Gabriel Basurtun bizi izan ziren ezkonberritan, eta poetak Jon Basurtu ezizenarekin sinatu zituen lan batzuk.

Zergatik ote ditudan gogoko lerro horiek? Sarritan galdetu diodalako neure buruari zenbat aldiz begiratuko ote zion alargunak senarraren argazkiari urte mordo honetan, eta ea samurtu edo

ernegatu egiten ote den aldizka-aldizka berpizten dioten itzalarekin, berriz elkarrizketan aritu behar izateagatik.

Baina ez horregatik bakarrik, neure genealogiako pasadizo honekin dituen loturagatik baino: 1920ko hamarkadan Mendexako arotz gazte bat Bilbora joan zen neska bati segika. Maiteminetan hasita zeuden, eta neskatoa kriada zebilen hiriburuan. Laster, mutilak eta Euskalduna ontziolako beste behargin batzuek, Zorrotzako portuan lagun eginda –Anton eta Gilenen antzera–, egitasmo ia pentsaezin bat gauzatu zuten: etxebizitzaren kooperatiba bat eraikitzea kanpoaldeko lursail batzuetan. Halaxe sortu zen Basurtuko Santa Ana etxaldea, ia-ia talaia bat zena, ikuspegia Punta Galearaino iristen zen eta.

Etxe politak ziren, solairu bikoak, patio eta guztikoak, bertan oilo eta untxi banaka batzuk eduki eta baserri sunda galdu bari bizitzeko modukoak. Berrogeita hamasei familia kokatu ziren 1932an, inaugurazio-urtean, eta urtebetera jaio zen auzoan lehen neskatxoa, 1933ko ekainaren 5ean. Abandoko San Bizente elizan bataiatu zuten (Aresti urte bereko urrian bataiatuko zuten toki berean), eta Ana Maria izena eman zioten, auzoaren omenez, nahiz eta etxe koentzat Ane izan zen beti, neure ama.

Amak txantxetan esaten zuen bera bilbotarra zela, Basurtukoa, nahiz eta laster, gure aitita langabezian geratu zelarrik, Lekeition hartuko zuten bizilekua. Nik neuk, Arestiren koplak zatitxo hori neure amarentzako modukoa sentitzen dut neurri batean. Kasualitateei tira egitea gustatzen zait.

Tira ba. Tira eta tira, orain Meli, gero Ane... beti paratuko naiz Basurtuko pikuen alde.

Laugarren oharra: Nire aitaren etxea

Aita aurten hil da. Arestiren heriotzak, diktaduraren amaierarekin bat, euskal literaturaren aldikada bat itxi zuen bezala, aitarenak nire bizitzaren epe bat itxiko du. Gertaera horrek neure heriotzarantz hurbiltzen nauen arren, amen jesus.

Gurasoen agurrak zeregin domestikoen soka ekartzen duelarik, horretan jardun dut hain zuzen ere, aitaren etxeari errepasoa ematen. Lehenagokoek, gerraosteko ezunea ezagutu zutelakodedo, dena gordetzeko joera zuten, badaezpada: trapu zaharrek ere balio izaten dute arraina fresko edukitzeko.

Gordetzeko modukoekin nahastean, gauza piloa dago sobera: enbarazu egiten zidatenak, gogaikarriak zaizkidanak, gustu txarrekoak, botatzen sekula ausartu ez naizenak jabea hantxe zelako oraindik.

Inesek lagundu dit miaketa-lanetan, urtebetez aitaren zaintzaile aritu den emakumeak. Dio Inesek sentimentalegia naizela, itsatsi egiten zaizkidala zerak eskuetan (nola ez du hori pentsatuko, orain dela zazpi urte familia Txilen utzi bazuen hona etortzeko). Kontatu dit garbitzen hasi ginen egunean, nik alde egin eta gero, gauza xelebrea jazo zitzaiola. Gauean, lotan zegoela, zartako bat entzun zuela pasilloan, eta esan ziola bere buruari: "Ene bada! Etxejauna protestaka etxea hankaz gora jarri diogulako!". Ikaratuta, isil-isilik joan zela ateraino, eta hantxe deskubritu zuela beste mundutik bidalitako seinale akustikoaren kausantea: erratz bat, sarreran jausita. "Zer eta erratza prezisamente..." pentsatu dut, superstizio tanta batek eragindako zirrara menderatu nahian. Eta Inesek barreka: "Mamurik ez dago, señora Miren!". Eta nik: "Baina itzalak bai, Inesita".

Txatarreroa etorri eta trasteak paretik kendu dituenean, arnasa hartu dut. Aitaren etxeak ez dit balio den-denean. Ez dut tretxu zaharrik nahi. Hortaz, aitaren etxea hustea, aitaren etxea uztea,

aitaren etxea ixtea... dena da bat, paronimia esanguratsua. Zutik iraungo du, hori gorabehera. Ageda martiriak bezala, solomo dultzea (muskuiluak tomatetan) ipintzen nion domekero. Bihotza, ordea, ezin da ez debalde eskatu, ez eman.

Ez zaizkit antiojoak busti. Amarik ez daukat erre kara erori naizela pentsatuko duenik. Baten batek ikusten banau iluntzean melamela eginda, pentsa dezala Isuntzatic natorrela bainua hartuta, aitaren etxea garbitzen botatako izerdiak kendu eta gero, maldan gora, haritzak airean utzitako gomendioa airean datorrela: "Sendaluzea har ezazu, begira gabe atzera, zure gogoa, ezta, gajoa, itzuliko eremura".



Kirmen Uribe

Ondarroa, Bizkaia, 1970

Elur mataza haur bakartiaren aurpegian

Gomutan dut izebak internazionala euskaraz idatzita zeukan esku-papera etxera ekarri zueneko arratsalde ainubea. Ume izanagatik ondo gogoan dut, haurtzaroko oroitzapen lauso baina sendo horietako bat da, oroimenean iltzatua geratu den unea, urtu behar zela ematen zuen argi leun hari eta eguraldi umelari lotua. Lau senide ginen etxean, eta gurasoez gain familiaren alde bietako izeba eta osaba ezkongaiak ere gurekin bizi ziren, zortzi laguneko bizitokia. Kontserba lantegian egiten zuen beharra izebak, ordezkari sindikala ere izan zen urte askoan eta lanetik zetorrenean arrain egosiaren usain sarkorra ekartzen zuen etxera. Hats huraxe da umezaroko beste gomuta irmo bat, ez zen usaina arropetatik berehalaxe joaten, ezta garbigailuan ikuzi eta eskegitza zeudela ere. Usain huraxe zen bere besarkada goxoen lurrina. Bada, eta internazionala euskaraz ikusi nueneko egun hartaz ari naizela, kontent kontatu zigun izebak azkenik ere bazegoela euskaraz jarria munduko langileen ereserkia eta, gainera, Gabriel Aresti poeta handiak egin zuela itzulpena. Arrats hartan bertan banatu bide zituzten orriok erdi ezkutuan kale-agerraldian. Berehalaxe ikasi genuen etxeko umeok himnoaren euskarazko aldea, automobiler txangoan gindoazela ozen eta pozik kantatzen baikenuen, beste edozein haur-kantaren emozio berarekin, politikak hain markatu zuen gure haurtasuneko giro solido hartan. Eta gauza solidoez ari naizela, W. G. Sebalden Robert Walserrin buruz idatzitako gorazarrean dio gaitza dela oso idazle suitzarren aztarnarik aurkitzea gaur egun, ezabatuta daudela haren oinatzak; bizi ez zuela izan jabetzarik, gero eta bakartiagoa bilakatu zela familia eta lagun artean eta, beraz, berari buruzko oroitzapenak ere zehaztugabeak direla. Walserrekin ez zuen liburu-

tegi propiorik, ez zuen libururik gordetzen, berak idatzitakoak ezta ere, haiek irakurtzearekin nahikoa zuen, irakurri eta ahaztu. Idazteko zerabilen papera ere bigarren eskukoa zen. Sebaldek jaso duenez, orobat, Walserrek irudipena zuen beti-beti nobela bera ari zela idazten edo, hobeto esan, begitantzen zitzaion nobela beraren zatiak baino ez zirela bere literatur lan guztiak: “lehenengo pertsonan idatzitako liburua da nirea, era desberdinetan ebaki edo zatitua”, Walser beraren berbetan. Bere lanean, protagonista ez da garrantzitsua, desagertu egiten da berak baino garrantzia handiagoa hartzen doazen pertsonaia eta paisaietan baitan. Dena den, badiot, Walserren aburua idazle denei dago kiela neurri batean, irizten baitiot ia denok idazten dugula behin eta berriz liburu bera, aurretik izkiriaturako liburu bakoitza eta denak huts egindako egitasmoak izango balira bezala. Ondorioz, aierua dugu hutsetik hasten garela eleberri berri bati ekiten diogun aldiro, halako batean, noizbait bititza bere osotasunean jasoko duen nobela idatziko dugun itxaropen handinahi eta ezdeusarekin. Gabriel Arestiren egintzan ere nabari da halako osotasun bat, bere lan guztiek liburutzar bakar bat taxutuko balute bezala. Gauzak horrela, *Maldan behera* hastapeneko saio simbolista hartan dagoeneko nabari da Arestiren barru-barruko boza. Eta ahots horrek gero eta tankera handiagoa hartuko du bere lanen bilakaeran, poesia sozialaren garaian, batez ere. Nago, Edward W. Saidekin, heldutasuneko lanetan idazlea bere horretan agertzen dela, esan nahi baita, idazleak mozorrorik jartzan ez duenean sortzen direla literatur lanik borobilenak. Idazleak ez dio beldurrik bere buruari, ezta bere-berea den estiloa azaltzeari. Zalantzarik gabe, nor bere buruaren izurik ez izatea da sormenerako baldintzarik behinena. Trebakuntza urteak izaten dira idazlearen hasierakoak, non ohikoak eta beharrezkoak baitira literatur ereduen imitazioak, eta idazlearen eskua baldarra izaten da artean, ez baitaki bere burmuineko melodiak trebezia eta lasai interpretatzen. Baina urte, edo liburu, batzuen buruan eta zuhurra baldin bada, idazleak soilik berea den ahotsa lortuko du azkenik, hala ahotsa nola begirada. Hargatik, *Harri eta herri*, *Euskal harria* eta *Harrizko herri hau* lanen zikloan nabarmentzen da

garbien nirekiko Arestiren idazkeraren indarra eta joritasuna. Tamalez, ez dakigu zer jaioko zitzaion burura berrogeialdia hasi berri zendu ez balitz, idazle baten ibilbide oparoena bizitzako sasoi hartan hasten baita sarri askotan. Maiz aipatzen da sinbolismora itzuliko zela poesian, T.S. Elioten itzulpena aitzakia hartuta, ala/EDO prosan emango zituela geroztik bere ahalegin handienak; nork jakin. Goiz hil zitzaigun poeta eta, damurik, gure belaunaldiak ez du Aresti bizian ezagutu. Idazlearen ezaguera izan badugu baina ez pertsonarena eta Franko hil baino pixka bat lehenago zendu zen olerkaria bere figuragatik ezagutu genuen lehendabizi; bere idatziengatik jakin genuen haren berri baina, halaber, bere irudi publikoarekin sortu zen mitoa zela eta. Mito txikia, gure herriaren neurrikoa, baina mitoa haatik. Aresti izan zen guretzat oso-osoko lehen idazlea. Jakina bazeudela etxeko apalategietan bestelako euskarazko autoreen liburuak, hantxe zeuden besteak beste Agirre, Lizardi eta Lauaxetarenak; ikastolan ere eman ziguten beste egile batzuen berri, hala eta guztiz ere, Gabrielen itzala zuen euskal idazlerik ez zen. Bere ezkertiarasuna eta laizismoa, euskararen inguruan egin zituen lan guztiak, euskara gure tradizioetik at ezagutarazteko ahalegin gehienetan alferrak, hori dena ere bazen guretzat Aresti, bere lan idatziez haraindi. Zer esan ugari ematen zuen gizona zen, aldekoak eta kontrakoak nonahi zituena. Niri hura maitatzen irakatsi zidaten etxean. Konpromisoaz mintzo gara sarri Aresti gizontzat hartzen dugunean, dena den, beste engaiamendu mota bat ekarri nahiko nuke hona, gure hizkuntza komunitatearekiko konpromisoa, hain zuzen ere. Bazekien berak paper bat ari zela jokatzeko gure gizarte ñimiñoan, euskal idazlearen rola zen egokitu zitzaiona eta eginkizun hori artez betetzeari ez zion egundo muzinik egingo. Aresti ez zen soilik Gabriel, euskal idazlea zen, garai hartan euskal idazlerik ezagunena gurean eta erbestean, eta berak eutsi egin zion rol zail hari bere bizitzan, gure hizkuntzari itxura ematen baitzion bere pertsonak. Ardura horri eutsi zion beti, neke handi eta poz txikiekin, agidanean. Ez zen xamurra izango Gabriel pertsona eta Aresti pertsonaiaren arteko alde horri ahalik eta era koherenteenean eustea, jakinik euskara bezalako hizkuntza gutxi-

tu eta txikitu batek edozein aukera baliatu behar duela bere burua duin azaltzeko ahal duen toki guztietan, horrek sortzen duen kontraesan andanarekin. Bera izan zen lehena horretaz ohartzen. Anjel Valdesek behin baino gehiagotan esan dit erakundeen babesa edo forma izan ez duten herriek kantuen bitartez igaro izan dutela oroimena belaunaldiz belaunaldi, kantuek eutsarazi diotela herri izateari. Arestik bazekien zein zen kantua ahalmena eta bere lanak ere kantu tankeran iritsi zitzaizkigun, zuzen-zuzenean belarrira. Kulturzalea izanagatik herrikoitasuna laket zuen, bat eginik horretan Bernat Etxepare gure letren aitzindariarekin. Bere buruaz mintzo zen Etxepare hura, Arnaud Oihenart aberaskumeak hain erraz larrutzen zuen idazle baikorra, marketsa izanagatik herriak biziki maite zuen olerkari kantatua. Automobilean entzunda, Mikel Laboak edo Oskorrik musikatutako Arestiren hitzek itaunak sortzen zituzten gure garun heldugabeetan. Eta zirrara horien artean, aitor dut betirako sartu zitzaidala barruko erraietaraino "Adela" izeneko kantako detaile poetiko hau: "Azken agurra erran deraunagunean / gogorrenari ere pausatu zaion / elur-maluta bat / begiaren ertzean". Hori abesten zuelarik Natxo de Felipek nire baitan irudikatzen nuen elur maluta hotza begiaren ertzean, urtzen ari zen elur mataza, negar malko bilakatuz; elur gaziaren zaporea hartzen nuen nire ezpainenetan. Kanta hori entzunaz batera jakin genuen, izebaren ahotik hau ere, abestiko protagonista hil egin zela abortatzearen, debekatua zegoelako orduan haurdunaldia etetea, eta orobat jakin genuen euskaldun askok urte haietan ez genituela gai horiek behar bezala ulertzen, ez genuela uste abortatzea eskubidea ere zenik, itxiegiak ginela horretan, beste gauza askotan legez. Kanta hori entzunaz batera aditzen genituen etxean, sukaldeko mahai azpian jolasten ari ginela edo, ez entzunarena eginez, etxeko emakumeak berbetan, nola bidaiatu behar izan zuen halakok edo bestelakok, edo haiek beraiek, Londres puntara ebakuntza egitera, eskubide hori erabat legez kanpokoa zelako hemen, artean. Oskorriren kantuez ari naizela, gaizki ulertu bat gogorarazi nahiko nuke, batzuetan akatsak irudimenarentzat bide ere izan baitaitezke. Oskorrirentzat idatzitako letren artean gustura eta gogo biziz kantatzen ge-

nuen bat “Guretzat” izenekoa zen: “guretzat berdin dira astea eta jaia, / lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia. / Har ditzagun eskuan giltza eta laia, / gariz eta burdinaz lantzeko Bizkaia”. Bada, “giltza eta laia” esan beharrean “ihintza eta laia” esaten nuen nik ahogozoan eta ozen, halaxe ulertu zutelako nire belarri kaskarrek. Urte asko beranduago jakin nuen “ihintza” horrek ez zuela toki handirik hura bezalako kantu militante batean, eta “giltza” zela, ezinbestean, fabriketako langileen tresna. Gaur egun, luzaroko lotsak albo batera utzita, erabat poetikoa iruditzen zait entzumen akats hura. Ez al dugu “ihintza” eta “laia” abegikorragoa izango den mundua gure artera aldatzeko. Umezaroan horrela uste nuen, behinik behin. Gabriel Arestik berak behin baino gehiagotan ekarri zuen gogora haurtzaroko pasadizo bat, Artxandako patatena. Nola sosen batzuk aurkitu zituen kalean eta otu zitzaion gauzarik onena etxerako patatak erostea izango zela, non eta Artxandan. Gose garaiak ziren haiek. Etxera bueltan datorrela, udaletxe parean, aguazil batek patatok lapurtutakoak direla pentsa eta kendu egingo dizkio. Boterearen bidegabekeria jasanezina begitandu zitzaion Arestiri aguazilaren jarrera, eta amorru horixe bera izango zuen aurrerantzean bere poemetarako hazi. Halaz guztiz, eta pentsatzen jarrita, niri neuri pataten hori baino argigarriagoa iruditzen zait Arestiren haurtzaroko beste pasarte bat, anaia Juan Marik mintzagai zuena, alegia. Gabriel txikitan bakartia zela zioen Juan Marik, eta umeren batek burla egiten zionean bazter batera joaten zela mutila bakar bakarrik negar egitera. Ez al da horixe bera idazleok idazmahaietan gaudenean egiten duguna, munduko penak sentitu, geuk bakarrik negar egin eta malkoak paperean ele bihurtu? Meli Esteban Arestiren emazteak aitortu du, hil aurreko urteetan, idazlea bazebilela nobela bat idazteko asmoekin. Munduaren aniztasuna kontatzeko, beharbada, laburregi egin zitzaion poesia, ñabardura guztiak jaso nahiak piztuko zion apika eleberri bat idazteko grina. Orhan Pamuk idazle turkiarrak esan du nobela denek badutela beren “erdigune sekretua”, eta irakurleak erdigune hori bilatzen duela orriz orri irakurtzen ari delarik. Bizitzari buruzko zeinu argi baten atzetik ibiltzea da, azkenean, irakurtzea. Horrela, irakurleak bere burua hobeto ezagutuko du,

nahiz eta gehienetan ez duen erdietsiko. Berdin da hein batean, izan ere, nobela bat irakurtzeak sortzen duen ilusio hori da muntzakoena, jakitea beharbada zure bizitza zertxobait aldatuko dela azken orrialdera iristen zarenean, beste norbait izango zarela liburua amaitu eta gero. Vladimir Nabokovek zioen eleberriek badutela hasierako bulkada bat, ezkutuko bihotz baten moduan taupada egiten duena lan guztian zehar eta irakurle azkarraren lana dela hastapeneko bulkada hori idorotzea. Diot nik, patatekin haserretu zen mutil koskorra baino gehiago bakarrik negar egiten zuen umea izango zela Arestiren eleberriaren erdigune sekretua. Bere poema sozialetako ahots irmoaren atzean mutiko negarti hura baitago, eta eskerrak, bestela ez luke mundua eta munduan bizi diren pertsonak berdin ikusiko, hain manera hurreko eta gizatiarrean. Nahiz eta zalantzarik ez izan Blas de Otero eta Gabriel Celayaren eragina baduela Arestiren poesiak, bere ni poetikoak ez du haren bozekin zerikusirik, Arestik ez duelako haien hautu estetikoak egiten, apaindurarik gabekoa baita Arestiren ahotsa, askoz biluziagoa, garbiagoa eta beraz, modernoagoa. Gainera, ez da ahaztu behar bertsolaritzatik ikasi zuen umore eta ironiarako joera hori, esate baterako, “bertan akabatu da / ez delako txori”, dioenean elizan sartu den asto errukarriari buruz. Azpian bizi duen ume sentikor eta bihurriak babesten eta salbatzen du Arestiren ahots irmoa. Baina ez hori bakarrik, euskarak berak ere markatu egiten dio idazteko modua, poeta euskaldunak gainontzekoen eran sentitzen du, nola ez, baina euskara lako hizkuntza deseraiki batean aritzeak beste min bat gaineratzen dio olerkari euskaldunaren estetikari. Afroamerikar baten maneran sentitze-ko afroamerikar izan behar duzu, eta era berean, euskaldunaren begirada izateko euskararen uretan sartu. Eako herrian bisitan, Arestiren azken egunak gordetzen dituen kostaldeko hegi kristalezkoan, duela ez asko, portu zaharreko hondartzara gerturatu ginen. Neska-mutil koskorak begira-begira geratu zitzaizkigun, paisaia eder hura gure presentziarekin mugiarazi bagenu bezala. Marea beheara zegoen eta horrelakoetan Ean ezin da txaluparik atera kaitik, itxaron behar dute gordean marea igo arte, ura dagoenean ez beste nabiga dezaketelako batelek. Idazleonean ibilbi-

dean ere marea beheko aldiak izaten direlakoan nago eta, zortetik bada, marea gorakoak. Sasoi batzuetan gure lanek ez dute harrera onik izaten, ematen du guk idatzitako ezerk ez duela aterabiderik. Beste batzuetan, aitzitik, lanak erraz iristen dira irakurleengana, inolako oztoporik gabe eta hizkuntzaren mugak ere gaintitzen dituzte. Alta, beranduegi ere izaten da sarritan. Uste dut Arestiren kasuan horrela izan dela hein handi batean, goizegi hil zela eta gu ere estuegiak ginela bere lana eta jarrera bere neurrian ulertu eta barneratzeko. Robert Walsarren liburuek ere berandu izan zuten marea gorako aldia. W. G. Sebaldék dio Walserrekin ez ziela utzi gauza handirik ondorengoei, ez zuela zer laga; arestian esan bezala, liburutegirik ez zuela eta idazteko papera bigarren eskukoa zerabilela. Gure Aresti ere txiro hil zen, ez dut uste ondasun material askorik utzi zienik bere ondorengoei, hizkuntza bizi bat laga zigun euskaldunoi, hori bai, eta ez da gutxi. Apala izan zen ulertzeko mende batzuk aurretik bera lako munto bat ibili zela euskaraz idazten eta bera ez zela horiek baino gehiago; eta atzetik zetozenei ere, Ramon Saizarbitoria eta Bernardo Atxagari kasu, erakutsi zien kalitatezko literatura dela euskararen etorkizunari hobekien doakion jantzia. Eta edergarriei buruz nabilela, pasadizo bat amaitzeko: Anjel Zelaietari irakurri diot Gabriel Arestiri buruz idatzi zuen biografian, Euskaltzaindiko Erriberako egoitza Bilboko olerkariak lan egiten zuen lantegitik ateratako oholekin zaharberritu zela, dotore-dotore geratu zirela euskarren gordeleku ziren gelak, poetak bere beharretik lortutako oholzarrekin. Gu Arestiren ohol sendo horien gainean kolorezko klarionez margotzen ari garen haurrak baino ez gara.

harri eta herri

edizio hau

Bilbon

inprimatu da

2014ko abenduan

harrietaherri #50

Artikulu Bilduma

- Ibon ARESO
- Miren Josune ARIZTONDO
- Bernardo ATXAGA
- Harkaitz CANO
- Unai ELORRIAGA
- Aingeru EPALTZA
- Xabier KINTANA
- Karmelo LANDA
- Anjel LERTXUNDI
- Toti MARTINEZ de LEZEA
- Miren Agur MEABE
- Txomin PEILLEN
- Xabier SAGREDO
- Ana Maria TOLEDO
- Joan Mari TORREALDAI
- Kirmen URIBE
- Arantza URRETABIZKAIA
- Andres URRUTIA
- Angel ZELAIETA



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



GABRIEL ARESTI
KULTURA ELKARTEA

Laguntzaileak:



Bizkaiko Foru Alkuntzia
Diputación Foral de Bizkaia



bbk²

ISBN 978-84-943211-0-8



9 788494 321108